



*Generoari eta
Ekintza
Positiboko
Politikei buruzko
Nazioarteko
I. I. Batzarra*



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

II. TOMOA

Generoari eta

Ekintza

Positiboko

Politikari

buruzko

Nazioarteko

J. J. Batzarra

EMAKUNDE/

Emakumearen Euskal Erakundea

Gasteiz 1999

IZENBURUA: "Generoari eta Ekintza Positiboko Politikei buruzko Nazioarteko II. Batzarra
EGILEA: EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier kalea, 36.
01005 Vitoria-Gasteiz

**MAKETATZAILEA ETA
KOORDINATZAILEA:** Ana Rincón
DATA: Uztaila, 1999
ALE ZENBAKIA: 500
DESKRIBATZAILEAK: Berdintasunerako politikak, simposioak
IRUDI DISEINUA: Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
ILUSTRATZAILEA: M^o José Gamboa
FOTOMEKANIKA: Esda Fotocomposición. Hurtado de Amézaga, 27. 48.008 Bilbao
INPRIMAKETA: Industrias Gráficas Marcal, S.A. Enrique Eguren, 3. 48.012. Bilbao
ISBN (Lan osoa): 84-87595-75-8
ISBN (II. Tomoa): 84-87595-77-4
LEGEA GORDAILUA: BI-1752-99

GENEROARI ETA EKINTZA POSITIBOKO POLITIKEI BURUZKO NAZIOARTEKO II.BATZARRAREN EGITARAUA

1998KO EKAINAREN 10, 11, 12A
Miramar Jauregia, Donostia-San Sebastián

Ekainak 10

Helburua Ekintza Positiborako politika publikoen erreferentzi esparrua ezartzea.

Goizeko saioa
09,00-09,30o. Dokumentazioaren banaketa.

09,30-10,00o. Hasiera
José Antonio Ardanza Garro jn. txit garaia
Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
Txaro Arteaga Ansa and. txit prestua
Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.

Koordinatzailea:
Itziar Fernandez Mendizabal and. txit prestua
Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

10,00-11,00o. **"Politika publikoen nazioarteko ikuspegia, Pekingo
Deklarazioaren eta Ekintza Plataformaren esparruan"**
Gertrude Mongella andrea
Emakumeei buruzko Munduko IV. Batzarreko idazkari nagusia.
Kristen Timothy andrea
ONUko Emakumearen Aurrerapenerako Saileko zuzendari atxikia.

Elkarriketa

11,00-11,30o. Atsedenaldia

11,30-13,00o. **"Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako politikak
Europar. Filosofia eta Helburuak".**
Olöf Olafsdottir andrea
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Batzorde Zuzentzailearen
idazkari nagusia. Europako Kontseilua.
Soledad Blanco Mangudo andrea
Europako Batzordeko V. Zuzendaritza Nagusiaren ordezkaria.

Elkarriketa

-
- 13,00-14,30o. **“Esparru Juridikoa: Aplikagarritasun prozedurak Ekintza Positiboarekin lotuta”**
- Eliane Vogel-Polsky andrea
Europako Kontseiluko eta Europako Batzordeko aditua. Bruselako Unibertsitate Librea.
- Javier Balza Aguilera jauna
Arabide Juridikoko idazkaria. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetza.
- Elkarrizketa
- Arratsaldeko saioa
- Koordinatzailea:
M^a Jesús Conde Zabala and. txit prestua
Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Landiketzaren zuzendaria. Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza.
- 15,30-17,00o. **“Esparru Ekonomikoa: Europako Batasuna, Maastricht-eko Ituna, Amsterdam-eko Itunaren aldaketak”**
- M^a José Aubet Semmler andrea
“Colectivo de Mujeres Divergentes”. Bartzelona
- M^a Carmen Gallastegi Zulaika andrea
Azterketa Ekonomikoaren Oinarriak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Elkarrizketa
- 17,00-18,30o. **“Baloreen bilakaera Berdintasunari dagokionez. Europar Hiritartasuna”.**
- Marysa Navarro Aranguren andrea
Dostmouth-eko Unibertsitatea. Estatu Batuak.
- Edurne Uriarte Bengoetxea andrea
Politika eta Administrazio Zientziak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Elkarrizketa
- 20,00o. Harrera Donostiako Udaletxean. Poesia emanaldia.

Ekainak 11

Helburua Esparru bakoitzeko politika publikoen eskuhartze estrategiak eta gaur egungo joerak aztertzea, nazio desberdinetako esperientziak ebaluatuz.

Goizeko saioa Aldi bereko panelak

09,00-11,30o.

Esparru Juridikoa

Koordinatzailea:

Elisabete Bizkarralegorra Otazua andrea
Abokatua. Bilboko Udala.

Txosten egileak:

Mertxe Agundez Basterra andrea
Arartekoaren ondokoa.

Felipe Gómez Isa jauna

“Pedro Arrupe” Giza Eskubideen Institutua. Deustuko Unibertsitatea.

M^a Isabel Rofes i Pujol andrea

Europako Elkarreketako Justizi Auzitegia.

Hezkuntza

Koordinatzailea:

M^a José Urruzola Zabalza andrea
Hezkidetzako aholkularia. Deustuko PAT.

Txosten egileak:

Georgia Henningsen andrea
Europako Batzordeko XXII. Zuzendaritza Nagusiko ordezkaria.

Begoña Salas García andrea

Hezkidetzan eta irakasleen prestakuntzan aditua.

Osasuna

Koordinatzailea:

Garbiñe Sarriugarte Irigoien andrea
Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

Txosten egileak:

Elizabeth Lagerlöf andrea

Lanaren bidezko Osasun arloko Hezkuntza eta Prestakuntzan aurreratzeko Europako Iparraldeko Institutuko zuzendaria. Finlandia.

M^º Luz Esteban Galarza andrea

Gizarte Lana Saila. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

11,30-12,00o. Atsedena

12,00-14,30o.

Lan Merkatua

Lan produktiboaren eta erreproduktiboaren banaketa

Koordinatzailea:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Txosten egileak:

Socorro Álvarez Fernández andrea

Enplegu arduradura. Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea.

Arantza Rodríguez Álvarez andrea

Ekonomia Aplikatua Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Komunikabideak eta Publizitatea

Koordinatzailea:

Arantza Zugasti Arizmendi andrea

Kazetaria eta generoaren arloan aditua.

Txosten egileak:

Natividad Abril Vargas andrea

Kazetaritza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Blanca Muñoz López andrea

Humanitateak, Politika Zientziak eta Soziologia Saila. Carlos III Unibertsitatea. Madril.

Bazterketa Soziala: Mugak

Koordinatzailea:

Patxi López Cabello jauna

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritzza.

Txosten egileak:

Blanca Fernández Viguera andrea

IPES (Gizarte Ikerlanak sustatzeko Institutua).

Arratsaldeko
saioa

“Adiskidetze-egintza: esparru pertsonala, familiakoa eta profesionala”

Koordinatzailea:

Begoña Arregi Gorospe andrea

Soziologia II. Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.

15,30-17,00o.

“Ongizate eta Zerbitzu Soziokomunitarioen Estatua”

M^a Jesús Agirre Uribe andrea

Gizarte Ongizateko diputatua. Arabako Foru Aldundia.

“Ipar Europako herrietan behar berezidun pertsoneri zuzendutako laguntzarako zerbitzu sozio-komunitarioen egoeraren ikuspegia”

Ignasi Vila Mendiburu jauna

Gironako Unibertsitateko irakaslea. Psikologia fakultatea.

Elkarrizketa

17,00-17,30o.

Atsedena

17,30-19,00o.

“Pribatasuna etxeko korrespontsabilitaterako bidea”

Soledad Murillo de la Vega andrea

Soziologia Saila. Salamancako Unibertsitatea.

“Lan ordaindua eta ez ordaindua etorkizunean”

M^a Ángeles Durán Heras andrea

Demografia Institutua. Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusia.

Elkarrizketa

Ekainak 12

Helburua

Ebaluazioa

Esperientzien trukaketa Ekintza Positiborako politiken ebaluazioan: metodologia, adierazleak, aplikaziorako zailtasunak, emaitzak.

Goizeko saioa

Koordinatzailea:

Pilar Pérez Fuentes andrea

Historia Garaikidea Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea.

9,30-11,30o.

"Kategoria eta erakusle sozialak"

Judith Astelarra Bonomí andrea

Politika Zientziak eta Soziologia Saila. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.

"Esperientzia Komunitarioak"

Soledad Blanco Mangudo andrea

Emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako unitateburua.

V. Zuzendaritza Nagusiko ordezkaria. Europako Batzordea.

"Esperientziak Estatuan"

Concepción Dancausa Treviño andrea

Emakumearen Institutuko zuzendaria.

Joaquima Alemany i Roca andrea

Kataluniako Emakumearen Institutuko zuzendaria.

"Esperientzia Euskadin"

Ana Alberdi Zubia andrea

Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Azterlan, Plangintza eta Dokumentazioko arduraduna.

Maite Erro Jauregi andrea

Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Soziala Saila.

11,30-12o.

Elkarrizketa

12-12,30o.

Atsedena

Helburua Emakumeen presentzia erabaki hartzeko unean, partaidetza politikoan, lobby-en bidez eta gizarte mugimenduetan.

“Erabaki hartzeko unetan emakumeen sarbiderako estrategiak”

12,30-14o. *Esparru Ideologikoa*
Isel Rivero y Méndez andrea
Espainian ONUk duen Informazio Zentroko zuzendaria.
Robin Evonne Morgan andrea
Nazioarteko aholkularia genero gaietan.

Elkarrizketa

Arratsaldeko
Saioa

15-17,30o. *Esparru Instituzionala*
Francisca Bennasar Tous andrea
Europako Parlamentuko Emakumeen Eskubideen Batzordeko lehendakariordea.
Cristina Alberdi Alonso andrea
Diputatua eta Gizarte Gaietarako ministro ohia.
Talde parlamentarioen ordezkariak. Eusko Legabiltzarra:
Belén Greaves andrea. PNV
Teresa Rodríguez Barahona andrea. PSEE
Katty Gutiérrez andrea. IU-EB
María Carrera andrea. EA

17,30-18,30o. *Gizarte mugimenduak*
M^a Ángeles Ruiz-Tagle Morales andrea
Emakumeen europar Lobby-aren espainiar lehendakaria.
Nieves Pérez Alonso andrea
Euskadiko Emakumeen Elkartearen Batzorde Aholku-emailearen ordezkaria.

18,30o. Amaiera
M^a Carmen Garmendia and. txit prestua
Eusko Jaurlaritzako bozeramailea eta Kultura Sailburua.

AURKIBIDEA

ESPARRU JURIDIKOA	13
Mertxe Agundez Basterra	15
Felipe Gómez Isa	27
M ^o Isabel Rofes i Pujol	47
HEZKUNTZA	81
Georgia Henningsen	83
Begoña Salas García	90
OSASUNA	99
Elizabeth Lagerlöf	101
M ^o Luz Esteban Galarza	112
LAN MERKATUA. LAN PRODUKTIBOAREN ETA ERREPRODUKTIBOAREN BANAKETA	135
Socorro Álvarez Fernández	137
Arantza Rodríguez Álvarez	148
KOMUNIKABIDEAK ETA PUBLIZITATEA	179
Natividad Abril Vargas	181
Blanca Muñoz López	196
BAZTERKETA SOZIALA: MUGAK	211
Blanca Fernández Viguera	213

MERTXE AGUNDEZ BASTERRA

Arartekoaren ondokoa

FELIPE GÓMEZ ISA

"Pedro Arrupe" Giza
Eskubideen Institutua.
Deustuko Unibertsitatea

M^{re} ISABEL ROFES I PUJOL

Europako Elkarteetako Justizi
Auzitegia

Esparru
juridikoa

Lehenik eta behin, Emakundeko arduradunei ene zorion beroenak eman, topatze honen aukera emateagatik, eta zoriondu ere antolatzen parte hartu duten guztiei, Generoari eta Ekintza Positiboko politikari buruzko Nazioarteko II. Batzarrean bil gaitzen posible egin baitute. Ponentzia honetan parte hartzeko eman zaidan gonbitea eskertu nahi dut, bai neure izenean eta bai erakundearenean ere. Arartekoaren erakunde bermatzailearen eskarmentuan oinarrituriko ekarpena egiten saiatuko natzaizue.

1.

Emakumezkoen eskubideak

Giza Eskubide gisa

1998ko urte honetan, Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrena ospatzera goazenean, ezin galdetzeari utz, ea emakumeen eskubideak, Giza eskubideak izanik, behar bezala bermaturik eta babesturik ote dauden.

Bi mende igaro dira, 1791. urtean, Frantziar Iraultzaren testuinguruan, Olympe de Gouges-ek "Emakumeen Eskubideen Aldarrikapena" idatzi zuenetik.

Bertan legearen aurretiko eta bizitza publiko eta pribatuko edozein egoeraren aurrean berdintasunaren eskaria egiten zuen. Arauen alorrera eraman nahi zuen, emakumeek absolutismoaren aurka lehen lehen lerroetan borroka eginez irabazi berri zutena. Frantziar iraultzaileek bi urte lehenago Gizonaren eta Hiritarraren Eskubideen Aldarrikapena zuten egina, baina orduko horretan emakumeak ahanzi egin zituzten.

Garai hartako testuinguruan, non eskubide eta askatasun kontzeptuak biziki erabiliak baitziren, emakumeek ere eskatzen zuten beren lekua gizarte berri hartan.

1792.an dibortzio-legea botatu zen, non emakumeak gizonen maila berean jarriak ziren, pertsona askeen maila lortuz. Alabaina lege honek ez zuen luzaz iraun. 1793an Olympe de Gouges gillotinatzen hil egin zuten eta emakumeei edonolako ekintza politikoa debekatu egin zitzaion.

Amerikar lehen kolonien eskubideen aldarrikapenek, eta batez ere 1789ko Gizonen eta Hiritarren Eskubideen Aldarrikapenak, Europa osoan zabaldu zuten giza eskubideen teoria nazio esparruaz harat joanez, kontinente osoan eragiteko.

Historian lehen aldiz eskaintzen zitzaion gizakiari, boterearen aurrean exiji zitezkeen berme juridiko erga omnes zirenak, giza duintasunaren funts eta oinarri izan zitezten.

Ondoren, gizakien duintasunaren eta haien eskubideen unibertsaltasunaren baloreetan sakontzeak ekarriko du eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak agertzea.

Bilakaera honen adierazgarri, nazioarteko biltzarrak antolatzen hasten dira, giza eskubideei buruz 1993an Vienan; biztanleriari buruz 1994ean Kairon; gizarte-garapenari buruz 1995ean Kopenhagen eta emakumei buruz 1995eko irailan, Pekinen.

Vienako Biltzarrean bertan onartu zen emakumeen eta nesken eskubideak Giza eskubideen barruan zirela eta halatan babestu eta bermatuak behar zirela izan. Bestalde, Pekingo Munduko IV Biltzarrak bere egiten du "Emakumeen aurkako edozein bereizketa Ezabatzeko Hitzarmena", eta

Nairobi-n etorkizunera begira emakumeek aurrera egin dezaten prestatutako estrategietara lotzen da.

Pekin-en aurrerapauso koalitatiboa eman zen, aurreko Mundu Biltzarrekin konparatuz. Emakumeen berdintasuna eta gizartearen alor guztietara sartu ahal izatea ez da emakumeen arazo soilik, baizik eta gizarte osoari dagokion gauza. Generoaren ikuspuntua politika orotan sartu beharra dago.

2. *Legeen bilakaera: printzipio nagusien etengabeko bilakaera*

Eskubideen lehen aldarrikapenetan agertzen ziren printzipio nagusien etengabeko zehazte eta gartzeko testuinguru honetan interesgarri gerta daiteke legeen bilakaera laburki ikustea, hala estatu mailan nola nazioartekoan.

2.1.

NAZIOARTEKO EREMUA

Emakumeentzat hiritartasuna eta partehartze politikoa lortzea izan da, bai Espainian eta baita Europan ere, bide luze eta malkartsua.

Europar Batasunak, hastapenetatik beraietatik, berdintasunaren oinarriak ezarri ditu eta arteztarau garrantzitsuak eman ditu horretarako. Tratu-berdintasunaren printzipioa, Erromako Itunaren xedapen bakarrean biltzen zena —119. art., hain zuzen ere, lan berdinetarako ordainsari berdinari buruzkoa—, berdintasuna sustatzeko neurrien programa zabala bihurtu da.

Prozesu honetan, bereizkeria zuzenaren kontzeptuaren aplikazioak ez du arazorik sortu. Aitzitik, zeharkako bereizkeriak gertatzen direneko egoerak zehaztea zailagoa gertatu da: Izan ere, ez Itunaren 119. artikulua, ez eta berdintasunaren gaineko arteztarauak ere, ez dute argi zehazten, zeri deitu behar zaion ezkutuko bereizkeria. Justizia Auzitegiak (EEJA) hartu du bere kargu kontzeptu hori finkatzen joatearen lana. Sexuagatiko zeharkako bereizkeria aztertu zen lehen aldiz 1981. urtean, Jenkins izeneko kasuan, baina ez zen gauzatu urte batzuk geroago sona handikoa izan zen Bilka kasua arte. (170/84, Bilka -1986- ECR 1607). Auzitegiak erabaki zuen, lanaldi murriztean ari ziren emakumeei pentsio-erregimen osagarria ez emateak 119. artikulua aurka zihoala, gizonezkoengan baino emakumezkoengan baitzuen eragin askoz handiagoa. Erabaki honi ekiditeko Bilka enpresak frogatu beharke zukeen alde batera uztea sexu-bereizkeriarekin zirikurik ez zuten faktore objektiboaren gainean eginga zela.

Epai honetatik atera daiteke zeharkako bereizkeria dagoela baldin eta itxuraz neutro, hau da bi sexuei berdina aplika dakiekeena, den irizpide baten erabilerak sexu batekoei egiten badie bereziki kalte, nahiz eta bestekoei on ez egin.

Hau da, nahiz eta 119. artikulua ez dakarren tratu-berdintasuneko irizpide orokorrik, eragin erabakiorra izan du eta dauka, berdintasunari buruzko Erkidegoaren legegintzan, eta hortaz baita

ere nazioetako legegitzan, EEJA-k modu zabalean interpretatu baitu artikulua hori. Zeharkako bereizkeriaren kontzeptua onartu izanak garrantzi handia dauka, geure gizartean ditugun bereizkeriazko jardunak ezkutuan diren faktoreen ondorio izaten baitira.

Batzordeak Kontseiluari eta Europar Parlamentuari 1995eko azaroaren 22an eginiko komunikazioan (COM (95) 567 bukaera), izan ere "Europar Batasuna eta giza eskubideen politikaren kanpoko alderdiak; Erromatik Maastricht-era eta aurrerantz" izen duenak agertzen du emakumeen oinarritzko eskubideak giza eskubide unibertsalen parte besterenezin eta zatiezina direla. Komunikazioak bere egin nahi ditu Pekingo deliberamenduak eta emakumea gizartearen parte hartzaile aktibotzat hartu.

Hilabete geroago, Europar Batasuneko Lan eta Gizarte Gaietarako Kontseilariak gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasunerako Erkidegoaren IV Ekintza Programa (1966-2000) onartu zuen.

2.2.

ESTATUAREN EREMUA

Esan daiteke, beraz, tratu-berdintasunaren printzipioa Erkidegoaren zuzenbidearen oinarrietako bat dela, bai eta partaide diren Estatuaren ordenamendu juridikoena ere. Espainiaren kasuan 1978ko Konstituzioa aldaketa puntua izan zen, gaur egun jadanik lortua den berdintasun juridikora iristeko bidea irekitzeko, legeen berritzeari ekinaz.

Konstituzioaren 1. artikulua definitzen du berdintasuna, ordenamendu juridikoaren balore gorenen artean, eta 14. artikulua zehazten du sexuagatiko bereizte tratuaren debekua, eta 9.2 artikulua ezartzen die botere publikoei, pertsona guztien artean benetako berdintasuna gertatzearen alde lan egin beharra. (Honako betebeharrak hau Euskadiko Autonomia Estatuaren 9.2 artikulua ere dakar).

Alor honetan eginiko lege-aldaketak aipatzearekin etortzen zaigu gogora emakumeek, beren eskubide eta askatasun oinarritzkoak lortzeko ibili behar izan duten bide luzea. Dena dela, ordenamendu juridikoaren alor desberdinak ikus ditzagun:

2.2.1.

KONSTITUZIO OSTEKO LEGEAK

Argi da emakumeek jasaten dituzten bereizkeria gehienak familian sortzen direla, gizarteak generoaren arabera gizon eta emakumei ezarri dizkien zeregin desberdinen ondorioz. Halatan bada, **Zuzenbide zibila** aipatu beharra dugu. Eta ikusten dugu, 1889ko Kodeak, ia mende batez indarrean izan zenak, emakumeak beren bizitza osoan adin-txikikotzat hartuak izatera baztertzen zituela. 25 urtez behetiko emakume ezkongabeek ezin zuten familiaren bizilekua baimenik gabe utzi, ezkontzeko ez bazen edota erlijioso-orden batean sartzeko ez bazen. Ezkonduko emakumeek berriz, senarraren esanetara behar zuten izan, eta honek zituen legalki ordezkaten eta haien diruak gobernatzen, hala irabazpidezko ondasunak nola emakumearenak berarenak zirenak ere. Emakumeak ezin auzi batean bere kabuz agertu, ez eta irabazizko edota kostu bidez-

ko ondasunak eskuratu. Etxera zokoratua, etxeko lanen ardua eman zitzaion, bai eta haurren zaintza eta heziketa, baina ardua hori ordea, ez zitzaion erabakitzeko ahalmenari lotua eman, senarrarentzat gorde baitzen seme-alaben gaineko guraso-agintea.

Bananduz gero, legez etxea senarrarena nola zen, emazteak etxetik atera behar izaten zuten, buru makur, erropa, etxeko tresnak eta ume txikiak aldean eramanez. Epaia, senarra errudun zela erabakitzen zuenean ere, ez ziren gauzak aldatzen, aitzak seme-alabak galduko zituzten, baina halere emazteak bere ondasun bereak ere gobernatzeko eskubidea galtzen zuten, senarraren eskuetan gelditzen baitzen. Emakumeak janarietarako beste eskubiderik ez zuten izango.

1975eko erreforma arte ez zen senar-baimena desagertu, eta legeak esanda ere ezkontzak ez duela ezkontideen obratze ahalmena murrizten, senarrak seme-alaben gaineko guraso-agintea gordeko du, bai eta irabazpidezko ondasunetaz baliatzeko ahalmena.

Emakumeentzako egoera gogor hauek izan dira orain arte, gizartearen antolakuntzaren oinarria, eta kolektibitatearen ohitura eta jardunetan eragin handia izan dute. Oraindik ere aurki ditzakegu, izatez emakumea gizarte-desabantaila handian deneko egoerak.

Demokrazia lortu eta berdintasun formala aldarrikatuz gero hasten dira, familiako zuzenbidean ziren bereizkeriak ezabatze behar ziren lege-aldaketak. 1981eko legeek, hala nola guraso-agintea eta ezkontza erregimen ekonomikoari buruzkoak, eta dibortzioaren lege deitu ohi denak, aldaketa nabariak ekartzen dituzte senitarteko harremanetan, betiere Konstituzioak ezkontzarako ere agintzen zuten gizon eta emakumearen arteko berdintasuna ezartzearen. Legeak maiz bizitzaren atzetik joan ohi dira, baina Konstituzioak, ezkontideen arteko berdintasuna aldarrikatu zuenean, gizartearen ohituren aurretik jarri zen.

Ondoren, beste zenbait lege ere sortuko dira, hasitako erreformaren osagarri gisa. Bat aipatzeko tan aipa dezagun 11/1990 Legea, nazionalitate eta auzotasunaren gaineko zenbait agindu aldatzen dituen. Legegileak, Konstituzioak hamabi urte daramatzala indarrean eta halere oraindik dirautela dio arauaren hitzurrean, sexuagatiko bereizkeriak, eta Konstituzioaren berdintasun-printzipioaren garapena hobetu egin behar dela.

Aurrerago ikusiko dugun moduan, lege hauek tratuan alderik egiten ez duten arren, bereizkeria bere baitan duten egoerak arautzen dituzte, eta gizarte diskriminatzaile horretan hezitu eta bizi diren epaileek aplikatzen dituzte. Horrexegatik, hain zuzen ere, ezkontz-harremanetatik sorturiko gatazkak konpontzeko eskumena auzitegi zibilei eman zitzaientetik, bai emakume abokatuen estatu mailako kongresuek, bai eta emakumeen elkarteek ere, behin eta berriz eskatu dugu, epaileen formakuntzak kontuan har ditzala balio demokratiko berriak.

Zuzenbide Penalaren alorrean ere izan du pentsamoldearen aldaketak eragin handia. Ez dezagun ahantz orain dela urte gutxi legez penalak ez ziola zigorrik ematen, emaztea desleial izan zitzaioela eta berau hiltzen zuten senarrari, edota trantsizio politikoa izanagatik ere, demokraziaren lehen urteetan epaileek atzera botatzen zituztela banatzeko eskaerak, emazteari emaniko tratu txarrak ez zituztelako banatzeko aski arrazoitzat hartzen. Gertaera bakan batek ez omen zuten eta beharrezko errepikatze eta iraupena erakusten. Etxea senarraren jabea zen eta halatan frogak ezin bilduzkoak ziren eta emaztea babesgabe gelditzen zen. Familia mantenduko bazen,

emakumearen kontura mantenduko zen, honek ezin baitzuen bere burua babestu, ez eta arrisku fisikoa arean ere.

Emakumeen gaineko gizartearen kontrola adulterioa bezalako delituetan agertzen zaigu, haien-tzat bakarrik pentsatua baitzen delitu hau, gizonari ohaidetzeagatik bakarrik ematen baitzitzaien zigorra.

Konstituzioa indarrean jartzearekin, legezko oztopoak desagertzen joaten dira eta emakumea pertsona aske eta arduraduntzat hartua da. Gertaera gogoangarrien artean aipa ditzagun adulterioaren eta antisorgailuen despenalizazioak, 1978. urtean. Era berean, 9/1985 Lege Organikoaren bitartez, abortatzea egoera batzuetan ez da gehiago krimena. Kapitulu hau ez dugu oraindik bukatua.

1989ko erreforma aurrerapauso handia izan zen emakumeen babes penalarri dagokionean. Esate baterako, familia barruko ohiko indarkerien delitua ezarri zen, nahiz eta eragin eskaseko moduan ezarri zen. Guztiarekin ere, aldaketa nabarmenena gertatu zen sexu-askatasunaren aurkako delituetan, lehen aldiz zehazten delarik babeserako helburu hori eta ez "emakumearen onestasuna". Dena den, 1995eko Kode Penal berriari itxaron beharko da, babes penalean berdintasunerantzko urrats berria gerta dadin. Lege penal berriak kritikak merezi baditu ere, ongi arautuak iruditzen zaizkit, sexu-askatasunari buruzko delituak, zeinetan erasoaren moduari begiratzen zaion nabarmenki, zigor handiago emanez indarkeria edota larderia erabiltzen badira, edo modu bereziki zakar edo laidogarriak erabiltzen direnean. Delitu berriak sortu dituzte ere, hala nola laneko bereizkeria eta sexu-jazarpena.

Penalki debekaturiko portaera honek lan-zuzenbidearen alorrera garamatza, bereizkeriaren aurkako babesak eremu honetan zeregin nabaria baitu, bereizkeriaren gertakari sozialak enpleguan eragiten duelako. 76ko Lan-harremanetarako Legeak ezkontsaria desagertzen joan zedila erabaki zuenetik, Euskadiko Lan Harremanetarako Kontseiluak 1997ko ekainean emakumearen laneko berdintasunaren gaineko Aldarrikapena egin zuen arte, aldaketa nabariak gertatu dira gure herrialde honetan, bai legeen aldetik, bai gizartearen ere.

Langileen estatutuak eta ondoren egin zitzaizkion aldaketek, emakumearen laneko berdintasuna sustatzeko neurriak hartu zituzten. Halatan bada, Laneko Prozedurako Legeak frogaren karga alderantziz ezartzea agindu zuen, 96. artikuluan dioelarik "baldin eta auzi-jartzailearen arrazoibideetatik ateratzen bada sexuagatiko bereizketa izan daitekeeneko seinaleak badirela, demandatuari behartuko zaio, hartutako neurriak arrazoi objektibo eta ongi frogatuan oinarritzen direla eta egokiak direla erakustera".

Bestalde, 3/89 Legeak Langileen Estatutua aldatu zuen, amatasun-baimena 16 astetara hedatuz. Aldi berean, lege honek kontuan hartu zituen Emakumeen Institutuak prestatuturiko Ekintza Plana eta honek, lana gurasotasunarekin bateragarri egiteko proposamenak. Halatan bada, gauza berri bezala zekarren, bi ezkontideek lan egiten zutenean, emakumeak aukera lezakeela baimenaren azken lau asteen eskubidea aitari uztea.

Edoskitzerako baimenei eta ume txikiak zaindu ahal izateko lanpostua utzi eta gordetzeari buruzko beste aldaketak ere berritzaileak ziren, baimena bi gurasoei eskaintzen baitzitzaien. Honek

guztiak bestelako planteamentua agertzen zuen, zeren eta lehen, umeak zaindu eta hezteko emakumeen kargura baitzen. Ez da ahaztu behar, halere, legea aplikatu zeneko lehen urteetan oso gizon gutxi aukeratu zuela horrelako eszedentzia hartzea.

Aipatu beharra dago ere, emakumeek **gizarte-babeserako sistema**n duten egoera, zeren eta alderdi ilun asko baitauka sistema honek, sexuaren arabera alde handiak eginez eskaintzen diren prestazioetan.

Gure Gizarte Segurantzako sistema, batez ere langileen ekarpenen arabera izanik, onuradunen egoera zuzenki lotua dago lan-merkatuan duten mailari. Horrexegatik izan dira batez ere gizonen kasuak lan-sariaren ordezko prestazioen onuradunak (langabezia, erretiro eta elbarritasuna).

Azken urteotan emakumeak langabeziaren zerrendetan agertzen diren arren, hartzen dituzten pentsioen erdiak (%50) alarguntzakoak dira oraindik ere, eta emakumezkoen batzuetan besteko pentsioa, gizonenakaren %38 baxuagoa da. Gainera, emakumeak dira gutxienezko pentsioak hartzen dituzten gehienak.

Bestalde, Gizarte Segurantzako sistemak badira erregimen bereziak, hala nola laborantzakoa edota etxeko langileena, eta erregimen hauek zeharkako bereizkeria egiten dute. Alde beretik kritikatu izan da Langileen Estatutuaren 12. artikulua aldaketan, Lan Merkatuaren Erreformatarako 10/94 Legearen bitartez egina. Izan ere, lanaldi murrizteko kontratuetako prestazioen kasuetan gabeziaren neurketa egiterakoan oso zaila gertatzen da kotizatzealdi guztiak osatzea eta, horren ondorioz zaildu ere gabezia aldi luzeak eskatzen dituzten prestazioak lortzea. Xedapen horrek proportzionaltasunaren printzipioa hautsi egiten du, eta batez ere emakumeengan du eragin txarra. Agindua ez dago behar beste arrazoindua eta Europako Justizia Auzitegiak, Bilka kasua bezalakoetan emaniko irizpidetik aldendu egiten da. Zeharkako bereizkeriaren aurrean gaudela esan genezake, eta ordenamendutik kendua beharko luke izan.

Halarik ere, 1997an, Enpleguko Egonkortasunerako Konfederazioarteko Hitzarmenetik abiatuta eginiko Langileen Estatutuaren erreformak bere barnean hartu nahi izan ditu lanaldi murrizteko langileen —emakumeak batez ere— egoera guztiak. Ez dago ahazterik orain dela gutxi estatistika-datuak, hala nola Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak 1997rako argitaratutakoak, emakumeen aktibitate-tasa %37,2an jartzen zutela, seinalatuz gainera, ezen lanaldi murrizteko kontratuen %75a emakumeei zegokiela. Gogora ekartzen ziguten datu hauek ere, gizon eta emakumeen lan-sariaren arteko aldea emakumeen kalterako zela %20a baino gehiagoan. Egoera hauek gizarte-babesaren eragina nabarmenak dira.

Ez dugu ahaztu behar ere, azpiko ekonomiak emakume asko eta asko babes sozialetik at uzten duela.

Esandakotik atera dezakegu gizarte-babeserako sistemak norbanakoen egoerari begiratu behar diotela gehiago, bai eta emakumeen lan-karrera oztopatuko ez dituzten tresnak bilatu behar direla ere.

Arauen bilakaeraren gainbegirada honetan aipatu behar dugu ere **Auzitegi Konstituzionalaren (AK)** doktrina, berdintasunaren printzipioaren garapenerako ekarpen erabakiorra izan baita, bereizkeriaren debekua Espainiar Konstituzioaren 9.2 artikulua berdintasun materialarekin lo-

tuz eman duen jurisprudentziari esker. Halatan bada, AKren lana hasten den 1981 urteaz geroztik argi eta garbi esaten ari zaigu bereizte guztiak ez direla bereizkeria, baizik eta behar bezala arrazoindu gabekoa soilik.

Jurisprudentziaren irizpideen bilakaeran, une garrantzitsua izan da Auzitegi Konstituzionalaren 128/1987ko Epaia, non esaten baita tratamendu desberdindua, Zuzenbidezko Estatu Sozial eta Demokratikoan, beharrezkoa izan daitekeela, hartara ordenamendu juridikoaren balore gorenak diren justizia eta berdintasuna benetan gorde daitezzen. Bilatzen da ere epai horretan, historikoki sakon erroturiko desberdintasunak ezabatzea, desberdintasun horiek, bai botere politikoen ekinenez, bai eta gizartearen jardueren ondorioz ere, sektore zenbait egoera kaltegarrietan jarri baitituzte, are eta batzuetan Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua begiratzen duen pertsonaren duintasunaz harat jarri ere. Ekintza positibo edo alderanzko bereizketa deitu izan zaio honako honi.

Honetan, AK-ak gogoratzen digu emakumeen aurkako edozein bereizkeria ezabatzeari buruzko Hitzarmenak behartzen dituela Estatuak, gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasuna areagotzera zuzenduriko behin-behineko neurri bereziak hartzera.

Dena den, deigarria da Espainiako Auzitegi Konstituzionalak horren gutxi aztertu eta garatu izanak, zeharkako bereizkeriazko egoerak, eta garatu dituen gutxiak beti lanpostuen baloratzearekin edota lanbidezko mailaketarekin loturikoak izateak. Halatan beraz, garrantzi handikoa izan zen 145/1991 Epaia, non bereizkeriatzat jotzen zen, garbitzaileen lanbidezko kategoriarentzat zegoen lansaria, peoien kategoriarentzat zegoena baino baxuagoa izatea. Ebazpen honek, beranduxko baino halarik ere erabiltzen zituen "balio bereko lanak" bezalako irizpideak, izan ere Europan 1976. urteaz geroztik aplikatzen ari zirenak (Deefrenne II, 1976ean)

Zeharkako bereizkeriak kolektibitatei oso loturik daude, kontuan hartzekoa ez baita horrenbeste izaten norbanakoaren kaltea, nola kaltetuak gizarte talde bereziak direla. Zeharkako bereizkerietan oso garrantzi handikoa gertatu da frogaren kargaren alderanzketa.

Bestalde, Auzitegiak gogora ekartzen digu, 222/1992 epaiaren bitartez, babeserako arau guztiak ezin kontsidera daitezkeela ekintza positibo, eta halatan zehazten du meazuloetan lan egiteko debekua helburua babeserako izanik ere, ezin har daitezkeela benetako berdintasuna lortzeko ekintza positibotzat, berdintasuna murriztu egiten baitu, emakumeei lan batzuetara iristeko aukera kenduz.

Era berean ezin ekintza positibotzat hartu, emakumeei bakarrik emaniko edoskitze baimenak, D.J. Gimeno magistratuak argi utzi zuen bezala, 109/1993 AKE epaiari egin zion boto partikularrean, halako kasuetan babeserako helburua emakumeen aurka bihurtzen baita.

Gogora dezagun azkenik, Auzitegi Konstituzionalak berdintasunaren kontzeptuaren gainean bere iritzia emateko aukera izan duen kasu askotan, gizonezkoen eskariei erantzuteko egin duela, emakumeen egoera juridikoa hobea zelakoan jo baitute Auzitegi Konstituzionalera. Halatan bada, martxoaren 23ko 42/84 AKE epaiak erabakitzen du Segurantza Sozialeko Lege Orokorren 166. artikulua konstituzio kontrakoa dela, gizonezkoen betebeharrak eskatzen baitzizkien alarguntza-pentsioa lortzeko emakumezkoen bano.

2.2.2.

EKINTZA POSITIBOKO PLANAK

Legeen bilakaeraren gainbegirada labur honetako laburbilduz, esan dezakegu, legeetako bereizkeriak ezabatzeak leku egin diola ondoren, benetako berdintasuna sustatzen duten aravei, eta arau hauek batzuetan ondorengo ebazpen judizialen laguntza izan dute, eta beste batzuetan ebazpenak aurretik joan zataizkie. Hurrengo maila Generoko Politikak deiturikoak osatu du, hau da, emakumezko eta gizonezkoen arteko aukeren desberdintasuna lehenik gutxitu eta epe ertainera ezabatzea zuzenduriko neurriak.

Mogimendu feministaren indarrak behartu zuen Estatua, bere jardun bereizkeriazkoak aldatzera, eta eskatu zion gizartearen antolakuntzan eskua sar zezan, bereizkeriazko faktoreak ezabatzeko. Politika hauek Europar Batasunaren erabateko laguntza izan zuten, izan ere azken hau 80.eko hamarkadaz geroztik ekintza bereziko programak aplikatzen ari baita, eta hau, partaide diren Estatuetan ekintza berrietarako bultzada garrantzitsua izan da.

Argitu beharra dago gauza ez dela emakumeek Erkidegoaren fondo edota programeei etekin handiagoa ateratzea besterik gabe, baizik eta martxan jartzea aldi berean Erkidegoaren azterketa ahalmenak, diru-baliabideak eta tresna juridikoak .

70. hamarkadaren eskarmentuak, non soilik emakumeentzako ziren politikak eraman baitziren aurrera, erakutsi digu politika horiek emakumeen isolamentua betirakotu egiten zutela. Dena den, integrazioak ez du baztertzeko ekintza positiboko proiektuak, programak, eta neurriak hartzearen beharra, nahiz eta oraingo planteamendua lehengo "emakumeentzat bakarrik" horren bestelakoa izan.

Ekintza positiboa kontzeptu konplexu eta dinamikoa dugu, eta oso modu desberdinetan izan da interpretatua azken urteotan gure herrialdean, batez ere Europar Batasunera sartu ginenetik. Helburua benetako berdintasuna du eta bereizkeriaren aurkako babes mota egokiena da, kolektibitatean duen eraginagatik bereziki.

Kongresu honetako lehen egunean aztertu genuen bezala, Europar Batasunak berak gizon eta emakumeen Aukera Berdintasunerako lau programa jarri ditu martxan. Ildo beretik, eta denok dakigun bezala, Eusko Jaurlaritzak, 1995eko abenduaren 29an onartu zuen Emakundek prestatuturiko emakumeentzako Ekintza Positiboko II Plana.

Horrelako neurriek bereizkeria sortzearen zergatiei egin nahi die aurre, betiere kontuan hartuz gizartearen aldaketa sakonek luze jotzen dutela eta eraginkorrak eta benetakoak izango badira, gizarteko kide guztien partehartzea beharrezkoa dela.

3. *Legezko berdintasuna: beharrezko urratsa, baina ez nahikoa*

Laburbilduz, esan dezakegu gaur egun berdintasun formala lortua dugula, baina ezin ordea honako hau, beharrezkoa izanik ere, benetako berdintasunarekin nahastu.

Ikusi dugun bezala, ekintza positiboko politikak alde batera ezin utziak erakusten digu - erakutsi ere emakumeek argi dakiten gauza- gizartearen alor desberdinetan oraindik mantentzen dela desberdintasun materiala. Izan ere, emakumeek oraindik jasaten dute bereizkeria, gizonezkoek baino bizi-baldintza okerragoak baitituzte, familiaren beraren barruan ere, eta gizonezkoek baino aukera gutxiago dute gizartearen onurak erdiesteko (lana, kultura, aisia).

Alde honetatik, aipatutako beste datuekin batera, ezin ahantz dezakegu lan-merkatuan batere ez edo marjinalki parte hartzeak gizartean marjinazioa dakarrela. Lana dugu lehen baldintza gainerako gizarte-eskubideak lortzeko, eta gure erkidegoan, esate baterako, gizarteratzeko gutxieneko ordainsaria hartzen duten etxeak, seme-alabak bere kargu dituzten emakumeen eskutan dira. Bestaldetik, 1991.ean, EAE-ko guraso bakarreko familien %80tik gora, emakumea zuten ardura-dun.

Argi da sistema demokratiko batean, gizartearen gehiengoak nahi duen antolakuntzaren diseinua ezartzen dutela legeek. Kolektibitatearen halako "printzipioen aldarrikapena" dira, eta horrexegatik, pertsona guztien berdintasuna aipatzen eta defendatzen dituzten legeak izatea behar beharrezkoa da, helburu hori lortuko bada. Argi da halaber, legezko aldarrikapen hutsa ez dela aski, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna egia bihur dadin.

Abiapuntu honetatik, bi kontu aipatu nahiko nituzke: legeen aplikazio judiziala alde batetik, eta bestaldetik, gizarteak berak, berdintasuna sustatzeko xedapenen eraginkortasunari aurka jartzen dizkion erresistentziak.

3.1. LEGEAREN APLIKAZIO JUDIZIALA

Legeak aplikatzeko prozesua dugu, seguruenik, ekintza juridiko konplexuena; bertan arauaren orokortasunak egokitu behar du, konponbidea eskatzen duen kasuaren egoerara. Egiteko hau epaile profesionalen esku uzten da; hauek ezagutza juridiko handia izan ohi dute, baina gizakiak dira ordea, eta halatan, bizi eskarmentu propiala dute, heziketa jakin bat, ideologia berezi bat eta ingurune soziokultural bat edo beste, ezinbestean aterako dena legeak interpretatu eta aplikatzerako garaian.

3.1.1. AURRERAPENAK ETA ATZERAPENAK

Konstituzio osteko etapan, ebazpen judizialek aurrerapen handiak ekarri dituzte berdintasunerako bidean. Arauen irakurpen aurrerakoiek, legegilearen asmoa ahal beste hedatuz, batzuetan asmoz harat ere joanez, gizartean emaniko aldaketak zirela eta haiei egokitu nahiean, lagundu dute, historian zehar emakumeek pairaturiko bereizkeria baztertzen.

Ezin dira ahaztu halere, berdintasuneranzko bide bihurrian, zenbait epaiek egin dituzten geldialdiak eta batzuetan atzerakadak ere. AKren doktrinarekin jarraituz, "atzerapauso" horien artean aipa dezagun noblezia-tituluen gaineko epaia. Gizonezkoen nagusitasuna onartzea noblezia-tituluak eduki materiala ez dutelakoan oinarrituta ez da, gaur egun arte iraun duen sistema desberdinzale eta sexistaren azken hondarrei euskarria ematea besterik. Gure gizartea hizkuntzak berak

bezala, sinboloek eta formek ere osatzen dutenez, tratamendu desberdinak, formalki baizik ez izanik ere, mantentzeak, dagoen desberdintasuna indartu egiten du.

Gauzak dauden moduan uzteko ildo beretik doaz, izatezko bikoteei alarguntza-pentsioa ukatzen zaieneko epaiak. Ak-eko zenbait magistratuen boto partikularrek dioten moduan, izatez egoera ezkonduakoen berdina da: bikotean batek ordainduriko lana dauka eta Segurantzaren Sozialari kotasizatu egiten dio, eta bestea berriz —emakumezkoa gehienetan— etxeko lanetan eta familiaren zaintzan aritzen da. Gizonezkoa hildakoan, ezkondu edo ezkondu gabean berdin, emakumea beharrean gelditzen da, diru sarrera galdu duelako —batzuetan erabat galdu ere—, eta egoera berdin hauek Segurantzaren Sozial publikoaren aldetik erantzun berdina eskatzen dute. Halarik ere, eta egoerak izatez berdinak badira ere, AK-ak erabaki du alarguntza-pentsioa bidezkoa dela soilik ezkontza bada, eta bestelako egoerak babestu ahal izateko legeen aldaketa behar dela.

3.1.2. BABES JUDIZIALAREN ERAGINKORTASUN EZA

Gizarte zaharkitu bati lotuak dirauten ebazpen judizialei garrantzia kendu gabe, uste dut emakumeen egunerokoan, legeei begira emakumei agertzen zaien arazo larriena, babes judizialaren eraginkortasun eza dela.

Horrexegatik, hain zuzen, herritar askoren kexuak jasotzen ditugu Arartekoaren bulegoetan, dituzten gatazketan auzitegiak baliogabekoak zaizkielako. Tamalez Arartekoaren Erakundeak eskumen eskasak ditu Justizia Administrazioaren funtzionamenduaren gainean.

Gure urteroko txostenetan azaldu dugu, Arartekoaren aurrean bere kexuak azaltzen dituzten emakumeak, gizonezkoak baino gutxiago izan ohi direla. Hala eta guztiz ere, Justiziaren arloan berriz, emakume kopuru nabaria agertzen zaigu, familiaren hausduratik sortzen diren gatazketan ebazpen judizialek duten eraginkortasun falta salatzerantz etorria. Arazoa batzuetan eskuhartze judiziala motela delako sortzen da: epaileak hartu ohi dituen behin-behineko neurriak —eta batzuetan oso epe motzerakoak gainera— alperrikakoak dira, benetan banandu zireneko garaitik bi hilabetera hartzen direlako, eta halatan, lagundu beharrean, emakumeek banantze prozesuan topatzen dituzten oztopoak areagotu egiten dituzte. Emakumeak bere ekonomiaren jabe ez deneko kasuetan neurriak ez badira garaiz hartzen, ezinezkoa bihur dakioke emakumeari amankomuneko bizitza uztea, eta halatan, erabaki hori hartzeko duen eskubidea ukatu egiten zaio.

Familiako prozedura judizialeko eremuan maiz gertatu ohi da ezkontide zordunak ez dituela legeak aginduriko janarietarako pensioa eta pensio orekatzailea ordaintzen. Eta holakoetan, ebazpen judizialak betearazteko sistema geldo, motel eta gaurkoa ez den errealitate ekonomikorako pensatua dena ez da gai izaten betebeharrak horiek betearazteko. Erruz hedaturiko fenomeno honek —Emakunde eginiko lanek argi erakusten dute hala dela— banantzen diren emakumeen eta bere kargu gelditzen diren umeen pobretzea eta haien bizi-maila jaistea ekartzen ari da.

Arazo honi aurre egiteko Emakunde proiektu bat prestatu du, familien hausturak sorturiko pensioen Konpentsazio-fondoa sortzeko; Arartekoaren erakundea horren alde azaldu da beti, bide bat izan daitekeelako, baina halere ez dezagun ahantz, sistema judizialaren eraginkortasuna eskatzen jarraitu behar dugula, ebazpenak behar bezala bete daitezen. Botere judizialaren jardura

nak kontuan hartu behar du emakumeek talde diskriminatua osatzen dutela, bere eskubideak be-
tearazteko baldintza eskasak dituen, eta botere judizialak bere gain hartu behar duela, beste bo-
tereez ere bezalaxe, EK-ren 9.2. artikularen agindua.

Babes judizialaren eraginkortasun eza azter daiteke ere justiziaren beste eremutan. Halatan bada,
lege penaletan lehen aipatu ditugun aldaketak eman diren arren, emakume askoren eskarmentuak
esaten digu, indarkeria pairatzen duten kasuetan auzitegiek ez dituztela behar bezala babesten.
Eta ez da bakarrik emakume horiek ez dutela eskatutako atentzioa edota hartutako kaltearen or-
daina lortu, baizik eta tratatu txarrak edota erasoak salatzeak ez duela balio halakoak berriz erre-
pika ez daitezen. Emakumeek ez dute eskatzen zigorrak gogorragoak izatea, baizik eta aurretiko
neurriak hartzea eta epaileek jarrera desberdina ager dezatela, emakumeen aurka erabiltzen den
indarkeriaren arazoa beste begiz begiratuz.

3.2. GIZARTEAREN ERREALITATEA: ALDAKETAREN AURKAKO ERRESISTENTZIA. ARARTEKOAREN ERAKUNDETIK ANTZEMANDAKO ZENBAIT ARAZOEN AZALPENA

Planteamentu honek, ene solasaren azken puntuarekin lotzen gaitu: maiz gizartea bera, guztien
pentsamoldea, izaten da aldaketak onartu nahi ez dituen. Eta eskubideen aplikatzaile direnak
bere garaian bizi dira, beste herritarren kultura eta heziketa beraren kargarekin, aurreiritzi bere-
kin eta errealitatea ikusteko modu berarekin. Hala eta guztiz ere, batzuetan, legeen aldaketekin
gertatzen den bezala, epaileen erabakiak ere gizarteari aurrea hartzen diote eta gehiengoan ar-
buioa jasaten dituzten epaiak ematen dituzte, halako "herriaren intsumisio" modukoa sortuz.
Gogoan ditut Irun eta Hondarribiko Alardeen zorigaiztoko gatazkak.

Arazoa Gipuzkoan oso ezaguna den arren, kanpokoentzat laburpen txiki bat egiten saiatuko
naiz: "Alardeak" Euskal Herriko hainbat herritako festa nagusia dira eta bereziki Bidasoaldeko ai-
patu ditugun bi herri horietakoak. Alarde hauek, garai bateko foru-miliziak eta nork bere bataila
bat irabazi izana ospatzen dituztelarik, gizonetako bakarrik osatu dituzte orain artean, emaku-
meei "kantinera" postua utziz, konpainia bakoitzeko bat, konpainiakideek aukeratua gainera, bal-
dintza batzuen arabera —polita, atsegina, etab.— izan ere soldaduei eskatzen ez zaizkien bal-
dintzak dira hauek. Azken urteotan emakumeen talde batzuek beren herriko jai horretan gizonet-
koen baldintza berdinetan parte hartzeko duten eskubidea bete dadin eskatzen ari dira, baina es-
kari honek ordea, herritarren gehiengoaren asmoarekin topo egiten du, hauek "gauzak bere ho-
rretan" utzi nahi baitituzte, hau da, emakume gabeko alardea.

Bi urtetik hona Arartekoa, beste erakunderekin batera, hala nola Emakunde eta ondoren Eusko
Legebiltzarra, beren herriko kultur eta jai adierazpen nagusian parte hartu nahi duten emakumeen
eskariaren alde agertu da. Hauen eskubidea EK-ren 14. artikulua egiten duen berizkeriazko tra-
taeraren debekuan datza. Eta kontuan harturik gainera, Udaletxeek antolatuta, ordaindu eta parte-
hartu ere parte hartzen dutela zuzen zuzenean alarde horietan, EK-ren 9.2. artikulua ere aplika li-

teke, botere publikoei benetako berdintasuna sustatzeko betebeharra ezartzen baitie eta berdintasunaren aurkako oztopoak kentzekoa. Bestela esateko, Udal aginteeek emakumeen partehartzea debekatzerik ez zutenez gain, sustatu ere sustatu egin behar zuten beren ahalegin osoz.

Justizia Auzitegi Nagusiaren bi epaiak irmoki azaldu dira horren alde: hala nahi duten emakumeek eskubide osoa dutela diote, gizonezkoen baldintza beretan Alardean partehartzeko, eta Udaletxei agintzen die hori hala gerta dadin behar diren bitartekoak ezar ditzatela. Ebazpen hauei erabateko arbuioa erakutsi die biztanleen zati handi batek. Izan ere, iazko Hondarribiko Alardean, epaien ondoren izanagatik ere, emakumei ez zitzaien partehartzen utzi. Era berean, Irungo heldu den 30eko jaiegunerako "beste" Alardea antolatzen ari dira, non ez zaien emakumei sartzen utziko.

Honetaz bezala, gure gizartean maiz sortzen diren horrelako gatazkataz luzaz hitz egin genezake, baina seinalatu nahi dut, besterik gabe, gizarteak ez duela oraindik onartu pertsonen arteko benetako berdintasuna bizi-alor guztietan. Aitzitik, berdintasunaren planteamendua erraz onartzen dira ideologia ete legeen mailan, baina maiz egiten dute tupust, ordea, biztanle gehienek jarraera inkontzientekin eta sentimenduekin.

Ondorio gisa gera dakigun, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen jarraitu beharra dago, ekintza positiboko politiken bitartez eta kultura demokratikoan sakonduz, hartara berdintasunaren planteamendua onar dadin, ez gizarte-harremanen ideia nagusi gisa bakarrik, baizik eta mundua ikusteko dugun moduan oinarriturik, alor pribatua ere har dezan, sentimenduak beraiek ere aldatuz.

Arartekoaren erakundea, eskubideen bermatzailea izanik, eskubideen aldeko eguneroko jardunean generoko ikuspuntua hartzen duenean, saiatzen da bere ahaleginean emakumei beren eskubideak erabiltzea eragozten dieten zeharkako bereizkeriak ezabatzen. Emakumeak juridikoki gaituz eta belaunaldi berriak balore demokratikoetan gizarteratuz finkatu ahalko dugu orain artean lortu duguna. Benetako berdintasuneranzko aurrerapenak lege aldaketak ekar ditzake berarekin, Kongresu honen lehen egunean aipatu zirenak kasu, edo lege aldaketarik ez ekarri, baina argi da partaide guztion ahalegina eta indarrak eskatzen dituela. Utopia sinistu egin behar dugu egi bihurtuko badugu.

Eskerrik asko.

Ponentzia honetan saiatuko naiz emakumeen eskubideek nazioarte mailan eta historian zehar ibili dituzten etapa desberdinetan ibilbide laburra egiten. Horretarako, ene azterketaren oinarrian hartuko dut Nazio Batuen Erakundeak 1945. urtetik hona, sexuagatiko bereizkeria ezaren printzipioa onartzeari dagokionean egindakoa, kasu berezia eginik 1979an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zuen Emakumearen Aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatze Hitzarmenari. Halarik ere, ene lanaren gunea, aipatu dudan Hitzarmen horri Hautazko Protokoloa egitearen prozesua izango da. Protokolo hau zuzentzen da batez ere, emakumeen eskubideak babesteko nazioarte mailan dauden mekanismo eskasak indartzera. Argitzen joango naitzaizuen bezala, lauogeitamarreko hamarkadan abiatu zen prozesu hau zailtasunez eta oztopoz beterik dago, batzuetan gaindiezinak diruditen oztopoak izan ere.

1. *Emakumeen eskubideak, giza eskubideen gaineko ohiko diskurtsotik ohiltzea*

Giza eskubideak orain dela gutxi agertu ziren, Europan eta Ipar Amerikan XVIII. mendearen amaian ematen diren iraultzekin sortuak baitira (1). Frantziar Iraultzak eman zien giza eskubideei benetako izaera, 1789an onartu zuenean Gizonaren eta Hiritarraren eskubideen Frantziar Aldarrikapena (2). Dena den, ez Aldarrikapen garrantzitsu hau eta ez Ilustrazioaren mogimendua ere, ez ziren emakumeen eskubideak baieztatzearen oso aldekoak izan, batez ere politikan partehartzeari zegokionean (3). Honi buruz Encarnación Fernández-ek seinatu duen moduan, "politikan partehartzeko emakumeek zuten eskubidea ez onartzea krontraesan nabarmenean zegoen iraultzaren printzipioekin, eta bereziki eskubide-berdintasunaren printzipioarekin" (4). Hala eta guztiz ere, iraultzaren indarrez hasiko dira Frantzian sortzen emakumeen eskubideak nola edo hala kontuan har daitezela eskatuko duten ahotsak. Horien artean seinatuenak ditugu Condorcet

(1) Honek ez du esan nahi XVIII. mendea aurretik ez zirenik egin zenbait giza-eskubide onartuak izan zitezeneko saioak. Egiteko honetan aipagarria da Nazioarteko Zuzenbideko Salamanca-ko Eskola deiturikoak eginiko lana, Amerikako Konkista zela eta indiarren eskubideak onartuak izan zitezen. Cfr. BEUCHOT, M.: *Los fundamentos de los derechos humanos en Bartolomé de las Casas*, Anthropos, Barcelona, 1994. Giza-eskubideen historiari buruzko ekarpen garrantzitsua aurki daiteke honakoan: OESTREICH, G. eta SOMMERMANN, K-P.: *Pasado y presente de los derechos humanos*, Tecnos, Madrid, 1990.

(2) Aldarrikapen honen izenburuak berak, gizonaren eskubideak aipatzen baititu, erakusten digu nola ulertuak izango diren giza eskubide horiek.

(3) Ilustrazio garaiko feminismoaren gainean ikus MOLINA PETIT, C.: *Ilustración y feminismo: lo privado y lo público en el pensamiento liberal*, Doktoradutza-tesia, Universidad Complutense, 1987.

(4) FERNÁNDEZ, E.: "Los derechos de las mujeres", in BALLESTEROS, J.: *Derechos Humanos*, Tecnos, Madrid, 1992, 148 or.

Essai sur l'admission des femmes au droit de cité idatzi zuena (1790) eta Olympe de Gouges *Déclaration des droits de la femme et de la citoyenne* idatzitakoa (1791). Condorcet-ek eta Olympe de Gouges-ek idazten duten garai berean, Erresuma Batuan Mary Wollstonecraft ari da *A Vindication of the Rights of Women* idazten (1792), obra horrekin britaniar mugimendu feministen atzindari bihurtuz. Ekarpen hauek egingo dute emakumeen eskubideak arlo juridikoan baieztatzeke lehen saioa. Seinalatu beharra dago emakumeak arlo juridikoan izan duen eta hainbat herrialdetan oraindik ere duen egoera desberdintasun nabarmenakoa izan dela (5). Frantziar Iraultzatik hona, giza eskubideen onarpena arras zabalduta da, bai estatu mailan, bai eta nazioartean ere. Giza eskubideen bilakaera honen barruan, giza eskubideen hiru belaunaldiak deiturikoak agertu izanarekin batera (6), emakumeen eskubideen eta ez diskriminatzeke printzipioaren baieztatzea gertatzen joan da apurka-apurka. Halere, bilakaera hau guztia, zenbait emakume azterlarien ustetan, giza eskubideen kontzeptu androzentrikoaren inguruan eraiki izan da, gizonen eskarmentu eta beharrei lotua eta emakumeen mundu ikuskeraz baztertuta. Carmen Magallón-en hitzetan esanda, "androzentrismoa, mendebaldeko pentsamenduaren eta eskubideen tradizioan erroturiko ezaugarria da" (7). Gainera, giza eskubideen egiturak berak, historian zehar ikusi den bezala, ez ditu kontuan hartzen emakumeek giza eskubideen alorrean dituzten beharrak. Giza eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea bera, giza eskubideak babesteko dauden nazioarteko arauak, "gizonezkoen eskarmentuak azaldu eta emakumezkoenak ohiltzeko garatu dira" (8). Emakumeen nahiak baztertzearren arrazoiak bat dugu, ezen nazioarteko arauak sortzen dituzten erakundeetan, hau da Estatuaren eta nazioartekoetan, "emakumeak ikustezinak dira erabat...", emakume eskas batzuk besterik ez baitaude garrantzizko postuetan" (9), eta honek gizonezkoen ikuspuntua gailentzea dakar.

(5) Emakumeen eskubideen etapa historikoen gaineko azterketa in BESANDON, N.: *Les droits des femmes des origines à nos jours*, Presses Universitaires de France, Paris, 1983. Emakumeen egoera juridikoa historiaren zenbait garaitan in JUST, R.: *Women in Athenian Law and Life*, Routledge, London, 1994; SEALEY, R.: *Women and Law in Classical Greece*, The University of North Carolina Press, Chapel Hill, 1990; GARDNER, J.F.: *Women in Roman Law and Society*, Routledge, London, 1990; GUERRA MEDICI, M. T.: *I Diritti delle donne nella Società Altomedievale*, Edizioni Scientifiche Italiane, Napoli, 1986

(6) Giza eskubideen lehenengo belaunaldia, XVIII. mendeko Iraultza liberaletatik sorturiko eskubide zibil eta politikoa ditugu. Bigarren belaunaldiko eskubideak, berriz, XIX. mendearen bigarren partean agertu ziren mugimendu komunista eta sozialistek bultzaturiko eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak dira. Azkenik, hirugarren belaunaldiko eskubideak hirurogeiko hamarkadan sortzen dira eta nazioartekoan elkartzuna ezarri nahi dute. Giza eskubideetako belaunaldi hauen gaineko ibilalditxoak duzue honakoan: GÓMEZ ISA, F.: "Los derechos humanos en perspectiva histórica" in *El Cincuenta Aniversario de los Derechos Humanos*, Seminario de Investigación para la Paz Rafael Garrido, Valle de Mena, julio de 1997 (argitaratu bidean).

(7) MAGALLÓN, C.: "Los derechos humanos desde el género" in CENTRO PIGNATELLI (Ed.): *Los derechos humanos, camino hacia la paz*, Diputación General de Aragón-Seminario de Investigación para la Paz, Zaragoza, 1997, 259 or.

(8) CHARLESWORTH, H.: "Human Rights, Men's Rights" in PETERS, J. and WOLPER, A. (Ed): *Women's Rights, Human Rights: International Feminist Perspectives*, Routledge, New York, 1995, 103 or.

(9) CHARLESWORTH, H.: "Human Rights as Men's Rights"..., *op.cit.* 104 orr. Egile honek ematen dizkigu, giza eskubideen zenbait organoetan emakumeen kopuruari buruzko datuak; datu hauek bereizkeriaren adierazgarri dira. Halatan, Arraza-bereizkeriarekin amaitzeko Komitean, 18 kideen artean emakume bakarra dago; Giza eskubideen Komiteak hiru emakume ditu 18 kideen artean; Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturekoan bi dira emakume 18tik; Torturaren aurkakoan bi emakume 10 kideen artean.

Giza eskubideek emakumeen itzaropenei ez erantzun izanaren beste arrazoia da, giza eskubideen kontzeptua alor publiko eta pribatuaren arteko dikotomian eraiki izana dela, giza eskubideak publikoaren alorrari besterik begiratzen ez diotelarik. Beste hitzetan: arau juridikoen bitartez bakarrik alor publikoan gertatzen diren giza eskubideen hausturei egiten zaie aurre, alor publikoaz bakarrik arduratu izan baita Estatuak beti. Baina emakumeen eskubideak alor pribatuan urratzen dira bereziki, familiartean maiz, non Estatuak, giza eskubideen ohiko teoriaren arabera, ezin baitu sartu. Charlotte Bunch-ek argitu duen bezala “publikoa eta pribatuaren arteko bereizketa arras erabilia izan da emakumeen menpekotasuna zuritzeko eta alor pribatuan giza eskubideen aurka egiten diren gehiegikeriak gizarteak ikuska ez ditzan” (10).

Argi geratu da beraz, giza eskubideen ohiko diskurtsoa garatu dela emakumeen gainean zuen eragina kontuan hartu gabe, eta ezinbestekoa dela diskurtso hori aldatzea, aldatu ere emakumeen behar eta eskariak kontuan harturik (11).

2.

Nazio Batuen zeregina ez diskriminatzearen printzipioaren onarpenean

Munduko Bigarren Gerra ostean sorturiko Nazioarteko Erakunde berria den Nazio Batuen Erakundearen dokumentu eratzaila dugun Nazio Batuen Gutunaren Hitzaurrean bertan, Nazio Batuetako herriak agertzen dira “prest, baieztatu eta berresteko... gizon eta emakumeen arteko eskubideen berdintasuna”. Ondoren 1. artikulua dio, 3. parrafoan, NBE-ren helburuetako bat dela “... guztien oinarritzko askatasunak eta giza eskubideak gordeak izan daitezen lan egitea, bereizketarik egin gabe, ez arraza, ez sexua, ez hizkuntza edota erligioagatik”. Ez diskriminatze printzipioa Erakundearen beraren funtzionamenduan bertan aplikatua izan dadin, Gutunaren 8. artikulua ezartzen du “Erakundeak ez ditu mugarik jarriko gizonezko nola emakumezkoen berdintasunean parte har dezaten bertako organo nagusietan eta ordezkatzailuetan”. Ikus daitekeen bezala, Nazio Batuen Erakundeak hasiera beretik aukeratu zuen ez diskriminatze printzipioa onartzea (12).

(10) BUNCH, C.: “Transforming Human Rights from a Feminist Perspective”, in PETERS, J. and WOLPER, A. (Ed.): *Women’s Rights...*, *op.cit.* 14. or.

(11) FREEMAN, M.A. and FRASER, A.S.: “Women’s Human Rights: Making the Theory a Reality”, in HENKIN, L. and HARGROVE, J.L. (Ed.): *Human Rights: An Agenda for the Next Century*, The American Society of International Law, Washington, D.C., 1994, 104. or.

(12) Nazio Batuek emakumeen gainean eginiko lanaren ikerketa oroaztertzailea ikus daiteke honakoan: WINSLOW, A. (Ed.): *Women, Politics and the United Nations*, Greenwood Press, Westport, 1995; ikus ere: CAMPS MIRABET, N.: “La acción de la Organización de las Naciones Unidas para el desarrollo y protección de los derechos de la mujer” in *Tendencias actuales en Derecho Internacional*, Almuñécar (Granada)-n eginiko mintegia, 1994ko iraila.

Emakumeak ez diskriminatzeko printzipio horrekin Nazio Batuek harturiko konpromiso honen froga argia dugu, 1946. urtean bertan, hau da, sortu zenetik urtebetera, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren gaineko Batzordea sortu zuela, izan ere, aurrerantzean organo hau arduratuko baitzen emakumeen munduarekin zerikusia zuten arazo guztietaz (13). Batzorde honek, esaterako, garrantzi handiko zeregina izan du, Nazio Batuen esparruan onartzen diren giza eskubideetarako tresnak prestatzeko prozesuan (14).

Nolaz eta Nazio Batuen Gutunaren xedapenak giza eskubideei zegokienean, oso lauso eta orokorrak ziren, berehala ikusi zen zehaztu egin behar zirela. Halatan beraz, Nazioarteko Erakunde sortu berriaren hastapenetatik ere, Giza eskubideen Aldarrikapena egitea pentsatu zen, eta horretatik abiatuta, 1948ko abenduaren 10ean Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertsala egin zen (15). Seinalatu beharra dago, Aldarrikapen Unibertsala prestatzen garrantzizko zeregina izan zuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak, emakumeen ikuspuntua ekarriarri betiere testura. Zeregin horretan nabaria izan zen Mrs. Begtrup, orduko Batzordearen Lehendakaria zena.

Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren Hitzaurreak berriz ere baieztatzen du "gizon eta emakumeen arteko eskubideen berdintasuna" sinisten duela, Nazio Batuen Gutunaren Hitzaurrean ere esana zen bezalaxe. Aldarrikapenaren 1. artikulua biziki garrantzitsua da emakumeen eskubideen ikuspuntutik begiratuta, esaten baitu:

"Gizaki guztiak aske eta berdinak jaiotzen dira, bai duintasunez nola eskubidez ere, eta arrazoi-mena eta kontzientzia dutenez, haurride gisa moldatu behar dute beren artean" (letra etzana gurea da).

"Gizaki guztiak" letra etzanez eman dut, Aldarrikapen Unibertsala onartzeko negoziazioetan eztabaida asko sortu zuelako. Lehen artikulua honetarako proposamen batek "gizon guztiak" zioen; emakumeei erabat kaltegarria zitzaiezen halako espresioa eta Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertsalarentzat zorigaitzoko hasiera izan zitekeen. Azkenean, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak indar egin ondoren, emakumeen eskarien aldekoagoak ziren Estatu zenbaiten ordezkarien laguntzarekin, Aldarrikapenaren 1. artikuluan ageri den espresioa sartu ahal izan zuen, izan ere, gizadiaren erdiari begirune handiagoa erakusten duena (16).

Bestaldetik, Aldarrikapen Unibertsalaren 2. artikulua, ez diskriminatzearen printzipioa bere egi-ten du. Artikulu honek, 1. parrafoan honela dio:

(13) Batzorde honen lanari buruz ikus GALEY, M.E.: "Promoting Non-Discrimination Against Women: The Commission on the Status of Women", *International Studies Quarterly*, 23. alea, 2. zbk., 1979. 273-302 orrk.

(14) Batzorde honek sortuko du, gero ikusiko dugun moduan, CEDAW Hitzarmenari Hautazko Protokoloa prestatzeko Lan-taldea.

(15) Aldarrikapen Unibertsalaren gaineko iruzkintxoak ikus daitezke in ORAA, J. eta GÓMEZ ISA, F.: *La Declaración Universal de los Derechos Humanos*, Universidad de Deusto, Bilbao, 1997.

(16) Eztabaida eta negoziazio horien guztien gaineko joan-etorriak ikus daitezke honakoan: MORSINK, J.: "Women's Rights in the Universal Declaration", *Human Rights Quarterly*, 13. alea, 1991, 233 etab. orrk.

“pertsone orok ditu Aldarrikapen honetan aditzera emaniko eskubide eta askatasun guztiak, inolako bereizketa egin gabe, arrazagatik, koloreagatik, sexuagatik, hizkuntzagatik, erligioagatik, iritzi politiko edota bestelakoagatik, jatorrizko nazio edota gizarte-mailagatik, egoera ekonomikoagatik, jaiotzagatik edota beste edozein arrazoiagatik”.

Ikus dezakegun bezala, lehen aztertu dugun Nazio Batuen Gutunaren 1.3. artikulua zioenarekin erkatuz gero, zabaldu egiten dira bereizkeria debekatzeko egoeren zerrenda.

Emakumeen mugimenduak lortu zuen ere, Aldarrikapen Unibertsalaren artikulua guztietan “pertsone oro”, “norbanako guztiak”, “inor ez”..., bezalako espresioak erabiltzea, halatan adierazten zelarik Aldarrikapen Unibertsalak babesturiko giza eskubide guztietan kontuan hartu behar dela bereizkeriarik ez egitea.

Hala eta guztiz, badira Aldarrikapen Unibertsalean hainbat aipu, emakumeen ikuspegitik egoki ez direnak. 23.4 artikulua, lanerako eskubideaz ari delarik, esaten du “lan egiten duen pertsona orok du lanaren arabera ordain egokia jasotzeko eskubidea, ziurtatuko diona berari *eta bere familiari*, giza-duintasunez bizi ahal izatea...” (letra etzanak gureak dira). Xedapen honek ematen du ulertzera, lanetik etortitako diru sarrera bakarra dagoela familian, eta diru hori gizonak irabazten duela, noski. Aurreste hori dela ziurtatzeko Aldarrikapen Unibertsalaren ingelesezko bertsioa ikustea aski da, non “his” izenordea erabiltzen da, hau da, familia mantendu gizonak egin behar duela (17).

Aldarrikapenean emakumeen kalterako aipu hauek izanagatik ere, Johannes Morsink-ek baieztatu du “idazteko prozesuaren barneko istorioak eta azken emaitza lortu arterainoko borrokek erakusten dute, emakumeen eskubideen aldetik dokumentu oso aurrerakoia dela” (18). Aldarrikapenaren ikuspegi horren baikorra ez da guztiena halere (19).

Nazio Batuek 1966. urtean onarturiko Nazioarteko giza eskubideei buruzko bi Itunen ere aipatuko dute ez diskriminatzearen printzipioa. Behin bi Itunen 2. artikuluan sexuagatik bereizkeria ez egitearen printzipioa orokorki aldarrikatuta, bi Itunen 3. artikulua, hau da, eskubide zibil eta politikoen gaineko Nazioarteko Itunaren 3. artikulua eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen gaineko Nazioarteko Itunaren hirugarrenak ere, ezartzen dute, ia modu berberean: “Itun honetan Parte diren Estatuak bere gain hartzen dute, emakume eta gizonen berdintasuna bermatzea” (20) Itun honetan izendaturiko eskubideak baliatzeko.

(17) Logika berbera, Aldarrikapenaren 25. artikuluan agertzen zaigu, bizi-maila egokirako eskubidea adierazten duenean.

(18) MORSINK, J.: “Women’s Rights...”, *op.cit.*, 255. orr.

(19) POLLIS, A.: *Toward a Human Rights Framework*, aipua in MORSINK, J.: *op.cit.*, 233. orr.

(20) Honakoa eskubide zibil eta politikoen Nazioarteko Itunean egindako aipua dugu, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Nazioarteko Ituna berriz, honela dio: “Itun honetan Parte diren Estatuak bere gain hartzen dute gizon eta emakumeen ziurtatzea titulu berean baliatu ahalko dituztela Itun honetan izendaturiko eskubide ekonomiko, sozial eta kultural guztiak”. Ikus dezakezue aldeak idazkerakoak direla huts hutsean, eta esanahia berbera dela.

Nazio Batuen babespean onarturiko giza eskubideen aldeko tresna nagusiak aztertu ondoren, ikus ditzagun orain, zehazki emakumearen eskubideen alderdi zenbait onartzera bereziki zuzenduriko tresna juridikoak, alor honetan ere lan goresgarria egin baitute Nazio Batuek (21). Halatan ikus dezakegu Nazio Batuen erakunde berezitua den Lanaren Nazioarteko Erakundea saiatu dela emakumeen eskubideak lan arloan aurrera eramaten. Bide horretan, 1948ko uztailaren 9an, industrian ari diren emakumeen gaueko lanaldiari buruzko Hitzarmena onartu zuen (22). Hiru urte beranduago, 1951.ean, onartu zen, balio bereko lanagatik emakume nola gizonezkoei ordainsari berdina emateari buruzko Hitzarmena (23). Nazio Batuen Erakundeak 1952an emakumeen eskubide politikoaren gaineko Hitzarmena eman zuen (24). Nazioarteko hitzarmen hauek guztiek, beste askorekin batera, argi erakusten dute Nazio Batuek emakumeen eskubideen alde hartu duten konpromezua.

Halarik ere, emakumeen aurkako bereizkeriari aurre egiteko testu garrantzitsuenak ditugu, dudarik gabe, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Emakumeen aurkako Bereizkeria ezabatzeari buruz eginiko Aldarrikapena (25) (1967) eta Batzar Nagusiak esandakoa osatu eta indar juridikoa emateko eginiko Hitzarmena, hau da: Emakumearen Aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeko Hitzarmena (aurrerantzean CEDAW (26)).

Emakumearen aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Aldarrikapenak agertzen du "bere kezka, ezen Nazio Batuen Gutuna, Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Giza eskubideen Nazioarteko Itunak eta Nazio Batuen beste hainbat tresna eta erakunde berezituak izanagatik ere, eta eskubideen berdintasunean eginiko urrats handiak eginagatik ere, oraindik emakumeen aurkako bereizkeriak nabarmenki baitirau" (27). Bai, zeren eta "berdintasun juridikoaren alorrean aurreratu baita gehien herrialde orotan, eta benetako berdintasunean berriz, askoz mantsoago doaz urratsak" (28). Aldarrikapenaren 1. artikulua dugu garrantzizkoena, berak ezartzen baitu modu orokorrean, ez diskriminatzearen printzipioa. Aldarrikapenaren gainerakoa saiatuko da eremu jakinetarako zehazten partehartze politikoa, nazionaltasuna, ahalmen juridikoa, hezkuntza, ezkontza...) printzipio orokor hori. Aldarrikapenaren 1. artikulua honen arabera, "emakumearen aurkako bereizkeria, eskubideetan gizonarekiko berdintasuna ukatu edo murriztu egiten dioenez, funtsean bidegabea da eta giza-duintasunaren aurkako iraina da".

(21) Nazio Batuek alor honetan onarturiko tresna nagusien azterketa sakona dugu honakoa: STAMATOPOULOU, E.: "Women's Rights and the United Nations", in PETERS, J. and WOLPER, A. (Ed.): *Women's Rights, Human Rights...*, *op.cit.*, 37 eta. orrk.

(22) Hitzarmen hau Espainiak berretsia du eta 1959.an jarri zen indarrean.

(23) Nazioarteko Itun hau 1968an jarri zen indarrean gure herrialdean.

(24) Hitzarmen hau 1974az geroztik dago indarrean gure herrialdean.

(25) *Emakumearen aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Aldarrikapena*, Nazio Batuen Ebazpen 2.236 (XXII), 1967ko azaroaren 7koa.

(26) Hitzarmen hau bere ingelesezko sigletan da ezagun, CEDAW, *Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*.

(27) Hitzurrearen 4. parrafoa.

(28) FERNÁNDEZ, E.: "Los derechos de las mujeres"..., *op.cit.*, 155. orr.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzera zuzenduriko Nazio Batuen ekintzen artean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 1975. urtea Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatu zuen. Ildo beretik, urte berean, Nazio Batuek Emakumearentzako Munduko Lehen Biltzarra deitu zuen eta Mexiko-n egin. Behin Emakumearen Nazioarteko Urtea bukatu zenean, eta emakumearen arreratzeko bide horretan jarraitzeko, Nazio Batuen Emakumearentzako Hamarkada aldarrikatu zuen. Mexiko-ko Biltzarraren ondoren beste zenbait egin izan dira: Kopenhage, Nairobi, eta oraindik orain, 1995ean, Pekingo Biltzarra (29) . Biltzar hauek guztiak oso lagungarri gertatu dira, emakumeen eskubideak onartu eta gauzatzeko bide malkarreen.

Ondoren, CEDAW delakoa aztertuko dugu arretaz; izan ere hauxe dugu Nazio Batuek emakumeen eskubideen alde egin duten ahalegin ganorazkoena eta sistematikoena.

3. *Emakumearen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Hitzarmena*

Negoziaketa luze eta katramilatsuen ondoren, azkenean, 1979ko abenduaren 17an CEDAW-a (30) onartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (31) eta berreste prozesua ireki zen. Handik bi urtetara, 1981ean, Hitzarmena indarrean jari zen, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari berreste eta atxikimenduko hogeigarren tresna eman ostean, 27.1. artikulua dioenari jarraiki.

CEDAW-ak Hitzaurrea eta 30 artikulua ditu, non Estatuek eta zenbait aktore pribatuek hartu behar dituzten neurriak ezartzen baitira, ez diskriminatzeko printzipioa onartzen eta sakontzen aurrera egiteko. Hitzaurrean bertan Estatuek Hitzarmenaren helburua seinalatzen dute, agertzen direlarik "Emakumearen aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Aldarrikapenak izendaturiko printzipioak aplikatzeko prest, eta horretarako hartu beharreko neurriak hartzeraz deliberratuak, bereizkeria hau bere modu eta adierazpen guztietan desagertu dadin".

(29) ELIZONDO LOPETEGI, A.: "20 urte emakumeentzako nazioarteko kooperazioan: Mexiko-tik Pekin-a(1975-1995)", in *II Jornadas municipales sobre la cooperación Norte-Sur: la dimensión global de la solidaridad*, Amurrio(Alava)-Bermeo(Vizcaya), 13-21 de febrero de 1995, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1995, 185-211. orrk.

(30) CEDAW-aren negoziaketen azterketa interesgarria: FRASER, A.S.: "The Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women (The Women's Convention)", in WINSLOW, A. (Ed.): *Women, Politics and the United Nations...*, *op.cit.*, 84 etab. orrk.

(31) Batzarreko botazioak erakusten dizkigu negoziaketetan izaniko arazoak eta nolako zailtasunen aurrean topatuko zen Hitzarmena: 130 Estatuk alde botatu zuen, aurkako botorik ez zen izan eta 11 abstentzio, batez ere erligio eta familia ohitura indartsuak zituzten herrialdeenak. Hortaz, botua eman ez zutenak izan ziren: Bangladesh, Brasil, Komores, Djibouti, Haiti, Mali, Mauritania, Mexiko, Maroko, Saudi Arabia eta Senegal.

CEDAW-aren alderdi garrantzitsuenetakoa dugu ez zaiela Estatuari bakarrik zuzentzen, baizik eta zuzentzen dela ere alor pribatura, non, lehen aipatu dugun moduan, haustura larrienak egiten zaizkien emakumeen eskubideei. Halatan beraz, gai hauetan aditua den Donna Sullivan-ek adierazi duen bezala, Hitzarmenak "kontuan hartzen du senitarteko generoko harremanak berregituratzea...behartzen du Estatuak neurri positiboak hartzera, emakumeak babesteko aktore ez estatutuen bereizkerietatik" (32).

Hitzarmenaren 1. artikulua garrantzi handia dauka, bertan zehazten baita "emakumearen aurkako bereizkeria" zer den, zehaztu ere horrela zehazten duelarik:

"sexuan oinarrituriko bereizte, baztertze edo murrizte oro, baldin eta haien helburuz edota ondorioz emakumeari gutxitzen edota ezerezten bazaio emakume eta gizonen arteko berdintasunean oinarriturik eta bere egoera zibilari begiratu gabe dituen giza eskubideak eta funtsezko askatasunak izatea, baliatzea eta erabiltzea alor politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilean, edota beste edozein alorrean ere".

Bestalde, CEDAW-aren 2. artikuluan, partaide diren Estatuak "gaitzetsi egiten dute emakumearen aurkako bereizkeria bere modu guztietan; bat etortzen dira, bitarteko egoki guztiak baliatuz eta luzamendurik gabe, emakumearen aurkako bereizkeria ezabatzea zuzenduriko politika eramatea" eta horren erdiesteko, Hitzarmenaren apartaduetan zehaztuko diren neurriak hartzera lotzen dira. Halatan, 3. artikuluan Estatuak lotzen dira "emakumearen garapen eta aurrerapen betea ziurtatzera"; 4. artikulua mintzatzen da "gizon eta emakumearen artean benetako berdintasuna" lortzeko neurri berezietaz; ondoren, 5. artikulua agintzen die Estatuari alda ditzatela "gizon eta emakumeen jokamolde soziokulturalak" eta ezar dezatela "gizonek nola emakumeek dutela seme-alaben garapen eta heziketaren gaineko erantzukizuna" ... "emakumeen salerosketa modu guztiak eta emakumeen prostituzioko esplotazioa" kentzeaz 6. artikulua mintzo da; 7. artikulua berriaz, emakumea "herrialdearen bizitza publiko eta politikoa" ez diskriminatzeaz mintzo da. Bestaldek, Hitzarmenak aipatzen ditu ere emakumea nazioarteko esparruan parte har dezala sustatzea (8. artikulua); nazionalitateari begira ez diskriminatzea (9. artikulua); eskubide-berdintasuna hezkuntza arloan (10. artikulua), enpleguan (11. artikulua), atentzio medikuan (12. artikulua), ezkontzarekin eta senitarteko harremanekin loturiko gauzetan (16. artikulua); emakumearen sustapena baserri giroan (14. artikulua) (33)...

CEDAW-aren eraginkortasunaren oso kalterako gertatu dira Estatuak xedapen batzuei egin dizkieten erreserba anitzak (34). Halatan CEDAW-a da giza eskubideen itunen artean erreserba gehien

(32) SULLIVAN, D.: "The Public/Private Distinction in International Human Rights Law", in PETERS, J. and WOLPER, A. (Ed.): *Women's Rights, Human Rights...*, op.cit., 129. orr.

(33) CEDAW-aren eduki nagusien azterketa: FREEMAN, M.A. and FRASER, A.S.: "Women's Human Rights: Making the Theory a Reality", in HENKIN, L. and HARGROVE, J.L. (Ed.): *Human Rights: An Agenda for the Next Century...*, op.cit., 112 etab. orrk.; WRIGHT, S.: "Human Rights and Women's Rights: An Analysis of the United Nations Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women", in MAHONEY, K.E. and MAHONEY, P. (Ed.): *Human Rights in the Twenty-First Century: A Global Challenge*, Martinus Nijhoff Publishers, Dordrecht, 1993, 75-88 orrk.

(34) COOK, R.: "Reservations to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women", *Virginia Journal of International Law*, 30. alea, 1990, 643-709 orrk.

dituena. Gainera, zenbait adituen iritziz, erreserba horietako batzuk Hitzarmenaren helburu eta asmoen aurka doaz (35), esate baterako Hitzarmenaren 28.2 artikulua debekatzen duena (36). Erreserbak hainbeste izan dira, ordea, eta horren handia haien edukia, ezen Vienan 1993ko ekainean egin zen Giza eskubideei buruzko Munduko Biltzarrak berak erabaki zuen saiatu beharra zegoela "aterabideak bilatzen, kontu eginik erreserba gehiegi eginak zitzaizkiola Hitzarmenari". Aldi berean, Biltzarrak Estatuak premiau zituen "ken ditzaten, Hitzarmenaren helburuaren aurka doazen erreserbak, edota ohiko nazioarteko zuzenbidearekin batera ezinak direnak" (37). CEDAW-ak ezarritako emakumeen eskubideak babesteko mekanismoei doakionean, seinatu behar da, lehenik, giza eskubideen nazioarteko beste itunetan agertzen direnak baino askoz ere ahulagoak direla (38). Halatan bada, Theodor Meron-ek esan du CEDAW-a "bigarren mailako tresna dela Nazio Batuen giza eskubideei buruzko itunen artean" (39). Giza eskubideak nazioarteko esparruan babesteko diren mekanismo desberdinen artean (aldioroko txostenak, norbanakoen kexuak, estatuen arteko kexuak, ikerketa prozedurak...), CEDAW-ak ez du aldioroko txostenen baliabidea besterik. Hitzarmenaren 17. artikulua araber, Emakumearen aurkako Bereizkeria Ezabatze Komite bat ezartzen da, eta Komite horren funtsezko helburua da, Hitzarmena aplikatzerakoan Parte diren Estatuak egin dituzten aurrerapausoak aztertzea. CEDAW-aren esanak betetzen Estatuak egiten dituzten aurrerapauso horiek aztertzeko, Hitzarmenaren 18. artikulua agintzen du: "Parte diren Estatuak konprometitzen dira, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari txosten bat aurkeztera, Komiteak azter dezan, Hitzarmen honen xedapenak gauzatzeko hartu dituzten neurri legislatibo, judizial, administratibo edota bestelakoen berri emanez, bai eta horretan egini-ko aurrerapausoak agertuz". Txosten hauek, 18.1.b artikulua dioen bezala, "gutxienik lau urtetik behin aurkeztuko dira, eta baita ere Komiteak eskatuz gero". Behin Emakumearen Aurkako Bereizkeria ezabatzeari buruzko Komiteak (40) aztertuz gero Hitzarmenean Parte diren Estatuak ekartzen dizkieten txostenak, komite honek "iradokizun eta gomendio orokorrak egin ahalko ditu,

(35) STAMATOPOULOU, E.: "Women's Rights and the United Nations", in PETERS, J. and WOLPERS, A. (Ed.): *Women's Rights, Human Rights...*, op.cit. 38. orr.

(36) 28.2 artikulua honek esaten du: "ez da onartuko Hitzarmen honen helburu eta asmoekin bateratu ezin den erreserbarik".

(37) *Viena-ko Aldarrikapena eta Ekintza-programa*, Giza eskubideen Munduko Biltzarra, Viena, 1993ko 14tik 25era, BILT./A. 157/23, 1993ko uztailaren 12koa, 39. par., 21. orr.

(38) Ikus honen gainean *Torturari buruzko Biltzarraren 22. artikulua*; *Arrazako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Biltzarraren 14. artikulua*; edota *Eskubide zibileko eta politikoen Nazioarteko Itunari eginiko Hautazko Lehen Protokoloa*... Nazio Batuen Idazkari Nagusiak eginiko azterketa interesgarriak erkatu egiten ditu emakumeen eskubideak babesteko mekanismoak, giza-eskubideen gaineko beste itunetan ezarritako mekanismoei, IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA: *Giza eskubideen nazioarteko tresnen karira eta Nazio Batuen Gutunaren karira dauden ikerketa-jardun, prozedura eta komunikazioen laburpen erkatzailea*, E/CN.6/1997/4, 1997ko urtarrilaren 21ekoa.

(39) MERON, T.: "Enhancing the Effectiveness of the Prohibition of Discrimination Against Women", *American Journal of International Law*, 84. alea, 1990, 213 orr.

(40) CEDAW-aren 17.1 artikuluan agintzen denari jarraiki, Komitea osatzen dute "...Hitzarmenak begiratzen duen alorrean ahalmen eta ospe moral handiko hogeitairu adituk. Adituak Parte diren Estatuak aukeratuko dituzte bere nazioarteko artean, eta beren egitekoa bere buruaren gainean egingo dute; banaketa geografiko orekatua egiten saiatu behar da, bai eta zibilizazio modu desberdinak kontuan hartzen, hala nola sistema juridiko nagusiak ere".

txostenen azterketan eta Parte diren Estatuak emaniko datuetan oinarriturik" (CEDAW-aren 21. artikulua). Ikus dezakezuenetz, mekanismo ahul samarra da, funtsezko protagonismoa Estatuengan baitago, eta Komitearen ahalmenak berriz, oso mugatuak daude. Egoera honi oraindik ere beste zailtasuna gaineratzen zaio, alegia, CEDAW-aren 20. artikuluari jarraiki, "Komitea urtero bilduko da, bi asteko aldian gehienez, aurkeztuko zaizkion txostenak aztertzeke...". Bi asteko epe hau eskas dela ikusi da argi baino garbiago, Estatuak aurkeztu dituzten txostenak behar bezala aztertzeke. Eta horrexegatik, hain zuzen, dago orain arras atzeratua Komiteak egiten duen aldioroko azterketa (41).

CEDAW-ak ezarritako emakumeen eskubideen babeserako mekanismoen ahuldade handi hau dela eta laurogeitamarreko hamarkadaren hasieraz geroztik eskatzen ari da, gero eta indar handiagoz eskatu ere, mekanismo horiek emendatuak izan daitezela. Horixe da hain zuzen ere, Emakumearen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Hitzarmenari egin nahi zaion, eta gaur egun Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak sortu duen Lan-taldean eztabaidan dagoen Hautazko Protokolorako Proiektuaren helburua. Protokolo proiektu hori aztertzeari ekingo diogu hurrengo atalan.

4. *Emakumearen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Hitzarmenerako Hautazko Protokoloaren Proiektua*

CEDAW-a negoziatu bitartean Estatu batzuek (Holanda-k bereziki) aipatu zuten norbanakoen ke-xuak Hitzarmenaren barruan sartzea ez ote zen komeni, hau da, aukera ematea norbanakoek, Emakumearen Aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komitearen aurrean sala zezaten beren ustez Hitzarmenaren xedapenen baten haustura zena. Azkenean, ordea, aukera hori bazterrean gelditu zen (42).

CEDAW-a indarrean jarri eta Emakumearen Aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komitea bere egitekotan hasi zenean, berehala somatu zen, babeserako mekanismoak ahulegiak zirela.

(41) Emakumearen Aurkako Bereizkeria ezabatzeari buruzko Komitearen joan-etorri guztiei buruzko azterketa: FRASER, A.S.: "The Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women...", *op.cit.*, 89. etab. orrk.

(42) BYRNES, A. and CONNORS, J.: *The Adoption of a Petition Procedure under the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*, Background Paper prepared for the Expert Group Meeting on the Adoption of an Optional Protocol to the CEDAW organised by the Women in Law Project International Human Rights Group and the Maastricht Centre for Human Rights, University of Limburg, Maastricht, The Netherlands, 29 september-1 october 1994, p. 3.

Horrexegatik laurogeitamarreko hamarkadaren hasieratik aipatzen ari da behin eta berriz, prozedura horiek indartu beharra dagoela. Mekanismo horiek indartzeko bi aukera leudeke: lehen CEDAW-a bera erreformatzea; bigarrena, berriz, Hitzarmen horri Hautazko Protokoloa eranstea. Berehala ikusi zen CEDAW-aren erreformak eragozpen asko zituela, batez ere dituen erreserba askoren karira. Zailtasun horien aurrean, beraz, Hautazko Protokoloa onartzeko aukera hartu zen, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak egina zuen bezala.

Hala doktrina egileen aldetik (43) nola emakumeen eskubideen arazoaz arduratzen diren Nazio Batuen organuetatik beraietatik ere hasi ziren eskatzen Hautazko Protokolo baten inguruko negoziaketa prozesua ireki zedila. Eta halatan, 1991an, Emakumearen aurrerapenerako Taldeak deituriko adituen bilera batean gomendatu zitzaion lehen aldiz Nazio Batuen Erakundeari berari, CEDAW-erako Hautazko Protokoloa onartzeko aukera aztertzeari ekin ziezaiola. Honi Emakumearen Aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komitea jarraitu zitzaion, eta Viena-n egitekoa zen Giza eskubideen Munduko Biltzarrari egin zion 4. iradokizunean gomendatu zion CEDAW-ean ere sar zezatela eskatze-eskubidea, hartara CEDAW-a maila berean izan zedin Nazio Batuen babespean onarturiko giza eskubideen beste hitzarmenekin. Giza eskubideen Munduko Biltzarrak horretaz esan zuen "prozedura berriak behar zirela hartu, emakumearen giza eskubideen eta berdintasunaren aldeko konpromisoak bete zitezten". Horretarako, jarraitzen du Viena-ko Aldarrikapenak eta Ekintza Planak,

"Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialeko Batzordeak eta Emakumearen Aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komiteak berehalakoan aztertu behar dute eskatze-eskubidea sartzeko aukera, Emakumearen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Hitzarmenerako Hautazko Protokoloa eginez" (44).

1994ean, Emakumearen Aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komitearen bileren garaian, 5. iradokizuna onartu zen, zeinean Komiteak, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialeko Batzordeari gomendatzen baitzion, aditu independenteen talde bat antola zezala, Hautazko Protokolo bat prestatzeari ekiteko. Halarik ere Batzordeak ez entzunarena egin zion Komitearen gomendio honi.

Urte horretan bertan, emakumeen eskubideen arazotan aditu diren zenbait gizon eta emakumeen talde bat osatu zen, Maastricht-eko Giza eskubideen Zentruak eta International Human Rights Group delakoak deiturik. Holanda eta Australiako gobernuak ordainduriko bilera honetatik, Hautazko Protokolorako proiektu landuena eta ganorazkoena atera zen, ondorengo eztabaida eta negoziaketan oinarri izan dena (45).

(43) MERON, T.: "Enhancing the Effectiveness of the Prohibition of Discrimination Against Women" ..., *op cit.*, 216 eta 217 orrk.

(44) *Viena-ko Aldarrikapena eta Ekintza Programa...*, *op. cit.*, 40. par.21. orr.

(45) *Draft Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*, adopted by The Expert Group Meeting on the Adoption of an Optional Protocol to the CEDAW organised by the Women in the Law Project International Human Rights Group and the Maastricht Centre for Human Rights, University of Limburg, Maastricht, The Netherlands, 29 september-1 october.

1995eko urtarrilan, Emakumearen Aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komiteak bere 7. Iradokizuna onartu zuen, non biltzen baititu CEDAW-erako Hautazko Protokoloak izan behar dituen elementuak (46).

Gauzak horrela prestatuak zirela, 1995eko uztailan, azkenean, Nazio Batuen Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak (ECOSOC), 1995/29 ebazpenari jarraiki, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeari agindu zion Lan-talde irekia antola zezala, CEDAW-erako Hautazko Protokoloa prestatzeko.

Urte hartako irailean bertan, Pekin-en egindako Emakumearen gaineko Munduko IV Biltzarrak ongi ikusten du:

“Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak abiatu duen prozesua, Emakumearen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Hitzarmenerako Hautazko Protokoloaren proiektua egiteko, lehenbailehen jarri beharko litzatekeena indarrean, eskatze-eskubideari loturiko prozedura batez” (47).

1996ko martxoan, ECOSOC-aren 1995/29 ebazpena betez, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak ekin zion, CEDAW-erako Hautazko Protokoloa prestatzeko Lan-talde irekia antolatzeari. Lan-talde hau New-York-en bildu zen martxoaren 11tik 22ra bitartean, eta aztertutako zati batez ere, Emakumearen Aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komitearen 7. Iradokizuna eta zenbait Estatuek, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari igorritako iritziak, CEDAW-erako Hautazko Protokoloa egitea egokia zen hala ez zen esanez, bai eta adieraziz ere, horrelako Protokolo batek izan beharko litzatekeen ezaugarri nagusiak (48). Espainiako Estatuaren izenean parte hartu zuen adituak adierazi duen moduan, “Nahiz eta inongo gobernuak ez zen argi azaldu Hautazko Protokoloa egitearen aurka(...), proiektuaren aurrean errezelo handiak daude” (49).

CEDAW-ari Hautazko Protokoloa egiteko Lan-talde irekiaren bigarren bilera 1997ko martxoaren 10etik 21era bitartean egin zen. Bigarren bilera honetan, Lan-taldearen Lehendakariak, Aloisia Wörgetter austriarrak, eztabaidetarako oinarria izango zen dokumentu bat ekarri zuen (50). Testu hau oinarritua zegoen, alde batetik Emakumearen Aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komitearen 7. Iradokizunaren elementuetan, bestaldetik aurreko biltzarraldian eginitako eztabaidetan (1996ko martxoaren 11tik 22ra bitartekoak), eta azkenik, gobernuak Nazio Batuen Idazkari

(46) 7. Iradokizun hau honako dokumentuan dago E/CN.6/1995/CRP.1.

(47) *Emakumearen gaineko Munduko IV Biltzarraren Txostena*, Pekin, Txina, 1995eko irailaren 4tik 15era, A/CONF.177/20, 1995eko urriaren 17koa, 230 k parr., 116 orr.

(48) Iritzi hauek honako dokumentuan daude jasoa REPORT OF THE SECRETARY-GENERAL: *Elaboration of a Draft Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*, E/CN.6/1996/10, 10 January 1996.

(49) “Emakumearen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Hitzarmenerako Hautazko Protokoloa egitea” Lan-taldearen bilera (New-York, 1996ko martxoaren 11-22), 2. oor., Txosten hau Cristina González Beilfuss Dra.-k egin zuen.

(50) Testu hau honako katalogo-zenbakian dator: E/CN.6/1997/WG/L.1, 1997ko martxoaren 10ekoa.

Nagusiari igorritako iritzietan (51). Biltzarraldi honetan Lan-taldeak Lehendakariak prestatuturiko dokumentua behin irakurri eta CEDAW-erako Hautazko Protokoloaren Proiektu ofizial bat egin zuten (52). Proiektu hau izango da aurrerantzean, Lan-taldean eztabaidatzeko eta negoziatzeko erabiliko den oinarritzko dokumentua.

Lan-taldearen hirugarren bilera 1998ko martxoaren 2tik 13ra egin berria dugu, eta hala diot batzarraldian parte hartzeko aukera eman zaidalako. Batzarraldi honetan, Lan-taldeak 1997an prestatuturiko CEDAW-erako Hautazko Protokoloaren Proiektua bigarren bezala irakurtzeari ekin zitzaion, eta bigarren irakurraldi honetan berriro agertu ziren herrialde zenbaitek Hautazko Protokolo honen aurrean dituzten errezelo nagusiak. Biltzarraldi honetan esperantza handiak zeuden, Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 50. urteurrenerako lortu ahalko zela denak bat etortzea. Giza eskubideen Nazio Batuen Goi Mandataria den Mary Robinson-ek berak, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordearen aurrean eginiko diskurtsoan, seinalatu zuen CEDAW-aren Hautazko Protokoloa onartzeari ikusten zion garrantzi handia, iruditzen baitzitzaion, bere hitzetan esanda "emakumearen eskubideak hobeto babesteko garrantzi handiko urratsa" (53). Hala eta guztiz, ezin izan ziren itzaropen guztiak bete, jarrerak oraindik elkarren oso urruti zirelako, eta azkenean, Hautazko Protokoloaren onarpena geroko utzi behar izan zen (54).

Jarraian, CEDAW-erako Hautazko Protokoloaren Proiektuaren elementu nagusiak aztertzeari ekingo diogu (55), bai eta oraindik dirauten desadostasunak aztertzeari, zeintzuek ezinezkoa egin baitute, oraingoz, guztien adostasunez onar daitekeen Proiektua lortzea.

(51) Hautazko Protokoloari buruzko iritzi berriak, Espainiako gobernuarenak barne, agertzen dira IDAZKARI NAGU-SIAREN TXOSTENean: *Gobernuen, gobernuen arteko eta gobernuen kanpoko erakundeen iritzi berriak, Emakumearen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Hitzarmenerako Hautazko Protokoloari buruz*, E/CN.6/1997/5, 1997ko otsailaren 18koa.

(52) *Hautazko Protokoloaren Proiektu berrikusi hau, Lan-taldearen Lehendakariak prestatu zuen*, E/CN.6/1997/WG/L.1 dokumentuan dagoen bilduman eta Batzordearen 41. biltzarraldian egindako proposamenetan oinarriturik.

(53) *Statement made by the United Nations High Commissioner for Human Rights, Ms. Mary Robinson, to the Forty-second Session of the Commission on the Status of Women*, New-York, 3 march 1998, p. 3. Ildo beretik joan zen Erresuma Batuak Europar Batasunaren izenean eginiko Adierazpena, *Statement on Behalf of the European Union by the Representative of the United Kingdom of Great Britain and Northern Ireland to the 42nd Session of the Commission on the Status of Women*, New-York, 2 march 1998.

(54) Proiektua, 1998ko martxoko biltzarraldiko negoziaketak geroztik gelditu zen bezala, ikus daiteke honako dokumentuan: *Hautazko Protokoloaren Proiektu berrikusia, Lehendakariak aurkeztua, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordeak bere 41. batzarraldian eginiko txostenean ageri den bilduman (E/1997/27) eta Batzordeak bere 42. batzarraldian eginiko proposamenetan (E/CN.6/1998/WG/L.2.)* oinarriturik.

(55) Hautazko Protokoloaren Proiektuari buruzko ikerketa zehatz eta ganorazkoenetakoa dugu honakoa: BYRNES, A. and CONNORS, J.: "Enforcing the Human Rights of Women: A Complaints Procedure for the Women's Convention?", *Brooklyn Journal of International Law*, XXI. alea, 3. zbk., 1996, 679-697 orrk. Ikus ere, SULLIVAN, D.: *The Adoption of an Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*, Center for Women's Global Leadership, 1997. Era berean, Giza eskubideen Amerikarteko Institutuak artikuluz artikuluz aztertu du Protokolo Proiektua, proposamen interesgarriak eginez, GIZA-ESKUBIDEEN AMERIKARTEKO INSTITUTUA: *Hautazko Protokoloa. Lanerako dokumentua. Emakumearen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeko Biltzarra*, Giza eskubideen Amerikarteko Institutua, San José, 1998.

Argitu beharreko lehenengo puntua dugu, emakumeen eskubideak babesteko zein mekanismo bildu behar dituen CEDAW-erako Hautazko Protokoloak. Norbanakoen kexuen prozedura sartu behar denarekin nolabaiteko adostasuna badago ere, ez da gauza bera gertatzen Emakumearen Aurkako Bereizkeria Ezabatze Komiteak ofiziozko ikerketen prozedura erabili ahal izatea proposatzen denean. Estatuen arteko kexuen prozedura sartzeari berehala eman zitzaien ezezkoa, nahiz eta aditu batzuek prozedura horren ontasunak goratu dituzten (56). Izan ere, prozedura hau nazioarteko esparruan ia erabili ez denez, badirudi alde batera utzia dela eta Hautazko Protokoloaren Proiektuan ez da agertzen.

Hortaz, geratzen den desadostasun nagusia ikerketa prozeduran datza, Herrialde gehienek, eta batez ere CEDAW-ari Hautazko Protokoloa egitearen aldeko zirenek, ikerketze-prozedura onartzen badute ere, badira oraindik horrekin batere ados ez diren herrialdeak. Halatan bada, Kubak, Txina-k edo Egipto-k zuten, besteren artean, ikertze-prozedura sartzearen aurkako jarrera nabarmena. Txinako ordezkarien iritziz, ezarri behar zen soil-soilik "komunikazio prozedura bat Hitzarmenerako Hautazko Protokoloan" (57). Horren kontra, beste ordezkariak berriz, Espainiakoa tartean, ikertze-prozeduraren aldeko agertzen ziren. Espainiar gobernuaren ustetan "hautazko protokolo batek bi prozedura horiek beharko lituzke izan", "elkarren osagarri" baitira. Gainera, "ikertze-prozedurak berebiziko garrantzia zeukan emakumeen eskubideen aurkako urratze larri eta etengabeei aurre egiteko" (58).

Ikertze-prozedura Hautazko Protokoloaren Proiektuaren 10 eta 11. artikuluetan ageri da. 10.1 artikulua araberaz:

"Baldin eta Komiteak jakiten badu, informazio fidagarri jakin ere, Protokoloan Parte den Estatu batek hautsi egin dituela larriki edota etengabe (59), Hitzarmenean seinalaturiko eskubideak (edota Hitzarmenean zehazturiko betebeharrak bete ez dituela), Komiteak Parte den Estatuari gonbitea luzatuko dio informazio horren azterketan parte har dezan, eta horretarako informazio horren gainean oharrak ematera".

Delako 10. artikulua horren 2. apartatuak ezartzen du:

(56) Theodor Meron-en ustez, prozedura horren "garrantzi sinbolikoa" izugarria da, aukera ematen duelarik Estatu batek bestea salatzeko emakumeen eskubideak urratzeagatik, in MERON, T.: "Enhancing the Effectiveness of the Prohibition of Discrimination Against Women"..., *op. cit.*, 217. orr. Iritzi berekoa ditugu Andrew Byrnes eta Jane Connors, in BYRNES, A. and CONNORS, J.: *The Adoption of a Petition Procedure under the Convention on the Elimination...*, *op. cit.*, 37. orr.

(57) IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA: *Gobernuen, gobernuenarteko eta gobernu kanpoko erakundeen iritzi berriak, Emakumearen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatze buruzko Hitzarmenerako Hautazko Protokoloari buruz*, E/CN.6/1997/5, 1997ko otsailaren 18koa, 74. parr. 16. orr.

(58) IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA: *Gobernuen, gobernuenarteko eta gobernu kanpoko erakundeen iritzi berriak...*, *op. cit.*, 76. parr., 16. orr.

(59) Kortxete edo parentesi artean ageri diren hitzak edota esaldiak, Lan Taldean partaide diren ordezkariaren artean oraindik adostu gabekoak dira.

“Doakion Estatu Parteak emaniko oharrek kontuan harturik, bai eta halaberean eskura duen informazio fidagarri oro baloratuz, Komiteak kideetako bati edo batzuri eska diezaike, ikerketa bati ekin diezaiotela (Parte den Estatuaren oniritziarekin) eta txosten lasterra aurkez diezaiola Komiteari. (Horretarako beharra bada eta) Parte den Estatuaren (baimena lortu ondoren) (oniritziarekin), ikerketak Estatura ikustaldi bat egitea ekar dezake.)”

Era berean, 3. parrafoan ezartzen da “ikerketak ateratako ondorioak aztertu ondoren, Komiteak doakion Estatu Partaideari jakinaraziko dizkio, egoki iruditzen zaizkion ohar eta gomendioekin batera” (60).

Ikus daitekeenez, ikertze-prozedura Estatuarekin zorrotz samar den babes-mekanismoa dugu, Emakumearen Aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komiteari ahalmen handiak ematen baitizkio, emakumeen eskubideak larriki eta etengabe urratzen ari diren Estatuarekin ikerketak egiteko. Honexegatik izan da prozedura hau desadostasun puntu nagusienetako bat. Jarrerak elkarren horren urrun zirenez, azkenean, Lan-taldeko Lehendakariak 1998ko martxoko biltzaraldian, 11 bis artikulua) proposatu zuen, Artikulu honek opt-out klausula bat ezartzen du, hau da, aukera ematen du, Hautazko Protokoloa berrestera Estatu batek adieraz dezan ez duela ikertze-prozedura horri lotua egon nahi. 11 bis) artikulua horrek dioen bezala bere 1. parrafoan, “Parte den Estatu orok, protokolo hau sinatu edo berrestera garaian, edo hari atxikitzerakoan, esan dezake aintzat hartzen (ez) duela 10 eta 11. artikuluetan ezarritako Komitearen eskumena”. Aterabide honek ordezkari guztien gustokoa zirudien, nahiz eta Txinaren ordezkariak proposatu zuen opt-out klausularen ordezkari, 11 bis) artikuluan opt-in klausula ezar zedila (horrexegatik agertzen da “ez” hitza parentesi artean). Klausula opt-in honen bitartez, Estatu bakoitzak, Hautazko Protokoloa berrestera garaian, seinatu beharko luke eta esan aintzat hartzen duela Emakumearen eskubideen aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komitearen eskumena, ikerketa prozedurak irekitzeko. Proposamen honen alde agertu ziren beste ordezkari batzuk, hala nola Kuba eta Algeriakoak. Alabaina, ordezkari hauek berauek, gutxiengo urria zirela ikusirik, puntu honetan “malgu” izateko prest zirela azaldu zuten (61).

Ikus dezakegun bezala, CEDAW-erako Hautazko Protokoloaren Proiektuaren alde eztabaidagarrietako baten aurrean gaude, eta ordezkari bakoitzak berean dirau. Dena den, badirudi opt-out klausula sartzea onartzen bada, ikertze-prozeduraren gaineko adostasuna lor daitekeela. Baina opt-out klausula onartzeak ekartzen du azken finean, Estatuaren esku geratzea ikertze-prozedura onartzea edo ez onartzea, Hautazko Protokoloa izugarri ahulduz. Emakumeen eskubideen

(60) 10. artikulua gainerakoa, 4. eta 5. artikulua, hala nola 11. artikulua, ikus daitezke, Hautazko Protokolo-Proiektuan.

(61) *Chairperson's Summary of Views expressed and Comments made by Delegations during the negotiations of the optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of Discrimination Against Women*, Commission on the Status of Women, Forty-second session, Open-ended Working Group on the Elaboration of an Optional Protocol to the Convention on the Elimination of All Forms of discrimination Against Women, 12 march 1998, 36 eta 37. parr. 6 eta 7 orrk.

aldera begirune gutxien duten herrialdeak izango dira, noski, horrelako ikerketa prozedura onartzeko arazoak izan ditzaketenak.

Emakumeen eskubideen beste babes-mekanismoa, garrantzitsuena dudarik gabe, norbanakoen kexuen mekanismoa dugu. Prozedura hau Protokoloaren Proiektuaren 1. artikulua zehazten du, esaten duelarik ("Protokolo honetan Parte den Estatuak aintzat hartzen du Komiteak duen eskumena komunikazioak jaso eta kontuan hartzeko (2. artikulua dioenaren arabera aurkezten badira).") (62). Norbanakoen kexuei doakienean, badira desadostasunak ere, batez ere Komitearen aurreko legitimazio aktiboari doakienean eta CEDAW-aren xedapenen justiziatzeari buruz.

Legitimazio aktiboari doakienean (*locus standi* edota *standing issue*-ei buruzko arazoa), hau da, nor edo nortzuk diren gai Emakumearen aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komitearen aurrean norbanako kexua aurkezteko; honetan Hautazko Protokoloaren Proiektuaren puntu gaitzenaren aurrean gara. Puntu korapilatsuena dugu honako hau, eta honek eragotzi zuen, hain zuzen ere, 1998ko martxoko Biltzarraldian denak bat etortzea eta Protokolo egiteko prozesuari amaiera ematea. Legitimazio aktiboa Protokoloaren Proiektuaren 2. artikuluan dator. Artikulu honek dio: ("komunikazioak partikular batek (edo haren izenean) edo (partikularren) taldeek aurkez ditzakete, Parte den Estatu baten menpean egonik, alegatzen badute jasan dutela Parte den Estatuaren (ekintza baten edota ez egitearen ondorioz), Hitzarmenean seinalaturiko edozein (xedapen) edota (eskubideen) urradura.)

(Komunikazioak partikular batek edo partikularren talde batek aurkez ditzake, edo haren izenean, izendatu dituzten ordezkariak, Parte den Estatu baten menpe egonik, alegatzen badute Hitzarmenean seinalaturiko edozein eskubideren urradura jasan dutela.)

Ikus dezakagunez, artikuluan desadostasunak horren handiak izanik, bi aukera daude. Eztabaidagai nagusia dugu ea utz daitekeen norbaitek "biktimaren izenean" aurkeztu ahal izan dezala norbanako kexua Komitearen aurrean. Herrialde askoren "beldurra", zeinen artean ditugu Mexiko, Kolombia, Kuba, Txina, Egipto, Tunisia, Maroko, Algeria, India..., da nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakundeek, nazioarteko sare sendoak antolatuak dituztenez, horrelako errekurtsioak jarri ahal izatea "biktimen izenean" Emakumearen aurkako Bereizkeria Ezabatzeari buruzko Komitearen aurrean. Aitzitik, herrialde multzo handi batentzat (63) aukera hau funtsezkoa da, baldin eta norbanakoen kexuen mekanismo hau emakume guztien eskubideak babesteko benetan erabili nahi bada, eta ez nazioarteko esparruan horrelako errekurtsioak aurrera eramateko adina bitarteko ekonomiko eta intelektualak dituzten emakumeenak bakarrik. Nazioarteko Amnistia izan da GKE-ren artean, Hautazko Protokolo honen negoziatze prozesuan, eta agerian jarri du aukera hau dela,

(62) Ikus daitekeenez, 1. artikulua osoa kortxeta artean ageri da, esan nahian artikulua horren guztiaren gainean batera etorri gabeak direla oraindik.

(63) Ikus honakoen iritziak: Costa Rica, Hego Afrika, Italia, Espainia, Panama, Txile,..., in IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA: *Gobernuen, gobernuenarteko eta gobernu kanpoko erakundeen iritzi berriak...*, op.cit., 17. eta.b orrk.

“erabakiorra, Hautazko Protokoloak benetako konponbidea eskainiko badie Hitzarmenaren urradurak jasan dituzten biktimei. Konponketaren behar handiena dutenak (...) izan ohi dira zailtasun handienak dituztenak ere, beren oinazetaz mintzatzera agertzeko eta horretatik konponketa edo ordaina lortu.

Horren ondorioz, zeregin erabakiorra da, giza eskubideen aldekoek, GKE-k ere barne, egiten dutena, biktimei laguntzen dietenean beraien eskubideak eskatzera. Emakumeek oztopo bereziak dituzte konponketa lortzen saiatzerakoan, hala nola errepresalien arriskua, alfabetatze maila eskasa, ezagupen juridikorik ez izatea eta diru eskasia” (64).

Antzeko iritzia daukate Andrew Byrnes eta Jane Connors, esaten dutelarik “Hautazko Protokoloaren 1 eta 2. artikuluek beharko lukete izan, giza eskubideen gainerako Hitzarmenetan bezain zabalak. Pertsona batek urradura baten biktima izan beharrak gehiegi mugatzen du jaso daitezkeen komunikazioen kopurua. Emakumeen aurkako egiturazko bereizkeria mota askok gizarte bateko emakume asko edota guztiak ere behar bada, har ditzake” (65).

Dena den, jarrerak elkarren oso urrun dira, eta ez dirudi erraz gainditu daitezkeenik dauden errezelok. 1998ko martxoko biltzarraldian 2. artikulua sortu zituen eztabaida gehien, azkenean ezin izan zelarik batera etorri. Ene ustez honako hau dugu ardatza eta mami gunea, zeren eta beren ateak, emakumeen eskubideen gai garrantzitsuan, nazioarteko ikusketari zabaldu nahi ez dizkioten herrialdeak baitaude.

Kexuen prozeduraren inguruan, beste puntu arazotsua, *justiziatzearena* dugu, hau da, Emakumearen Aurkako Bereizkeria Mota guztiak Ezabatzeari buruzko Hitzarmenean diren eskubideen artean zeintzuek onar dezakete norbanakoen kexua, zeren eta hauetako askok Parte diren Estatuari programa-izaerako betebeharrak ezartzen baitizkiete. Puntu honetan ere elkarren aurkako jarrerak zeuden, baina ez legitimazio aktiboaren kasuan bezain gogorrak halere. Gobernu gehien ustez, “giza eskubide guztiak, neurri batean edo bestean, justiziagarri zirenez gero, gomen datu zen Hitzarmenaren funtsezko xedapen guztiak justiziagarritzat hartuak izan zitezen” (66). Honetan, Espainiar Estua gehiengoarekin batera agertu zen, azalduz gainera “Hitzarmenaren xedapen orok behar du Protokoloaren menpe izan. Ez da komeni xedapenen arteko bereizketak egitea, emakumearen eskubideak ikuspegi bateratu batetik ikusten duen Hitzarmenaren batasuna apurtuko bailitzateke bestela” (67). Ikuspuntu honetan dira ere puntu hau aztertu duten EGK

(64) NAZIOARTEKO AMNISTIA: *Emakumearen gaineko Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa: nazioarteko gaitze-mekanismo baten beharra*, AI:IOR 51/04/97/s, 1997ko abendua, 10. orr.

(65) BYRNES, A. and CONNORS, J.: *The Adoption of a Petition Procedure under the Convention on the Elimination...*, *op.cit.*, 27. orr.

(66) IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA: *Gobernuen, gobernuen arteko eta gobernuen kanpoko erakundearen iritzi berriak...*, *op.cit.*, 39. parr., 9. orr.

(67) *Emakumearen Institutuaren Oharrak, CEDAW-aren Hautazko Protokoloaren Proiektua egiteaz arduraturiko Lan-taldearen txostenaren proiektuari*, Lan eta Gizarte arazoetarako Ministeritza, Emakumearen Institutua, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa, Madrid, 1996ko irailaren 18, 1. orr.

gehienak eta doktrinaren gehiengoa ere (68). Alabaina, puntu honetan ere ezin lortu zen adostasuna eta halatan kortxete artean ageri da Protokoloaren Proiektuaren testuan, CEDAW-aren xedapenen justiziatzeari buruzko aipamena (proiektuaren 2. artikulua).

Beste arazo katramilatua izan zen ea CEDAW-aren Hautazko Protokoloari erreserbak egiterik ote zen ala ez. Ordezkaritza askorentzat, hala nola espainiarrarentzat, funtsezkoa da Protokoloak, prozedurazko izaera nabarmena duenez, ez uztea erreserbak sartzeko aukera, honek Protokoloaren helburu nagusia, hau da CEDAW-aren eraginkortasuna bultzatzea, neurri handi batean hutsalean utz baitzezakeen (69). Honen gainean, oso adierazgarriak izan ziren Emakumearen Aurkako Bereizkeria Ezabatzeko Komitearen aditua den Silvia Cartwright anderearen hitzak. Bere ustez, gure lan honetan aztertu dugunarekin bat etorritz, CEDAW-aren eraginkortasun eskasaren arrazoi nagusienetako bat genuen Hitzarmena berretsi duten Estatu desberdinek eginiko erreserba kopuru handia, askotan Hitzarmenaren nahi eta helburuaren aurka joaterainoko erreserbak egin gainera. Horrexegatik hain zuzen, bere iritzi jakintsuaren arabera, debekatu egin beharko litzateke Protokoloaren testuan bertan halaxe esanez, berrestarako garaian erreserbak sartzea. Helburu honi begira, Estatuak ez zuten Protokoloaren testuan bertan sartu nahi izan dira, hartara Estatuak ez zezaten erreserben beharra izan. Estatu gehienek seinatu dute ez dutela erreserben debekua onartuko harik eta Protokoloaren azken edukia ikusten duten arte eta halatan ziurtatzen ez dutela erreserbaren bat sartu beharko. Erreserbak inondik ere onartu nahi ezean, Lan-taldearen Lehendakariak dokumentu bat banatu zuen, Estatuak sor dakizkiekeen arazo guztiak Protokoloan bertan sartzeko aukeren bila (70).

Erreserbak debekatzeko klausula onartzeko arazoak zituzten ordezkaritzetako bat Estatu Batuena zen, eta 20. artikulurako proposatu zuen testuak erreserbak onartzen zituen baldin eta Protokoloaren asmo eta helburuaren aurkakoak ez baziren (71). Halarik ere, hurrengo egunean, ordezkaritza gehienak erreserbak ez onartzearen aldekoak zirela ikusirik, iparramerikar ordezkaritzak bere proposamena kendu egin zuen eta erreserbak debekatzeko zirela esaten zuen 20. artikulua onartu.

(68) BYRNES, A. and CONNORS, J.: *The Adoption of a Petition Procedure...*, *op.cit.*, 5. etab. orrk.; NAZIOARTEKO AMNISTIA: *Emakumearen gaineko Hitzarmenaren Hautazko Protokoloa...*, *op.cit.*, 20. etab. orrk.; GIZA ESKUBIDEEN AMERIKARTEKO INSTITUTUA: *Hautazko Protokoloa. Lanerako dokumentua...*, *op.cit.*, 16 eta 17 orrk.

(69) *Chairperson's Summary of Views expressed and Comments made by Delegations during the negotiations of the Optional Protocol...*, *op.cit.*, 51. etab. parrk., 9. orr.

(70) Balio handiko dokumentua dugu, Estatuak, Hautazko Protokoloa berresteraoan topa zitzaketan arazo guztiak kontuan hartzen saiatzen baita, arazo hauek Protokoloaren testuan bertan egokitu nahirik. Ikus dokumentua in *Reservations and the Draft Optional Protocol*, march 1998.

(71) Testu hau ofizialki aurkeztu zen 1998ko martxoaren 11ko arratsaldeko saioan; honako hau duzue testua: "No reservation to this Protocol shall be permitted that is contrary to the object and purpose of this Protocol or restricts the competence of the Committee to review violations of the Convention in accordance with article 2 and other provisions of this Protocol".

Dena den, erreserben arazoa oraindik aidean da, zenbait Estatuk errezelu handiz begiratzen baitote, erreserbarik onartzen ez duen Hautazko Protokoloari.

Protokoloaren Proiektua egiterakoan aurkako jarrerak sortu dituzten beste puntu gehiago ere badira; aipa ditzagun esaterako, norbanakoen kexuak onartzeari buruzkoa (Proiektuaren 4. artikulua), prozeduraren konfidentsialtasunari buruzkoa (6. artikulua), arazoaren mamiaren azterketa eta Komitearen erabakiak lotesleak ote dira (7. artikulua), Komiteak, jasotzen dituen errekurtsoak aztertzeko behar duen denbora (16. artikulua)... Guztiarekin ere, seinalatu behar dugu puntu hauek guztiak bigarren mailako arazotxoak direla, eta arazo nagusiak (ikertze-prozedura, legitimazioa, justiziatzea eta erreserbak) konpontzen badira, gainerako puntuetan erraz izango dela batera puntua aurkitzea.

5.

Ondorio gisa

CEDAW-erako Hautazko Protokoloaren Proiektuaren ezaugarri nagusiak azterturik, eta aurrean dituen arazo handiak ere ikusirik, orain saiatuko gara Proiektu hori egiteko prozesuaren gaineko eta denbora laburxkoan onartua izango denaren ustearen gaineko ondorio batzuk ateratzen.

Lehenik esan, CEDAW-aren Hautazko Protokoloa onartzeak, emakumeen eskubideak babesteko Hitzarmenak dituen mekanismoak indartzen dituenek, jartzen duela Hitzarmena, Nazio Batuen barnean onartu diren giza eskubideen itun garrantzitsuenen mailan. Ez da inongo arrazoirik, noski, emakumeen eskubideek ez izateko gainerako eskubideek duten babes-maila.

Bigarrenik, babeserako mekanismo zorrotzagoak izateak bultzatuko lituzkete Estatuak, CEDAW-a hobeto aplikatzeko ahaleginak egitera, hartara ez zitezen Emakumeen aurkako Bereizkeria Ezabatze Komitearen aurrera deituak izan.

Halaberean, Emakumearen aurkako Bereizkeria Ezabatze Komiteak, bere erabakiekin lagunduko luke CEDAW-a hobeki ulertua izan zedin, eta batez ere, Estatuak hobeki eta zehatzago aplikatzen. Halatan beraz, Komiteak, Hitzarmenaren alderdi zenbaitetan, jurisprudentzia interesgarria gara zezakeen.

Emakumeen eskubideen aldeko mogimenduaren kaltetan esan beharra dugu, Hautazko Protokoloaren Proiektuaren gaineko eztabaida eta idazte lanetan apenas hartu dutela parte. Giza eskubideen Amerikarteko Institutuak esan duen bezala, "emakumeen mogimenduak, Protokoloa egiten eta eztabaidatzen oso gutxi hartu du parte. Errealitatean, egiteko hau GKE gutxiren eta Protokoloaren prozedura tekniko eta juridikoetara emaniko emakume gutxi batzuen eskuetan izan da, mogimenduak zehazturiko estrategia politikoa izan beharrean". Eta, Hautazko Protokoloaren inguruan lobby lan handia egin duen Institutu honen hitzetan jarraituz, "prozesua ez da indartuko harik eta emakumeen mogimenduak dokumentua bere egiten ez duen arte, bere egitekoen artean lehentasuna ematen ez dion arte Protokoloa negoziatu eta onartua izatea lortzeari" (72) .

(72) GIZA ESKUBIDEEN AMERIKARTEKO INSTITUTUA: *Hautazko Protokoloa. Lanerako dokumentua...*, op.cit., 143-144 orrk.

Amaitzeko, seinala dezadan, ordezkartzen arteko desadostasun handiak dauden arren, aipatu ditugun oztopo nagusietako zenbait gaitzen badira, CEDAW-erako Hautazko Protokoloaren Proiektua berehala gauza daitekeela, eta honela emakumeen eskubideak giza eskubideen artean lehenetako lekuan jarriko litzateke. Guztiona dugu ardura.

1.

Sarrera: Europako Erkidegoen Justizia Auzitegia. Bi jurisdikzio organu eta Erakunde bakarra

1.1.

ZEREGINAK, OSAKETA ETA ESKUMENAK

Justizia Auzitegia, Europar Erkidegoaren Itunak (aurrerantzean "EE Ituna") izendatzen du Erkidegoaren erakundeen artean, Europar Parlamentuarekin, Kontseiluarekin eta Kontu-Auzitegiarekin batera (3). EE Itunak 25 artikulua ematen ditu —izan ere 164etik 188ra bitartekoak— Justizia Auzitegiaren zereginak, osaketa eta eskumenak arautzen (4).

Xedapen hauen arabera, Justizia Auzitegiaren zeregina da Ituna interpretatu eta aplikatzerakoan, zuzenbidez egingo dela ziurtatzea. Osoko bilkuran hamabost epaile ditu, baina zenbait gai, hiru, bost edo zazpi epailez osaturiko epaimahaiei eman dakieke. Deliberamenduak talde bakoitietan egin behar dituzte.

Auzitegiak zortzi abokatu orokorren laguntza du, nahiz eta momentuz, 2000 urteko urriaren 6a arte, bederatzi dituen (5). Abokatu orokorraren zeregina da, publikoki eta erabateko impartzialtasunez eta independentziaz aurkeztea, Justizia Auzitegiaren aitzinera eramaniko gaiei buruzko ondorio arrazoituak, halatan bere zereginak betetzen lagun diezaion.

Hala Auzitegiko epaileak nola abokatu orokorrak aukeratzeko dira, independentzia ziurtatua duten pertsonen artean, eta nork bere herrialdean jurisdikzioko zeregin gorenak betetzeko gai direnen edo legelari jantzizat ezagutuak direnen artean; Estatu kideetako Gobernuak ados jarriko aukeratzeko dituzte, sei urtetarako. Epaileek beren artean lehendakaria aukeratzeko dute hiru urtetarako. Guztien agintaldia berriro daiteke.

(1) 1998ko ekainaren 11n aurkezturiko ponentzia, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak antolatutako Generoari eta Ekintza Positiboko Politikei buruzko Nazioarteko II. Batzarrean, Donostiako Miramar Jauregian.

(2) Egileak azaltzen dituen iritziak bere bereak ditu eta ez dute ezertan ere lotzen, lantoki zaion Erakundearekin.

(3) Maastricht-en 1992ko otsailaren 7an sinaturiko eta indarrean 1993ko azaroaren 1ean jarri zeneko Europar Batasunaren Itunaren G artikulua (6) puntua emaniko idazkeran (DO C 191, 1992ko uztailaren 29koa).

(4) Artikulu hauetan ematen diren arauen osagarri badira hainbat testu. Honako hauek ditugu testu horiek: Justizia Auzitegiaren Estatutuari buruzko Protokoloa, Justizia Auzitegiaren eta Lehen Instantziako Auzitegiaren Prozedura-araudiak, Idazkariarentzako Jarraibideak, distantziagatik edota jaiegunengatik epeak luzatzeari buruzko Erabakiak, eta Lehen Instantziako Auzitegia sortu eta eskumenak emateari buruz Kontseiluak hartutako Erabakiak.

(5) Aldaketa hau ekarri zuen, atxikitze-baldintzei buruz eta Europar Batasunera Austria, Finlandia eta Suedia atxiki zitezkeen Itunak egokitzeari buruzko Aktaren 20. artikulua, 1995eko urtarrilaren 1eko Kontseiluaren Erabakiaren 11. artikulua ondozko bertsioan, non egokitu egiten diren, Estatu berriak Europar Batasunera atxikitzeko tresnak (DO L 1, 1995eko urtarrilaren 1eko). 1994ko urriaren 6an, Estatu kideak hamabi besterik ez zirenean eta beste lau Estatu berrien atxikimendua aurrekusten zelarik, Justizia Auzitegiko hamairugarren epaile gisa hartu zuen tokia Antonio La Pergola Jaunak, Italiar hiritartasunekoak, sei urteko agintaldirako. 1995eko urtarrilaren 1ean, Norvegia atxiki ez zenez, Estatu kideen kopurua, eta haiekin batera epaileena ere, hamabostera igo zen, eta kopuru bakoitia izanez beste epaile beharrik ez zegoenez, bitu hilabete lehenago hamairugarren epaile izendaturikoa, abokatu orokorraren zereginetara jarri zen bere agintaldia amaitu bitartean.

Gaur egun, Justizia Auzitegiak eskumena du Batzordeak, Estatu kideek edota Kontseiluak ezarrirako edozein errekurtsoren gainean aritzeko, Europar Parlamentuak eta Europako Banku Zentralak bere eskubideak gordetzeko ezarrirakoetan ere eskumena du; halaberean, eskumena du naziotako jurisdikzio organuek, 177. artikuluari jarraiki azalduriko epaiketaurreko arazoaren gainean aritzeko, bai eta epaitzeko ere, Erkidegoak edo bere kontura eginiko zuzenbide pribatuko edo zuzenbide publikoko kontratu baten konpromezuzko klausula baten karira.

Europako Akta Bakarrak, 1986an, EE Itunari 168 A artikulua ezarri zion, non aurreikusten baitzen Kontseiluak Lehen instantziako Auzitegia sortaraziko zuela, errekurtsio mota batzuen gainean ari zedin. Sortu ere 1989an sortu zuen, eta Justizia Auzitegiari atxikiriko jurisdikzio-organu berriak urte hartako iraileko 1ean ekin zion bere egitekoari. Xedapen honen oraingo idazkerari jarraiki (6) jurisdikzio-organu hau aritzen da, lehen instantzian —zuzenbidezko gaietan Justizia Auzitegiaren aitzinean errekurtsioa jar badaiteke ere (kasazio errekurtsioa)—, Kontseiluak aho batez ematen dizkion errekurtsio moten gainean, izan ere, gaur egun partikularrek, nor fisiko edo juridikoek aurkezturikoak besterik ez direnak, baina etorkizunean izan daitezke ere, agian, ez betetzeagatik eta deuseztatze errekurtsioak zenbait gaietara lotuak badira, hala nola, Estatuaren laguntzak. Lehen instantziako Auzitegiak bere gain hartzerik ez dituen arazo bakarrak, Estatuak ituna aldatzen ez duten bitartean, 177. artikuluari jarraiki gertatzen diren epaiketaurreko arazoak ditugu.

Lehen Instantziako Auzitegiko kideak hamabost dira ere, partaide diren Estatu bakoitzagatik bat. Erabateko independentzia ziurtatzen duten eta jurisdikzioko zereginak egiteko gai direla erakusten duten pertsonen artean aukeratuak dira. Partaide diren Estatuetakoa Gobernuak ados jarririk izendatzen dituzte, sei urtetarako; beraien artean lehendakaria hiru urtetarako aukeratzeko dute, eta agintaldi guztiak berritu daitezke. Hiru eta bost epaileko epaimahaietan aritu ohi dira eta ez dute abokatu orokor iraunkorrik, baina epaileren arteko batek betetzen du zeregin hori osoko bilkurari dagozkion gaietan, edo gaiaren izaerak edo konplexutasunak hala eskatzen duenean.

Partikularrek legitimazio txikiagoa dute, partaide diren Estatuak edota Erkidegoaren Erakundeek baino. Izan ere, Erkidegoaren Erakunde baten aurka bakarrik jar dezakete auzia, eta ez Estatu kideen aurka edo partikularren aurka. Honako errekurtsioak jar ditzakete: deuseztatze errekurtsioa (173 artikulua), partikularren aukera ematen dio, berari zuzenduriko erabakiak, edo araudi moduan eginak izanagatik ere, edo beste norbaiti zuzenduriko erabakiaren moduan eginak baina, berari ere eragiten badiote, horien aurka errekurtsioa jartzeko; kexuzko errekurtsioa, baldin eta Erkidegoaren Erakunderen batek ez badio igorri gomendio edo irizpena ez den egintzarik (175. artikulua), eta kontratuz kanpoko erantzukizunagatik errekurtsioa, Erakunderen batek edo bere agenteek beren eginkizunetan ekarri dizkioten kalte-galeren ordaina eskatzeko (178 eta 215. artikulua). Lehen Instantziako Auzitegiak eskumena du ere, Erkidegoak edo haren kontura eginiko zuzenbide pribatuko edo zuzenbide publikoko kontratu bateko konpromezuzko klausulari jarraituz epaitzeko (181. artikulua), auzi jartzailea nor fisiko edo juridikoa denean eta kontratua 1993ko

(6) Europar Batasuneko Itunaren G artikulua 50) puntuak aldatu du.

abuztuaren lehena ondoren izenpetu bada (7). Gainerako egoera guztietan, konpromezuzko klausula baten karira epaitzeko eskumena Justizia Auzitegiak dauka.

Justizia Auzitegiaren eskutan jarritako auzi guztietan alderdialde bezala parte har dezaketen Erkidegoaren Erakundeek eta Estatu kideek ez bezala, partikularrek, beraiei parte hartzea onar dakien, frogatu beharko dute, auziaren konponbidean interesatuak direla. Partaide diren Estatu arteko, Erkidegoko Erakundeen arteko eta Estatu kide eta Erkidegoko Erakundeen arteko auzietan ordea, ez zaie parte hartzerik onartzen.

1.2.

ORDEZKAPENA ETA DEFENTSA

Partaide diren Estatuak, Europar Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmenean parte diren Estatuak eta Erkidegoaren Erakundeak, Justizia Auzitegiaren aitzinean ordezkatzan dituzten gai bakoitzarako izendaturiko agente batek, honek, Estatu horietako batean kolegiaturiko eta diharduen abokatu baten aholkularitza ukan dezake. Gainerako alderdien ordezkapena eta defentsa utzi beharko da, Estatu horietako batean kolegiaturiko eta diharduen abokatu baten eskutan eta ez da inoiz ere onartuko prokuradore batek ordezkatea. Auzitegiaren aitzinean postulatzeko ahalmena onartzen zaie ere, Estatu kide baten hiritar izanik, Estatu horren legeriak bere auzitegien aitzinean aritzeko ahalmen hori onartzen dien irakasleei.

Epaiketareko prozeduran erabiltzen diren arauak dira, epaiketaurreko arazoa agertu duen jurisdikzio-organuaren aitzinean ordezkapena eta defentsa egiteko erabiltzen diren arauak. Auzi nagusian parteak bere burua ordezkari badezake, Justizia Auzitegiaren aitzinean ere egin dezake. Nahiz eta jakinarazpenetarako Luxenburgo-ko norabideren bat emateak derrigorrezkoa izateari utzi zion, Prozedurazko Arautegian eginiko azken aldaketetako baten bidez, nolaz eta Justiziako Auzitegiak jakinarazpena egintzat ematen duen, igorpena Luxenburgo-ko posta-bulegoan ematen duenean, oraindik ere komeni du horretarako Luxenburgo-ko norabideren bat ematea, posta arras geldo baitabil Estatu kide batzuetan.

1.3.

PROZEDURA

Prozedurarako hizkuntza auzi jartzaileak aukeratzen du, ofizial diren hizkuntza guztien artean, zeinei gehi dakiekeen irlandar gaelikoa ere. Halere, demandatua Estatu kideren bat bada, edota Estatu kideetako partikularren bat, prozedurarako hizkuntza, Estatu horretakoa izanen da eta, bat baino gehiago badu, hala nola Belgika-ren kasuan, auzi jartzaileak aukeratuko du gehien komeni

(7) Europar Erkidegoen Lehen Instantziako Auzitegia (DO L 144, 21. orr.) sortu zuen 88/591/CECA, EEE, Euratom, Erabakia aldatu zuen 1993ko ekainaren 8ko Kontseiluaren 93/350/Euratom, CECA, EEE Erabakiaren 3. artikulua bigarren parrafoak dioen bezala.

zaiona (8). Auzitegiak baimen dezake ere, alderdiren batek hala eskatuta, arau orokorrek aurreikusitako hizkuntzaz besteko hizkuntza ofiziala.

Prozedurak, idatziriko fasea du alde batetik, zeinean Auzitegiaren Idazkaritzak alderdiei eta Erkidegoaren Erakundeei demandaren, erantzunaren, ihardespenaren eta duplikaren berri ematen dien, bai eta parte hartzeko idatziak eta aurkezturiko oharrak ere, eta bestaldetik ahozko fasea, zeinean epaile txostengilearen txostena irakurtzen baita, bista egiten da, non Auzitegiak alderdien ordezkariari entzuten baitie eta amaitzeko abokatu orokorraren ondorioen irakurketa egiten baita, baldin eta gaia Justizia Auzitegiaren aitzinean bada.

Epaiketaurreko prozeduraren idatziriko fasean, behin nazioko epailearen autoa hizkuntza ofizial guztietara itzulitakoan, igorri egiten zaie beti Estatu kide guztiei, auzi nagusian parte direnei eta Batzordeari, eta Kontseiluari, Europar Banku Zentralari eta Europar Parlamentuari, baldin eta berriek egin badute, interpretatzea eskatzen den edota zilegi ote den duda dagoen egintza. Halakoetan bi hilabeteko epea ematen zaie oharrak egin ditzaten. Ondoren bista bat egin ohi da, non oharrak ahoz egin daitezkeen, nahiz eta Auzitegiak bista hori alde batera utz dezakeen baldin eta hara aurkez daitezkeen alderdietako inork ez badu entzuna izan dadila eskatu. Epaiketaurreko arazoetan erabiliko den hizkuntza izanen da arazoa azaldu duen jurisdikzio-organuarena, Auzitegiak baimen dezakeen arren, alderdietako batek hala eskatzen badu, bistan beste hizkuntza ofizialen bat erabiltzea.

Parte hartzen duten prozedura edozein izanik ere, Estatu kideek, hala idatzizko fasean nola bistan bertan, bere hizkuntza ofiziala erabiltzeko baimena dute.

1.4.

ERREKURTSORAKO BIDEAK

1.4.1.

EZ BETETZEAGATIKO ERREKURTSOA: 169TIK 171 BITARTEKO ARTIKULUAK

Batzordeak baderitzo Estatu kideren batek ez dituela betetzen EE Itunak edota eratorritako zuzenbideak ezarri dizkion betebeharrak, errekerimenduzko idatzi baten bidez ematen dio jakitera, oharrak egiteko aukera emanez. Ez betetzea ez bada bide horretatik zuzentzen, Batzordeak irizpen arrazoinatua zuzentzen dio Estatu kideari, honek bere defentsarako egoki deritzona erantzun dezan. Batzordeak eusten badio Estatuak oraindik ere bere betebeharra betetzen ez dueneko usteari, Justizia Auzitegiaren aitzinera jo dezake.

(8) Ez da nahasi behar Espainiako Erresumaren kasua, zeinaren Konstituzioak lau hizkuntza ofizial onartzen ditu bere lurraldean, baina Europar Batasunean, berriz, espainiera besterik ez duena ofizial, Belgika edota Finlandiako kasuekin, hauetan bere hiru hizkuntzak batentzat eta bi hizkuntzak bestearentzat, Batasunean ere ofizialak baitira.

Estatu kideek eskubide bera dute, beste Estatu kideren batek Itunak jarririko betebeharreren bat betetzen ez duela uste badu. Baina horrelakoetan jarririko errekurso bat onargarri izan dadin, Estatu kide eskatzaileak, arazoa aurretik Batzordeari agertu behar dio (9).

Auzitegiak erabakitzen badu Estatu kide demandatuak ez duela betebeharra betetzen, deklaraziozko epaia ematen du eta Estatu horrek epaia betearazteko behar diren neurriak hartu behar ditu. Batzordeak ikusten badu Estatu horrek ez dituela behar ziren neurriak hartu, oharrak aurkezteko aukera ematen dio; oharrekin ados ez badago, jarraian irizpen arrazoitua ematen du, Estatuak epaia zein puntutan ez duen bete seinalatuz eta irizpide horri men egiteko epea ezartzen dio. Epea buruturik epaia betetzeko hartu behar zituen neurriak hartu ez baditu, Batzordeak Justizia Auzitegiari aurkez diezaioke auzia. Auzitegiak esaten badu Estatu horrek ez duela bere epaia bete, oroharreko prezioa diru kopuru bat edo isun hertsatzaile bat ordaintzera behartu dezake (10).

Honako errekurso hau Batzordeak edo Estatu kideren batek beste inork ezin jar dezake, demandua ezin izan daiteke Estatu kideren bat baizik, eta partikularrek ezin dute, ez alderdialde bezala ere, parte hartu. Errealitatean garrantzi handikoa da halere, zeren eta Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, Estatu kideek Erkidegoaren zuzenbideak jartzen dizkien betebeharrak ez betetzeak beraien kontratuz kanpoko erantzukizuna ekar baitiezaieke, ez betetze horrek kalte-tu dituen partikularren onerako (11).

1.4.2.

DEUSEZTATZE ERREKURTSOA: 173. ETA 174. ARTIKULUAK

Justizia Auzitegiaren aitzinean eska daiteke deuseztatzea soilik Europar Parlamentuak eta Kontseiluak elkarrekin erabakitako egintzak, Kontseiluak erabakitakoak, Batzordearenak eta Europako Banku Zentralarenak, baldin eta gomendioak edo irizpenak ez badira, eta Europako Parlamentuarenetik, hirugarrengoen aurrean juridikoki eragiteko emandakoak.

(9) Orain artekoan lau kasutan bakarrik demandatu du Estatu kide batek beste Estatu bat Justizia Auzitegiaren aitzinean. 1977ko ekainaren 16an, Irlandak Frantzia demandatu zuen arkumekiaren arazoagatik, baina arazoa artxibatu egin zen, Irlandak auzia utzi zuelako; 1979ko urriaren 4ean, Auzitegiak epaia eman zuen Frantzia/Erresuma Batua arazo batean arrantza zela eta; 1992ko urriaren 3an Espainiak Erresuma Batuen aurkako auzia jarri zuen, honek legea betetzen ez zuelakoan, zerga handiagoa ezartzen baitzion Espainiako jerezari, Erresuma Batuan eginikoari baino; honako arazo hau ere artxibatu zen, Espainiak auzia utzi zuelako. Epaia zai dago berriz, C-388/95 arazoa, Belgika/ Espainia artekoa, Espainiak ez duelako jarraitu nahi Errioxako eta Ribera de Duero-ko ardoak ontziratu gabe esportatzen.

(10) Europar Batasuneko Itunak EE Itunean ezarritako berrikuntza bat dugu honako hau. Aurretik, ez zuela bete esaten zuen epai bat betetzen ez zuen Estatu kide bati ezar diezaiokeen zigor bakarra beste ez betetzeagatik epaia ematen zen.

(11) Honako epai hauek: 1991ko azaroaren 29koa, Francovich (gai metatuak C-6/90 eta 9/90, Rec. p. I-5357); 1996ko martxoaren 5koa, Brasserie du Pêcheur (gai metatuak C-46/93 eta C-48/93, Rec. p. I-1029); 1996ko martxoaren 26koa, British Telecommunications (C-392/93, Rec. p. I-1631); 1996ko maiatzaren 23koa, Hedley Lomas (C-5/94, Rec. p. I-2553), eta 1996ko urriaren 8koa, Dillenkofer (gai metatuak C-178/94, C-179/94, C-188/94, C-189/94 eta C-190/94, Rec. p. I-4845).

Egintza hauek deuseztatzeko ziotzat eman daitezke, egintza erabaki duen organuaren eskumen eza, egileak formaren aldetik eginiko funtsezko hutsak, Ituna edota hau egiteko sorturiko edozein arau juridikoa urratzea, eta aginte-desbideraketa.

Egintza hauen deuseztatzea eskatzeko legitimazioa dute Estatu kideek, Kontseiluak eta Batzordeak. Europar Parlamentuak eta Europako Banku Zentralak honelako errekurtsua jartzeko legitimazio aktiboa dute bakarrik beren eskubideen defentsan egiten dutenean.

Partikularrek ere, nor fisiko edo juridikoek, jar dezakete honelako errekurtsua, baina soilik haiei doazkien erabakien aurka, edo araudi baten forma hartuta ere, edo beste norbaiti zuzenduak izanik ere, zuzenean eta bederazka beraiengan eragina dutenen aurka.

Honelako errekurtsua jartzeko epea bi hilabetekoa da, egintza argitaratzen denetik kasu batzuetan, auzi jartzaileari jakinarazten zaionetik bestetan, edo, horren ezean, auzi jartzaileak egintzaren berri ukan duen egunetik.

1.4.3.

JARDUERA EZAGATIKO ERREKURTSOA: 175. ARTIKULUA

Baldin eta Europar Parlamentuak, Kontseiluak edota Batzordeak, Itunari jarraituz egitekoren bat ukan eta egiten ez badu, hala Estatu kideek nola Erkidegoaren gainerako Erakundeek Justizia Auzitegiaren aitzinera jo dezakete, honek esan dezan ez egite hori zuzenbidearen aurkakoa dela.

Errekurtsua Justizia Auzitegiaren aitzinean onargarri izateko, ez egina gaitzesten zaion erakunde-ari aurretik behar zitzaien eskatu egiten ez zuena egin zezan. Errekerimendu hori egin zenetik bi hilabetetara, erakundeak ez badu bere jarrera argitu, errekurtsua jar daiteke bi hilabeteko epean. Partikularrek, nor fisiko edo juridikoek, jo dezakete kexuz Justizia Auzitegiaren aitzinera, baldintza beretan, Erkidegoko erakunderen batek gomendio edo irizpen ez den beste egintzaren bat igorri ez dienean.

1.4.4.

KONTRATUZ KANPOKO ERANTZUKIZUNAGATIKO ERREKURTSOA: 178 ETA 215. ARTIKULUAK 2. APARTATUA

Erkidegoak ordaindu egin behar ditu bere erakundeek edo agenteek beren zereginetan sorturiko kalte-galerak, Estatu kideen zuzenbideen amankomuneko printzipio orokorreari jarraiki.

Erkidegoaren aurkako kontratuz kanpoko erantzukizunagatiko ekintzak preskribitzen du, beraren zioa izandako egintza egin zenetik bost urtera. Preskripzioa eteten da kaltetuak Justizia Auzitegiaren aitzinean auzia jarritakoan edo dagokion erakundearen aitzinean aurreko erreklamazioa egiten duenean.

1.4.5.

EPAIKETAURREKO ERAGORPENA

Europako Ikatz eta Altzairuko Erkidegoaren Itun eratzailen idazleek (12), Europako Erkidego Ekonomikoaren eta Energia Atomikoko Europako Erkidegoaren (13), Erkidegoaren zuzenbidea aplikatzeko lankidetzak judizialerako mekanismo bat asmatu zuten, zeinaren bitartez, nazioko epaileak —Erkidegoko epaile arrunta, zuzenbide hori egunerokoa aplikatzera jarria zen bezainbatean— eta Europar erkidegoen Justizia Auzitegiak —epaile berezitua izanik— elkarrekin aritu behar zuten lanean, zuzenbide hori ahalik eta modu berdinean aplikatu zedin Estatu kide guztietan (14).

Gaur egun esan daiteke, mekanismoak jardunean daramatzan lau hamarkadek eskaintzen dituzten ikuspegiarekin, oso mekanismo egokia gertatu dela eta europartze osotua lortu duela, zeren eta nazioetako epaileek, Justizia Auzitegiari galdetzeko duten aukera baliatuz, lagundu baitute, Erkidegoaren zuzenbidea Estatu kideetan modu berdinean aplikatzen (15) eta baita ere oinarrizko zuzenbidearen edukia (itunak eta protokoloak) eta zuzenbide eratorriaren xedapenak (erakundearen egintzak) batzuetan oso modu aurrerakoa interpretatuak izan zitezela, testuen egiteko asmoetatik harat eta batzuetan zer ikusirik ere gabeko aterabide eta edukiak emanez.

Lankidetzak judizialeko mekanismo hau EE Itunak bere 177. artikuluan arautzen du. Xedapen honen arabera, Justizia Auzitegiak eskumena du epaiketaurrekoan bere iritzia emateko Itunaren interpretazioaz eta Erkidegoaren erakundeek emaniko egintzen baliotasunaz eta interpretazioaz.

Estatu kideetako jurisdikzio-organu baten aitzinean honelako arazoa azaldutakoan, organu horrek eska diezaiokio Justizia Auzitegiari horren gainean bere iritzia eman dezan, baldin eta epaia emateko haren iritzia beharrezkoa bada. Aitzitik, arazo hau ematen bada, nazio bateko jurisdikzio-organu bat ikusten ari den gai batean, eta organu horren erabakiei ezin bazaie barne zuzenbidean auzi-errekurtsorik jarri, organu horrek Justizia Auzitegiari aurkeztu beharko dio arazoa.

Partikularrek Justizia Auzitegiari iritsi ahal ukaiteko zehar bidea dugu honako hau. Bide hau zabalik gera dadin behar da, nazioko jurisdikzio-organu baten aitzinean egotea, Erkidegoaren zuzenbidea aplikatu behar deneko auzi bat, behar da funtsaren gaineko epaia eman duen epaileak ez jakitea zehazki, aplikatu behar duen erkidego-zuzenbideko arauaren baliotasuna edo interpretazioa zein diren, eta, horren karira epaileak prozedura etetea eta dituen zalantzak Auzitegiari aurkeztea, epaiketaurreko arazo moduan.

Prozesu hau ez da auzizko edo liskarrezkoa eta auzi nagusian diren alderdiek, Estatu kideek, Batzordeak eta Kontseiluak, aurkezturiko arazoaren gaineko oharra egin ditzakete, Auzitegiari bere egitekoan laguntzarren.

(12) Paris-en sinatua, 1951ko apirilaren 18an.

(13) Azken bi hauek Erroma-n sinatuak, 1957ko martxoaren 25ean.

(14) T. KOOPMANS-ek, maisu lana dela dio honako idatzian "La procédure préjudicielle -victime de son succès?", artikulua hau honako talde-lanean dago artitaratua: Liber Amicorum Pierre Pescatore, Ed. Nomos Verlagsgesellschaft, Baden-Baden 1987, 347 orr.

(15) M. PASTOR LÓPEZ, "El incidente prejudicial del Derecho Comunitario Europeo", honako talde-lanean: "Estudios de Derecho Comunitario Europeo", Ed. Consejo General del Poder Judicial, Madrid 1989, 120. orr.

Justizia Auzitegiak, Emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa taxutzeko bidean eman dituen epai gehienak, Estatu kideetako jurisdikzio-organuek aurkezturiko epaiketaurreko arazoei erantzuteko eman ditu.

2. Emakumezkoen eta gizonetzkoen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa: arauen esparrua eta Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia

Tratu-berdintasunaren printzipioa hiru ataletan bana daiteke, izan ere: ordainketa-berdintasuna, enplegua lortzeko eta lan baldintzetako berdintasuna eta segurantza sozialeko legezko erregimenean aurreko berdintasuna. Printzipio hauetako bakoitza legezko xedapen desberdin batek ematen du.

2.1. ORDAINKETA-BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA: EE ITUNAREN 119. ARTIKULUA ETA 75/117/EEE ARTEZTARAUA (16)

Emakumezko eta gizonezko langileen arteko lan berarengatiko ordainketa-berdintasunaren printzipioa emana da 1957az geroztik Itunaren 119. artikuluan. Xedapen honek Estatu kideei eskatzen zien, lehen etapan ziurta zezaten eta bigarrenean mantendu, printzipio honen aplikazioa. Itunaren 119. artikuluan agertzen den lan berdinerako emakume eta gizonen artean ordainketa berdinen printzipioa, Erkidegoaren oinarrietako bat dugu (17). Artikulu honek zehazten du modu zabalean, ordainketa zer den, halakotzat hartu behar delarik, "(...) oinarritzko edo gutxieneko soldata, eta enpresariak langileari lan harremanaren karira emaniko beste edozein sari, zuzenean edo zeharka, dirutan edo jenerotan emanak". Definizio honen osatzera etorri da Auzitegi honen jurisprudentzia, 1971az geroztik kontzeptu honen barruan sartzen dituelarik "oraingo eta geroko" lansariak (18) eta 1990ean esan zuen enpresariak langileari, lan harremanaren karira

(16) Kontseiluaren 75/117/EEE Arteztaraua, 1975eko otsailaren 10ekoa, emakumezko eta gizonezko langileen arteko ordainketa-berdintasunaren printzipioaren aplikazioaz ari diren Estatu kideen legeriak elkarrengantzeaz buruzkoa (DO L45, p. 19; EE 05/02, p. 52).

(17) 1976ko apirilaren 8ko epaia, Defrenne (43/75, Rec. p. 455), 12. apartatua.

(18) 1971ko maiatzaren 25eko epaia, Defrenne (80/70, Rec. p. 445), 6. apartatua.

emaniko sariak ordainketa kontzeptuan sartzen direla "(...) bai lan kontratu bati jarraiki ordaintzen badira, bai legezko xedapenengatik eta baita borondatez ordaintzen badira ere" (19).

Artikulu berberak gaineratzen du, sexuagatiko bereizkeriarik gabeko ordainketa-berdintasunak esan nahi duela:

- a) lan ordaindu berdinetarako, lan eginaren unitate bakoitzerako finkatzen den ordaina, neur-tze unitate berberaz egiten dela;
- b) lan ordaindu berdinetarako denbora unitate baterako ordaina berdina dela.

1975ean, Kontseiluak 75/117 Arteztaraua eman zuen, emakumezko eta gizonezko langileen arteko ordainketa-berdintasunaren printzipioa gauzatzeko behar ziren baldintzak ezarri nahiean. Arteztarau honek gaineratzen dio printzipioaren adierazpenari, lana izan daitekeela berdin berdina edota balio berdinekoa, eta ordainak zehazteko lanbideen klasifikazioa egiterakoan erabili-ko den sistemak oinarritu beharko duela gizonezko eta emakumezkoen berdineko irizpide amankomunetan, eta ezarri beharko dela sexuagatiko bereizkeriak alde batera utziko dituen moduan. Auzitegiak uste izan du Arteztarau honek ez dituela ezertan aldatzen, Itunaren 119. artiku-luak printzipio horri ematen dizkion edukia eta helmena (20).

Ez zitzaion Justizia Auzitegiari EE Itunaren 119. artikulua interpreta zezan eskatu, hirurogeiko ha-markadaren hasiera arte, Belgikako Estatuko Kontseiluak epaiketaurreko arazo bat aurkeztu zio-nean. Defrenne izenaz ezaguturiko arazo honetan —izan ere, gerora izenberekoko epaia ekarri zuena— (21), nazioko jurisdikzioak galdetzen zuen ea zahartzaro-pentsioa, langileen eta enpre-sarien kotizazioek eta estatuaren diru laguntzek finantzaturiko segurantza sozialeko sistema batek emana izanik, kontsidera ote zitekeen enpresariak langileari zeharka emaniko lansaria zela.

Justizia Auzitegiak ezetz erantzun zion, uste baitzuen 119. artikuluan ezin sartuzkoak zirela segu-rantza sozialeko erregimenak eta horien barruko zahartzaro-pentsioak; erregimen hauek legez aratuak dira eta langile maila orokorrei derrigorrez zuzendua, eta enpresariak, langileak eta bo-tere publikoak erregimen horiek finantzatzen dituzte, ez lan harremanagatik, baizik eta politika so-zialeko arrazoiengatik, eta hala izanik ugazaben kotizazioak ezin dira langileari eginiko ordain zuzentzat eta ez zeharkakotzat ere hartu.

(19) 1990eko maiatzaren 17ko epaia, Barber (C-262/88, Rec. p. I-1889), 20. apartatua

(20) 1981eko martxoaren 11ko epaia, Worringham eta Humphreys (69/80, Rec. p. 767), 21. apartatua; 1981eko martxoaren 31koa, Jenkins (96/80, Rec. p. 911), 22. apartatua; 1987ko abenduaren 3koa, Newstead (192/85, Rec. p. 4753), 20. apartatua, eta Barber, aurreko 19. oharran aipaturikoa, 11. apartatua.

(21) Aurreko 18. oharran aipaturiko epaia. Defrenne andreari, Sabena-ko azafata izanik, konpainiak kontratua deuseztu zion 40 urte bete zituenean, hegazkinetako langileen kontratazioak arautzen zituzten arauak jarraiki, arau hauek esaten baitzuten emakumezko langileek beren lana utziko zutela 40 urteak betetakoan. Langileak bere eskubideak azaldu zituen zenbait jurisdikzio-organuen aitzinean, besteak beste Estatuko Kontseiluaren aitzinean, zeinari eskatu baitzion deusezta zezala araudi mailako arau bat, azafatak baztertzeko zituena hegazkinetako gainerako mailetako langileei ematen zien pensio-erregimen berezitik. Gizonezkoekin gertatzen zenaz bestela, zeintzuek jubilatze erregimen berezia lor baitzezaketan 55 urte bete arte lanean jarraituz gero edo pensio-erregimen mistoa bestela, lana lehenago uzten bazuten; azafatek zoritarreko adin horren aurretik emaniko zerbitzuak ez ziren kontuan hartzen, baizik eta segurantza so-zialaren erregimen orokorrak ezarritako baldintzetan, halatan 60 urte bete arte itxaron behar zutelarik zahartzaro-pensioa hartu ahal ukaiteko.

Justizia Auzitegia Itunaren 119. artikulua mintzatu zen ere, eta bestelakoa esan zuen orainoan, Brusela-ko zuzenbide sozialeko apelazioko auzitegiak artikulua horren eraginaz eta aplikazioaz epaiketareko bi galdera aurkeztu zizkionean, bere esku zuen eta berriro ere Defrenne andrea eta Sabena konpainia aurrez aurre zituen auzia ebazteko. Auzi jartzaileak murtzilo egiten zuen, emakumezko langile izateagatik ordainketan bereizkeria jasan zuelako hegazkin barruko langile gisa bere lanaren berdina egiten zuten gizonetzkoen aldean, alderdi biak ados zeudelarik azafata baten egitekoa eta hegazkin barruko langileena berdin berdina zirela. Epai honetan (22), izan ere ezagunenetako bat, Auzitegiak baieztapen irmo zenbait egin zuen, egin ere hauek besteak beste:

- lehengo Estatu kideek ziurtatu behar zutela ordainketa-berdintasunaren printzipioa aplikatuko zela 1962ko urtarrilaren lehenetik -aldi iragankorren bigarren etapa hasteko unea, izan ere, eta betebeharrak hori Estatu kide berriei eska ziezaiekeela atxikitzen zireneko datatik bertatik;
- 119. artikulua betebeharrak argi, zehatz eta erreserbarik gabekoa ezartzen duela, eta ez diela Estatuari inolako eskumeneko boterea eskaintzen, zuzenean aplikatzeko dela beraz;
- gizonetzko eta emakumezko langileen arteko ordainketa-berdintasunaren printzipioa aipa daitekeela arrazoitzat nazioko jurisdikzio-organuen aitzinean, eta hauek ziurtatu behar dutela 119. artikulua alderdiei ematen dizkien eskubideak babesturik daudela, bereziki bereizkeria horien oinarria lege-xedapenak, edo laneko hitzarmen kolektiboak badira, bai eta establezimendu edo zerbitzu publiko edo pribatu berean egiten diren lan berdinetarako ordainketak desberdinak badira emakume eta gizonen artean (23);
- segurtasun juridikoaren printzipioaren arabera, jokoan ziren interes publiko nola pribatuak ikusiz, epaiaren eraginak denboran mugatu behar zirela, halatan ez aukera eman, 119. artikulua interpretazio honi jarraiki ordainketa-berdintasuna eskatzeko, epaia eman zeneko dataren aurreko alditarako, hau da: 1976ko apirilaren 8a baino lehenagoko diru galduak ezin erreklamatzekoak dira, beraz, baldin eta aurretik auzi-prozeduraren bat hasia ez badute edo pareko erreklamazioen bat.

Justizia Auzitegiak onartu du, Itunaren 119. artikulua lehenengo parrafoa zuzenean aplikatzen zaiela, inolako garapen-arau, ez erkidegoarenik, ez naziokorik ere behar ez dela, bereizkeria zuzen eta argiei, ikusten direnei, xedapenak esaten dituen lanaren nolakoa eta ordainketaren kopurua aztertze hutsarekin (24).

Auzitegiak Defrenne III epaia (25) emandakoan argi geratu zen, Erkidegoaren gizarte-politikaren euskarri bakarra EE Itunaren 119. artikulua izan zen bitartean, Estatuak gai honetan zituzten bete-

(22) Aurreko 17. oharrean aipatua.

(23) Brusela-ko apelazioko Auzitegiak, Justizia Auzitegiak eginiko interpretazioari jarraiki, auzi-jartzailearen aldeko epaia eman zuen eta onartu zion eskubidea zuela jasotzeko eskatzen zituen ordain atzeratuak, bai eta prozesuaren kostuak eta interesak ere.

(24) Worringham eta Humphreys, eta Jenkins epaiak, aurreko 20. oharrean aipatuak, eta 1980ko martxoaren 27ko Macarthys epaia (129/79, Rec. p. 1275).

(25) 1978ko ekainaren 15eko epaia, Defrenne (149/77, Rec. p. 1365).

beharrak mugatzen zirela, gizonetzko eta emakumetzko langileen artean, lan berdinetarako berdintasunaren printzipioa ziurtatzera. Gai honetan, Belgika-ko Kasazio Auzitegiaren aitzinean, auzi-jartzaileak eskatzen zuen, bere garaian jaso zuen kontratu amaierako kalte-ordainari osagarri bat ezar ziezaiotela, hartara berak jasotakoa berdindu zezaten, 40 urteko hegazkin barruko gizonetzko langile batek jaso zuenarekin, enpresan antzintasun berdina baitzuten biek; eskatzen zuen ere, pentsiorako eskubideei zegokienean sortu zizkioten kalte-galerak ordaintzea.

Justizia Auzitegiak ulertu zuen 119. artikulua lotzen zela bakarrik gizonetzko eta emakumetzko langileen arteko lansaritako bereizkeriei, eta gainerako lan baldintzak artikulua horren aplikazio eremutik at zeudela, eta hala esan zuen, ezarritako lan baldintzek dirutan eragina izanak —epaitua izaten ari zen kasua zen bezala, non adin batera heldutakoan emakumetzko langilearen kontratua deuseztu egiten baitzen— ez zuela ekartzen baldintza horiek 119. artikulua aplika-eremuan sartzea (26).

Harrezkeroztik, Auzitegiak ordainketa kontzeptuan sartu ditu, besteak beste, trenbideetako enpresa batek, erretreta garaian bere langileei eta haien senitartekoei eskaintzen zizkien bidaiatzeko baldintza hobetuak, esanez enpresak gizonetzko langile ohien senitartekoei eskaintzen zizkien baldintza berdina eskaini behar zizkiela ere, emakumetzko langile ohien senitartekoei (27); enpresako pensio-planak, solaskide sozialen arteko akordioz sortuak eta enpresariak ordainduak zati batean edo osorik (28); langilearen eritasunagatik baja bitartean enpresariak lansaria ordaintzen jarraitzea (29); langileari arrazoi ekonomikoengatik iraitzia denean ematen zaizkion prestazioak, hala nola lanbide erregimen pribatuek ordainduriko pentsioak (30); enpresari batek enpresa-komitekoei, baimen ordainduen moduan edo ordu gehigarrien moduan ordaintzen dien kalte-ordaina, enpresa-komiteen zereginetarako beharrezkoak diren ezagutzak irakasten dituzten ikastaroetan parte hartzeagatik, nahiz eta ikastaro horien bitartean ez bete lan-kontratuak agintzen dituen egitekoak (31); enpresako pensio-plan bateko kide egiteko eskubidea (32); eta enpre-

(26) Kontseiluak 76/207/EEE Arteztaraua emana zuen arren, lana lortzerakoan, lanbide heziketan, lanean igotzean eta lan baldintzetan gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa arautuz, Estatu kideek 30 hilabeteko epea zuten beren legeria arau horretara egokitzeko, eta epea burutu gabe zegoen oraindik gauzak gertatu ziren garaian, halatan, gauzak gertatu zirenean horiei loturik indarrean zegoen xedapen bakarra EEE Itunaren 119. artikulua zen.

(27) 1982ko otsilaren 9ko epaia, Garland (12/81, Rec. p. 359), 9. apartatua.

(28) 1986ko maiatzaren 13ko epaia, Bilka (170/84, Rec. p. 1607).

(29) 1989ko uztailaren 13ko epaia, Rinner-Kühn (171/88, Rec. p. 2743). Eritasun garaian lansaria ordaintzen jarraitzeari buruzko Alemaniako legeak xedatzen du enpresariak ordaindu behar diola lanerako aldi batez ezindua den langileari, baldin eta langilea lanean sartu ondoren ezindu bada eta ez bere axolagabekiaz, aldi horri dagokion ordaina, gehienez sei aste arte ordaindu ere, eta enpresak hogeitaz langile baino gutxiago badu, kudeatzaileak jasoko du lansariaren zati bat.

(30) Barber epaia, aurreko 19. oharra aipatua.

(31) 1992ko ekainaren 4ko epaia, Bötzel (C-360/90, Rec. p. I-3589), 14 eta 15 apartatuak, eta 1996ko otsailaren 6ko epaia, Lewark (C-457/93, Rec. p. I-243), 23. apartatua.

(32) 1994ko irailaren 28ko epaiak, Vroege (C-57/93, Rec. p. I-4541), 15. apartatua, eta Fisscher (C-128/93, Rec. p. I-4583), 12. apartatua.

sariak, legezko xedapenengatik edo hitzarmen kolektiboengatik, emakumezko langile bati amatasun-baja garaian ordaintzen dion prestazioa (33). Auzitegiak Garland epaia 1982an eman zuenetik, ez zen inolako dudarik, ezen trenbideetako enpresek beren langileei, hauen ezkontideei eta bere kargura dituzten pertsoneri, langileen lanagatik eskaintzen dizkieten bidaiatzeko baldintza hobetuak ordainketatzat behar direla hartu, Itunaren 119. artikularen zentzuan. Arrazoi honek eramanen zuen ziurrenik Grant andrea pentsatzera ezen enpresariak, lan-kontratuak ezartzen zuen ezkontidearen alderako edo langilearekin ezkontzaz kanpoko harreman jarraia duen beste sexuko pertsonaren alderako garraiotako prezioaren gutxitzeko eskubidea berari, bere sexuko pertsona batekin harreman jarraia zuelarik, onartu nahi ez izatea 119. artikularen aurka zihola.

Grant andreak uste zuen ezezko hori sexuan oinarritutako bereizkeria zela. Halako ustea oinarritzen zuen "faktore bereizgarri bakarraren irizpidea" delakoan (34), eta esaten zuen emakumezko langile batek ez baditu gizonetzko langile baten onura berdinak, gainerako baldintza guztiak berdin berdinak izanik, emakumezko langile hori sexuagatiko bereizkeria jasaten ari dela. Bereizkeria frogatzeko aski iruditzen zitzaion erakustea bere lanpostuan aurretik izandako gizonetzko langileak lortuak zituela, bere bizikidearen alderako garraioen prezioa gutxitzea, ezkondu gabe izanda ere. Gaineratzen zuen ezezko hori sexu-jarreragatiko bereizkeria zela, eta hau, 119. artikularen "sexuagatiko bereizkeriatzat" hartu behar zela, sexu-jarreran oinarrituriko tratu-bereizkeriak ematen direlako, sexu batekoen portaera sexual edo afektiboan gaineko aurreiritziengatik, eta egitan, pertsonen sexuan oinarritzen direlako.

Auzi nagusia Southampton-eko Industriako Auzitegiaren aitzinean ematen zen, eta honek aurkeztu zuen epaiketaurreko arazoa. Epaia honetan (35), Justizia Auzitegiak esan zuen, lehenik eta behin, ezen garraiotako prezioaren gutxitzea lortzeko langileak modu jarraian bizi behar duen beste sexuko pertsona batekin, eta baldintza hau nola berdin berdin eskatzen zaien gizon eta emakumei, eta halatan, gizon batekin bizi den gizonetzko bati ere ukatu egiten baitzaizkio tarifen gutxitzeak, emakume batekin bizi den emakumezko langile bati bezalaxe, jokamolde hori ez dela zuzenean sexuan oinarrituriko bereizkeria. Jarraian, esan zuen Erkidegoan zuzenbideak gaur egun bizi duen egoeran, sexu bereko bi pertsonen arteko harreman jarraituak ez direla parekatzen ezkonduakoenekin, ez eta ezkondu gabeko bi sexu-etako pertsonen arteko harreman jarraituekin ere. Halatan bada, Erkidegoaren zuzenbideak ezin du enpresari bat behartu sexu bereko lagun batekin harreman jarraitua duen langile baten egoera, ezkondu batenarekin edota ezkontzaz kanpoko harreman jarraitua beste sexuko lagunarekin duenarekin parekatzera. Amaitzeko esan zuen 119. artikularen helmena ezin dela zehaztu ez bada bere hitzak eta helburua kontuan harturik, hala nola Itunaren sisteman duen lekua eta daukan testuinguru juridikoa ere, eta horretatik ekarri zuen Erkidegoaren zuzenbidea gaur egun ez dela aplikatzen sexu-jarreran oinarrituriko bereizkeriari, eta horren ondorioz ezin aplikatu zitekeela epaiketaurreko arazo honetan.

(33) 1996ko otsailaren 13ko epaia, Gillespie eta beste (C-342/93, Rec. p. I-475), 14. apartatua.

(34) Ingelesezt "but for test" deiturikoa.

(35) 1998ko otsailaren 17an emana, Grant (C-249/96, Rec. p. I-621).

Amsterdam-eko Itunak, besteren artean 1997ko urriaren 2an sinaturiko Europar Batasunaren Ituna aldatzen duelarik, aurreikusi du EE Itunari eranstea 6 A artikulua, zeinaren bitartez, behin indarrean jarritakoan, Kontseiluak hartu ahalko ditu, baldintza bereziekin, hala nola guztien adostasunez, Batzordearen proposamenez eta Europar Parlamentuari aurretik galdetuz gero, bereizkeria mota desberdinak —sexu-jarreragatikoa barne— deusezteko behar diren neurriak.

2.2. ORDAINKETA BERDINTASUNA SEGURANTZA SOZIALEKO LANBIDE ERREGIMENETAN: 86/378 ARTEZTARAUAREN ERAGIN EZA

86/378/EEE Arzteztarauak (36), behartu zituen Estatu kideak, enpresetako barne araudietan edota hitzarmen kolektiboetan agertzen ziren tratu-berdintasunaren aurkako xedapenak baliogabe uzteko edo aldatzeko behar ziren neurriak hartzera. Arzteztarau hau Estatu kideei 1986ko uztailaren 30ean jakinarazi zitzaion, eta hauek gehienez hiru urteko epea zuten beren barneko zuzenbidea Arzteztarauaren xedapenetara egokitzeko; epe hau 1989ko uztailan amaitu zen. Dena den, honek ez zuen derrigorrez ekarriko segurantza sozialeko erregimenetan zeuden sexuagatikoa bereizkeriak desagertzea, Arzteztarauak berak epe luzeagoa ematen baitzuen lanbide erregimenak egokitzeko, bai eta garrantzi handiko denborako salbuespenak egiten ere.

Lehena, berdintasunaren printzipioaren aurkakoak ziren lanbide erregimenetako xedapenak berrikusteko epea ez zen 1993ko urtarrilaren lehena arte burutzen.

Bigarrena, 86/378 Arzteztarauak ez zuen galarazten, lanbide erregimen bat berrikusi baino lehenagoko afiliazioko aldiei zegozkien betebeharrak eta eskubideak arautzeko, garai hartan indarrean ziren xedapenak erabiltzea.

Azkena, Estatu kideek luza zezaketen tratu-berdintasunaren printzipioaren derigorrezko aplikazioa, honako gai hauetan:

- a) Zahartzaro pentsioak eta erretreta-pentsioak lortzeko eta beste prestaziotarako sor ditzakeen ondoriotarako erretreta adina zehaztea,
 - atzeratu ere, berdintasuna legezko erregimenetan gauzatuko zen arte,
 - edo atzeratu, gehienez, arzteztarau batek berdintasun hori ezarri arte (37).

(36) Kontseiluaren 86/378/EEE Arzteztarau, 1986ko uztailaren 24koa, gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasuna segurantza sozialeko lanbide erregimenetan aplikatzeari buruzkoa (D) L 225, p. 40).

(37) 1987ko urriaren 27an, Batzordeak Kontseiluari aurkeztu zion arzteztarau proposamen bat non osatu egiten baita gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioaren aplikazioa segurantza sozialeko legezko eta lanbidezko erregimenetan. COM (87) 494 azkena (DO C 309, p. 10). 9. artikulua 1. apartatua dio, aldi baterako zenbait xedapenen kaltetan izan gabe: "Zahartzaro eta erretretako pentsioak emateko erretreta adin bat finkatuko denean, adin hori berbera izanen da bi sexuentzat". Proposamen honek ez zuen aurrera egin.

- b) Bizirik irauteko prestazioak, Arteztarau batek segurantza sozialeko legezko erregimenetan, honi buruzko tratu-berdintasunaren printzipioa ezarriko zuen arte, eta
- c) langileen kotizazioetan maila desberdinak ezartzea, aktuari-kalkuluen elementuak kontuan hartzeko, Arteztaraua jakinarazi zenetik hamairu urteko epea bete arte, hau da, 1999 arte.

Behin puntu honetan, galde dezakegu zerk bultzatu zuen Kontseilua, 1986an horrelako testua ematera. Izan ere, zioen azalpenean legegileak argi erakusten du bazekiela, arautzen ari zen gaiaren gainean, neurri handi batean, Itunaren 119. artikulua ezarritako ordainketako tratu-berdintasunaren printzipioak agintzen zuela eta hala ulergaitz gertatzen da, Defrenne II epaitik hamar urtetara, nola arteztarau batetan Estatu kideek printzipio horri salbuespenak ezartzeko ausardia ukan zuten.

Argi geratua zen ere, 1986ko maiatzan eman zen Bilka epaiaren bitartez, (38), hau da, 86/378 Arteztaraua onartua izan baino bi hilabete lehenago, enpresariaren eta besteren konturako langileen ordezkartzaren artean sinaturiko hitzarmenean oinarrituriko enpresako pentsio-plana, lan-kontratuetan zegoena eta helburua zuena, enpresariak ordainduriko prestazioen bitartez, nazioko legeria orokorrak ezartzen zituen derrigorrezko prestazioak osatzea, ez zela legeak zuzenki araturiko segurantza sozialeko erregimena eta halatan ezin zuela 119. artikulua aplikazio eremutik at geratu. Hemendik aitzin ezarri zen, langileei horrelako erregimen baten karira ematen zitzaizkien prestazioak, enpresariak langileari lan harremanarengatik ordainduriko diruzko etekina zirela eta 119. artikulua xedaturiko ordainketako tratu-berdintasunaren printzipioaren menpe zirela.

1988ko irailaren 23an, Justizia Auzitegian, London-eko Court of Appeal delakoaren ebazpen bat jaso zen, non 119. artikulua eta 75/117 Arteztaraua interpretatzeko moduz hainbat epaiketaurreko arazo aurkezten ziren. Arazo hauek Barber jaunaren eta bere enpresari ohiaren arteko auzi batean sortuak ziren, ikusten ari zelarik langileak eskubidea ote zuten, arrazoi ekonomikoengatik iraitzia izanik, aurretiazko erretretako pentsioa kobratzera.

Barber jauna enpresako pentsio-planeko kidea zen eta honetan erretretarako adina 62 urtekoa zen gizonezkoen kasuan eta 57koa emakumeentzat, izan ere Erresuma Batuko segurantza sozialeko legezko erregimenean dagoen aldearen parekoa, han gizonezkoek pentsiorako eskubidea 65 urterekin lortzen baitute eta emakumeek berriz, 60rekin. Arrazoi ekonomikoengatik iraitzpenetan aldiz, iraitziek berehala zuten pentsiorako eskubidea, 55 urteak betez gero gizonek, eta 50 emakumeek. Baldintza hau betetzen ez zutenek, lan eginiko urteen arabera diru kopuru bat jasotzeko eskubidea zuten eta erretreta garai arruntean ordainduko zitzaizen geroratutako pentsioa. Auzi nagusiko auzi jartzailea 52 urterekin iraitzi zuten arrazoi ekonomikoak zirela medio. Enpresak, lanean eman zituen urteen arabera diru kopuru bat eman zion, bai eta iraitzpenagatik legezko kalte-ordaina. Oraindik 55 urte ez zituenez, ez zuten berehala pentsiorik kobratu, baina 62 urteak beteko zituen arte geroratutako pentsio baterako eskubidea zukeen enpresako pen-

(38) Aurreko 28. oharra aipatua. Kasu honetan lanaldi murrizteko langileek enpresako pentsioen erregimenerako eskubidea zuten bakarrik, baldin eta guztira hogeitun urteko alditik, gutxienik hamabost urtetan lanaldi osoan aritu izan baziren.

tsio-planari jarraitzekotan. Alderdiak bat zetozen, Barber jauna zegoen egoera berean egoniko emakume batek erretretako pentsioa berehala jasoko zukeela, irazpenagatik kalte-ordainaz gain, eta prestazio horien guztien balioa Barber jaunak jaso zuen diru kopurua baino handiagoa izanen zela; halatan bada, Barber jaunak, bai nazioko legeak eta bai erkidegoaren zuzenbideak galarazten duten sexuagatik bereizkeria jasan zueneko ustetan, lan jurisdikzioaren aitzineko erreklamazioa egin zuen.

Auzitegiak guztira bost galdereri erantzun zien eta epaiak denboran ukanen zituen eraginak finkatu zituen. Lehenik, ordurarteko jurisprudentzia berretsi zuen, argi utziz langileari iraitzia denean ematen zaizkion prestazioak, langileak bere lanagatik jasotzeko eskubidea duen ordaina direla, eta ordaintzen zaiola lana amaitutakoan, hartara lanik gabe gelditzeak sortzen dizkion egoera berrietara egokitu dadin eta beste lan bat bilatu bitartean dirua ukan dezan. Enpresariak ordainduriko prestazio hauek 119. artikularen bigarren parrafoaren helmenean dira, bai lan kontratu bati jarraiki ordaintzen direlarik, bai eta legezko xedapenei jarraiki edo borondatez.

Bigarrenik, berretsi zuen lanbide erregimen pribatuek ordainduriko pentsioak, solaskide sozialen arteko adostasun batetik sortuak edo enpresariaren erabakiz besterik gabe, ordaindu enpresariak bakarrik edo enpresariak eta langileen artean ordaintzen direnak, baina inoiz ere ez botere publikoek, pentsio hauek beraz, legeak onartzen dituenak, langilea ados badago, legezko erregimenaren orde hartzen eta enpresa batzuek dituzten langileei bakarrik doazkienak, segurantzaz sozialeko nazioko legezko erregimenak ez bezala, enpresariak langileari, lan harremanarengatik emaniko sariak direla eta halatan, 119. artikularen helmenean daudela.

Ondoren, gogora ekarri zuen 119. artikulua debekatzen duela gizonezko eta emakumezko langileen arteko ordainketa-bereizkeria oro, desberdintasunerako mekanismoa edozein delarik ere, eta parte batean legezko erregimenaren orde den enpresako pentsio-plan baten barruan sexuari loturiko adineko baldintza ezartzea erretretako pentsioa eskuratu ahal ukaiteko 119. artikularen aurka doala, emakume eta gizonen adinen arteko aldea nazioko legezko erregimenak ezartzen duen aldearen parekoa bada ere. Ordainketa-berdintasunaren printzipioa gordetzen dela ziurtatzeko moduz esan zuen, ezen nazioko epailearen benetako kontrola ahalbidetzen duen argitasuna bermatzeko behar dela ordainketa-berdintasunaren printzipioa emakumezko eta gizonezko langileei emaniko ordainaren elementu bakoitzari aplikatu eta ez bakarrik batzuei eta besteei emaniko ordainaren multzoari globalki.

Azkenik, interpretatu zuen 119. artikulua zuzenean aplikatzen dela, lanaren izaerako eta ordainketa berdintasuneko irizpideekin soilik frogatzen diren bereizkeria mota guztietara, irizpide hauek aplikatzeko behar ez direlarik, irizpideak zehaztuko dituzten nazioko edo erkidegoko neurriak. Artikulu hau inbokatuko zaion nazioko jurisdikzio-organuak, xedapen honek alderdiei eskaintzen dizkien eskubideen babesa bermatu behar die, bereziki parte batean legezko erregimenaren orde dagoen enpresako pentsio-plan batek ez badio gizonezko langile bati, iraitzia denean, emakumezko bati egoera berean emanen liokeen berehalako pentsioa ematen.

Batzordeak, bere oharretan, aipatu zuen Auzitegiak epaiaren eraginak denboran mugatzeko aukera, baldin eta auzi jartzailearen tesiaren aldeko interpretazioak irabaziko balu. Erresuma

Batuak azpimarratu zituen horrelako interpretazioak ekar zitzakeen ondorio ekonomiko nabarmenak, enpresako pentsio-planen loturiko langileen kopurua oso handia baita Estatu kide horretan eta plan horiek maiz ukan ohi dituzte gizonezko eta emakumezko langileen arteko berdintasunaren printzipioaren salbuespenak, bereziki, erretreta hartzeko adin desberdinak ezartzeari lotuak.

Justizia Auzitegiak erkidegoaren zuzenbidea interpretatzen dueneko epaiketaurreko prozedura batean ematen dituen epaiak adierazpeneko eitea dute eta eragina *ex tunc*. Prozedurari berari loturiko arau hau bere berea egin badu ere, noiz edo noiz adierazten du epaia eman aurretik, erkidegoaren araua beste modu batera interpretatuz naziotako agintariek edo auzitegiek sortutako harreman juridikoen kaltetan ez aritzeko ardura. Auzitegiak epaien eragina denboran muga ditzake, noski, baina oso urri erabiltzen du halere aukera hori, nahiz eta askotan eskatzen zaion. Erabiltzen duenean beti salbuespen moduan erabiltzen du, mugaketa epaian bertan agertu ere agertu behar duelarik (39).

Honakoan, onartu zuen ezen ikusirik zentzuzkoa zela Estatu kideek eta interesdunen inguruek uste ukaitea 119. artikulua ez zitzaiela aplikatzen erregimen orokorretik kanpo utzitako erregimenei ordainduriko pentsioei, eta gai horretan oraindik ere onartzen zirela gizonezko eta emakumezko langileen arteko berdintasunaren printzipioari eginiko salbuespenak, segurantza sozialeko erregimenei buruzko 79/7 Artzotarauaren 7. artikularen 1. apartatuaren a) hizkiaren arabera eta segurantza sozialeko lanbide erregimenei buruzko 86/378 Artzotarauaren 9. artikularen a) hizkiaren arabera, bi hauek aukera ematen baitiete Estatu kideei, erretreta hartzeko adina finkatzeari doakionean, tratu-berdintasunaren printzipioaren aplikazioa atzeratzeko; segurantza juridikoko iritzien aginduei jarraiki ezin berriro ekarri bere garaian egindako eraginak agortuak zizuten egoerak, hala eginez gero alda baitzezaketen, atzerako eraginez, erregimen orokorretik kanpo-koak ohi ziren pentsio erregimen anitzen oreka ekonomikoa. Halatan bada, *erabaki zuen 119. artikularen eragin zuzena ezin dela alegatu pentsiorako eskubidea inbokatzeke, 1990eko maiatzaren 17a baino lehenagoko garairako (40)*, (epaiaren data) ez bada data hori baino lehen auzia jarria edo nazioko zuzenbidean aplika zitekeenari jarraiki pareko erreklamazioa bideratua duten langile eta haien kausadunek.

Epai honek Estatu kideengan eta "interesdunen ingurutan" sortarazi zuen kezka nabarmentzen da 119. artikuluari buruzko 2 zbk. Protokoloa —"Barber Protokoloa"— ere deiturikoa, egin beharreakin; protokolo hau Europar Erkidegoaren Itun eratzailleari erantsia izan zen, Batasunaren Itunaren bitartez (41), eta gizonezko eta emakumezkoentzat pentsio-planetan adin desberdinak finkatuak dituzten enpresen indarrez aortu zen. Protokolo honek denboran mugatu nahi du Auzitegiak epaian emandako ordainketa kontzeptua. Halatan, bada, honela dio: "119. artikulua

(39) 1988ko otsailaren 2ko epaia, Blaizot (24/86, Rec. p. 379) eta 1992ko uztailearen 16ko epaia, Legros (C-163/90., Rec. p. I-4625).

(40) Hitz etzanak neronek jarriak ditut.

(41) aurreko 3. oharran aipatua.

aplikatzerakoan, segurantza sozialeko lanbide erregimen bateko prestazioak ez dira ordainketa-tzat hartuko baldin eta 1990eko maiatzaren 17az aurreko lanaldietara lotuak izan badaitezke (42), ez bada data hori baino lehen auzia jarria edo nazioko zuzenbidean aplika zitekeenari jarraiki pareko erreklamazioa bideratua duten langile eta haien kausadunen kasuan.”

Auzitegiaren jurisprudentziak harrezkero, epaiketaurreko prozeduraren bitartez argitu egin du berdintasunaren printzipioaren aplikazioa, pentsioko lanbide erregimenetan, hala prestazioak jasotzeko eskubideari doakionean, nola kidezeko eskubideari eta denboran aplikatzeari doakionean, eta Kontseiluak aldatu behar ukan du 86/378 Arztegaraua, jurisprudentzia honek derrigorrez baitakar haren xedapen zenbaiten balioeza, besteren karguko langileei dagokionean. Horrexegatik bada, Kontseiluak 96/97/EE Arztegaraua (43) eman zuen 1996ko abenduaren 20ean, Batzordearen proposamenari jarraiki (44).

Testu berriaren arabera, Estatu kideek oraindik gordetzen dute tratu-berdintasunaren printzipioaren aplikazioa atzeratzeko aukera, batez ere pentsioak emateko erretreta adina finkatzeari doakionean eta bizirik irauteko prestazioen gainekoan, baina honakoan soilik langile autonomoen erregimenetarako. Begien bistakoa da erregimen horiek emaniko prestazioak ezin sar daitezkeela 119. artikulua oraindik kontzeptuaren barruan.

2.3. TRATU-BERDINTASUNAREN PRINTZPIOA LANA ESKURATZERAKOAN ETA LAN- -BALDINTZETAN: 76/207 ARTEZTARAU ETA BERE 2. ARTIKULUAREN 2, 3 ETA 4. APARTATUEN SALBUESPENAK

76/207 Arztegarauak (45) helburu du Estatu kideetan gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplika dadin lana eskuratzerakoan, laneko igoeratan eta formakuntzan, bai eta lan baldintzetan ere. Printzipio hau zehazten da 2. artikulua 1. apartatuan, honelako hitzetan: “Tratu-berdintasunaren printzipioak (...) berekin dakar sexuagatiko inolako bereizkeria ez dela egiten, hala zuzenean nola zeharka, eta bereziki ezkont egoerari edo familia egoerari dagokionean”.

(42) Hitz etzanak neronek jarriak ditut.

(43) Kontseiluaren 96/97/EE Arztegaraua, 1996ko abenduaren 20koa, zeinaren bitartez aldatu egiten baita 86/378/EE Arztegaraua, gizon eta emakumeen artean tratu-berdintasunaren printzipioa segurantza sozialeko lanbide erregimenetan aplikatzeari buruzkoa (DO L 46, p. 20).

(44) Batzordearen proposamena, COM (95) 186 azkena, 1995eko maiatzaren 16koa, Kontseiluari 1995eko ekainaren 19an eman zitzaion jakitera (DO C 218, p. 5).

(45) Kontseiluaren 76/207/EE Arztegaraua, 1976ko otsailaren 9koa, gizon eta emakumeen tratu-berdintasunaren printzipioaren aplikazioa lana eskuratzerakoan, formakuntzan eta laneko igoera eta lan baldintzetan (DO L 39, p. 40; EE 05/02, p. 70).

Ondoren, berdintasun printzipio horren mugak zedarrizten dira, bere 2, 3 eta 4. artikuluek aukera ematen baitiete Estatu kideei zenbait salbuespen ezartzeko.

2. apartatuak xedatzen du Arteztarauagatik ere Estatu kideek ken ditzaketela honen aplikazio eremutik zenbait lanbide jarduerak eta hala behar izanez gero, baita haietarako formakuntzak ere, baldin eta jarduera horien izaeragatik edo jardunaren baldintzengatik sexua baldintza erabakiorra bada.

Salbuespen honen interpretazioko jurisprudentzia ez da handia. 1983ko azaroaren 8ko epai batean (46), Justizia Auzitegiak ez zuen Erresuma Batua araua ez betetzeagatik kondenatu nahi ukan, gizonetzkoek emagin lanbidea lortzeko oztopo ziren barneko arauak indargabetu ez zituelako, onartu baitzuen sentikortasunak garrantzizkoak zirela emagina eta erditu beharrean den emakumearen arteko harremanetan, eta halatan, Egia izanik ere Erresuma Batua ez zuela 76/207 Arteztarauak adierazitako printzipioa bete betean aplikatu, ezin interpreta zitekeen gehiegikeriaz jokatu zuela, 2. artikulua 2. apartatuak Estatu kideei onartzen dien ahalmenaz baliatzerakoan.

Johnston epaiak (47) ere Erresuma Batuko legeria ukan zuen oinarrian, zehatzago esateko Ipar Irlandako legeria. Johnston andrea, auzi nagusian auzi jartzailea zena, Ipar Irlandako polizia uniformatuaren indarretan aritua zen lanean, hiru urtetarako kontratu jarraituekin, 1974tik 1980 arte. Baina alderdi hartan atentatuek eta kaleko istiluek pertsonentzat ekartzen zuten arriskua zela eta agintariak erabaki zuten polizia uniformatuak Ipar Irlandan su-armak eramanen zituela. Hala izanik ere, gizonetzkoek bakarrik emanen zitzairen arma horiek eraman eta erabiltzeko behar zen formakuntza, hartarako arrazoi nagusia zelarik, emakumei arma lapurtzeko erasoak egiten zizkietela. 1980ean, Johnston andrari kontratua ez zioten berritu, zeren eta aurrerantzean, berak orduarte egin zituen lanak gizonetzko polizi armatuen esku jarriko baitziren.

Auzitegiak onartu zuen honakoan, polizia armatuaren laneko jardueraren baldintzak, inguruko egoerak mugatzen dituela, eta ezin dela alde batera utzi, emakume poliziek armak edukitzeak ekar litzakeela, barne istilu larriak diren egoera batean, haien aurkako erasoak sortzeko arrisku erantsiak, eta hala segurtasun publikoaren aurka gerta litekeela. Atal honetako arrazoinamendua amaitzeko esaten du, halako egoeratan, polizi-jarduera zenbaiten baldintzak direla eta sexua izan daitekeela jardun horretarako beharrezko baldintza, eta Estatu kideek gorde ditzakeela, hortaz, egiteko horiek eta horietarako formakuntza gizonentzaz soilik, betiere jardun horiek aztertu beharko dituztelarik, gizartearen bilakaerari begiratuz, ikus dezaten Arteztarauaren erregimen orokorrari eginiko salbuespena mantentzeko daitezkeen hala ez.

(46) 1983ko azaroaren 8ko epaia, Batzordea/Erresuma Batua (165/82, Rec. p. 3431).

(47) 1986ko maiatzaren 15eko epaia, Johnston (222/84, Rec. p. 1651).

2. artikulua 3. apartatuak xedatzen du, 76/207 Arztegaraua ez dituela eragozten, emakumearen babeserako xedapenak, bereziki haurdunaldiari eta amatasunari doakionean. Hofmann epaiak (48) argitzen du ondoen salbuespen honen xedea. 1979an, Hofmann jauna aita izan zen. Garai hartan, Alemaniako legeak agintzen zuten, emakumeen faborerako, erditu ondoren derrigorrez zortzi asteko atsedena hartzea amatasunagatik; atsedena honetan lanetik libre ziren eta beren lansaria garbia jasotzen jarraitzen zuten, segurantza sozialak edo kontratatzaileak ordaindua. Gainera, zortzi aste horiek igaro ondoren, amek umea zaintzeko lan-utzialdia eska zezaketen, betiere lanpostua gordetzen zitzaielarik, umeak sei hilabete egin artean. Lan-utzialdian Estatuak ordaintzen zion emakumeari eguneko 25 DM-eko prestazioa. Hofmann jaunaren ume jaioberriaren amak ez zuen lan-utzialdi hori eskatu eta zortzi asteak pasa ondoren lanera itzuli zen. Hofmann jaunak berriz, umeaz arduratzeko soldata gabeko baimena eskatu zuen, harik eta umeak sei hilabete beteko zituen arte, eta agintariei eskatu zion aldi horretan eguneko prestazioa ordain ziezaiten; ukatu zioten ordea, amei soilik zuzenduriko abantaila zelakoan. Hofmann jaunak erabaki horri helegin zion, alegatuz lanbide jardura duten aitei, umea zaintzeko lan-utzialdiaren abantaila ez ematea, Alemaniako legeriak amei eskaintzen dien baldintza beretan, Erkidegoaren zuzenbidearen aurka zihoala.

Epai honetan, Auzitegiak esaten du 76/207 Arztegarauaren xedea ez dela familiarreko antolamenduari loturiko arazoak arautzea, ez eta bikoteko kideen arteko erantzukizun eta zereginen banaketa aldatzea, eta zehazten du ezen 2. artikulua 3. parrafoak onartzen dienean Estatu kideei, emakumea, "haurdunaldi eta amatasunari doakionean" babesteko xedapenak hartzeko edo daudenak mantatzeko eskubidea, Arztegarauak onartzen duela, berdintasunaren printzipioari loturik, zilegi dela emakumearen beharra bi mailatan babestea. Ziurtatu behar da, alde batetik, emakumearen egoera biologikoa, haurdunaldian eta ondorengo garaian, bere funtzio biologiko eta psikikoak erditu ondoren normalitzen diren artean, eta bestalde, emakumearen eta umearen arteko harremanak babestea, erditu ondorengo aldian, harreman horiek ez daitezela nahas, lanbide jarduerak berekin dakartzan egiteko eta betebeharrak anitzekin.

Epaiak, bukatzeko, esaten du, behin amatasunagatiko atsedena amaitutakoan amari ematen zaion umea zaintzeko lan-utzialdia, berez, 76/207 Arztegarauaren 2. artikulua 3. apartatuaren babes eremuaren barruan dela, helburua baitu emakumea babestea haurdunaldiaren ondorioetatik eta ama den bezainbatean. Halatan bada, lan-utzialdi hau amarentzat bakarrik gorde daiteke eta beste edozein pertsonari berriz ukatua, ama bakarrik izan baitaiteke, behar baino lehen lan jardueran berriro has dadin presatua.

2. artikulua 4. apartatuak ezartzen du 76/207 Arztegarauak ez dituela eragozten gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko neurriak, bereziki emakumeek lana lortzeko, lanean igotzeko, lanbide formakuntzan eta lan baldintzetan errealitatean dituzten desabantailak zuzentzekoak.

(48) 1984ko uztailaren 12ko epaia, Hofmann (184/83, Rec. p. 3047).

2. artikulua 4. apartatua interpretatu duen jurisprudentzia oparoagoa da. Auzitegiak, xedapen honek arauturiko nazioko neurrien aitzinean ote zegoen erabaki behar ukan zuen lehen aldia 1988ko urriaren 25eko Batzordea/Frantzia epaian izan zen (49). Batzordeak arau-urratzeagatik prozesuari ekin zion, Frantziaren aurka, Itunaren 169. artikulua arabera. Estatu kideek 76/207 Arteztarauaren xedapenak beren barne legerian sartzeko zuten epea 1978ko abuztuan bete zen eta Frantziak, 1983an lege erreforma eginagatik ere, hitzarmen kolektiboetan betidanik ziren zenbait klausula epe gabe indarrean mantentzen zitezela onartu zuen; klausula hauek emakumeei eskubide bereziak ematen zizkieten, hala nola: 59 urtez goitiko emakumeei lanorduak urritzea, aurretiazko erretreta, seme-alaben eritasunengatik baimenak ematea, zuten haur bakoitzagatik urtean opor egun gehiago ematea, eskolan ikasturtea hastean egun bateko baimena ematea, amaren egunean ordu batzuetako baimena ematea, mekanografiako materialarekin edota daktilografo moduan edo telefonari lanetan jardun direnei egunean atsedendia ematea, bigarren haurratik aurrera erretreta kalkulaterakoan hobariak ematea, eta ama izan eta haurtzaindegiko edota haurren zaintzarako gastuak dituztenei sariak ematea.

Abantaila hauek, Arteztarauak ezarritako berdintasunaren printzipioaren salbuespen gisa ulertu ote zitezkeen aztertu ondoren, Auzitegiak erabakitzen du ezen emakumearen alde, haurdunaldi eta amatasunagatik ezarritako babes neurriak zilegiztatzeko 2. artikulua 3. apartatua ezin dituela zuzentzat eman, emakumeak babesteko neurriak hartzea, adin handiko langileak direlako edo guraso direlako, ezaugarri horiek ez baitira emakumeenak bakarrik.

2. artikulua 4. apartatua ezarritako salbuespenari doakionean, Auzitegiak esan zuen beronen xede zehatz eta mugatua dela baimentzea itxuraz bereizkeria diruditen, baina gertatzez gerta daitezkeen desberdinkeriak benetan ezabatzerako edo urritzera doazen neurriak.

Epai honetan, Auzitegiak erabakitzen du, 76/207 Arteztarauaren 2. artikulua 3. eta 4. apartatua, tratu-berdintasunaren printzipioaren berariazko salbuespenak besterik kontuan hartzen ez dituztenez, ezin dutela zilegiztatu, Arteztaraua indarrean sartu aurretiko hitzarmen kolektiboetan emakumeei onarturiko eskubide bereziak modu orokorrean mantentzea baimentzen duen nazioko legeria.

Epai honek, salbuespen bi horien barruan ez zeuden neurrien zerrenda luzea ematen duen erabakia, ez du argitzen, bestela, Estatu kideek, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzera zuzenduriko zein neurri ezar dezaketen, 76/207 Arteztarauaren xedapenak urratu gabe.

Kontseiluaren 1984ko abenduaren 13ko Gomendioak (50), emakumearen alderako ekintza positiboak sustatzera zuzendua eta, zioen azalpenean dioen bezala, 76/207 Arteztarauaren 2. artikulua 4. parrafoan oinarritua denak argi handiagoa egiten digu, baina gomendioa denez, ez du indar loteslerik. Testu honek Estatu kideei gomendatzen die, besteak beste, ekintza positiboko politika egin dezatela, politika horrek ezaba ditzan emakumeek, lan bizitzan, egiatan jasaten dituzten desberdinkeriak, eta sustatu ere susta dezan bi sexuen partehartzea lan esparruan, eta ezar

(49) 1988ko urriaren 25eko epaia, Batzordea/Frantzia (312/86, Rec. p. 6315).

(50) DO L 331, p. 34; EE 05/04, p. 124.

ditzan ere, lan egiten duten edota lana bilatzen duten emakumeek, gizartean gizon eta emakumeen zereginak banatuak izan ohi diren moduagatik eta ohitura horiei loturiko egiturak, portaerak eta jarrerak oraindik mantentzen direlako jasaten dituzten kalteak ezabatu edo berdintzeko neurri orokor edota bereziak; eskatzen die ere, emakumearen partehartzea susta dezatela, gutxiegi diren lanbideetan eta lanpostuetan, eta batez ere etorkizunerako garrantzia duten sektoreetan eta erantzukizun handiko goiko mailatan, hartara giza-baliabideak hobeki baliatuak izan daitezten. Kalanke epaiak (51) bide beretik jarraitu zuen, Alemaniako Bundesarbeitsgericht-ak, 76/207 Arteztarauaren 2. artikulua 1 eta 4 apartatuen interpretazioari buruz aurkezturiko epaiketaurreko arazoak ebazterakoan; arazo hauek Kalanke jaunaren eta Alemaniako Bremen-go hiriaren arteko auzi batetan sortuak ziren.

Bremen-go Estatuko, funtzio publikoan emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunari buruzko legeak xedatzen zuen ezen, bai lanean sartzeko bai eta barruan izanik postuetan igotzeko, aukera egiterakoan, emakumea eta gizona gaitasun berdinekoak baziren emakumeei lehentasuna eman behar zitzaizela, sektorean presentzia gutxiegi bazuten, eta hala gertatzen zela ulertzen zen, baldin eta zerbitzu bateko langileen lansari maila desberdinetan, postuen erdia bederen hartzen ez bazituzten.

Prozedura nagusia sortarazi zuten gertaerak honakoak izan ziren: Bremen-go hiriak parke eta jardinetako Zerbitzuan ataleko buru izateko postua betetzeko aukeraketa antolatu zuen. Prozeduraren azken fasean, bi hautagaien artean aukeratu behar zen, biak lansari maila berekoak ziren, bata Kalanke jauna, auzi nagusiko auzi jartzailea, jardinetan eta paisaietako goi-injinaria, 1973az geroztik zerbitzu horretan jardinetan planifikatzeko teknikari gisa ari zena lanean, ataleko buruaren alboko iraukoraren funtziotan, eta bestea Glissmann andrea, 1983z geroztik goi-injinari paisalaria eta 1975az geroztik zerbitzu berean ari zena lanean, baita jardinetan planifikatzeko teknikari gisa.

Kalanke jaunaren igoera proposatu zenean, langileen Komiteak ez zen ados agertu. Horri jarraitu zitzaion bitartekotza prozeduran, Kalanke jauna izendatzea gomendatu zen eta komitea oraindik ere horren aurka agertu zen eta Adiskidetze Komitearen iritzia eskatu zuen; honek emandako iritzia enplegatzailearentzako loteslea zen eta bi hautagaiak gaitasun berekoak zirela eta emakumezkoari lehentasuna eman behar zitzaizela erabaki zuen.

Lan jurisdikzioaren aitzinean egin zuen eskaeran, Kalanke jaunak alegatu zuen Glissmann andrea baino gaitasun handiagoa zuela eta Adiskidetze Batzordeak ez zuela hori kontuan hartu, eta gaineratu zuen Bremen-go Estatuko emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunari buruzko legeak funtzio publikoan ezartzen zuen kuota sistema Alemaniako Kode Zibilararen 611. artikulua eta Oinarriko Legearen aurkakoa zela. Demanda ezetsia izan zen bai lehen instantzian, bai eta apelazioan ere.

Justizia Auzitegiak emaniko epaian esan zuen, 76/207 Arteztarauaren 2. artikulua 4. apartatuak onartzen dituela, nazioak neurriak hartzea lana lortzeko eta lanean igotzeko eremuetan,

(51) 1995eko urriaren 17ko epaia, Kalanke (C-450/93, Rec. p. I-3051).

emakumeei bereziki lagunduz, lan merkatuan haien lehiakortasuna areagotzeko eta lanbidean karrera egin ahal dezaten gizonen pareko baldintzetan. Jarraian esan zuen, izendatzerakoan edo lanean igotzerakoan emakumeak betiere eta erabat hobesten dituen nazioko araua, tratu-berdintasuna sustatzeko neurriaz harat doala eta Arzetarauaren 2. artikulua 4. apartatuak ezartzen duen salbuespenaren mugaz gaindi dagoela, gaineratzen duelarik, horrelako sistema batek, emakumearen presentzia gizonarena bezalakoxea egin nahi duenez zerbitzu baten maila eta gradu guztietan, 2. artikulua 4. apartatuak aipatzen duen aukera-berdintasunaren sustapenaren orde emaitza jartzen duela zuzen zuzenean, baina hau ezin da lortu ordea, aukera-berdintasuna aplikatuz ez bada.

Honakoan eman zuen erantzun zehatza izan zen, 76/207 Arzetarauaren 2. artikulua 4. apartatuak eragozten duela nazioko arauak, kasu honetan bezala, automatikoki emakumeari ematea lehentasuna, bi sexuetako hautagaiak egon eta biak gaitasun berdinekoak direnean, emakumeak gutxiegi diren sektoreetan —hala direla ulertzen delarik zerbitzu bateko langileen kategoriako gradu bakoitzean, postuen erdia bederen hartzen ez badituzte—, eta hala nola organigraman aurreikusiriko funtzio maila guztietan.

Marschall epaian ordea (52), bi urte eskasetara emana, aldaketa bat nabari da jurisprudentzian. Honakoan, epaiketaurreko arazoak sortarazi zituen nazioko auziak ere Alemaniako legeria zuen oinarrian, eta bertan Marschall jauna eta Nordrhein-Westfalen-eko toki administrazioa ziren aurrez aurre, honetan lan egiten baitzuen Marschall jaunak, irakasle gisa. Auzia, eskola batean postu igoera baterako bere kandidaturaren gainean aritzen da.

Auzitegiari eskatzen zitzaion, berriro ere, 76/207 Arzetarauaren 2. artikulua 4. apartatua interpretatzea; Justizia Auzitegiak 76/207 Arzetarauaren 2. artikulua 4. apartatua emanen zuen interpretazioaren arabera aplikatu behar zen nazioko xedapenak honela zioen (53):

“Igoera gertatuko deneko organismo eskudunaren sektorean, emakume gutxiago denean gizon baino, dagokion karrerako postuaren mailan, postuan igotzeko lehentasuna emakumeei emanen zaie, baldin eta gaitasunean, trebetasunean eta lanbide prestazioetan berdinak badira, ez bada hautagaietako batek bere aldeko arrazoiak dituela; (...)”

Marschall jaunak bere kandidatura aurkeztu zuen 13 graduko postu batera igotzeko, eta jakitera eman zitzaion administrazioak postu horretarako emakume bat izendatzeko asmoa zuela. Erreklamazioa aurkeztu zuen eta 1994ko uztailan ezetsi egin zioten. Administrazioak alegatzen zuen aukeratutako hautagaia igo behar zuela xedapen horri jarraiki, kalifikazio txostenen arabera bera eta Marschall jauna trebetasun berekoak baitziren, eta 13 graduko emakumeen kopurua, hutsunea iragarri zen garaian, gizonena baino txikiagoa zen. Marschall jaunak errekurtsioa jarri zuen, administrazioari agindu ziezaion eztabaidako postu horretara bera igo zezala.

(52) 1997ko azaroaren 11ko epaia, Marschall (C-409/95, Rec. p. I-6363).

(53) Beamtengesetz (Land-eko Funtzio Publikoaren Legea)ren 25. artikulua 5. apartatuaren bigarren esaldia, 1981eko maiatzaren lehenean argitaraturiko bertsioan (GVNW, p. 234); lege hau aldatua izan zen, Funtzio Publikoko zenbait arau aldatzeko Zazpigarren Legearen lehenengo artikulua bitartez, 1995eko otsailaren 7an (GVNW, p. 102).

Jurisdikzio organu horrek ikusi zuen auzi jartzaileak eta aukeratutako hautagaiak, esana zen bezala, hutsik zegoen postua betetzeko trebetasun berdina zutela, eta erabaki zuen auziaren atera-bidea zegoela nazioko xedapena Artzatarauaren 2. artikularen 1. eta 4. apartatuekin bat etortzen zen ala ez ikustean. Justizia Auzitegiak Kalanke arazoan emaniko epaian oinarriturik (54), Alemaniako auzitegiak esaten zuen, emakumeei berez emaniko lehentasunak, Artzatarauaren 2. artikularen 1. apartatuaren arabera bereizkeria zirudiela, eta bereizkeria hori ez zela desagertzen, salbuespen gisa gizonetzkoa hobetsiz gero. Alemaniako Auzitegiari dudazkoa iruditzen zitzaien, halaber, aipaturiko nazioko xedapen hori, 76/207 Artzatarauaren 2. artikularen 4. apartatuak seinalaturiko salbuespenean sartu ote zitekeen, hau da, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzera zuzenduriko neurriak aipatzen dituen salbuespenean. Bi arrazoiengatik zuen hala ikusten: lehenik, horrela hautagaiak baloratzeko oinarria bidegabe murriztuko litzatekeelako, kontuan hartzen den elementu bakarra baita kategoria horretan dauden emakumeen eta gizonen kopurua; bigarrenik, aipaturiko nazioko xedapen horrek ez duelako emakumeek lan merkatuan lehian aritzeko eta lanbide karrera gizonen pareko baldintzetan aurrera eramateko duten gaitasuna areagotzen, baizik eta emaitza bat ezartzen du, eta Artzatarauaren 2. artikularen 4. apartatuak baimentzen ditu bakarrik, aukera-berdintasuna helburutzat duten neurriak.

Auzitegiak, arazo honen gaineko epaia ematerakoan, gogora ekartzen digu, Kalanke epaian bertan seinalaturik zuela jadanik, emakumeek presentzia urria duten sektoreetan izendapenak egiterakoan edo lanean igotzerakoan emakumeei, baldin eta gizonen gaitasun berdina badute, automatikoki lehentasuna ematen dien nazioko arauak sexuagatiko bereizkeria egiten duela. Baina Kalanke epaian aztertutako araudietan ez bezala, Marschall arazoan eztabaidagai den xedapenak aldiz, klausula bat dauka emakumeei lehentasuna kentzen diena, baldin eta gizonetzko hautagaiak bere alderako arrazoiaren bat badu, "irekitze klausula" deitua.

Aurrekoarekin alde hau dagoela, Auzitegiak aztertzen du gero, ea horrelako klausula duen nazioko arauak gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzera zuzendua ote den, Artzatarauaren 2. artikularen 4. apartatuaren asmoei jarraiki, honen helburua baita, itxuraz bereizkeria irudi dezaketen baina errealitatean gertatzen diren bereizkeriak benetan ezabatzerik zuzenduak diren neurriak baimentzea, eta xedapen honek baimendu egiten ditu, enpleguaren alorrean nazioek emakumeei bereziki laguntzen dizkieten neurriak har ditzaten, hauen bitartez emakumeek lan merkatuan duten lehiakortasuna areagotzeko eta lanbide karrera gizonen pareko baldintzetan eraman dezaten aurrera.

Kalanke-rekin gertatu zenaz bestalde, honakoan Auzitegiak erabaki zuen, gaitasun berdinen aurrean ere, gizonetzkoen alderako joera dagoela, emakumeen kaltetan, batez ere emakumeek laneko bizitzan dituzten gaitasun eta zereginen buruz dauden aurreiritzi eta estereotipoek eraginik, eta baita ere, emakumeek karrera maizago eten dezaketeneko beldurragatik, etxeko eta senitate-enganako zereginengatik lan eguna ez dutela horren malguki antolatua ukanen eta haurdun-

(54) Aurreko 51. oharra aipatua.

diak, erditzeak eta edoskitzeorak direla eta maizago huts eginen diotela lanari uste baita; halatan esan zuen beraz, bi sexuetako hautagaien gaitasun berdina erakustek besterik gabe, ez zuela esan nahi biek aukera berdina dituztenik.

Hortik ateratzen du, nazioek eman dezaketela arau bat, zeinaren bitartez, igoeretan emakumeei gizonezko hautagaien gaitasun berdina erakutsiz gero lehentasuna ematen zaien, presentzia urriegoia duten sektoreetan, betiere irekitze klausularen aukera dagoelarik, eta arau hori 76/207 Arteztarauaren 2. artikularen 4. apartatuak seinalaturiko salbuespenean sartzen dela, arau horrek lagun baitezake, lehen aipaturiko jarrera eta jokamoldeek emakumeei egiten dizkieten kalte nabarmenak berdintzen, eta hala gutxitu egiten ditu gizartearen eguneroko jardunean berez ematen diren desberdinkeriak.

Dena den, emakumezko hautagaien alderako nazioko arau honek ezin ditu emakumeak beti eta erabat hobetsi laneko igoeretan, hala egitekotan 76/207 Arteztarauak ezarritako norbanakoen eskubide bati salbuespena egiten dion 2. artikularen 4. apartatuaren mugetatik at izanen bailitzateke.

Eta gaineratzen du Auzitegiak ezen, Kalanke epaian azterturiko arategian ez bezala, irekitze klausula dakarren nazioko xedapenak —esku artean zuenak, alegia— ez dituela muga horiek gainditzen, baldin eta kasu bakoitzean, emakumezko hautagaien gaitasun berdina duten gizonezko hautagaiei ziurtatzen badie, kandidaturak objektibitatez aztertuko direla, kontuan harturik betiere, bi sexuetako hautagaiei buruzko irizpide guztiak, eta alde batera utzirik emakumezko hautagaien alderako iritzia, irizpide horietako batek edo batzuek gizonezko hautagaiaren alde egiten dutenean, irizpide horiek ezin izan daiezkeelarik, halere, emakumezko hautagaien aurka bereizkeriak.

Estatu kideak baliatu dira, Amsterdam-eko Ituna (55) burutzerakoan aurkezten zitzaien aukeraz, EE Itunaren 119. artikulua berregiteko (141. artikulua izatera pasatu da), eta haren 4. apartatuak, bertsio berrian honela dio: "Laneko bizitzan gizon eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna egiatan ziurtatzeko xedearekin, tratu-berdintasunaren printzipioak ez dio inongo Estatu kideri eragotziko, presentzia gutxiago duen sexuari, lanbidean jarduten lagunduko dizkieten eta lanbide karreran dituen desabantailak berdintzen edo ezabatzen lagunduko dioten abantailak eskaintzeko neurriak mantendu edo sortzea."

(55) Amsterdam-eko Itunaren bitartez aldatzen ziren Europako Batasunaren Ituna, Europar Erkidegoen Itun eratzailleak eta haiei loturiko zenbait egintza; 1997ko urriaren 2an sinatu zuten eta indarrean sartzeko zain dago (DO C 340, p. 1).

2.4. AINTZAT HARTZE BEREZIA HAURDUN DIREN EMAKUMEEN LANA ESKURATZEKO BIDEARI ETA LANETIK IRAIZTEAK IZATEKO BALDINTZEI

Tratu-berdintasunaren printzipioa lana eskuratzekoan aplikatzeari buruz mintzo da 76/207 Arteztarauaren 3. artikulua, eta arautzen du sexuagatiko inolako bereizkeria ez dela izanen lana eskuratzekoan, bertan sartuz enplegu edo lanpostuetarako aukeraketetarako irizpideak, edozein sektore edo adarretan eta laneko hierarkiako maila guztietan.

Tratu-berdintasunaren printzipioa lan baldintzei aplikatzeak, bertan harturik irazite baldintzak, izan ere 5. artikulua arautuak, ekartzen du emakume eta gizonei baldintza berdinak ziurtatu behar zaizkiela, sexuagatiko bereizkeriarik gabe.

1990eko amaiera aldean, Justizia Auzitegiak ekin zion lana eskuratzekoan eta lan baldintzetan berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzko jurisprudentzia sortzeari, haurdun egoteagatik edo erditu berriak izateagatik, beren lanbide karreratan kalteak jasaniko emakumeen kasuak aztertu eta data bereko bi epai emanez. Izan ere Dekker (56) eta Hertz (57) epaiak ditugu.

Horietako batean, Auzitegiak, 76/207 Arteztarauaren 3. artikulua interpretatu behar ukan zuen, erabaki aurretik Herbeeretako hiritartasuna zuen Dekker andreak, gazte helduen formakuntza etxe batean irakasle postu baterako aurkeztu zenean, bereizkeria jasan ote zuen. Aukeraketa bitartean, berak jakitera eman zuen hiru hilabetako haurdunaldia zuela. Aukera egiteko ardurua zuen batzordeak egitekorako hautagai egokiena zela esan zuen, baina ikastetxeak ez zuen kontratatu nahi ukan, lanpostura aurkeztu zenerako haurdun zegoelako. Ikastetxeak ezezkoa eman zuen, jakin zuenean aseguru etxeak ez ziola ziurtatzen berak ere jasoko zituela, langileari, haurdunaldi eta erditzeagatik lana utziko zuenean eman beharko lizkiokeen eguneroko prestazioak. Izan ere, honi zegokion nazioko legeak aseguru etxeari aukera ematen baitzion, enpresariak ordainduriko eguneroko prestazioetatik ez ezer itzultzeko, edo zati bat ez itzultzeko enpresariari, baldin eta langilearen ezintasuna, kontratua sinatu zenetik sei hilabete gabe gertatzen bazen eta sinatutakoa langilearen osasun egoerak erakusten bazuen, epe horren barruan ezintasuna agertuko zela. Haurdunaldietarako salbuespenik ez zekarrenez, amatasunagatik ezin lan egina parekatu egiten zen, aurreikus zitekeen eritasunagatiko lan ezintasunarekin. Jakin behar zen, beraz, enpresariak langilea egoera horretan ez kontratatzeke erabakia, 76/207 Arteztarauak ezarritako tratu-berdintasunaren printzipioaren aurka ote zen.

Auzitegiak epaian interpretatu zuen haurdunaldiagatik ez kontratatua izatea emakumeei bakarrik gerta dakiekeela, eta hortaz, sexuagatiko bereizkeria zuzena dela; amatasun bajaren ondorio ekonomikoengatik ez kontratatzea, haurdunaldian oinarritzen da eta bereizkeria hori ezin zuri daiteke enpresariak, haurdun den emakumea kontratatuz gero, honen amatasunagatiko atsedenaldian jasanen duen diru kaltearen ergudioarekin.

(56) 1990eko azaroaren 8ko epaia, Dekker (C-177/88, Rec. p. I-3941).

(57) 1990eko azaroaren 8ko epaia, Handels- og Kontorfunktionærernes Forbund, "Hertz" (C-179/88, Rec. p. I-3979).

Beste epaian Auzitegiak, 76/207 Arteztaravaren 5. artikulua interpretatu zuen, hala eskatu baitzion, bere enpresari ohia demandatu zuen Hertz andreak jarritako auzia ebatzi behar zuen Danimarkako auzitegiak. Langilea supermerkatu batek kontratatu zuen, denbora murrizteko kontratzaile eta saltzaile gisa, 1982ko uztailean. 1983ko ekainan, haurdunaldi gaiztoa zuela eta, enpresariaren baimenarekin, gehiena eritasun bajarekin pasa ondoren, erditu egin zuen. 1983ko amaiera aldean, amatasunagatik atsedendia amaitutakoan, Hertz andrea bere lanera itzuli zen eta ez zuen bajarik hartu 1984ko ekaina arte. Hurrengo urtean, laneko ezintasun egoeran ehun lan egunez izan zen eta hori zela kausa, lanetik iraitzi egin zuten. Bi alderdiek zioten, auzi jartzai-learn 1984ko ekainetik 1985eko ekaina bitarteko lan ezintasuna, 1983ko erditzeak ekarri ziola. Jakin behar zen, beraz, 76/207 Arteztaravaren 5. artikuluan 1. apartatuak barnean hartzen ote zituen, haurdunaldiak edota erditzeak sorturiko eritasun baten kausaz eginiko lan uzteen kari- ra emaniko irazpenak, eta hala bazen, ea haurdunaldi edota erditzeak sorturiko eritasunagatik irazpenen aurkako babesa denboran mugatu gabea ote zen.

Auzi nagusian ziren alderdiek elkarren aurkako jarrerak zituzten: batzuentzat, emakumea haurdunaldiagatik, erditzeagatik edo haurdunaldiaren edota erditzearen ondorio den eritasunagatik, noiz sortu den begiratu gabe, iraztea, tratu-berdintasunaren printzipioaren aurka doa, gizonezko langile bati ezin baitzaio horrelako gora-beherarik gertatu eta halatan ez da inoiz arrazoi horre- gatik iraitzia izanen. Besteentzat, berriz, ezin zaio eragotzi enpresari bati, eritasun baja anitz hartzen dituen langilea iraztea, besterik gabe eritasuna haurdunaldi edota erditzearen ondorioa delako. Horrelako debekuak enpresariaren gaineko eragin gaiztoa luke erditze garaitik oso den- bora luzera ere, kudeaketa arazoak eta enpresariarentzat bidegabeko eraginak sor litzake, eta ho- rrez gain, emakumeen kontratazioen gain ere eragin gaiztoak ekar litzake.

Epai honek jarri zuen, iraitzia, haurdun den edo erditu berri den emakumea denean, tratu-berdin- tasunaren printzipioa aplikatzeari buruzko ondorengo jurisprudentziarako oinarria. Bertan Auzitegiak esaten du "Arteztaravaren xedapenetatik ondorioztatzen da, langile bat haurdun da- goelako iraztea, sexuagatik bereizkeria zuzena dela, hala nola haurdun den emakumea ez kon- tratatzea ere (...)" ; esaten du ere " (...) langile bat eritasunagatik baja errepikatuengatik iraztea, baja horiek ez badira haurdunaldi edo erditzearen ondorio, ez dela sexuagatik bereizkeria zu- zena, baldin eta eritasunagatik baja horiek, egoera berean leudekeen gizonezko langileen iraz- pena ere ekarriko balute" eta (76/207) Arteztaravak ez duela aipatzen haurdunaldiak edota er- ditzeak sorturiko eritasunaren hipotesia. Halere, emakumeei haurdunaldi eta erditzeagatik eskubide bereziak bermatuko dizkieten nazioko xedapenak egiteko aukera ematen du, hala nola amatasun baimena. Horren ondorioz, nazioko zuzenbidearen arabera duen amatasun baimenan den bitar- tean emakumea babesturik dago, lanera ez joateagatik gerta litzazkiokeen irazteetatik. Estatu kide bakoitzari dagokio, amatasun baimenen luzera ezartzea, langileei aukera eman diezaien, haurdunaldi eta erditzeari loturiko gora-beherak gertatzen diren garaian lana utzi ahal dezaten." Auzitegiak eranstean du oraindik, amatasun baimenaren ondoren sorturiko eritasunen kasuan ez dela egoki eritasun hori beste edozein eritasunetik bereiztea. Eri egote hau, eritasunerako erregi- men orokorraren menpean dago, beraz, izan ere, gizonezko nola emakumezko langileak eri dai-

tezke. Gaitz batzuk sexu bati edo besteari lotuagoak badira ere, jakin behar da emakumea eritasunari loturiko lan uzteagatik iraitzen ote duten, gizonaren baldintza berdinetan; hau hala bada, ez dago sexuagatiko bereizkeria zuzenik.

Honakorako eman zuen erantzuna izan zen, ezen 76/207 Arteztaravaren 2. artikulua 3. apartatuaren arabera nazio mailan harturiko xedapenei kalte egin gabe, Arteztaravaren 2. artikulua 1. apartatuari loturiko 5. artikulua 1. apartatuak ez duela eragozten, haurdunaldi edo erditzeak sorturiko eritasunen kausaz eginiko lan uzteen ondorioz iraitzea.

Jurisprudentiako bide beretik, Habermann-Beltermann epaian (58), Auzitegiak printzipio bera interpretatu zuen, haurdun zen langile baten eta enpresari baten artean sinaturiko lan kontratu mugatu gabe bati aplikaturik. Kontratuak esaten zuen lana gauzez egin behar zela eta sinatzeko garaian bi alderdietako inork ez zekien langilea haurdun zegoela. Jakin behar zen, beraz, 76/207 Arteztaravaren 5. artikulua 1. apartatuari eta 3. artikulua 1. apartatuari loturiko 2. artikulua 1. apartatuak eragozten ote zuen, alde batetik kontratua baliogabe uztea, nazioko zuzenbidearen araberrako, haurdunaldi eta edoskitzarorako gaueko lanaren debekuagatik, eta beste aldetik, eragozten ote zion enpresariari kontratuaren aurka egitea, kontratua sinatzerakoan beste aldeko kontratugilearen funtsezko ezaugarrien gaineko akatsa agertu zela argudiatuz.

Mugatu gabeko kontratua zenez, haurdun diren emakumeen gaueko lanaren debekuak aldi mugatu baterako bakarrik du indarra eta ez kontratuaren iraupen osorako. Halatan bada, Auzitegiak erabaki zuen, 76/207 Arteztaravaren 2. artikulua 3. apartatuak bermatu nahi duen babesaren helburuaren aurkakoa izanzen zela, eta xedapen honi eraginkortasuna kenduko liokeela, kontratua baliogabetzen edo haren aurka egiten uztea, haurdun zen besteren konturako langilea, kontratua sinatu zuenean egiteko konpromisoa hartu zuen gaueko lana egiteko aldi baterako ezindua izateagatik, eta erantzun zuen Arteztaravaren xedapenek eragozten dutela, gauaz egiteko lanerako enpresari baten eta langile baten artean, langilea haurdun dela bietako inork ez dakielarik, sinaturiko lan kontratu mugatu gabea baliogabe uztea, nazioko zuzenbideak debekatzen duelako haurdunaldi eta edoskitzaroan gaueko lana egitea, eta eragozten duela aldi berean, enpresariak kontratuaren aurka egitea, kontratua sinatzerakoan beste aldeko kontratugilearen funtsezko ezaugarrien gaineko akatsa agertu dela argudiatuz.

Webb epaia (59) eman zuen House of Lords delakoaren eskariz, 76/207 Arteztaravaren interpretazioari buruzko epaiketaurreko arazoa aurkeztu baitzuen, enpresari baten eta denbora mugatu gaberako kontratatu zuen langile baten arteko auzia ebatzi behar zuenez. Langilea iraitzia izan zen, enpresariak haurdun zegoela jakin zuenean, eta alegatzen zuen kontratatu zuela —hasiera batean— beste langile baten amatasunagatiko atsedenaldiran ordezko lanak egin zitzaizkion.

Epai hau garrantzi handikoa zaigu, bertan Auzitegiak esaten baitu, kontratua sinatu eta gutxira ezagututako haurdunaldiagatik kontratuan ezarritako betebeharrak betetzeko ezindua dagoen emakumearen egoera ez dela erkatu behar arrazoi mediku edo bestelakoengatik ezintasun berdi-

(58) 1994ko maiatzaren 5eko epaia, Habermann-Beltermann (C-421/92, Rec. p. I-1657).

(59) 1994ko uztailaren 14ko epaia, Webb (C-32/93, Rec. p. I-3567).

nean den gizonaren egoerarekin, eta haurdunaldia ezin dela inolaz ere, eritasun egoera batekin erkatu, ez eta, a fortiori, medikua ez den ezintasun batekin ere; egoera hauek bai, ekar dezakete emakume baten irazpena, sexuagatiko bereizkeria izan gabe. Auzitegiak erabaki zuen, Webb andrearen bezalako egoeratan, langilearen haurdunaldia dela eta denbora mugatu gabeko kontratua iraungitzea ezin dela onartu, langilea, aldi baterako besterik ez, lan hori egiteko ezindua dagoelako.

Sail honetako azken epaia, oraingoz, Larsson epaia dugu (60), zeinaren bitartez Auzitegiak, Danimarkako beste auzitegi bati erantzun baitzion, honek 76/207 Arteztarauaren xedapen zenbait interpretatzeko moduari buruz aurkeztu zion epaiketaurreko arazoari. Arazo hau sortua zen, Larsson andrea, auzi jartzaile gisa, eta bere enplegari ohia elkarren aurka zituen auzi batean. Auzi jartzailea 1990eko martxoan izan zen kontratatua, supermerkatu batean lan egiteko, eta hurrengo urteko abuztuan, enpresari haurdun zegoela eman zion jakitera. Haurdunaldian bi aldiz izan zen lanerako ezintasuneko egoeran: lehena hamazortzi egunez eta bigarrena lau hilabete eta erdiz, haurdunaldiak eragindako prolapso pelviano batengatik, eta 1992ko apirilaren 2an erditu zuen. Zegokion amatasunagatiko atsedena hogleitalau astekoa izan zen eta irailaren 18an amaitu zitzaion; ondoren urteko oporretaz gozatu zuen, urriaren 16a arte. Garai honetan, Larsson andreak jarraitu zuen beti prolapso pelvianoarentzako tratamantuan izaten eta ez zuen alta jaso, 1993ko urtarrilaren 4a arte.

Hala eta guztiz ere, 1992ko azaroaren 10ean, hau da, urteko oporrak amaitu zitzaizkionetik hilabetea ere pasa ez zela, enpresariak gutun batean jakinarazi zion abenduaren amaieratik aurrera kontatuz iraitzia zela. Iraizpenaren zioa, lan uzte luzeak ziren alde batetik, eta bestetik, ez zirudielako aurrerantzean —osasuagatik— lana behar bezala egiteko egoeran izanzen zenik. Larsson andreak irazpenagatiko demanda aurkeztu zuen, bereizkeriazkoa zela alegatuz eta hirurogeitamazortzi asteko lansariko kalte-ordaina eskatu zuen. Demandatuak jaso erazi zuen, 76/207 Arteztarauak ez duela eragozten emakume bat iraztea, behin amatasuneko atsedena amaitu zaionean, haurdunaldiak edo erditzeak ekarritako eritasun batek behartutako lan utzialdiengatik.

Jakin behar da, ea 76/207 Arteztarauaren 2. artikulua 1. apartatuari loturiko 5. artikulua 1. apartatuko xedapenek barnean hartzen ote dituzten, amatasuneko atsedenaldiaren ondorengo lan utzialdiengatik eginiko irazpenak, lan uzte horiek gertatzen direnean, haurdunaldian sorturiko eta amatasuneko atsedenaldira zehar eta ondoren ere iraun zuen eritasun batengatik, eta irazpena amatasuneko atsedenaldira amaitu ondoren egin izanaren arrazoina horixe denean. Horretarako, lehenik Hertz epaiaren helmena zehaztu beharra zegoen (61), zeinaren xedapenezko partean Auzitegiak esan baitzuen, 76/207 Arteztarauaren xedapenek ez dutela eragozten emakume bat iraztea, haurdunaldi edo erditzearen ondorio diren eritasunengatik lan uzteengatik.

(60) 1997ko maiatzaren 29ko epaia, Larsson (C-400/95, Rec. p. I-2757).

(61) Aurreko 57. oharra aipatua.

Abokatu orokorra zen Ruiz-Jarabo jaunak proposatu zion Justizia Auzitegiari, arazo honetan aurkeztu zituen deliberamenduetan, Hertz (62), Habermann-Beltermann (63), eta Webb (64) epaietan ezarritako jurisprudentzian oin harturik, esan zezala gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzerakoan lan baldintzei doakienean, eta horien barne harturik ere, 76/207 Arteztarauaren 5. artikuluan 1. apartatuak ezarritako irazpenerako baldintzak, amatasuneko atsedendian amaitutakoan muga jarri beharra zegoela. Hortik aitzin, emakume bat jotzen zuen edozein eritasun, jatorriz obstetrikoa bazen ere, langile guztientzako erregimen orokorraren menean izanen zen. Aitzitik, haurdunaldiak eragindako eritasunengatik, erditu aurretik emanen ziren baja medikukoaldiak ezin erkatuko ziren, irazpenerakoan, gizonezko baten eritasunagatiko lan uzteekin.

Dena den, Justizia Auzitegia ez zitzaion bere Abokatu Orokorrek esandakoari jarraitu eta lehen azaldutako kasuetatik bereizten da argi eta garbi, nahiz eta bere jurisprudentzian agertzen ziren pronuntziamentuetako batzuk berresten dituen, hala nola, 76/207 Arteztarauak ez duela kontuan hartzen haurdunaldiak edo erditzeak sorturiko eritasunaren hipotesia; Aztertarau honek Estatu kideei aukera ematen diela, emakumeei, haurdunaldia eta erditzea direla eta eskubide bereziak bermatuko dizkieten xedapenak egiteko; amatasunagatiko atsedendian emakumea, lana utzi duelako iraitzia izateko arriskutik babestua dela, eta Estatu kideei dagokiela atsedendia horren luzera finkatzea, langileek aukera ukan dezaten, haurdunaldiari eta erditzeari loturiko arazoak sortu ohi diren garaian, lana uzteko.

Auzitegiak aurka egin zion, Hertz epaian (65) eritasuna agertu zen garaiaren arabera bereizketa egin zela zioen tesiari, eta esan zuen, epai horretan esan zuela soilik, 76/207 Arteztarauak adierazitako tratu-berdintasunaren printzipioaren ikuspuntutik, eta aurkeztu zitzaizkion gertatzeko aurrekarietara eginez, ez zela bidezkoa izan, haurdunaldian edo erditzean agerturiko eritasuna eta gainerako eritasunak bereiztea. Gogora ekartzen du ere, Hertz epaian agertzen den bezala, gizonezko nola emakumezko langileak direla erigarriak, eta arazo batzuk sexu batenak baino besteeenak diren arren, kontuan hartu beharrekoa dela ea emakumea eritasunagatiko lan uzteengatik iraitzia denean gizonezkoen baldintza berdinetan iraitzia ote den, eta eransten du oraindik, hala izanez gero ez dagoela sexuagatiko bereizkeria zuzenik.

Arrazoinamendu honen bidetik Auzitegiak erantzuten dio nazioko epaileari, 76/207 Arteztarauak ez dituela eragozten, haurdunaldian edo erditzean sorturiko eritasunagatiko lan uzteen ondorio diren irazpenak, ez eritasuna haurdunaldian agertu eta amatasuneko atsedendian zehar eta ondoren luzatzen denean ere.

Aipatzen du ere, eta aurka egiten dio, Abokatu Orokorra den Ruiz-Jarabo jaunak azaldutako jarrierari, zeinentzat Erkidegoaren zuzenbidearen aurka doa, enpresariak, nazioko zuzenbidean irazpena baimentzen duen denbora kalkulatzekoan, kontuan hartu ahal ukaitea haurdunaldian

(62) Ibidem.

(63) Aurreko 58. oharra aipatua.

(64) Aurreko 59. oharra aipatua.

(65) Aurreko 57. oharra aipatua.

eta amatasuneko atsedendian langileak egiten dituen lan uzteak, honi buruz esaten duelarik, nazioko zuzenbideak finkaturiko amatasuneko atsedendian emakumea irazpenetik babestua dela, zeren eta onartuko balitz, garai horretako lan uztea kontuan hartua izatea ondorengo irazpen baterako, 76/207 Arzetarauaren 2. artikulua 3. apartatuak bilatzen duen babesaren aurkakoa bailitzateke, eta halatan, xedapen horren eraginkortasuna deuseztuta geldituko litzateke. Aldiz, amatasunagatiko atsedenditik kanpo, eta emakumeei babes berezia bermatzeko ez nazioko, ez Erkidegoko xedapenik ez dagoenez, emakumezko langileak ez du, 76/207 Arzetarauaren karrera babesik, haurdunaldian sortu zaion eritasunagatik eginiko lan uzteen kausaz iraitzia ez izateko.

Hortik atera daiteke, Arzetarau horrek ziurtatzen duen tratu-berdintasunaren printzipioak ez duela eragozten, emakumezko langilea, nazioko zuzenbidearen arabera iraitzi ahal ukaiteko behar den lan uzteen aldia kalkulatzeko kontuan har daitezela, langile honek haurdunaldiaren hasiera eta amatasuneko atsedendiaaren hasiera artean egin dituen lan uzteak.

2.5. TRATU-BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA SEGURANTZA SOZIALARI DOAKIONEAN: 79/7 ARZETARAUA

Kontseiluaren 1978ko abenduaren 19ko 79/7/EEE Arzetaraua, gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa pixkanaka aplikatzen joateari buruzkoa (66), askotan alegatu izan da Estatu kideen jurisdikzioko organuen aitzinean, eta hauek interpretazioko epaiketaurreko arazoak aurkeztu dizkiote Justizia Auzitegiari (67). Arzetarau honen testua eta ondoriozko jurisprudentzia aztertuz gero ikus daiteke, lan handirik gabe ikusi ere, Aztertaraua oztopoz beterik dagoela justizia eskatzen duenarentzat.

Hasteko, izenburuan bertan, esaten da 79/7 Arzetarauak berdintasunaren printzipioa pixkanaka aplikatzen joan nahi duela. Ez da, beraz, berehalako aplikazioa, ez 1984ko abenduaren 23tik aitzin ere, hau da, Estatu kideek barneko legeria Arzetarauera egokitzeko zuten epea amaitzen zenean, baizik eta eperik jarri ez zaion pixkanakako aplikazioa.

Bigarrenez, zein pertsoneri aplika dakiekeen zehazterakoan, 2. artikulua esaten du direla, biztanleria aktiboa, langile independienteak ere barne, nahigabeko langabeziagatik, istripuagatik edota eritasunagatik lana eteten duten langileak, lan bila dabilzanak, bai eta erretretadunak eta langile ezinduak. Definizio zabala izanik ere, biztanleria ekonomikoki aktiboaren, lanaren, langabeziaren eta behelanaren gaineko estatistikei buruzko Ebazpenaren 5. artikulua ematen due-

(66) DO 1979, L 6, p. 24; EE 05/02, p. 174.

(67) Auzitegiak, gaur egun arte, Arzetaraua interpretatzen duten berrogeiren bat epai eman ditu.

narekin erkatuz gero (68), bere aplikazio eremutik at uzten du halere, pertsona asko, gehienak emakumeak, inoiz etxetik kanpo lan egin ez dutenak edo etxetik kanpoko lana utzi eta umeen ar- dura hartzeko eta azkenean etxeko eri edo ezindu guztien zaintza daramatenak, eta Arteztarauak ezarritako tratu-berdintasunaren printzipioa aplika dakiekeen eskatzerik ez dutenak, ez direlako sartzen haren aplikazio baldintzetan.

Auzitegiaren jurisprudentziak horrelako adibide batzuk ematen ditu: Drake epaian (69), non ikus- ten zen Arteztarauarekin bat ote zetorren britaniar zuzenbideko xedapen bat, pertsona ezindu bat zaintzeagatiko prestazioa emateko baldintzak ezartzen zituena, epai honetan beraz, Auzitegiak esan zuen, Arteztarauaren aplikazio eremua zedarrizten duen biztanleria aktiboaren kontzeptua modu zabalean emana dela eta halatan, 3. artikulua aurreikusitako arriskuengatik lana gelditu behar ukan duen pertsona, biztanleria aktiboaren kide dela. Honakoa dugu, esate baterako, lana uzteko arrazoi bakarra, 3. artikuluan zerrendaturiko arriskueta bat, izan ere bere amaren elbar- rritasuna, erabili zuen langilearen kasua. Arteztarauaren ikuspuntutik biztanleria aktiboan sartu beharra dago. Drake andrea ezkondu zen eta senarrarekin bizi zen, urte luzetan ibilia zen hain- bat lan egiten besteren kontura, hala lanegun osoz nola lanegun murriztuaz, harik eta elbarritua zuen ama berarekin bizitzera eraman zuen arte; orduan lana utzi eta ama zaintzera jarri zen.

Johnson epaian ordea (70), Auzitegiak interpretatu zuen, lanbideko jarduna, seme-alaben hezike- taz arduratzeko utzi duena ez dela sartzen 79/7 Arteztarauaren aplika eremuan, bere jarduna, Arteztarauan aipaturiko arriskueta baten ondorioz utzi behar ukan duen langile gisa, zeren eta egoera hori ez baita, Arteztarauaren 3. artikulua 1. apartatuaren a) hizkian aipaturiko arris- kuen artean agertzen; dena den, gaineratu zuen Arteztarauaren aplika eremuan sartutzat eman zi- tekeela, lan bila dabilen pertsona gisa, zeren eta lan eskatzaile izateak berak biztanleria aktibo- ren barruan sartzeko aukera ematen baitu, 2. artikuluari jarraiki, begiratu gabe ineresdunak au- rreko lana zergatik utzi zuen, ez eta inoiz lan egin duen ala ez. Interesdunak frogatu behar du lan eskatzailea dela arrisku hauetakoren bat gauzatzen den garaian, eta nazioko epaileak erabaki behar du, batez ere begiratu ea lan eskaintzak bilatzeko eta lan eskatzaileei beren gestiotan la- guntzeko dauden laneko erakunderen batean izena emana ote duen, bai eta interesaduna enpre- sa bat edo bestean lan eske aurkeztu zela esaten duten enpresen gutunak bilduz, interesduna be- netan lan bila ote zebilen Arteztarauak aipatzen dituen gertakizunetakoren bat gertatu zenean.

(68) Geneva-n Laneko Nazioarteko Erakundearen Administrazio Kontseiluak deitua, eta 1982ko urriaren 18tik 29ra bilduriko, Laneko Estatistikari Nazioarteko hamairugarren Biltzarrak emandako ebazpena, Laneko Nazioarteko Bulegoa, Geneva, 1983. Definizio honen arabera, ekonomikoki aktiboa den biztanleriak hartzen ditu sexu bietako per- sonak, ondasun eta zerbitzu ekonomikoak sortzen bere lana ematen dutenak, Nazio Batuen Balantze sistemak eta Kontu Nazionalak sistemak definitzen dituzten moduan aldi zehaztu baterako. Sistema hauen arabera, ondasun eta zerbi- tzu ekonomikoen produkzioak bere egiten du lehen produktuen produkzio eta tratamendua —merkaturako badira, tru- katzeko badira, edota autokontsumorako—, merkaturako gainerako artikulua edota zerbitzuak, eta, merkaturako produk- tuak eta zerbitzuak egiten dituzten etxeen kasuan, produkzio horretatik autokontsumorako gordetzen den partea. Ebazpen horren 12 eta 13. artikuluek diotenaren arabera, etxeko lanetara jarritako pertsonak, erretiradunak eta eri edo ezinduak direnak, besteak beste, "biztanleria ekonomikoki ez aktiboa" dira.

(69) 1986ko ekainaren 24ko epaia, Drake (150/85, Rec. p. 1995).

(70) 1991ko uztailaren 11ko epaia, Johnson (C-31/90, Rec. p. I-3723).

Nolte eta Megner epaietan (71), Auzitegiak aztertu zuen ea, astean hamabost ordutik beherako lan murriztua egiten zutenak, biztanleria aktiboaren barnean sartzen ote ziren, 79/7 Arteztarauaren 2. artikulua arabera. Eta honetaz esan zuen langile baten diru sarrerak bere behar guztiak betetzen ez bazituen ere, ezin zitzaiola ukatu pertsona aktiboa zela, eta bere jurisprudentziaren arabera, besteren kontura lan egiten duen inor, bere diru sarrerak bizitzeko lain ez izanik ere (72), edota lanak iraun ohi ez badu ere astean hamazortzi ordu baino (73), edota hamabi ordu baino (74), edota hamar ordu (75), langiletzat hartu beharra dagoela, Itunaren 119 edota 48. artikuluen arabera, edo 79/7 Arteztarauaren arabera, kasuak kasu.

Posthuma-van Damme epaian (76), Auzitegiak esaten du, biztanleria aktiboaren kontzeptua oso zabala dela, edozein langile hartzen baitu bere baitan, baita besterik gabe lan bila dabilena ere, eta bere lanerako ezintasuna hasi aurretiko urtean, lanari loturiko dirurik jaso ez duenak ez dela derrigorrez Arteztaraua aplikatu dakioken jende multzotik baztertua. Achterberg-te Riele epaian (77), Auzitegiak erabaki behar ukan zuen, ea 79/7 Arteztaraua aplikatu ote ziezaikeen sekula lan egin ez eta lan eskatzaile ere ez zirenei, eta lana utzi zutenei, Arteztarauaren 3. artikulua 1. apartatuaren a) hizkian aipaturiko gertakizunengatik ez beste zerbaitengatik eta lan eskatzaile ez zirenak. Auzitegiak ezetz esan zuen, 79/7 Arteztaraua ez zaiela aplikatzen, sekula lan eskatzaile izan ez direnei, ez eta izateari utzi diotenei ere, kontuan hartu gabe Arteztarauan aipaturiko gertakizunak agertzen diren ala ez.

Erantzun bera eman zuen Züchner epaian (78), zeinean Auzitegiak ez zion 79/7 Arteztaraua aplikatu, inoiz besteren kontura lan egin ez zuen emakume bati, zeina, merkataritza lanetan bere kontura ari zen senarra, 1972an istripu baten ondorioz, paraplejiak jo eta bere kabuz baliatzeko gai ez zela gelditu zenetik, honen zaintzara emana baitzen emaztea, horretarako formakuntza berezia ere hartu zuelarik. Ez zen inon jasoa, Züchner andreak, senarraren arduraren hartu zuen garaian jarduera ekonomikorik zuenik, ez eta inoiz ukan zuenik edota lan bila zebilenik ere.

Bi hitzetan, hala 79/7 Arteztarauaren 2. artikulua dakarren definiziotik, nola aipaturiko jurisprudentziatik ondorioztatzen da, ezen Arteztarauaren arabera inor biztanleria aktiboko kideztat hartua izan dadin, behar dela izan, edo besteren konturako edota bere konturako langilea, lana gelditu behar ukan duena, bere gain edo hirugarren baten gain gertatu delako, 3. artikulua 1. apartatuaren a) hizkian zerrendaturiko arriskuetaiko bat, edo bestela lan bila dabilen norbait eta bilatze hori arrazoi berengatik eten behar ukan duena.

(71) 1995eko abenduaren 14ko epaia, Nolte (C-317/93, Rec. I-4625), eta Megner eta beste (C-444/93, Rec. I-4741).

(72) 1982ko martxoaren 23ko epaia, Levin (53/81, Rec. p. 1035), 15 eta 16 apartatuak.

(73) 1989ko abenduaren 13ko epaia, Ruzius-Wilbrink (C-102/88, Rec. p. 4311), 7 eta 17 apartatuak.

(74) 1986ko ekainaren 3ko epaia, Kempf (139/85, Rec. p. 1741), 2 eta 16 apartatuak.

(75) Rinner-Kühn epaia, aurreko 29. oharran aipatua.

(76) 1996ko otsailaren 1eko epaia, Posthuma-van Damme (C-280/94, Rec. p. I-179), 20 eta 21 apartatuak.

(77) 1989ko ekainaren 27ko epaia, Achterberg-te Riele eta beste (gai metatuak 48/88, 106/88 eta 107/88, Rec. p. 1963).

(78) 1996ko azaroaren 7ko epaia, Züchner (C-77/95, Rec. p. I-5689).

Hirugarrenez, 79/7 Arzetarauaren aplikazio eremu materiala, 3. artikulua zehazten du, zeinaren arabera Arzetaraua aplikatzen zaie, honako arriskuetatik babesten duten legezko erregimenei: eritasuna, elbarritasuna, zahartzea, lan istripu eta lanagatiko eritasuna, eta langabezia; bai eta ere gizarte laguntzari loturiko xedapenei, aipaturiko erregimenak osatu edo ordezkatzera zuzenduak badira. Arzetarauaren aplikazio eremutik kanpo geratzen dira, bizirik dirauen aldeko prestazioak eta famili-prestazioak, salbu aipaturiko arriskuei loturik emaniko famili-prestazioak badira.

Justizia Auzitegiak xedapen honi ematen ari zaion interpretazioaren eredu gisa, zenbait epai aipa dezakegu: Smithson epaia (79), non Arzetarauaren aplikazio eremuz at utzi zuen, etxebizitzagatiko prestazio bat, zeinaren zenbatekoa kalkulatzeko baitzen, onuradunak jasotzeko eskubidea omen dituen diru sarrera teoriko batzuen eta benetako arteko zifra baten arabera, eta aplikazio eremuz at uzten du ere, diru sarrera teorikoen zenbatekoa zehazteko, Arzetarauan ageri diren eritasuna eta elbarritasuna bezalako arriskuak estaltzeari loturiko irizpideak erabiltzen diren arren; Jackson eta Creswell epaia (80), non kanpora uzten duen ere, segurantza sozialeko legezko erregimen bat; erregimen honek ematen zien, baldintza batzuk betez gero, legez finkaturiko kopuru batetik beherako diru sarrerak dituztenei, beren beharrei aurre egiteko prestazioa; Van Gemert-Derks epaia (81), non berresan zuen, bizirik irauteko pentsioak ez zirela Arzetarauaren aplikazio materialeko eremuan sartzen; Richardson epaia (82), non interpretatu baitzuen, 79/7 Arzetaraua aplikatu egiten zitzaiola, mediku gastuak ordaintzetik pertsona mota batzuk, eta bereziki adin handikoak, aske uzten dituen legezko erregimen bati, zeren eta, horrelako erregimeneak segurantza sozialeko legeriak arautu arautzen ez baditu ere, helburua baitu, onuradunei eritasun arriskuaren aurrean babesa eskaintzea, eta hau bai, Arzetarauaren aplikazio eremuan dago; Atkins epaia (83), non, Arzetarau honek araturiko tratu-berdintasunaren printzipiotik at jarri zituen, bereziki adinekoei eskainiriko garraio publikoko prezioaren urritzeak, urritze horiek ez baitute babesten, ez zuzenean eta ez eraginkortasunez ere, 3. artikuluan zerrendaturiko arriskueta-ko batetik, eta onuraduna egoera horietako batean bada ere, ez da hori aski, prestazio hori sardadin Arzetarauaren aplika eremuan; eta Balestra epaia (84), non erabaki zuen, erretreta aurre-
ratuko egoerara pasatzerakoan ordainduriko erretretaurreko prestazioa, zuzenean eta modu eraginkorrez lotua zenez, 79/7 Arzetarauaren 3. artikulua dakarren zahartze arriskuaren babesari, Arzetarauaren aplika eremuan sartu behar zela.

79/7 Arzetarauaren 4. artikulua dio, tratu-berdintasunaren printzipioak eskatzen duela, sexuagatiko inolako bereizkeria ez ematea, ez zuzenki ez zeharka, batez ere ezkont egoerari edo fa-

(79) 1992ko otsailaren 4ko epaia, Smithson (C-243/90, Rec. p. I-467).

(80) 1992ko uztailaren 16ko epaia, Jackson eta Creswell [gai metatuak C-63/91 eta C-64/91, Rec. p. I-4737].

(81) 1993ko urriaren 27ko epaia, Van Gemert-Derks (C-337/91, Rec. p. 5435).

(82) 1995eko urriaren 19ko epaia, Richardson (C-137/94, Rec. p. I-3407).

(83) 1996ko uztailaren 11ko epaia, Atkins (C-228/94, Rec. p. I-3633).

(84) 1997ko urtarrilaren 30eko epaia, Balestra (C-139/95, Rec. p. I-549).

mili egoerari loturikoa, bereziki erregimenak aplikatzeko eremuari doakionean, edo horietara iristeko baldintzei doakionean, diruz lagundu beharri doakionean, eta diru laguntzen zenbatekoa kalkulatzeari doakionean, barne harturik ezkontideagatik edota kargurako pertsonagatik egin beharreko gehiketak, eta prestazioetarako eskubidea irauteko eta mantentzeko baldintzak.

Auzitegiak hastapenetatik esana du artikulua honek eragin zuzena duela, eta halatan, baldin eta Estatu batek ez bazituen hango xedapenak barneko legeriara ekarri, edo behar bezala ekarri ez bazituen, partikularrek inboka zezaketela xedapen hori nazioko auzitegien aitzinean, 1984ko abenduaren 23az geroztik, eta hauek utzi behar zioten, Arteztarauaren artikulua honen aurkako nazioko edozein xedapen aplikatzeari. 4. artikulua eragin zuzenetik ateratzen den beste ondorioa dugu, barne zuzenbidean aplikatze neurriak falta badira, emakumeek eskubidea dutela aplikatu dakien, egoera berean leudekeen gizonei aplikatuko litzaizkieketen neurri berberak (85). Arteztarauak justizia eskatzaileari jartzen dion azken oztopoa 7. artikuluan agertzen zaigu, non azaltzen baitzaigu, 79/7 Arteztarauak arauturiko berdintasun printzipioaren aplikatu eremutik Estatu kideek ken ditzaketen gaien zerrenda, hau da:

- Erretreta eta zahartzaro pentsioak emateko erretreta adina finkatzea, eta horiek beste prestazioetan ukan dezaketen eragina;
- Seme-alabak hezitu dituztenei zahartzaro aseguruan ematen zaizkien abantailak; prestazioetarako eskubidea eskuratzea, seme-alaben heziketagatik aldi baterako lan uzteak egin ondoren;
- Zahartzaro edota elbarritasuneko prestazioak eskaintzea, emazteak dituen eskubideetatik eratorriz;
- Elbarritasun luzeko prestazioen, zahartzaroko prestazioen, lan istripu edo lanbideagatik eritasuneko prestazioen emendatzea, kargura emaztea edukitzeagatik;
- Arteztaraua eman aurretik, aukeratze eskubidea baliatu ukanaren ondorioak, eskubideak ez hartzeko edo betebeharez ez lotzeko, legezko erregimen baten barnean.

Xedapen hau interpretatzerakoan, oraindik horretarako aukera urriak eman bazaizkio ere, Auzitegia beti, Arteztarauak duen xedera eta letlara lotu da, eta honen hitzetan berdintasunaren printzipioa eremu honetan pixkanaka joan da aplikatzen, horrexegatik bada, aurreikusten dituen salbuespenen hedadura eta mugak ezin dira hertsiki zehaztu (86).

(85) 1987ko ekainaren 11ko epaia, Teuling (30/85, Rec. p. 2497); 1987ko ekainaren 24koa, Borrie-Clarke (384/85, Rec. p. 2865); 1988ko martxoaren 8koa, Dik (80/87, Rec. p. 1601); 1989ko abenduaren 13koa, Ruzius-Wilbrink (C-102/88, Rec. p. 4311); 1990eko azaroaren 21ekoa, Rouvroy (C-373/89, Rec. p. I-4243); 1991ko martxoaren 13koa, Cotter (C-377/89, Rec. p. I-1155), eta 1993ko uztailaren 1ekoa, Van Cant (C-154/92, Rec. p. I-3811).

(86) 1992ko uztailaren 7ko epailak, Equal Opportunities Commission (C-9/91, Rec. p. I-4297); 1993ko martxoaren 30koa, Thomas (C-328/91, Rec. p. I-1247); 1994ko uztailaren 7koa, Bramhill (C-420/92, Rec. p. I-3191); 1995ko abuztuaren 11koa, Graham (C-92/94, Rec. p. I-2521), eta 1998ko apirilaren 30koa, De Vriendt (gai metatuak C-377/96 a C-384/96, Rec. p. I-2105).

GEORGIA HENNINGSSEN

**Europako Batzordeko XII.
Zuzendaritza Nagusiko
ordezkaria**

BEGOÑA SALAS GARCÍA

**Hezkidetzan eta irakasleen
prestakuntzan aditua**

Herakuntra

1.*Sarrera*

Azalpen honen sarrera gisa gogora dezagun aitzinsolas esanguratsu eta paradoxiko bat. Azken "1997ko Europar Batasuneko Hezkuntzaren funtsezko zifrak" direlakoek erakusten digute, 1995. urtean goi mailako bigarren hezkuntzan diploma lortu zuten lau milioi pertsonen artean, neskak mutilak baino gehiago direla. Goi mailako hezkuntzako diploma lortzeko emakumeen partehar-tzea gizonezkoena baino handiagoa da Europako kide diren Estaturen erdia baino gehiagotan. Alabaina, emakumeen langabezia tasak gizonena baino handiagoa dirau Estatu kide orotan, bai emakume gazteen kasuan ere.

Honek erakusten digu zergatik Europar Batasunak garrantzia ematen dion hezkuntzako generoko dimentsioari eta Aukera berdintasuna sustatzeari, gure gizarte honen arazo nagusienetako bat konpontzen laguntzeko asmotan ari baikara.

Erkidegoaren politiken arteko koherentzia printzipioak abiarazi ditu Hezkuntza, formakuntza eta gazterian generoko dimentsioko eta Aukera berdintasuneko gaietako europar ekintzaren lehen urratsak. Bi bide paraleloen lotunea dugu hau —Maastricht-eko Ituna giltzarri duelarik— hezkun-tzan Europak duen eskumenari doakionean, eta bestalde, gizon eta emakumeen arteko Aukera berdintasunerako Laugarren Ekintza Programa, Amsterdam-eko Ituna, eta ondoren, 1997ko aza-roan egin zen enplegurako Lehen Europar Gailurra.

Bete betean sartzan da, beraz, "2000 Orientabideak" izeneko Batzordearen 1997ko azaroko ja-kinarazpenaren esparru orokorrean, non heldu diren zazpi urtetarako Erkidegoaren ekintzen be-launaldi berrirako norabideak ematen baitira.

Aitzinsolas historiko hau garrantzitsua da, guri dagokigun gaian gaur egun ematen ari den bila-kaera ulertuko badugu. Hurrenez hurren emanen diren etapak seinaltatzeko aukera ematen digu, bai eta egoera baloratu eta ikusi zein urrats eman behar diren oraindik, batez ere Hezkuntza, for-makuntza eta gazteriko etorkizuneko programak edota 2000-2006 aldirako bigarren belaunal-dikoak prestatzerakoan.

Hitzaldi honetan zehar azalduko dizkizuet Europar Batasunaren ekintza orokorraren norabideak hiru eremutan, bereziki seinaltatuz hezkuntzan dagoen egoera.

2.*Maastricht baino lehen*

Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna gordetzea etengabeko portaera izan da 1986az geroztik, hau da, Europar Erkidegoak Hezkuntza, Formakuntza eta Gazteria alorretan abiatutako ekintzen hasiera beretik, eta bereziki, adibide gisa aipatuko dizkizuedan programa za-harretan, Erasmus, Lingua, Comett, Petra, Force, Eurotecnet eta Europarako Gazteria programe-tan, alegia; programa hauek goi mailako hezkuntza eta lanbidezko formakuntza eta formakuntza teknikoko hezkuntza sistemen artean mugikortasuna bultzatu nahi zuten, bai eta eskarmentu eta in-formazio trukea eta lankidetzatza.

Halatan, Maastricht aurreko garaian jartzen gara, eta hezkuntza orokorra ez da oraindik Erkidegoaren eskumenean.

Aipa dezagun programa hauen guztien balantzeak erakusten digula Erkidegoaren ekintzak ez duela egin, baizik eta Estatu kideetan neska eta mutilen arteko aukera berdintasunari dagokionean dagoen ohiko egoera erakustea.

Halarik ere, joera hau berdintzeko, ekintza osagarri berezia erabili da, 1985eko ekainaren Kontseiluaren Erabakiaren bultzadaz, non hezkuntza gaietan neska eta mutilen arteko aukera berdintasunaren gaineko ekintza programa bat baitator. Halatan bada, lehen aipaturiko programekin batera, beste egitasmo piloto bereziak garatzeko aukera izan da, bereziki Hezkuntzako lankidetzaren esparruan eta hezkuntza maila orotan. Egitasmo hauek, nola edo hala, aukera eman dute, Maastricht baino lehen hezkuntza orokorrean aitzindari zen Erkidegoaren ekintza baterako, zeren egitasmo hauek gizarte ingurumenarekiko koherentziazko ekintza bati lotuak baitzihoazen.

Egitasmo hauek ahaleginak egin dituzte, programa honetan definituriko hamar helburuen bila, hau da, heziketa prozesuaren eragile guztiak sentsibilizatzea, irakasleagoa modu jarraituan hezitzea, eskolarako eta lanbidetarako orientabideak eman ikasketak eta karrerak dibertsifikatzeko, lan mundura irekitzea, koheziketa indartzea, eskolako liburueta estereotipoak kentzea, gutxituen diren kategorien aldeko ekintza bereziak, familiekiko lankidetzaren eta, azkenik, neska eta mutilen arteko berdintasunerako programak sustatzeko neurri bereziak eta hauen ebaluazioa.

3. Maastricht-eko Ituna eta hezkuntza, formakuntza eta gazteria

Europar Batasunaren Itunarekin (Maastricht-ekoa deiturikoa, indarrean 1993ko azaroaren lehenean jarri zena), Europa eskolan sartzen da. Erkidegoaren eskumenaren esparrua, hezkuntza maila orotara hedatzen da, eskolaurretik hasi eta goi mailakoraino, bai eta helduen heziketa eta urrutiko hezkuntza irekiraino ere; alabaina bere egitekoa, Estatu kideen politiken ekintza osagarria besterik ez da (subsidiarotasuna). Erkidegoaren balio erantsi hau ematen da batez ere Europako dimentsioak eskaintzen duen dinamizazioari esker hezkuntzaren kalitatea eta eraberritzea areagotuz, hau da, heziketan mugikortasuna izanik, hizkuntz komunikazioa hobetuz, Estatu kideetako hezkuntza sistema desberdinak eta hango kulturak ezagutuz, informazioa, eskarmentuak eta praktika egokiak trukatzuz, gaitasunen eta diplomaren balioak eta onarpena ezarriz, elkarlaneko sareei esker eta Estatu kideetako hezkuntza sistemetako erakunde eta eragileen arteko sareei esker lankidetzaren sendotuz. Hala eginez ez da bateratzea bilatzen, aitzitik, herrialde bakoitzaren berezitasunak gorde nahi dira, nazioetako hiritartasuna aberastuko duen hiritartasun dimentsio berria erantsiz. Kalitatea, eraberritzea, demokrazia eta gardentasuna ditu zeregin honek funtsezko hitzak.

Formakuntzaren eremuan (127. artikulua) eta gazteriaren eremuan (128. artikulua) Erkidegoaren eskumena areagotu egiten da eta sakontzen.

Funts hauen gainean oinarriturik egin dira belaunaldi berriko programak, ordurarte lortutakoa finkatuz eta eremu berriak hartuz: 1995-1999 aldirako SOKRATES (hezkontza), LEONARDO DA VINCI (lanbidezko formakuntza) eta EUROPARAKO GAZTERIA III (eskola egituratik at), zeintzuek sexuen arteko berdintasuna gordetzearen orientabide bera mantendu baitute, bere ekintza guztietan, zeharkako ikuspegia azpimarratu dutelarik, bai eta ikuspegi hau kontuan harturik egitasmoei ematen zitzaien lehentasuna ere.

Halarik ere, seinalatu beharra dugu, programen arabera ikuspegia desberdina izan dela; LEONARDO DA VINCI programan gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna programaren helburu zuzenen artean sartzen da (3. artikulua), aurrekontuak dituzten ekintza positiboko helburu bereziekin ere. EUROPARAKO GAZTERIA programak aipatu ere aipatzen du, programaren helburu bezala (1. artikulua) "gazteek jakin dezatela garrantzi handikoa dela gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna ziurtatzea eta emakumeei, gizarteko alor orotan aktiboki parte hartzeko gogoia sortaraztea. SOKRATES-ek, berriz, "gizon eta emakumeen arteko Aukera berdintasuna gordetzeko" xedapen orokorra dauka, Kontseiluaren Erabakiaren kontuan hartuzko baten bitartez.

LEONARDO programaren helburu bereziak honakoak ditugu: I.1.1.d. apartatua (Estatu kideetako lanbide formakuntzako tresnak eta sistemak hobetzen laguntzea —Lanbide formakuntzan gizon eta emakumeen arteko Aukera berdintasuna sustatzea) eta II.1.1.d. apartatua (enpresa eta langileei doakienean lanbide formakuntzako ekintzak hobetzen laguntzea, bai unibertsitate eta enpresen arteko lankidetzaren bitartez ere. Lanbide formakuntzako gaietan gizon eta emakumeen arteko Aukera berdintasuna sustatzea). 1995 urtetik 1997 urte bitartean ekintza hauek 15 milioi Ecutako aurrekontua xahutu zuten guztira (95 egitasmo berezietan 12 milioi eta gainerakoa aukera berdintasunaren ikuspegia barne hartzen zuten egitasmo orokorretan). Lau sektore bereziak honako hauek ditugu: langabezian diren emakumeentzako formakuntza, lanean diren emakumeentzako formakuntza, neskenentzako formakuntza eta laneko eta formakuntzako egiturak hobetzekoak. Hala behar izanez gero, egitasmoen adibide zehatzagoak eman daitezke

4. *Laugarren programari, epe ertainean, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunerako duen eragina*

Aurrerapauso berria egin da, programa hauetako ekintza orotan generoko ikuspegia eta Aukera berdintasunaren printzipioa sar daitezela lortu denean (mainstreaming), gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunerako Erkidegoaren epe ertainerako Laugarren ekintza programa indarrean jartzearekin (1996-2000) lortu ere (Kontseiluaren Erabakia, 1995eko abenduaren 22koa) bai eta era honen gainean, 1996ko otsailan Europar Batzordeak eginiko Jakinarazpenarekin ere.

Hezkuntzaren alorrean, ahaleginak Sokrates programaren barruan areagotzea aukeratu da, alde batera utziz, programaz kanpo egitasmo pilotu bereziak aurkeztea.

Batzordearen zerbitzuei doakienean, espedienteen kudeatzaileak sensibilizatzeko lanak egin dira eta arduradunak ekintza moten arabera izendatu dira, halatan sare bat osatuz, lehen aipaturiko xedapenen aplikazioaren segimendua egiteko.

Kudeaketa organuen sensibilizazioa planifikatu da (Programen komiteak eta ekintza mota desberdinen aurreaukeraketaren edo kudeaketaren arduradunak diren Nazio Agentziak), bai eta egitasmoen organu sustatzaileena ere, ezagutzera eman nahian bai tresna metodologikoak, bai eta ebaluazio irizpideak ere.

Programa eta Nazio Agentzia desberdinen jarduera txostenek kontuan hartu behar dute alderdi hau.

Bide erdian eginiko balantzeak aukera ematen dute egiaztatzeko aurrerapen nabariak ematen direla, aukera berdintasuna zuzeneko helburuen artean duten programetan eta txikiagoak edo koalitatiboki ez hain handiak, helburua ez denean, hezkuntzaren kasua, helburu bezala izendatua. Azken sektore honetan, ebaluazio orokorrak bereizten ditu goi mailako hezkuntza alde batetik —non sexu bietako partaideen arteko oreka ematen baita, nahiz eta ikasketako sektoreka banatuz gero ikusten den ohiko estereotipoei loturiko joera berberak errepikatzen direla beti, eta halatan emakume gutxiago daude gai zientifiko eta teknikoetan— eta hezkuntza orokorra beste aldetik, non derrigorrezko hezkuntzako ikasle guztiek hartzen baitute parte europar egitasmoetan eta gaiari loturiko ekintza positibo edota egitasmo berezi gutxi daude.

5. *Amsterdam-eko Itunaren eta enplegurako Lehen Gailurraren ekarpenak*

Amsterdam-eko Itunaren xedapen berriak Soledad Blanco-k azalduko zizkizuen dagoeneko, xedapen hauek, bada, eta Aukera berdintasuna eta generoko dimentsioa lehentasunez hartzen dituen enplegurako Lehen Gailurretik ateratako ondorioek, zuzen zuzenean eragin zituzten hezkuntza, formakuntza eta gazteriako ekintzak, enpleguko merkatuaren baldintza berrietara egokitzeko eta enplegua lortzeko funtsezkoak diren ekintzak, hain zuzen ere.

6. *2000 Orientabideak*

Kontseiluak iragan azaroan onartu zuen Batzordeak eginiko "2000 Orientabideak" jakinarazpena; honek Erkidegoaren ekintza programen belaunaldi berrirako norabideak ematen ditu. 2000-2006 aldirako bilakaerak prestatzen ditu, hiru puntu hauei jarraituz:

- Gaur egungo Erkidegoaren politika berrikusi edo egokitzea.
- Estatu kide berriak sartzea, bereziki Europako Erdialdeko eta Ekialdekoak.

— Behar adinako finantzamendu edo aurrekontua, 1999az geroztik, ekonomia eta monetazko Batasunari begira.

lido honetan abiatu da ere Batzordearen zerbitzuen eta finantzen kudeaketaren berrantolakuntza. Horren barnean sartzen dira, oinarritzko hezkuntza, enpleguari loturiko hasierako formakuntza eta formakuntza jarraitua eta sexuen arteko aukera berdintasuna hobetzeko lehen aipatu ditugun ekarpenak.

7. *Hezkuntza arloko lehentasunak “Eragutzazko Europari Begira” eta hezkuntzan, formakuntzan eta gazterian heldu diren garaitan aurrera eramanez diren programak*

Halatan bada, aurrean aipaturiko orientabide guztietatik abiatuta, ezinbestekoa agertzen zaigu aukera berdintasuna eta generoko dimentsioa bigarren belaunaldiko programetako zeharkako helburuetan sartzea. Halaxe proposatu ere du Batzordeak 1998ko uztaileko Kontseilura aurkezteko prestatu berri duen egitasmoan.

Heziketa eta formakuntza bizitzan zehar ematea da etorkizunerako ekintza guztien oinarritzko filosofia; kudeaketa Estatu kideen esku uzten da lehen baino gehiago.

Aukera berdintasunaren eta generoko dimentsioaren aplikazioa sakonki aztertzeaz gain, azterketa hori ebaluatzeko eta segimendua egiteko xedapen zorrotzagoak ematen dira. Proposamenak deszentralizazioaren bidetik doazenez, programa hauek Estatu kide guztietan kudeatzen dituzten Nazio Agentzien konpromiso zehatzagoa beharko da ere.

8. *Europako Erdialdeko eta Ekialdeko herrialdeetara hedatzea*

Printzipio berberak hartuko dira kontuan Europako Erdialdeko eta Ekialdeko herrialdeekin negoziatu berri diren edo jadanik hartuak diren hitzarmenetan, aukera berdintasunari loturiko eremuetan. Garrantzi handikoa da, gai honetan Erkidegoaren harremanak gidatzen dituen koherentzia erakustea, bai barneko koherentzia nola kanpoko ere.

Europar Batzordearen bestelako ekimenak

Europar Batzordeak ekimen zenbait egin ditu garai honetan zehar, Cresson anderearen gidaritzapean, andere hau Batzordekide bezala Hezkuntza, Formakuntza eta Gazteria saileko arduraduna baita, bai eta Ikerketa eta Garapeneko, eta hauetan Aukera berdintasunaren eta generoko dimentsioaren alderdiak etengabe agertzen dira handik eta hemendik.

Hauetako adibide gisa honako hauek aipa ditzakegu:

“Irakatsi eta ikasi: ezagutzazko gizartearen bidean” izeneko Liburu Zuria eta honen ondoren “Betebeharrak betetzea eta irakastea ezagutzazko gizartearen” deituriko txostena, non gaur egungo gizarteak hezkuntzaren eta formakuntzaren betekizunen aurrean egiten dituen galderak biltzen baitira; eta horraz gain Bizitzan zeharko formakuntza eta heziketaren Europar Urtea (1996), nazioarteko mugikortasunerako oztopoen gaineko Liburu Berdea, Europar Borondatezko Zerbitzua, hezkuntza, formakuntza, gazteria eta ikerketa eta garapen arloetan teknologia berriak garatzeko baterako deiak, “Informazioko gizartearen ikasi” izeneko Ekintza Plana eta Netdays operazioa (1997), zeina nazio mailan nola Europa mailan garaturiko egitasmoak, eta batez ere bizitzan zeharko formakuntza eta heziketaren Europar Urtean garaturikoak, ezagutzera emateko antolatuta baita.

In fine

Estatu kide guztiek egiaztatu dute, testuak izanagatik ere, emakumeek traba asko topatzen dituztela gizarte aktiboan parte hartzeko. Halatan beraz, oinarri juridikoak indartzeaz gain, horiek zehazki aplikatzeko moduak ere indartzea erabaki dute.

Hezkuntza/Aukera berdintasuneko ekintza berezien balantzeak (2. txostena) erakusten digu Erkidegoaren ekintzetan 3. Programaren hamar helburuetatik bi izan direla “nasaiki landuak”: 1. helburua (eragile guztiak sentsibilizatzea) eta 5. helburua (irakasleen formakuntza). Beste aldetik, 2. helburua (orientazioa), 3. helburua (lan mundura irekitzea) eta 4. helburua (aukerak dibertsifikatzea), hala moduz landu dira, eta beste bost helburu, aldiz, (6.etik 10.era) ez dira batere landuak izan. Hegoaldearen kalterako desoreka zegoela ikusi da ere.

Hala berean, Estatu kideen ekintzek erakusten digute 1, 2, eta 4. helburuak direla Irakaskuntza Ertainetan hedaturiko zirkular ofizialetan kontuan gehien hartzen direnak, baina liburuei doakienean, berriz, 1. eta gero 2. helburuak dira aipatuena irakasleei edota formakuntzako arduradunei zuzenduriko liburuetan, baina gutxi aipatuak dira, ordea, ikasle, arduradun politiko edota publiko arruntari zuzendurikoetan.

Hezkuntza eragile guztien partehartzea behar beharrezkoa zaigu, dimentsio honi benetan begiratuko bazaio, printzipio teoriko hutsean utzi gabe. 1985eko hezkuntzako Aukera Berdintasuneko gaietako Erkidegoaren ekintzetarako Hirugarren programaren hamar helburuek oraindik balio dute eta beravetan sakondu egin beharra dugu.

Europa mailako lankidetzari doakionean, Sokrates programak ematen dituen tresnak hobeto baliatu behar ditugu, Aukera Berdintasuna eta generoko dimentsioa hobeto integratzearen, zeren eta ikastetxea jartzen baitute hezkuntzaren europar dimentsioaren garapen gunean, eta ikastetxe bakoitza bere estrategiaren jabe izanen da eta bere ahalmenen arabera arituko da, hauek direlarik bere lehentasunak Europarteko trukeetan: Goi mailako Irakaskuntzako Institutioetako kontratua (Erasmus), eta gainerako irakas mailetan, Eskoletako Elkarlanaren barruan, Europar hezkuntza egitasmoa (Comenius). Europar Batzordearekin batera erabakitzen dira hauek.

Europar Batasunak ezarri duen dinamikak kalitatezko ikerketa eta maila orotako lankidetzaz bultzatzen ditu: toki mailakoa, eskualdekoa, naziokoa eta Europa mailakoa ere bai, finantzabide publiko nola pribatuak bilatzera bultzatzen duelarik ere.

Halatan, garrantzi handikoa zaigu, eta horretara deitu ere deitzen zaituztet, eragile xehe guztiak, ikasleak, irakasleak, hezkuntzako langileak eta gurasoak, inplikatzera, halatan Aukera Berdintasuna eta generoko dimentsioa izan daitezen, hezkuntza zentroen strategiaren barruan aurrera eramaten diren europar sareetako eta elkarlanetako egitasmoen parte garrantzitsua. Hezkuntza, Formakuntza eta Gazteriako helburu guztiak ikutuak dira, hala hezkuntzaren kalitateari begiratzen dioten programetan, eskolako porrotari aurre egiten dioten programetan eta europar hiritartasuna eta enplegua eskuratzeari doakienetan, nola europar ekintzen programa orokorretan ere —eskola barruko indarkeria, kulturen arteko hezkuntza, gurasoen hezkuntza eta ingurugiroko hezkuntza, besteak beste—.

*Sarrera***1.**

Gaur egungo herrialde desberdinetan kontsideratzen da heziketa dela, historian zehar giza talde desberdinek egin dituzten eta oraindik ere mantentzen diren bereizkeriak (sexu/generoko arrazoiengatik, gizarte mailagatik, etniagatik, etab.) ezabatzeko lehen lehen mailako gizarte-eragilea. Heziketak iritsi beharreko xede honek eskatzen du heziketaren funtsean diren ikuspegi pedagogiko, psikologiko, soziologiko eta epistemologikoak kritikoki berrikustea.

Patriarkatuaren zerbitzurako dauden paradigma akademizistek, sistemaren boterea iraunarazi nahi dute eta ezartzen dituzten gizarte-baloreak elkartasunaren aurkakoak eta hierarkikoak dira, hala nola lehia, indarkeria, nagusikeria, agintekeria, nonahikotasuna eta menpekotasuna...

Horretarako erabili duen hezkuntza curriculumua homogeneoa, androzentrikoa eta etnozentrikoa da. Sistemak onarturiko zientzia eta botere akademikoak zilegizaturiko edukiak ematen dira, beraz, eta akademi agintekeriak antolatzen du jakintzen boterea, zientziaren jagole eginik. Zientziaren ikasgaiek tolesgabeak, amarrugabeak dirudite, gizartearen arazoei erantzuteko agertzen baitira, baina abiapuntu den paradigma ikutu gabe uzten dutenez, menperatze sistemak indartu besterik ez dute egiten.

Espainiar Estatuan, diktaduraren amaiera une gogoangarria izan zen, lortu duguna lortzeko abiapuntu izanik. Orduan ikerketa lan anitz jarri ziren martxan, gehienak emakumeen ekimenez; Mugimendu Feministaren Baterako Hezkuntzarako Kolektiboek, emakume profesionalek, akademi-koek eginiko ikerketa hauek, irakaskuntzan ematen zen sexismoa aztertzeko behar adina datu eman zituzten. Unibertsitatean Emakumeen Ikerketak eta Ikerketa Feministak garatzearekin, ikerketa berri hauek lagundu egin zuten, indarrean ziren oinarri kontzeptualak berrikusteko aukera eman zuten esparru teoriko eta kritikoa gauzatzeko. Bestalde, ikastetxeetan eginiko ikerketa lan zenbaitek agerian jarri zuten ikasgeletan, sexuaren arabera ematen zen bereizkeria.

Ekarpen hauek guztiek aukera eman dute, azken hiru hamarkadotan, unibertsitateetan teoria mailan eta ikastetxeetan maila praktikoan gogoetak egiteko, hezkuntza administrazioen eta haietako norbanakoen erantzukizunaz, irakas-ikas ereduak eskaintzerakoan NORBANAKOA irakas-jardun ororen erdigunean jartzeko, beronen protagonismoa, ahala eta autoritatea onartuz, beraien nortasuna eta bizi asmoa antolatzen lagunduz eta gaitasun guztiak jakin arloen bitartez garatzen laguntzeko aniztasuna behar bezala kontuan hartuz.

Azken urteotan baterako hezkuntza garatzearekin, pedagogiaren filosofia berria sortu da; filosofia honek, generoko azterketa funtsezko paradigmaz harturik, ikastetxeei eta hezitze ardura duten norbanakoei aukera ematen die curriculumua, irakas materialak, eskola antolakuntza, denboraren eta espazioaren banaketa, jarrerak, programazioa eta heziketa eskaintza berrikusteko.

Hezkuntza eredu oro hartzailak diseinatzeko aukera ematen du, gizarteak eta kulturak eraikitako gizezko eta emakumezko sexu/generoko identitate kolektiboak gainditu eta pertsona ardatz gisa jarritz, osotasunean haz dadin, curriculumeko arlo desberdinetan gaitasun guztiak garatuz.

Identitatearen edo esentziaren paradigma

Gizarteko gertakizunak, norbanakoen ikas prozesuak, giza garapena eta pertsonen arteko harremanak interpretatzerakoan, erreferentzi gisa pertsonen eta natura, kultura eta gizarte elementuen identitate edo esentziaren paradigma hartzeak suposatzen du onartzea hauek existitu egiten dutela eta bizipen propio eta legitimatua dutela.

Pertsona oro, gainerakoengandik bereizten duen esentziazko identitate batekin jaiotzen da, bai eta sexuzko identitate batekin ere, hau da, gizon edo emakume baten gorputzan jaiotzen da. Gainerakoengandik bereizten duen esentziazko identitate hau, oro MAITASUNA da, oro JAKITURIA, oro EZAGUTZA. ARGIA da eta bere buruari lotua da, gainerako pertsoneri lotua, planetari lotua eta unibertso osoari ere lotua.

Paradigma hau, bizitzaren arau naturaletan oinarritzen da, non gauza guztiak unitate eta entitate berezi eta errepikaezina diren, erabat gauzatzeko eskubide osoarekin.

Berezkoena, pertsona bakoitzak bere esentziazko identitatea garatzea litzateke, gorputzaren barruan osotasunez haziz, adimen eta emozioekin, erantzukizun eta elkarrerantzukizuneko konpromiso pertsonal eta sozialean. Alabaina, mendetan zehar eta gizaki batzuek besteren gainean jar zitezten laguntzeko ezarri zaizkigun balore kolektiboek (gizonezko-emakumezko generokoak, etnikoak, kulturalak, klasekoak, erlijiozkoak...) identitate kolektiboak sortarazi dituzte eta gure esentziazko izatetik aldendu egin gaituzte, haurtzaroen, familiaren bitartez jasotako jokamoldeei erantzuten dien ego pertsonaldua edo maskara taxutuz. Jokamolde hauek hezkuntza sisteman gizarteratzeko prozesua indartu egiten dute, ingurura eta menperatze sistema sozialetara egokitu gaitzen.

Pedagogiaren eta heziketaren alorrean, paradigma honi "Baterako Hezkuntzako" deitzen zaio, zeren eta, gizon edo emakume izatearen identitate naturaletik abiatuz eta generoko gizonezko eta emakumezko estereotipoak gaindituz, norbanako bakoitzari lagundu egiten baitio, nagusi den kultura sexistak ezarritako mugaz harat joaten eta halatan, nor bere burua autoritatez eta protagonismoz jantzirik ikus dezala lortuz, nor bere identitatea eraikitzen duelarik eta bere bizi asmoaren arduradun egiten.

PARADIGMA ALDATUZ

GAUR EGUNGOA



- Sistema patriarkalaren mesederako.
- Ezartzen dituen gizarte-baloreak elkartasunaren aurkakoak eta hierarkikoak dira, hala nola *lehia, indarkeria, nagusikeria, agintekeria, nonahikotasuna eta menpekotasuna...*
- Akademizista: *ezagutza androzentrikoak*.

Aurreiritziak/ Akats kontzeptualak

- Emakumea gizonaren menpean egotea naturaren funtsezko legea da.
- Bizitza lehiatzeko borroka da.
- Giza gorputza makina gisa ulertua.
- Mugagabeko hazkuntza ekonomiko eta teknologikoa.

BERRIA



Identitatearen edo esentziaren paradigma

- Norbanakoaren identitatearen mesederako.
- Elkartasunezko eta hierarkiarik gabeko baloreak bultzatzen ditu.
- Elkarkidetzan, elkarrenganako begirunean, norbanakoen autoritatean eta protagonismoan oinarrituriko harremanak.
- Adimen oro hartzaile eta intuiziozko jakituria.

3. *Baterako hezkuntzaren paradigma*

Baterako hezkuntzaren paradigmak, honako oinarri teorikoak ditu:

- Norbanakoaren identitatearen mesederako izatea.
- Elkartasunezko eta hierarkiarik gabeko baloreak bultzatzea.
- Elkarkidetzan, elkarrenganako begirunean, norbanakoen autoritatean eta protagonismoan oinarrituriko harremanak bultzatzea.
- Adimen oro hartzaile eta intuiziozko jakituria garatzea.

Iturburu dituen zientziak, giza harremanak eta bizitza interpretatzeko moduan iraultzaile gertatzen ari dira. Besteren artean, honako hauek ditugu: Txamanismoa, Parapsikologia, Metafisika, Antropologia, Soziologia, Filosofia, Pedagogia eta norbanakoen Jakituria. Halatan bada:


- Pertsona orok, jaiotzean duen zorientasun, autoritate, ahalmen, harmonia, maitasun eta jakituzko gaitasuna onartzetik datorren, pertsonaren garapen osoa ekartzen du.
- Pertsonaren osoko garapena bere bost eremutan bultzatzen du, bostasuna garatzea, alegia: adimena, gorputza, emozioa, identitatea eta gizartekoa. Bere esentziari estuki loturik, bere bizi

asmoa garatu ahalko du, harmonia betean bere buruarekin, gainerako pertsonekin, planetarekin eta unibertso osoarekin.



- Eguneroko bizitzan erabiltzen den ikasketa autonomo eta funtzionaltik abiatzen da.
- Gatazkak konpontzeko gogoeta eta norbanakoen, taldeen eta gizartearen konpromisoaz baliatzen da.
- Ikastetxea antolatu eta kudeatzeko moduaren oinarri dira: partekaturiko zuzendaritza, lankidetzeta, elkarrekiko begirunea, nork berekiko erantzukizuna eta elkarrekiko erantzukizuna.
- Giza garapena hezkuntzara sartzen du.

Paradigma honen benetako iraultza da pertsonen barne-jakituria sinesten duela, sinesten duela norbanakoen duten autoritate eta ahala erabiltzea, nagusituriko paradigmaren oso bestalde, zeren eta honek armadak antolatzen, armak egiten eta gizarte hierarkiak sortzen baitirau, determinismo biologiko edo sozialean oinarrituz.




Hezkuntza eredu desberdinak eta gizakiei doakienean maskulino femenino generoko eraikitze soziokulturalarekin duten zerikusia eta filosofia, psikologia eta pedagogiako tratatuek duten ikuspuntu androzentrikoa aztertzeak eramaten gaitu "pertsona" kontzeptua ikuspegi integradore batetik berdefinitzera, generoko estereotipoak gaundituz, hau ezin baitaiteke izan, giza garapenaren funtsezko baldintzatzaile.

Paradigma hau aplikatzeak eskatzen du ikastetxeko baterako hezkuntzako eredu egitea, hezitzaile guztien adostasunez erabakia eta generoa deuseztu egiten duena, gizakien gaitasun, balore, jarrerak eta portaerei doakienean. Gizon edo emakume jaiotzeak ez dakar berekin, pertsona bezala osoki garatzea baldintzatzen duten determinatzaile biologikorik.

Hezkuntzaren ikuspuntutik, pertsona, entitate osotzat ulertu behar da, adimen eta gorputzaren artean harmoniazko oreka bilatzen duena, afektibitate eta ezagutza alderdien arteko harreman estua lotu nahi duena eta etxeko eremu pribatuan eta eremu publikoan ere autonomia eta burujabetasuna ezarri nahi dituen.




Baterako hezkuntzako ereduak definitu eta egitearen helburua da pertsonaren osoko garapenaren eduki kontzeptuala, ezagutzazko, afektibitateko eta jarrerazko ikuspuntutik identifikatzea. Definizio hau, pentsamolde filosofiko eta pedagogiko zabalagoaren barruan planteatu behar da, gaur egungo gizarte egiturak zalantzan jarriko dituen; egitura hauek inposatzen dituzten balore kolektiboetan autoritatea eta ahala, menperatze sistema desberdinen eskutan dira, hauen ordezkari diren pertsonen bitartez. Halatan bada, lehen egitekoa Pertsona kontzeptua berdefinitzea da, esanez pertsona identitatea, autonomia, berezitasuna, askatasuna... dituen unitate konsziente delarik, gizarteak eraldatu eta mundua modu zuzenago eta berdinezaleagoan antolatzeko gai dena. Emakumezko eta gizonezko generoko hierarkizazio soziokulturala gaindituz, pertsona osoki ikusi eta bere osoko garapena lagunduko lukeen baterako hezkuntza eredu berria sortzeak ekarriko luke gaur egungo eskola mistoa, baterako heziketako eskola bihurtzea; eskola berri honek, garatu beharreko funtsezko gaitasunetatik abiatuz eta hauei, behar dituzten balore pertsonalak emanez, ikasleek garatu beharreko jarrerako ardatz amankomuna egiten luke, Hezkuntza Etapak, Curriculum Alorrak, Aniztasuna, Zeharkatasuna eta Orientabidea sartuz.



Baterako hezkuntzako eredu hau prestatu da eta aurrera eraman ere da Euskadiko Autonomia Erkidegoko hainbat ikastetxetan, EMAKUNDEK antolaturiko ikerketa baten barruan; ikerketa honen emaitzak honako liburuotan daude argitaratuak: "Ikastetxeko baterako hezkuntzako eredu prestatzeko gidaliburua" eta "Ikastetxeko Hezkuntza eta Curriculum Egitasmoa egiteko Tresnak" Argitaratzailea: Emakunde, Gasteizen, 1997ko uztailan.

4. *Irakasleen formakuntza*

Baterako hezkuntzako paradigaren aurrean irakasleek duten zeregina ez da jadanik ezagupenak transmititzeko ohiko funtzioa; kontuan harturik irakasleek hasieran jaso duten formakuntza eta erabili duten irakas praktika, paradigma akademizistaren barruan egin dituztela, egin nahi den aldaketak eskatzen du, hala pertsonalki nola profesionalki gaitzeko formakuntza ematea, zeren eta irakas zeregin berriak irakasleak bihurtzen baititu, ikasleen irakas-ikas prozesuetako sustatzaile eta gida, prozesu hauek ikasketa autonomoa eta funtzionalean oinarritzen baitira, halatan beren eguneroko bizitzarako balia dakien eta beren bizitzaren jabe egin daitezten eta duten ibilbide akademiko eta pertsonalaren ardura hartu ere har dezaten.



Amaitzeko esan nahi nuke, mende honen bukaeran erantzukizun pertsonal eta politikoko egintza litzatekeela hierarkizazioa, menpean jartzea eta espezie bereko gizakien arteko menpekotasuna, bai eta beste espezieak menpean hartzea ere ekarri duen eredu androzentriko zaharra aldatzea eta ikuspuntu osotua, lankidetzakoa eta elkartasuneko bultzatzen duen baterako hezkuntzaren paradigma berria ezartzea, zaharraren orde; paradigma berri honek planetaren kudeaketan konprometitzen da, emakumeen protagonismoa eta etniagatik, erlijioagatik, sexu aukeragatik, gizarte mailagatik, etab. baztertuak izan diren pertsona ororen protagonismoa onartzen du. Nahiko nuke heltzeaz dugun mendean, norbanakoen eta taldeen erantzukizunak giza harremanetan elkarrekin lotzea zuhurtzia eta energia positibo guztiak.

ELIZABETH LAGERLÖF

**Lanaren bidezko Osasun
arloko Hezkuntza eta
Prestakuntzan aurreratzeko
Europako Iparraldeko
Institutuko zuzendaria.
Finlandia**

M^{re} LUZ ESTEBAN GALARZA

**Gizarte Lana Saila. Nafarroako
Unibertsitate Publikoa**

Osasuna

Gaur egun gero eta emakume gehiago ari da lanean Europar Batasunaren lan formaleko sektorean. Hazkunde hau bereziki nabari da, laneko biztanlerian emakume gutxi dituzten ekonomietan, hala nola Europako hegoaldeko herrialdeetan.

Aldi berean, eman diren egiturazko aldaketek gero eta lanpostu gehiago sortu dituzte zerbitzuen sektorean eta lan ezegonkorra areagotu egin da. Honek esan nahi du aldi laburrerako lanak direla, lanaldi murriztekoak eta ordutegi gero eta zatiutuagokoak. Honako hau emakumeei gertatzen zaie gizonei baino gehiago.

Hala eta guztiz ere, emakumeen laneko osasuna ez da zaintzen eta maiz berdintasuneko arazo gisa hartzen da, segurtasun eta osasuneko zat hartu beharrean. Honen ondorioz ekintza positiboko politika gutxiago izan da gizon eta emakumeen artean laneko osasunerako eskubide berdintasunari doakionean.

1.

Jardun desberdinak, zeregin desberdinak

Emakumeak gaur egun, EBren laneko biztanleriaren %42a dira. Halere, gizon eta emakumeen artean ematen diren lansari aldeak handiak dira. Jardun edota lanbide berean ere emakumeek gizonek baino gutxiago irabazten dute.

EBeko emakume langileetako ehuneko 80a besteren konturako langileak dira eta ehuneko hamarra autonomoak dira. Lan mota desberdinak sortzen ari diren arren, lan merkatuan bereizkeria handia ematen da gizon eta emakumeen artean. Arrazoi honengatik, beste batzuen artean, lanak eragin desberdinak ditu gizon eta emakumeen osasunaren gainean.

Laneko baldintzetan, generoari loturik ematen diren aldeak harrigarriki berdinak dira Estatu kide orotan. Emakumeak, gizonekin erkatuz gero:

- bestelako sektore eta jardunetan aritzen dira;
- maizago dira sektore publikoan enplegatutak eta gutxiagotan enpresa pribatuetan;
- jardun edo lanbide berean ere, zeregin desberdinak dituzte;
- lanean eta karreran, erabakitze botere eta malgutasun urriagoa dituzte;
- maiz lan ezegonkorak dituzte, lanaldi murrizteko lana nagusitzen delarik.

Emakumeen eskolatzeko maila, gaur egun, gizonezkoen parekoa da, baina formakuntzarako dituzten aukerak, oraindik ere ohikoak dira. Arrazoi askorengatik aukeratzeko dituzte emakumeek edo bukatzen dute hartzen, gizonen bestelako jardun edo lanbideak. Prozesu hau deskribatzeko eskari eta aukera terminoak erabil genitzake, bai eta bereizkeria terminoa ere.

Bereizkeria deskribatzeko kristalezko muga aipa genezake, zeinak emakumeei beren karreran aurrera egitea eragozten baitie, bai zuzendaritzako postu goragoetarako bidean, bai eta beren lanbideen barruan ere. Honela gizonezkoen zuzendaritza postu gehiago eskaintzen zaie, eta aldi berean emakumeei behartzen zaie administrazioko zerbitzu eta zereginetan aritzera batez ere.

“Generoa eta Lan Baldintzak Europar Batasunean” txosten argitaratu berriak erakusten digu Austrian, Belgikan, Frantzia eta Alemanian lanean ari diren emakumeen erdia baino gehiago ari direla edo administrari edo saltzaile edo zerbitzuko beste jardunetan, eta Irlandan eta Danimarkan, berriz, ez dela horrenbeste gertatzen. Horrela izan ordez, herrialde hauetan emakume gehiago ari da trebetasuna edo kualifikazioa eskatzen ez dituzten jardun arruntetan. Askotxo dira ere Portugalen ehungintzan enpleguak diren emakumeak.

Gizonak modu orekatuagoan banatzen dira jardun eremu guztietan, baina espezializazioa eskatzen duten lanpostuak, makinari postuak, gizonek hartzen dituzte batez ere. Emakumeak sektore publikoan enplegatzen dira gizonezkoak baino gehiago. Danimarka, Finlandia eta Suedian hamar emakumeetatik ia sei ari dira sektore honetan. Austria, Belgika, Frantzia eta Espainia bezalako herrialdeetan berriz, hirutatik bat besterik ez da langile publikoa. Honek ekartzen du gastu publikoko aurrekontuak murrizten direnean, izan ere honako garaiok halakoak ditugu Estatu kide askotan, emakumeen lanpostuak gizonenak baino arrisku handiagoan izaten direla.

2.

Lan ezegonkor gehiago

Lan malguko lanpostuak gero eta gehiago dira eta oro har lanpostu hauek emakumeengan gizonengan baino eragin piska bat handiagoa besterik ez badute ere, zenbait herrialdetan, hala nola Belgika, Danimarka, Finlandia, Irlanda eta Suedia, askoz emakume gehiago dabil lanpostu mota honetan. Espainian oso arrunta da emakumeen artean lanpostu ezegonkorak aurkitzea, hiru emakumetatik bat behin-behineko lanpostuan ari delarik.

Lanaldi murrizteko lana ere emakumeen lana da. Alabaina alde nabarmenak daude Europako herrialdeen artean eta Finlandian, Portugalen, Danimarkan, Grezian eta Espainian emakumeek ia gizonak adina lan egiten dute.

Emakumeen lan orduak zorrozki lotuak dira berorien famili egoerara. Zenbat eta ume gehiago, orduan eta lanaldi murrizteko lan gehiago. Halatan bada, ume bakarreko hiru emakumetatik bat, eta biko ia bitatik bat, astean 35 ordu baino gutxiagoz aritzen da merkatuko lanetan. Herbeheretan eta Erresuma Batuan, non lanaldi murrizteko lana oso arrunta baita, bi ume dituzten amen ehuneko 80 eta 90 bitartean dute horrelako enplegua. Oso antzekoa da Austria, Belgika eta Suediako egoera.

Alderantziz gertatzen zaie gizonei, zeren eta hauek beren laneguna luzatu egiten baitute umeen kopurua handitzearekin batera. Joera hau oraindik ere areago ematen da langile autonomoen kasutan.

Karga bikoitzari aurre egin ahal ukaiteko, hau da ordainduriko lanari eta etxeko lan ordaingabe-ari, emakume askok derrigorrez hartu behar dute lanaldi murrizteko lana. Estatu kide askotan, umeak dituzten emakumeen lanegun luzeek estresa sortzen diete emakumeei, bai eta lanean gogoz ezin aritua, eta ordutegi murriztagoak berriz lanean poz handiagoa ekarri ohi du eta estres gutxiago.

Emakumeek lanaldi murrizteko lana maiz nahita aukeratu ohi dute, umeak edota bestelako senitartekoren bat zaindu nahi dituztelako. Beste batzuek ezinbestean hartzen dute lanaldi murrizteko lana, ez baitute umeak norekin utzi edo lo kuluskaren beharra dutelako edo zeregina ezin delako modu seguruan eta osasunaren kalterako izan gabe lanaldi osoz egin, hala nola supermerkatuetako kobratzaileen kasuan, etab. Dena den, lanaldi murriztak maiz lana aukeratzeko aukera urriagoak ematen ditu eta lanegun osoko lanek baino maila eskasagoa dute langabeziko diru laguntzak jasotzeko, pentsiorako eskubideak biltzeko, istripuengatik kalte ordainetan, eta abarreko kasuetan.

Bi hitzetan esanda, emakumeen lanpostuetan jendearekiko harreman handiagoak ematen dira: erosleak, eriak, ikasleak, etab.; arta eta sostengu handiagoak eman behar dira eta ordenagailuekin aritzea eskatu ohi dute gehiago, eta gizonak, berriz, beretzat hartu dituzte teknika eta zuzendaritzako zeregin "piztuak".

3. *Osasunan duten eragin ikustezina*

Lanak emakumeen osasunean duen eragina begiratzerakoan sortzen den arazo larria ikustezintasunarena da. Hasteko, osasun eta segurantzari buruzko laneko estatistikak oso gutxitan ematen dira sexuak bereiziz. Bigarrenik, emakumeak aritzen dira lanean, gizonak baino gehiago, laneko araurik edo gizarte segurantzakorik ez duten edo neurri eskasagoak dituzten lanpostuetan, eta halatan berauen osasun arazoak ez dira txostenetan agertzen. Oraindik ere areago, nolaz eta ikerketa gutxi dagoen, lanak emakumeen osasunean duen eraginari buruz, gerta daiteke laneko arriskuen eraginak ez izatea emakume langileentzat aplikagarri.

Laneko istripuetaz ditugun Europako estatistikek adierazten bide dute, istripuak emakumeentzat bigarren mailako arazoa direla (ikus 1. taula)

1. Taula. Laneko istripuen eta heriotz istripuen kopuruen kalkulua (Eurostat 1996)

	LAN ISTRIPUAK > 3 EGUN			HERIOTZ ISTRIPUAK		
	Kopurua	Guztietatiko %	Ratioa	Heriotz Kopurua	%	Ratioa
Emak.	835.655	17,4	1.881	328	5,5	0,9
Gizon	3.778.795	78,7	5.936	5.598	94,5	8,7
Guztira	4.800.947	100.0	4.505	5.977	100.0	6,1

Oro har gizonak emakumeek baino lan istripu gehiago jasan ohi dute, bereziki heriotz istripu, hau uler daiteke, pentsatuz lan baldintza arriskutsuagoak dituztela. Alabaina emakumeen lan istripuen portzentaia gora doa, gero eta partehartze handiagoa dutelako lanean.

Aipatu behar da ere, lan berean gizonak eta emakumeak jasaten dituzten istripuen arteko aldea gutxitzen ari dela. Areago esateko, gertatzen diren istripu mota desberdinek erakusten digute gizon eta emakumeen artean, lan berean ere ematen den banaketa. Adibide baterako, elikagai-industrian emakumeek gizonak baino maizago jasaten dituzte makinek eginiko zauriak, beraiek aritzen baitira haragia mozten eta paketatzen, eta gizonak, berriz, haizto eta bestelako tresna zorrotzekin eta abereekin zauritzen dira, beren lanetan abereekin ibiltzen baitira.

Ikerketek erakutsi digute ere oso lan zorrotz eta lasterretan emakumeek maizago jasaten dituztela istripuak. Arriskua areagotu daiteke neke edo akiduragatik. Horraz gain esan behar da ere emakume askok, gizonentzat diseinaturiko ekipoa, tresnak edota makinak erabili behar ukaiten dituztela. Lanpostuaren diseinua gizonetzkoen arauz egiten da eta honek emakumeentzako arriskuak ekartzen ditu lanpostuan.

4.

Laneko eritasun gutxi

Lanbideko eritasun konpentsatuen gaineko Eurostat-en behin behineko datuek antzeko emaitzak ematen dizkigute (ikus 2. taula)

2. Taula. Sexuen arabera banaturiko lanbide eritasunen behin-behineko datuak (Eurostat 1995)

	KOPURUA	%
Emakumeak	9.839	16,10
Gizonak	49.848	81,80
Guztira	60.962	100,00

Halarik ere, datu ofizial hauek ez dute, ohiko lan eritasunak baizik hartzen, nahiz eta gaur egun lan eritasunen kontzeptua askoz zabalagoa den eta ingurugiroko arrisku askorekin lotzen den. Emakumeen lana "arrisku urrikotzat" hartu ohi da, baina horrelako arriskuak handiak dira emakumeen lanetan; halatan bada, garrantzi handikoa da lan eritasunaren kontzeptua zabaltzea eta begiratzea nolako eragina duten lan baldintzek langileen ongizatean. Informazio gehiena inkesta edo ikerketa monografikoetan oinarritu beharko litzateke, beraz.

Herri industrialduetako emakumeen artean gehien zabalduriko laneko eritasuna hezur-giharreeta-ko gaitzak bide dira eta gaitz hauek ez dira lehen aipaturiko estatistiketan sartzen.

Hezur-giharretako gaitzak gauza piztuak altxatzeari lotuak izan ohi dira edota jarrera gaizto eta zeregin errepikakorrekin, edo lana behar bezala ez antolatzearekin ere. Gero eta arruntagoa da emakumeak horrelako baldintzetan aritzea lanean.

Adibide baterako, tresna elektronikoen muntaketan, suediar emakumeek, lan biztanleria osoak baino 20 aldiz handiagoko arriskua dute hezur-giharretako gaitzak garatzeko. Estatu Batuetako

Laneko Estatistiketako Bulegoak 1990ean eginiko txosten batek erakutsi zuen laneko eritasun guztietako ia ehuneko 60a errepikaturiko kolpeen ondorio zirela, tasa altuena haragia paketatzeko sailtan ematen zelarik. Emakumeek gehiengo osatzen zuten, aztertutako 26 industrietako 8tan. Hezur-giharretako gaitzak izan ohi dira, emakumeen aurreerretreta gehien arrazoia.

5.

Asmas eritasunak

Laneko biriketako eritasun ohikoak, hala nola silikosia eta asbestosia, agertzen dira lehen aipaturiko estatistiketan eta gero eta gehiago zabaltzen ari dira, batez ere gizonak kaltetzen dituztelarik. Alergia sintomak gero eta zabaldagoak daude biztanlerian oro har; herrialde askotan asma kasu gehiago diagnostikatu zaie emakumei gizonei baino. Alemanian diagnostikaturiko errinitis alergikoko hamar kasutatik bederatzi, emakumeenak dira.

Beste arazo gero eta larriagoa, larruzaleko eritasunak dira. Emakume gazte askok ukan ohi du ukitze ekzema. Emakumeen hamarrenak nikelari alergia dio eta minberatasun hau belarri gingila zulatze ohiturak sortua dute. Nikelari alergia diotenen ehuneko 40aren inguruk, eskuetan ekzema ager dakien arriskua du.

Eginiko ikerketek erakusten dute emakumeek bi aldiz gehiagotan dutela eskuko ekzema gizonek baino, maiz aritzen baitira "lan bustiak" deiturikoetan, detergente, disolbatzaile eta ura ikutuz; horrela ibiltzen dira, adibidez, manufaktura elektrikoetan, ileapaindegietan, osasun lanetan eta metal industrietan.

Emakumeengan gehiago azaltzen dira ere minberatasun kimiko anizkuna eta eraikin eriaren sindromea. Bi eritasun hauen arrazoiak ez dira ongi ezagutzen eta ematen dira bereziki agente kimikoak kontzentrazio baxuetan jasaten dituzten langileen artean, hala nola bulegariaren kasuan. Sintomak larruzaleko negalak, estresa, giharretako eta artikulaziotako minak, bai eta inmunitate-defentsak urritzea izaten dira. Uste da horien iturriak direla agente kimikoak, ondoak, aireztatze eskasa eta faktore psiko-sozialak. Sintoma hauek agertu ohi dira lan errepikakorretan eta lansari eskasekoetan.

6.

Minbizi arrisku desberdinak

Laneko minbizia, minbizi guztietako ehuneko 2tik 5era bitartekoa bide da.

Beti uste izan da laneko minbiziak gizonak hartzen dituela bereziki, beraiek aritzen baitira batez ere, agente kimikoen eraginpeko lanetan. Laneko minbizia jasateko emakumeek duten arriskua gutxietsi egin dela dirudi, zeren eta oso ikerketa gutxi hartu baititu emakumeak kontuan.

Egin berriak diren ikerketek erakutsi dute bularreko minbizia jasateko arriskua emendatu egiten dela pestizidekin, disolbatzaileekin eta osasun zerbitzuan lanean ari diren emakumeen artean. Obariotako minbizia, berriz, herbizidekin eta kosmetikako industriarekin lotu izan da. Linfako minbizia pestizidei, ileapaindegitako lanei eta disolbatzailei lotu zaie. Jakitera eman da ere, gero eta

burmuineko minbizia jasateko arrisku handiagoa dutela nekazaritzan aritzen diren emakumeek, eta maskuriko minbizirako arriskua berriz, kosmetikako industrian eta elikagaigintzan ari direnek. Emakumeen biriketako minbizia haltzarigintzari eta asbestoetako eta elikagaietako industriei lotu zaie (1).

Oro har, biriketako minbizia emakumeen artean gero eta arrisku handiagoko gaitza da. Neurri handi batean, emakumeen artean minbizia areagotzea etor daiteke erretzeko ohitura areagotu egin delako. Gero eta emakume gehiago dira erretzaile eta gero eta gehiago ari dira estres handiko eta kontrol eskaseko lanetan. Esan izan da emakumeek lan horietan tabakoa baliatzen dutela egiten duten lanaren monotonia jasateko estrategia gisa.

Gaur egun daukagun informazio zenbaitek esaten du arrisku patroia desberdina dagoela, bai eta minbizi mota desberdina ere, gizon eta emakumeen artean. Halatan beraz, ikusi behar da ea gaur egungo gehieneko baremoek erabat babesten ote dituzten substantzia kimikoekin lanean ari diren emakumeak.

7. *Fetuaeren kalterako eragina*

Aurreko hiru hamarkadotan, ugalketa aparatuan eragin kaltegarriak aurkitzeko metodo berriak garatu dira eta laneko arriskuen eremuko ikerketak hedatu dira ere, faktore kimiko, fisiko eta psiko-sozialak ere hartuz. Egin berriko ikerketek erakusten dute laneko estresak kaltetu egin dezakeela ugaltze osasuna.

Europako herrialde gehienetan, produktu kimikoen aurrean diren emakumeen kopurua ez da handia; alabaina, manufaktura industrian eta bereziki kimikoan lanean ari diren emakumeengan eginiko ikerketek lotu dituzte egoera hauek, ugalketa aparatua arriskuan jartzearekin. Karga fisikoa, hala nola gauza piztuak altxatzea eta zutik ordu luzeak ematea, izan daitezke, bost jaioberri goiztiarretatik baten kausa. Egin berri den europar ikerketa batek erakutsi zuen zutik denbora luzez egotea, asteko lanordu luzeak eta lanean gustora ez egotea lotuak daudela ume goiztiarrez erditzeko arriskuekin (2).

Suediar ikerketa baten arabera, arriskudun lanbideak ziren: gidari, gizarte laguntzaile eta erizaintzako laguntzailea, eta lanpostu hauek jaiotze aurreko herio arrisku handiagoa omen dute. Beste lekutan, Frantzia, esate baterako, eginiko ikerketek erakusten dute jaiotze goiztiarrak gertatzeko arriskua handitu egiten dela garbitzaile eta osasun zerbitzutako eta gizarte zerbitzutako langileen artean, bai eta salmentan ari direnen artean ere.

(1) BLAIR, A.: "Occupational cancer among women, an overview". *Women's health: Occupation, Cancer & Reproduction*. May 14-16, 1998. Reykjavik. Islandia

(2) SAUREL-CUBIZOLLES, M.J. et al: "Employment, working conditions and preterm birth in Europe". *Women's health: Occupation, Cancer & Reproduction*. May 14-16 1998. Reykjavik. Islandia.

8.

Estresari loturiko eritasunak

Gaur egun onartua da laneko giroak eragin fisiko eta mentalak ditzakeela. Laneko Baldintzei buruzko Europar Inkestak esaten digu emakumen lan baldintzek estres elementu gehiago dituztela. Emakumeen lana maiz deskriba daiteke, eskakizun handiko eta kontrol gutxikoa bezala, eta honek areagotu dezake estres ezezkorreko arriskua. Estatu kideetan, hamar emakumetatik lau horrelako baldintzetan ari dira lanean, eta gizonen artean berriz, hirutatik bat besterik ez.

Inkestetako emaitzek erakusten dute ere, emakumeek denbora kontrolatzeko aukera urriagoak dituztela, aukera gutxiago dutela, esate baterako, lanean egun libreak edo pausa garaiak hartzeko. Lanbide berean ari direnean ere, gizonek askoz eragin handiagoa dute lana planifikatzen, programak egiten edota erritmoa markatzen.

Fabriketan ari diren hiru emakumetatik bik eskakizun handiko eta kontrol gutxiko lanetan ari dira, eta gizonen artean, berriz, bitatik bat besterik ez. Gizonak baldintza hobek eskaintzen dituzten lanpostuetara igo ohi dira eta emakumeak, berriz, lan errepikakor eta monotonoan harrapatuak geratu ohi dira. Neurri handi batean, emakumeek gizonen lan txarrak hartzen dituzte eta horren ondorioz, ez da horrenbestetan ematen emakumeek eskakizun eta kontrol handiko lanak edukitzea.

Lan mota hauek arraroagoak dira Danimarkan, Suedian, Erresuma Batuan, Herbeheretan, Portugalen eta Italian. Zuzendaritza lanetan ari diren gizonek lan aktiboagoak ohi dituzte, beren lankide emakumeek baino.

Emakumeek esan zuten ere, aukera urriagoak dituztela beren lanetan ikasteko eta partehartze urriagoa dutela erabakiak hartzerakoan.

Nagusikeria, sexu bereizkeria, zirikatzea eta indarkeria emakumeen artean arazo arruntagoak dira gizonen artean baino. Ez da hau, zenbait dagokien fenomeno bakana —bi milioi emakume baino gehiagok jasan dituzte sexuzko zirikatze eta bereizkeria Batasunean, azken urte honetan. Lanpostu ezegonkorretan ari diren emakumeek areago jasan dituzte, lanpostu egonkorretan ari direnek baino.

Estresari loturiko arazoek eragin desberdina ukan dezakete osasunean. Lehenik eta behin, buruko karga gehiegi eramatearen ondorio gisa sor daitezke antsietatea, unadura, depresioa eta lanean pozik ez egotea.

Bigarrenik, ondorio fisiko larri gisa, estresaren hormonon maila igotzea dugu. Baldin eta karga hau luzaz eramaten bada, zenbait eritasun ekar dezake, hala nola, bihotzeko eritasunak eta hipertentsioa.

Hirugarrenik, estreseko egoerek alda dezakete norbanakoaren portaera. Epe motzera, estres ezezkorrak eta portaera aldaketek produktibitatea eta lanaren kalitatea kaltetu ditzakete, istripuen arriskua handitu, bai eta langileak eritasunagatik lanera gutxiago agertzea ere. Epe luzera, estresa sortzen duten zereginak ohiturak aldatzera eramaten dezakete ere, hala nola tabakoaren kontsumoa areagotu eta drogak gehiegi erabiltzera bultzatu.

Zaila da, beraz, soilik estatistika orokorren bitartez, estresak osasunaren gainean duen eragina zehaztea. Emakumeek, oro har, gizonek baino maizago egiten diote huts lanera joateari. Huts egi-

te handiago hau lotu daiteke emakumeek duten karga bikotzarekin, eta hala hutsegite hori ez da ematen soilik euren eritasunen kausaz. Gehienetan emakumeek zaindu behar dituzte ere bere ume eriak eta honek esplikatuko luke, neurri batean behintzat hauen huts egitea.

Halarik ere, emakumeek jasaten dituzten laneko baldintzek eragiten dute ere, euren huts egite mailan. Batez ere gizonek betetzen dituzten lanbideetan, hala nola distilategietan, elikagaigintzan, papergintzan, ehungintzan eta zurgintzan, emakumeek eritasunagatik duten lanari huts egite maila, ordainduriko lanetan gainerako emakumeek duten huts egite mailaren bikoitza da. Suediar ikerketa baten arabera, baita posta zerbitzuetako laguntzaileek, telefono operadorek, supermerkatuetako kobratzaileek, ordenagailuetako edo bestelako pantailekin eginiko lan zenbaitek, erizainek eta beren laguntzaileek, dentisten laguntzaileek eta ehungintzako langileek ere, askoz osasun arazo handiagoak dituzte, faktore psiko-sozialei lotuak.

Bestelako ikerketek erakusten dute emakume gaxteenak, etxeaz eta familiaz ere arduratzen direnak, saiatzan direla lanari ez huts egiten. Pareko joera ikusi zaie ezkongabeko aita eta langile autonomo direnei. Horren arrazoia izan daiteke, lanera huts egiteagatik lanpostua galtzeko beldurra, eta honen ondorioz eritasun gehiago ager daiteke ondorengo urteetan.

Bihotzeko eritasun koronarioek beranduago jotzen dituzte emakumeak gizonak baino. Harrigarria bada ere, gutxi aztertu dira lanagatik emakumeek jasaten dituzten bihotzeko gaitzak, baina egin diren ikerketek erakusten digute, emakumeek lanaren kausaz jasaten dituzten gaitz koronarioen ehuneko 9tik 16 bitartean, laneko giroak sortzen dizkiela. Gaitz kardiobaskularrak dituzten emakumeekin egin berri diren zenbait ikerketek erakusten dute, gaitz hauek lotuak direla, bai emakumeen lanbidezko zereginekin, bai eta sostengu eta zaintzen emaile izatearekin ere. Bestelako ikerketek egiaztatzen dute, besteak zaintzen dituzten emakumeek, gaitz koronarioak jasateko arrisku handiagoa dutela.

Laburtuz, gizonek eta emakumeek lanpostu desberdinak dituzte eta halatan, osasunean jasaten dituzten eraginak ere desberdinak dira. Oro har, gizonek segurtasun fisikoko eta esfortzu fisikoko arrisku handiagoak dituzte, bai eta gaitz psikosozialak jasateko arriskua ere; emakumeek berriz, lan errepikakor eta monotonoen menpe eta estresa sortzen duten lan baldintzetan egiten dute lana. Hauek osasunean sortzen dituzten ondorioak, eritasun orokorren bitartez edota arrazoi psikologiko edo sozialak dituzten gaitzetan ageri ohi zaizkie emakumeei. Emakumeen osasunerako lan arriskuak faktore anitzen ondorio izan ohi dira maiz. Gizonen osasunerako arriskuak berezituagoak dira, kausa bakar eta jakin batekoak, eta halatan maizago diruzko ordaina duten kalteak izan ohi dira.

Osasun eta segurtasuneko gizonentzako arauak

Existitzen al du lanean osasunerako eskubide berdintasuna gizon eta emakumeen artean? Laneko osasun eta segurtasuneko legeria, sexuari doakionean neutroa dela uste da, laneako osasuna eta segurtasuna pertsona ororentzako dela uste baita.

Praktikan ordea, legeria gizonentzako arauan oinarritzen da. Hau gertatzen da neurri handi batean historiak hala ezarrita, zeren eta lege eta arau gehienak gizarte industrialak sortuak baitira eta gizonak izan baitziren industrializazio garaian langile gehien gehienak; helburu nagusia istripuei aurrea hartzea zen eta gertatzen baziren zauritutako langileari edo haren familiari kalteen ordaina ematea.

Legeria, makineria, segurtasuna eta istripuen gainekoa zen. Piskanaka sartzen joan ziren ere arrisku kimiko, fisiko eta biologikoko faktoreak, hau da, laneko eritasunak. Arrisku fisikoak, hala nola karga astunak jasotzea, berehala onartu ziren laneko arriskutzat. Horren ondorioz, gizon eta emakumeentzat gehieneko kargak mugatu zituzten.

Osasun eta segurtasuneko gaur egungo legerian, legegileek erruz zabaldu dute arrisku faktoreen definizioa. Esate baterako, baldintza psikosozialei kasu handiagoa egiten zaie, eta hortaz, EBren arteztaravek barnean hartzen dituzte buruko osasuna eta ongizatea, eta arteztarau hauek Estatu kide orotan sartzen badira indarrean eta gauzatzen badira, aldaketa handia ekar dezakete emakume askoren lanpostuetan. Diru laguntzen hedapena, aldiz, gizonentzako dituzten ohiko lanpostuetako arriskuetara mugatzen da ia-ia.

Historiari begira, ezin esan daiteke emakumeen osasunerako arriskuak kontuan hartu ez direnik, adibide asko baitago, hala nola, emakume eta gizonentzat ezarritako gehieneko karga desberdinak, hotz-bero handietan emakumeei lan egiteko debekua, laneko ordutegia murriztea, ugalketarako arriskua zuten produktu kimikoekin aritzeko debekuak, etab. Alabaina, esan behar da legeria hau batez ere enplegu murrizketa izan dela, emakumeen osasunerako arriskuei begiratu beharrean. Horren adibidetzat, Laneko Nazioarteko Erakundeak (LANE) 1904ean ezarritako gaueko lanaren debekua dugu, zeinek ez baitzuen debekatu erizaintzako eta ehungintzako gaueko lana. Areago oraindik, murrizketa hauetarako datu zientifikoak oso urriak ziren.

Gizon eta emakumeen berdintasuna EBean, demokraziako eta giza eskubideak gordetzeko funtsezko printzipiotzat dago onartua. Estrategia piskanaka sartzen ari da araudian eta honek eskatzen du, araudiaren alor desberdinetan sistematikoki ebaluatzea gizon eta emakumeen artean ematen diren aldeak baliabide, egoerak eta baldintzei doakienean. Europako langilerian emakumeak gero eta gehiago direlarik, osasun eta segurtasuneko araudian, generoko efektua ebaluatzeak urrats handia beharko luke izan, gizon eta emakumeen artean osasunean ere berdintasuna ezar dadin.

Lanean osasun berdintasuna izan dadin behar diren ekintza positiboko neurriak honakoak ditugu:

- Informazio eta ikerketa gehiago, ereduaren segimendu hobea ere ezarriz. Osasun eta segurtasunerako Europar Agentziak zuzendurik, Bilbon egiten den Batasuneko Laneko Osasun eta Segurtasunaren Egoeraren gaineko Ikerketa, garrantzi handiko aurrerapausoa izan daiteke.
- Generoko efektua ebaluatu behar da osasun eta segurtasuneko arteztarau, jarraibide eta gehienezko esposizioeko baloreetan. Nolaz eta gaur egungo diru laguntzen sistemak gutxietsi egiten dituen sistematikoki lanak emakumeen osasunean duen eragina, horien gaineko legeria ere aztertu beharra dago.
- Europako eta nazioarteko araudiek hobeto babestu behar dituzte emakumeen lan baldintzak. Makinak, tresnak, prebentzioko mekanismoak eta jantziak emakumeei egokitzen ez diren bitartean, osasunerako eraginak desberdinak izanen dira.
- Arteztarauak, jarraibideak eta abar gauzatzeko, generoari begiratzen dioten metodo gehiagoren beharrean gara. Laneko ikuskatzaileek eta arauak ezartzeko arduradunek hobeto eza-gutu behar dituzte eta erakutsi behar zaie kontuan hartzen emakumeen lan baldintzak.
- Etengabeko ahaleginak behar dira egin, lanaren antolakuntza bi sexuetara egokitu dadin. Ereduak ere behar dira emakumeak gaitu eta erabaki kolektiboetan parte har dezaten.
- Lan mota berriak, hala nola urrutiko lana, ordutegi modu berriak, etab. generoko ikuspegitik aztertu behar dira.
- Tokiko ekintzarako eta berdintasunerako programak gauzatu behar dira, tokian ebaluatuak izan daitezten. Berdintasun programek, generoen berdintasuna sustatzeaz gain, laneko osasunerako eskubidearen berdintasuna susta dezakete ere, betiere deskribatzen badute lanaren desberdintasuna eta honek ekar ditzakeen osasun eta segurantzarako arriskuak.
- Azkeneko gauza, baina gauza garrantzitsua halere, alegia: lanean emakumeekiko jarrerak eta arauak aldatu egin behar dira. Alde batera utzi behar da emakumeak "benetako langile" ez direneko estereotipoa. Emakumeak ez lirateke ikusi behar langile ezegonkor gisa, mugikor eta goranahi eskaseko.
- Amaitzeko, lan baldintzak hobetzeko bidean dugun berealdiko erronka da gizon eta emakumeentzat bateragarri egitea lana eta familiaren ardura. Aldaketa onuragarri asko lor daiteke erantzukizuna, hala etxean nola lanean ere, modu orekatuagoz banatuz.

Bibliografia

- BLAIR, A.: "Laneko minbizia emakumeen artean, ikuspegi orokorra". *Emakumeen osasuna: Lanbidea, Minbizia eta Ugalketa*. 1998ko maiatzaren 14tik 16era. Reikjavik, Islandia.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna Europar Batasunean*. 1996. urteko txostena. Argitarapen Ofizialetako Bulegoa. Luxenburgo, 1996.
- Generoa eta lan baldintzak Europar Batasunean*. Bizi eta laneko baldintzak Hobetzeko Europar Fundazioa. 1998.
- LINDBOHM, M.L.: "Emakumeen ugaltze osasuna: Garapen berri zenbait eta metodologiako arazoak". *Emakumeen osasuna: Lanbidea, Minbizia eta Ugalketa*. 1998ko maiatzaren 14tik 16era. Reikjavik, Islandia.
- Emakumeak, lana eta osasuna: Aditu talde baten laburpeneko txostena*. OCDE/GD 182. txostena, 1993.

Alabaina generoaren arabera etiketatu edo sailkatzea nabarmena da umea jaiotzen den une beretik ere.

"Gauza bakarra esan nahi dut: Eskerrak Jauna, eskerrak gizonengatik!

Emakumeak aspergarriak baitira. Beti garbiketan, janariak prestatzen eta umeak zaintzen. Ez dira segundu batez ere eseritzen! Ez; nahiago ditut gizonak; badakite lasaitzen. Lanetik bueltan sofan etzaten dira eta ez dute ezertxo ere egiten, telebistan kirolen garaia heldu arte.

Emakumeek buru eskasekoak dira. Huskeriak dituzte beti buruan: ea non bizi, pisuan ala etxe batean; zenbat ume egin...Nahiago ditut gizonak, gai garrantzitsuetaz aritzen baitira: Espainiak irabaziko ote du munduko futbol txapelketa?

Emakumeek ez dituzte beren mugak ikusten. Lehenik lanera joan eta zortzi ordu lan egiten dituzte; etxera etorri eta beste horrenbeste aritzen dira beti lanean. Umeekin aritzen dira gero jolasean, edertzen ahalegintzen dira eta gero badaiteke lo zertxobait egitea. Nahiago ditut gizonak; badaiteke zer egin dezaketen eta zer ez, hala nola komuneko tapa jaitsi, mahaia garbitu edota harrikoa egin.

Emakumeak ez dira argiak. Ez dira konturatzen 39 graduko sukarrarekin gaisorik zaudela. Ez, goiz jeiki behar dute gosaria prestatu eta umeak ikastolara eramateko. Ez, nik nahiago ditut gizonak; behin eztula eginez gero, astebeterako oheratzen dira eta gainera zaindu egin behar ditugu".

BLAIR, A.: "Laneko minbizia emakumeen artean, ikuspegi orokorra". *Emakumeen osasuna: Lanbidea, Minbizia eta Ugalketa*. 1998ko maiatzaren 14tik 16era. Reikjavik, Islandia.

SAURELL-CUBIZOLLES, M.J. et al: "Enplegua, lan baldintzak eta jaiotze goiztiarrak Europan". *Emakumeen osasuna: Lanbidea, Minbizia eta Ugalketa*. 1998ko maiatzaren 14tik 16era. Reikjavik, Islandia.

Artikulu hau hiru zatitan egin da: lehenengoan, Euskal Herriari (Euskadiko Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa) dagozkion osasuna eta generoari buruzko zenbait datu aipatuko ditut. Bigarrenean, osasunari loturiko zenbait egoera aztertuko dut, egoera horietan azken hamarkadetan aldaketak gertatu direlako, bai tratamendu sozialean eta mediku-zientifikoan, bai eta hurbiltze sanitarioaren ikuspegian, edota, berekin eztabaidagai eta gako berriak dakartzatelarik, gogoeta bereziaren beharrea direlako. Zehazki, honako gai hauek aztertuko ditut: menopausia, amagandiko edoskitzea eta emakumeak osasunaren zaindari izatearen ardua hartzea. Azkenik, osasuna eta generoari buruzko eskuhartze orokorraren eta informazio bilketaren gaineko gogoeta zenbait eginen ditut. Hauen denen atzean, EAE-ren esparruan Emakundek (1) osasunerako eta eremu sanitarioa-ko zehaztu dituen ekintza positiboko neurriak izanen ditugu, eman daitezkeen berrikuntza batzuen berri ere emanez.

Artikuluaren zeregin nagusia da osasuna eta generoa aztertzeko bestelako ikuspuntuak agerian jartzea, bai eta orain arte egin diren, irakurketa eta jarduera zenbait —feministenak ere barne— zalantzan jartzea. Ez ditut, hortaz, behar beste jorratuak izan diren gaiak ikutuko, hala nola, kontrazepzioa, abortua eta bularreko minbizia. Oro har, ondoko gai hauen alde egiten saiatuko naiz:

- Elkarri loturik aztertu behar direla sexu/genero aldagaiak, bai eta beste zenbait ere, hala nola adina eta gizarte maila. Orobat behar dira ongi erkatu gizonen eta emakumeen osasun egoerak, eta gizonezkoen gaineko informazioa ugaritu behar da ere.
- Kritikoki, edo bederen adi, begiratu behar zaiela, osasunaren irakurketei, edota ekintzei (feminismotik egindakoei ere bai), ez ditzaten honako ondorioak ekarri: emakumeak beraiek edota eskuhartze prozesuak gehiegi sanitarizatzea; emakumeen gaineko gizarte kontrolaren modu berriak; eta lehentasuna ez ematea, emakumeen banakako nola taldeko erabakiei, beraien osasunerako arriskuen gaintik bada ere. Hauen adibide ditugu: emakumeei bereziki zuzenduriko Prebentzio kanpainak, alkohol eta tabakoaren kontsumoari emaniko tratamendu sozial eta sanitarioa eta bizimodu "osasuntsuei" emaniko enfasia, amagatiko edoskitzea "militanteki" sustatzea eta erabiltzaile eta adituen arteko bereizketa.
- Osasuna ikusmolde biomediku hutsekin ez baino ikusmolde zabalagoekin aztertu beharra dagoela, pertsonen subjektibitatea kontuan harturik, kontuan harturik ere beren bizitzen kudeaketan beraiek direla protagonistak, eta osasuna, bizitzaren beste alderdiekin eta testuinguru sozio-politiko-ekonomikoekin lotuz.

(1) Ikus: *Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko II Plana*, Emakunde (1996ko otsaila).

1.

Generoa eta osasuna: Euskal Herriari (E.A. eta Nafarroa) dagozkion zenbait datu (2)

1.1.

BIZI-ITXAROPENA

EAE-ko emakumeek 1993an, 82,5 urteko bizi-itxaropena azaldu zuten, eta gizonezkoena, aldiz, 73,8 urtekoa izan zen (8,7 urteko alde hau aurrekoetan txikiagoa zen) (Audicana, 1998:32). Nafarroan (aipaturiko dokumentuaren 163. orr.) (3), 1989ko urteari buruzko datuak ditugu, eta datu horiek emakumeei 81,9 urteko bizi-itxaropena ematen diete, gizonezkoei baino 5,5 gehiago.

1.2.

HERIOTZ-TASA

EAE-n (89/93 bost urteetan), heriotz-tasak handiagoak dira, adin talde orotan, gizonengan, alde handiena, 20tik 39 urte bitartekoetan azaltzen delarik (Audicana, 1998:30). Emakumeen heriotzen eragile nagusia, zirkulazio-aparatuaren arazoak ditugu, eta bigarrena, tumore gaiztoak. Gizonengan, klasifikazio hau alderantziz jartzen zaigu, lehen kausa bezala tumore gaiztoak agertzen baitira eta bigarren lekuan, zirkulazioko eritasunak. Hirugarren lekuan, batzuentzat nola besteentzat proportzio berdinean, arnasketako arazoak agertzen dira (ibidem).

Nafarroan (aipatu dokumentuaren 167. orr.), heriotz eragile nagusiak, gizon eta emakumeengan, EAErako seinalaturiko berberak ditugu: zirkulazio-aparatuaren eritasunak, tumoreak eta arnasketa aparatoa. Gizonengan ordena berdina da, baina eragina zertxobait aldatzen da.

(2) Atal honetan erabili ditut, batez ere, honako iturri hauek: Euskadiko Autonomia Erkidegorako, Emakundek egin edota beste iturrietatik jaso eta azken urteotan argitaratu dituen azterketak. Baita ere, Covadonga Audicana-k eginiko "Registro de Mortalidad del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco" lana, izan ere, OP-Osasun Publikoaren aldeko Elkarteak, Bilbon, 1996ko azaroan antolatutako eta bereziki heriotza-tasa bereizgarriaren inguruan aritu zen "Las mujeres en el ámbito urbano. Salud y calidad de vida" izeneko biltzarrean ponentzia gisa aurkeztu zuena (ikus Audicana, 1998).

Nafarroari doakionean, *Situación social de las mujeres en Navarra. Evolución y tendencias de cambio 1975-1996*. ikerketaren barruko Emaizten Azterketako 3. Dokumentua (1997ko abendua) erabili da. Ikerketa hau, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikertzaile talde bat ari gara aurrera eramaten, Nafarroako Emakumearen Institutua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmen bati esker. Ikerketa osoaren zuzendaria Blanca Fernández Viguera dugu, eta osasunaren alorrekoa Sonia Pinillos.

Erreferentzia informazio gisa *Europar Erkidegoko emakumeen egoera sanitarioari buruzko txostena* erabili da, Europar Erkidegoko Biltzarrarena, 1997ko maiatzaren 22an.

(3) Iturria: Nafarroako osasun diagnostikoa, 1993.

5 urtetik 24 urte bitarteko ume eta gazteengan, hala EAEn nola Nafarroan, kanpoko eragile deiturikoak (zirkulazio-istripu eta buru-hiltzeak) dira heriotzaren eragile nagusiak, gizonengan batez ere (Nafarroan, horrela mantentzen da 34 urteak arte), gero ere ikusiko dugun bezala.

Kasu egin diezaiogun ere, HIESari, izan ere, eritasun hau besteen menpean izkutatua izaten baita Nafarroan, esate baterako, "HIES/VIH heriotz-tasak, 100.000 emakumeen 1,5etik, 1989an, 5,8ra igo dira, 1993an, hau da, bost urte hauetan %286,7ko igoera egin du, estatuko batezbestekoaren gainetik (%231,6) igo ere"(169. orr.). Bestaldetik, EAE-n, 25-29 urte bitarteko emakumeen taldearen heriotz eragile nagusia, guruin endokrinoen eritasunak dira, eta horietatik ia %100a hiesa da (Audicana, 1998:30).

Bizi-itxaropenean gizon eta emakumeen artean ematen den (eman ere, ia mundu osoan) (4) aldearen ondorio nagusia, zahartzaroaren feminizazioa da eta emakume zaharrentzako problematika sozial eta sanitario berezia: bakardadea, besterengandiko menpekotasuna, bizi-kalitate txarra, bai eta adineko emakumeek bereziki ukan ohi dituzten eritasunak: osteoporosia, istripu zerebrobaskularrak, ikusmenaren urritzea, hipertentsio arteriala, artritis, diabetea, zahartzaroko dementzia, eta gainera gernetako infekzioak eta txizari ezin eusteak, bai eta bularreko eta sexu-organuko minbizi mota zenbait (de Onis y Villar, 1992, 4. alea,34-35 orr.).

Bestalde, alde horien arrazoiak ez dira argi, baina zenbait hipotesi hartzen dira gogoan:

- Balizko faktore biologikoak.
- Amen heriotz-tasa oro har jaitsi izana.
- Emakumeek bizi ohitura "osasuntsuagoak" ukaitea (ad. alkohol eta tabako gutxiago, istripu gutxiago, kaloria gutxiagoko janaria).
- Emakumeek, oro har, gizonetako baino lan handiagoa egitea eta hau osasunerako ona izatea.

Baina hipotesi hauek, frogatu gabeak izateaz gain, ez lukete argituko, alde horiek haur eta gazteen aroan ere zergatik ematen diren.

Dena den, feminismitik gehiegi azpimarratu ohi dira, emakumei bizi-itxaropena luzeagoak dakartzkien ondorio gaiztoak, bai eta nola gizonetako eritasun larriagoak ohi dituzten, baina emakumeek aldiz, ezgaitu egiten duten eritasunak dituzten eta arazo kronikoak. Gainera, esan ohi da ez dela bilatu behar "bizitzari urteak eranstea, baizik eta urteei bizia ematea", kontuan hartu gabe, gaur egungo gizarte honetan osasuna eta bizitzaren kalitatea ikusten diren moduan, urte gehiago bizitzea bera, gauza ontzat hartua dela. Ene ustez, kasu honetan emakume eta gizonen arteko aldeak alderdi desberdinak erakusten dizkigute, onak eta txarrak, eta alderdi hauek hobe ki azaldu eta elkarrekin lotu beharko genituzke eta ez, "ohitura feminista" bezala, emakumeentzako txarrak diren aldeak bakarrik seinlatu.

(4) Bizi-itxaropena handiagoa da emakumeentzat, munduko herrialde guztietan, salbu India-n eta Bangladesh-en (Beneria, 1993). Ikus ere, "Distintas maneras de vivir y enfermar" txostenak dakarren informazioa (Valls-Llobet, 1997:3), Bartzelonako "Mujer, salud y calidad de vida" Egitarauak argitaratutako *Mujeres y salud* aldizkariaren 1. alean.

1.3.

MORBILITATEA

Lehen esan dugun bezala, gizonetzkoek eritasun larriagoak jasan ohi dituzte, eta emakumeek, berriz, eritasun gehiago, bereziki eritasun kroniko eta ezgaitzen dutenak, nahiz eta adinaren araberrako aldeak ikusten diren.

Beste aldetik, hiesari buruzko datuak berriro aztertzen baditugu, gaitz honek jotako emakumeak, Euskal Herrian, gizonak baino gazteagoak dira batezbeste eta kutsatu, drogen kontsumoari loturiko bide parenteralez kutsatu ohi dira. Emakumeen zaurgarritasuna handiagoa da, kutsatzeko aukera handiagoa delako (5). Gainera, "emakumeek aurre egin behar dieten arriskuak handiak izanagatik ere, emakumeari zuzenduriko eskuhartze prebentiboak urriak izan ohi dira" (*Europar Erkidegoko emakumeen egoera sanitarioari buruzko txostena*, (1997)). Eta ikerketa zientifiko orokorrean nola sorospen mediku-sanitarioan ematen diren eta feministek azken hamarkadotan salatu ohi dituzten joera androzentrikoetako asko eta asko errepikatu dira gazte samar den eritasun honetan (6). Hau hala izanik, oso kontuan hartu behar dugu gai hau, geure inguruko eskuhartzean lehenetsunak finkatzerakoan.

Osasun mentalari doakionean, emakumeengan gaitz neurotikoa eta antsietate gehiago dago, eta gizonengan berriz, drogamenpekotasunari loturiko arazoak eta psikosiak. Ez da argi ikusten zergatik horrela den, baina bizimodu desberdinak eta batzuei eta besteei egotzitako rolak aipatu ohi dira. Bestalderik, alor honetako profesionalak kexatu egiten dira, gero eta gehiago, diagnosiak eta araketak behar bezala egitea oso zaila gertatzen delako, erabiltzen diren klasifikazio sistemek dituzten eskasiengatik.

Hemen ere adinaren aipamena egin dezakegu, aipatu ere haur eta gazteen taldea, zeren eta Nafarroan (211-12 orr.) (7), esate baterako, emakumeengan anorexia eta bulimiari loturiko arazoak gailentzen dira, baina mutikoen arazo psikologikoak nabarmenxeagoak dira; hau beste lekuetan ere berdintsua izan daiteke. Gaztaroan, arazo hauetako asko ez dira larriak, baina ezkutuan gera daitezke, eta gainera ez dugu begi bistatik galdu behar, beren burua hiltzeko arriskua, zeren istripuekin batera, heriotz eragile lehena baitzaie.

1.4.

OSASUN ZERBITZUEN ERABILERA

Euskal Herrian bezala, gainerakoan ere, orokorki emakumeek gehiago erabiltzen dituzte ospitaleak ez diren zerbitzuak (lehen eta bigarren mailako artako kontsultak) eta ospitaleak ere (barnean harturik ginekologia eta ugal-aparatuarekin zerikusia duten arazoak) (8). Ospitalei doakienean, aldea gutxitu egiten da, haurdunaldiari, erditzeari eta erditze ondokoari begiratzen ez diegunean, halakoetan alten kopuruan gizonak gehiago izanez.

(5) Ikus: *Europar Erkidegoko emakumeen egoera sanitarioari buruzko txostena*, (1997:115-116).

(6) Honi buruz ikus daiteke Plaza eta beste (1992).

(7) Iturria: Osasun mentaleko zuzendariorde. Nafarroako Osasunbidea.

(8) Gai honen gainean sakontzeko ikus daiteke de Onís y Villar (1992, 4. alea, 74-137 orrk), bai eta lehen aipaturiko europar txostena.

Osasun mentalean ere askoz gizon gehiago ospitalizatzen dira, emakumeak aldiz, gehiago joaten dira ospitale ez diren zerbitzuetara (9). Bestalde, gizonezko batek duenean horrelako arazoaren bat, senitartekoren batek, eta bereziki emakumeren batek (ama, emazte...), parte hartzen du tratamenduan eta kontsultetara gizonarekin batera joan ohi da, baina emakumea denean eritasunak jota, ez da neurri berean gertatzen gizonen batek laguntzea (bigarren zatian itzuliko natzaio berriro gai honi).

Ospitaleen erabilerari dagokionean, datu orokor, xeblebre eta gutxi aztertua da, mutikoak neskak baino gehiago eramaten dituztela larrialdietarako zerbitzuetara, nahiz eta alde nabarmenik ez zaien ikusten jasan ohi dituzten gaitzetan (Allué, 1997). Dena den, 15 urtetik beherako biztanleriaren sexuz banakaturiko oso datu gutxi dugu (*Europar Erkidegoko emakumeen egoera sanitarioari buruzko Batzordearen txostena*, 1997:12), eta hau kontuan hartzekoa dugu, azterketa orokorrerako informazio baliagarria ekar baitiezaguke.

Zerbitzuak erabiltzerakoan, emakume eta gizonen artean dauden aldeak argi ditzazkeen zergatiak ez zaizkigu garbi agertzen. Honi buruz, Emakunderen 5. txostenak, alegia *Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeak eta Osasuna* txostenak (1997:12), azpimarratu nahi ditudan pare bat galdera egiten ditu: "gure sistema sanitario <ospitalekoetan> gizonezkoak emakumeak baino gehiago artatzen dituzte, gizonezkoak lan merkatuan emakumeak baino sartuagoak izanik 'baliotsuagoak' direlako?; benetan al dira gizonezkoek jasaten dituzten osasun arazoak, emakumeenak baino larriagoak, eta arta berezia behar dute? Beste arrazoiak izan litezke ere: osasun sistemak era berean ez baloratzea batzuen eta besteen sintomak eta eritasunak (10); emakumeak etxeko eginbeharrak uzteko "aukera" urriagoak eta halatan ospitalizatuak izateko gizonak baino aukera urriagoak ukaitea; edota emakumeak osasun sistematik gertuago izatea, erien laguntzaile eta zaintzaile direlako edo horretan sozializatuak izan diren moduatik. Erantzunak ez dira errazak eta interpretazio desberdinetara zabalik dira.

1.5. NORK BERE OSASUNAREN HAUTEMATEA

Nafarroako datuen arabera (aipaturiko dokumentuaren 173. orr.) (11), emakumeek bere osasuna txarragozat hartzen dute gizonezkoek baino, nahiz eta alde hauek adinarekin joaten diren nabarmentzen eta gazteen artean ia ezer ez diren. Espainiako eta munduko beste iturri batzuek ere

(9) Nafarroan, emakumeak, erabiltzaileetako %57,5a dira (209 orr.)

(10) Ezaguna da Yentl Sindroma deiturikoa (izen bereko filmetik ekarria), hau da: "lkerketa eta sorospen biomedikuan, ohartuki edo ohartugabeen, dagoen jarrera, patologia edo sintomatologia berberaren aitzinean gizona sakon aztertze-ko eta emakumeari berriz, antsiolitikoak eta antidepressiboak agintzeko" (Valls-Llobet, 1995:66). Ipar Ameriketako zenbait ospitaleetan, bihotzeko arazoei buruzko (Miokardioko infartua eta bularreko angina) istorio klinikoak berrikusterakoan, ikusi zen, sintoma berberekin, emakumeei azpidiagnostikoa egiten zitzaizela, eta honek tratamenduan eta segimenduan bereizkeria zekarkiela (ibidem:67).

(11) Iturria: Nafarroako Osasunaren gaineko inkesta, 1993.

berresten dute gertakari hau (de Onís y Villar, 1992). EAE-n (12) ere agertzen zaigu, emakume eta gizonen arteko alde hau, baina oso txikia da.

Bestaldetik, Eusko Jaurlaritzaren Osakidetza Sailaren inkesta egin berriaren arabera (*El Correo*, 1998ko apirilaren 24a, ostirala, 50. orr.), hala gizonek nola emakumeek uste dute beren osasunak hobera egin duela azken bost urteotan. Dena den, osasunari doakionean dituzten kezkak aipatzerakoan, gizonetakoek gai ez izatea esaten dute, eta emakumeek berriz, osasun mentaleko arazoak aipatzen dituzte (antsietatea eta depresioa batez ere), hortaz, arazoen hautemate eta baloratze desberdinak ematen dira, besteak beste. Inkesta honetako datuekin, gizarte mailaren arabera alde nabarmena agertzen dela seinatu behar dugu: behe mailako jendeak bere osasuna hautematen baitu, goi mailako jendeak baino bi aldiz okerrago.

Nork bere osasunaz duen iritzia eta horren zergatiak aztertzeaz gain, fenomeno hau sektoreka jorratu beharko genuke ere, gizarte sektoreak, geografikoak, adin taldeak, bai eta denboran zehar bilakatzen denaren segimendua egin ere.

1.6.

BOTIKEN ERABILERA

Emakumeek gizonen baino botika gehiago hartu ohi dute, eta datu honek, aurrekoak bezala, mundu zabalerako balio du ere eta adinarekin nabarmenago egiten da. Nafarroan (175. orr.) (13), horren salbuespena dugu Otik 14 urte bitarteko multzoa, orduan, eta orduan bakarrik, neskek mutikoek baino botika gutxiago hartzen baitute; interesgarri litzateke datu hau beste lekuetan ere ematen ote den ikustea, ondoren adin desberdinetako aldean zergatiak azter ditzagun.

Emakumeek botika gehiago hartzeko arrazoi bat izan daiteke, prozesu kroniko gehiago jasaten dituztela. Batzuetan esan izan da ere, medikuek emakumei, "gaintik kentzeko" besterik gabe, botika gehiago agintzeko duten ohituragatik dela. Halarik ere, botiken zati handi bat, analgesikoak batez ere, medikuak agindu gabe hartzen dituzte (14). Baliteke emakumeek botikak hartzea antsietatea eta beste sintomei aurre egiteko, eta gizonetakoek berriz, horretarako beste gauzak erabiltzea, hala nola alkohola eta tabakoa.

1.7.

ALKOHOL ETA TABAKOAREN KONTSUMOA

Euskal Herrian, erabili ditugun iturriek diotenez, emakumeak eta gizonak adin beretsuan hasi ohi dira tabakoa kontsumitzen, eta adin hori atzeratu egin da gainera. Askoz emakume gehiago dago sekula erre ez duena gizonetako baino, baina gazteen artean alde hori murriztu egiten da, nes-

(12) Iturria: Osasuneko inkesta. Osasun adierazleak. Osakidetza. Eusko Jaurlaritza, 1992. Bildua honako argitalpean: *Euskadiko Emakumeen egoerari buruzko zifrak*, Emakunde (1996:253, 257).

(13) Iturria: Nafarroako Osasunbidearen Osasun inkesta.

(14) 1987an %19a, Eusko Jaurlaritzaren Osasun inkestako datuen arabera, Emakunderen 5. txostenak biltzen dituen, *Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeak eta Osasuna*, 1992, 71. orr.

kak, oro har, gehiago ari baitira ohitura hori bereganatzen. EAE-n, esate baterako, 1990az geroztik, emakumeen kontsumoa %17 izatetik %22 izatera igo da (15).

Alkoholari doakionean berriz, emakumeak aldian behingo edale ditugu, nahiz eta halere, tabakoa baino hedatuagoko ohitura den. Eta hemen berriro ere agertzen zaigu, adina jaistearekin batera gizon eta emakumeen arteko aldeak berdintzen joaten direla.

Literatura medikuan eta gizartean ere, erruz azpimarratzen dira erretzaile guztientzat erretzeak dakartzkien arriskuak (biriketako minbizia etab.), eta ohitura hauek aldatu behar direla, nahiz eta Espainiako esparruan emakumeen biriketako minbiziagatik heriotz-tasa igo ez baina gutxitu egin den (adin guztiak oro har hartuta eta 65 urtetik beherakoentzat) (16). Azpimarratzen dira ere, emakumeengan bereziki duten eragina, batez ere haven biologiari begira, hala nola, tabakismoak hormonon orekan duen eragina, eta hortatik ugalkortasuna urritzea etor daitekeela, menopausia goizegi azaltzea eta osteoporosia (17); aipatzen da ere, "alkohol gehiegi edateak emakumei osasun arrisku handiagoak ekar diezazkiekeela, beste gauzen artean, alkohola metabolizatze-ko emakumeek duten modu desberdinaren karira" (18).

Ez dut ukatu nahi ohitura horiek emakume nola gizonei egiten dieten kaltea, ez eta zalantzan jarri ere, gai horietan osasun zerbitzuek eskuhartu behar dutela; nahiko nuke ordea, gaizki erabiltzen ari diren kontu batzuei buruzko zenbait xehetasun egin. Hasteko, datuak behar bezala erabili beharko lirateke, zeren eta ohitura hauetara gehien hurbiltzen diren emakume gazteak ez baitira biriketako minbizia jasaten ari direnak. Bigarrenez, joerak ongi aztertu behar dira, zonaldeak eta gizarte sektoreak kontuan harturik, esate baterako, EAE-n, Emakunderen 5. txostenaren arabera (1993:81), "tabakoaren kontsumoak emakume gazteenen artean duen eragin handiak sor dezakeen kezka lasaitu daiteke, ikusirik, Euskadiko Gazteriar buruz eginiko txostenek erakusten digutela, erretzeko ohitura jaisten ari dela" (19).

Bestalde, nire ustez, ohitura hauek eta oro har "bizi moduak" deiturikoak oker erabiltzen ari dira, informazio osoa eman gabe, bai osasun alorrean, bai eta komunikabideetan ere, eta are zenbait sektore feministatan ere, kontuan hartu gabe, esate baterako, emakumeek haven aurrean duten ikuspuntua. Behar bezala aztertu beharko litzateke, irakurketa xaloeziak eta arriskuei besterik begiratzen ez dietenak bazter utzirik, zergatik azaltzen diren ohitura hauek neska gazteenen artean, eta besterik gabean interpretazio ezkorra egin beharrean, aztertu ohitura horiek zeri diren lotuak. Kontsumoak, eremu publikoan, emakumeen presentzia nabarmentzen du, eta horrez gain, izan daitezke ere eragina duten beste faktoreak, izan ere osasunaren eta bizitzaren bestelako ikuskerak, egin ohi direnak baino osotuagoak eta aberatsagoak. Uste dut emakumeek, oro har, "bada-

(15) Datu hau, honakoan duzue: *Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko II Plana*, Emakunde (1996ko otsaila).

(16) Europar Erkidegoko emakumeen egoera sanitarioari buruzko txostenean bildua, 1997:68.

(17) *Ibidem*: 88.

(18) *Ibidem*: 89-90.

(19) Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saila. *Euskal Gazteak 1990*.

kitela zertan ari diren”, tabakoa eta alkoholarekin, alegia arriskuak ezagutzen dituztela. Nire Doktoretza-tesia egiterakoan (Esteban, 1993), ikusi nuen, adibidez, alkohola eta tabakoa hartzen dituzten emakumeek arras ongi ezagutu ohi dituztela, osasunerako lezarzketen arriskuak, baina honako honek, bizitzaren eta osasunaren ikuspegi orokorrean sartuta, ez ditu ohitura horiek uztera eramaten.

Emakume nola gizonen osasun arazo guztiei aurre egiteko eskuhartzea oinarritu beharko litzateke, azterketa biomediku hutsak ez diren azterketa zabalagoetan, lehenetsuna emanez, norbana-koek, eta kasu honetan emakumeek, beren bizitzaren gaineko erabakiak hartzeko behar duten autonomia, eta kasu eginik batez ere informazioa eta baliabideak eskaintzeari, eta komunikabide-etako iragarkiak kontrolatzeari, eta ez horrenbeste ohiturak aldarazteari zuzen zuenean. Gai hauei ematen ari zaien tratuak, bai eremu sanitarioan, bai orokorrean ere, emakumeak umetzat hartzen ditu, zalantzan jartzen ditu beren egoeran egin dituzten aurrerapausoak, beren presentzia eremu publikoan, bai eta erabakitze ahalmena ere. Bi hitzetan esanda, emakumeen gaineko gizarte-kontrolerako modu berriak ditugu hauek, beraien bizitzak arautzeko modu berriak, izan ere, osasuneko beste alorretan ere gertatzen direnak bezalakoak (adb. ondoren ikusiko dugun amagatik edoskitzearen gaia). Hau horrela izanik, ikusi beharko genuke zer dagokigun guri egitea, osasuneko langile edota feministak garen bezainbatean.

1.8. OHIKO ARIKETA FISIKOA ETA KIROLA

Gehienetan emakumeen ariketa fisikoa handiagoa da eguneroko zereginetan (baita gizonekin erkatuz gero ere) eta txikiagoa aisialdian. Bestalde, emakumeek, gizonak baino askoz ere kirol gutxiago egiten dute, nahiz eta datuak, adinak gora egiten duen neurrian berdindu egiten diren. Bi datu hauek nahita ematen ditut batera, zeren eta kirola adin guztiak batera hartuta ikusten badugu bakarrik (egin ere, hori egin ohi da), emakumeak oso egonekoak direneko ustea nabarmen-tzen baita.

Bestaldetik, ez dago ulertzerik gizonak kirola egiteko duten joera, kontuan hartu gabe, gizonaren identitatea eraikitzen kirolak duen garrantzia, batez ere gazteen artean. Emakumei ez zaie horrela gertatzen, gutxiengo jakin batzuetan ez bada. Gizonezkoen kasuan (esate baterako futbolaren fenomenoan gertatzen dena) jardun honek osasunerako arriskuak ditu ere, psikologikoak bereziki, gure gizarte honetan, kirola ikusteko dagoen ikuspuntu hain lehiatzalea dela eta (20).

Bestalde, emakumeak kirolean gutxiago aritzen direla esaten denean, ez dut uste aipatzen denik, aritzen diren gutxi horiek —gutxi kuantitatean, baina kualitatiboki garrantzitsuak— jasan behar duten bereizkeria. Emakumeek jarduera desberdinetan parte har dezatela sustatzea beharrezkoa izateaz gain, behar da, batez ere eta lehenengo gauza bezala, gaur egun jadanik horretan direnei laguntza eman.

(20) Futbolaren bitartez Gipuzkoako mutikoak nola gizarteratzen diren erakusten duen azterketa: Díez (1996).

1.9. SEXUA, GENEROA, ADINA ETA GIZARTE-MAILA

Azalpena hasterakoan aipatu dut, osasunari buruzko datuak aztertzerakoan kontuan hartu behar genituela, sexu eta generoko faktoreez gain beste batzuk ere, hala nola adina edota gizarte-maila. Orain artekoan aipatu ditut adinak eragindako faktore eta gertakari zenbait, gizon eta emakumeen arteko aldeak erakutsiz, bereziki gaxteenen artean. Kasurako, bizi-itxaropenean dauden jorak ikusita, bai eta adinekoen gizarte eta osasun egoeran dauden aldeak, gero eta arreta handiagoz artatu behar dugu, adineko emakumeen problematika berezia. Bestalde, gizartean behertuak diren kolektibo zenbaiten egoera bereziak ere hartu behar ditugu kontuan, esate baterako, nerabeen haurdunaldiaren arazoa, gizarteko behe mailatan ematen baitira bereziki (21). Bi gai hauen gainean dexente idazten eta esaten ari denez, ez naiz ni sartuko (22).

Dena den, gizonezkoen (haur, gazte eta heldu) buruzko datuek, hobeki aztertu eta adierazi beharreko kontuak ekartzen dizkigute:

- Umetan, gehiago ospitaleratzen eta medikalizatzen dira mutikoak neskek baino (Allué, 1997).
- Gaztetan, istripu (zirkulaziokoak eta beste) eta buru hiltze (heriotz eragile nagusia) gehiago dago mutilengan, neskeengan baino.
- Adin orotan, bizi-itxaropen urriagoa eta heriotz-tasa handiagoa gizonengan, emakumeengan baino.
- Arazo psikologiko nabarmenagoak mutilengan.

Honek agertzen dit gizonezkoen osasun egoera hobe ezagutu beharrean garela, bai orokorki, bai eta sektoreka ere, emakumezkoenarekin erkatuz eta ezagutza hau sistematikoki gogoeta feministara eramanez. Ez ote dakigu, oro har "gehiegi" emakumeen gainean eta askoz gutxiago gizonezkoen gainean; Erkatutako informazioak lagun diezaguke, panorama osoa hobe marratzen, bai eta batzuen eta besteen problematikan aurrera egiten. Areago, batzuetan, gizonezkoen egoeraren azterketak erakuts diezazkiguke, orain artean kontuan hartu gabeko argigarri eta datuak, gure ikuspegi eta jokabideak egokiago zuzentzen lagunduko digutenak. Hala gerta dakiguke, esaterako, anorexia eta bulimiarekin, zeren eta gizonengan horren urria izanik, horren azterketak ekar baitiezaguke, orain artean ezezagun zaizkigun gauzen gaineko argia. Orokorrean eta bereziki osasunaren alorrean, interes guttia emakumeen errealitatean jarri da eta jartzen da, eta errealitate hori gehiegi nabarmentzeak, generoen arteko harremanak nola antolatu eta mantentzen diren ulertzeko behar den ikuspegia galtzera garamatza, desberdinkeria egoerak hipertrofiatu eta mantenduz ere azken finean.

(21) Lehen aipaturiko *La Mujer y la Salud en España. Informe básico* (4 ale), Mercedes de Onís eta José Villar-ek koordinaturiko lanak (1992), bere atal guztietan azaltzen dizkigu, osasunaren alderdi bakoitzaren emaitzetan dauden aldeak, gizarte-maila, hezkuntza-maila, etabarreko faktoreen eraginpean, eta horrela sortzen diren emaitzak askoz aberasgarriagoak zaizkigu.

(22) Adin handi eta ertaineko emakumeen arazo berezien gainean, kontsulta daiteke ere honako txosten hau: *Emakumeak Europan. Zahartzaro osasuntsuaren bidean*, Emakumearen osasunerako Europar Instrukzioak 1996an argitaratua.

Ez da inondik ere ulertzen, adibide baterako, gazteak zirkulazio istripuetan hiltzen ari direla ikusiz, behar diren neurriak ez hartzea eta bitartean kezkatuak izatea, ea erretzen ote duten, edota edaten edo drogak hartzen ote dituzten jakin nahian. Honetarako dagoen arrazoi bakarra moral-keria dugu, gaxteen gainean erabiltzen den moralkeria eta haien bizitzak arautu nahi izatea, alegia, haienak eta baita gainerako guztienak ere, osasun zerbitzuetatik eta bestelako antolamendu publikoetatik.

Gizarte-mailari doakionean pareko hausnarketa eginen nuke. Izan ere, osasuneko alor zenbaite-
tarako faktore hau sexu/generoa baino erabakiorragoa da, edo bederen elkarren arteko lotura
ematen da bien artean, eta hau ikerketa feministetan gerora bakarrik hartzen ohi da kontuan.
Adibide gisa aipa ditzagun, zenbait kolektibo baztertuak (osasunari doakionean gutxi aztertuak
direnak): nerabe eta emakume txiroak, etorkin arrotzak... Nork bere osasuna hautematearen alo-
rrean ere, gizarte-mailaren araberako alde nabarmenak agertzen zaizkigu: honetaz mintzatu nai-
zenez aipatu dudan bezala, gizarteko behe mailako pertsonak, goi mailakoek baino osasun bi-
aldiz okerragoa dutelakoan dira. Bestalde, goi mailako sektore batzuek gehiegizko medikaliza-
zioa jasaten dute, kirurgia estetikoak dela, menopausia dela, etab. Kontuz neurtu beharko litzateke,
beraz, faktore desberdinen arteko oreka (adina, sexu/generoa, gizarte-maila, bestelakoak), iker-
ketak eta eskuhartze egitarauak behar bezala antola ditzagun.

2. *Osasunari eta arta sanitarioari loturiko zenbait egoeren azterketa*

2.1.

MENOPAUSIA ETA EMAKUMEEN BATEZBESTEKO ADINA

Erraz frogatu daiteke, azken hamarkadotan izate kliniko berria eraiki dela, menopausia, alegia, eta honen gainean teoria bat nagusitu da, gutxi gora behera honela laburbil daitekeena:

- Menopausiari loturiko ia berrogeitamar sintoma deskribatu dira, eta zerrenda gora doa (batzuen ustetan azken denboratan sintoma psikologikoei egiten omen zaie bereziki kasu, medikuen artean eredu bio-psiko-soziala zabaldua baita gaur egun).
- Emakume ororentzako eritasuna eraiki da, hormonien kopurua urritzeari lotua eta tratamenduaren beharra duena: Ordezko hormonien tratamendua.
- Gainera, "hormonen eskasia" deituriko honek beste eritasunen eragile izan omen daiteke ere. Halarik ere, ez da frogatu, delako menopausiako sindrome hori benetakoa denik (23), medikoki eta hilerokoa desagertzeari lotua, zeren eta:

(23) Gaur egun menopausiaren gainean nagusitu den ikuspegiaren kritikarako, ikus: Rueda (1993, 1997), Van Hall, V.; M. Verdel & J. Van der Velden (1984, 1994).

- Ez da hormonen bat bateko urritze eskerga ematen.
- Ez da argi menopausiari lotuak direnik egotzi ohi zaizkion hiru sintoma nagusiak beraiek ere (beroaldiak, bagina idorra, osteoporosia), (edota lau sintoma, arazo kardiobaskularren arrisku handiagoa gaineratzen badugu). Ez da inoiz ere frogatu, osteoporosia edo infartua jasaten duten emakumeek, gainerakoen estrogeno maila desberdinak dituztenik (24).
- Emakumeengan azaltzen diren arazoak (latzak oso urri) adinari lotuak dira eta gizonengan ere agertu ohi dira (hausturak adibidez), nahiz eta batzuetan adin ez bere berean agertu.
- Emakumeen artean ere aldagarritasun handia dago, bai sintomak bizitzeko moduan, bai Ordezko Hormonen Tratamenduari doakionean ere (lagatze % handia dagoelarik).
- Menopausiari loturiko eritasunek eragile anitz dituzte.
- Beste arazo batzuk, hala nola beroaldiak, kulturak eragiten ditu (edo ez dira agertzen edo menopausiari lotzen dira) (25). Menopausia, beste gauza asko bezala, gizarte eta kultura faktoreei lotua da.

Joserra Rueda-k (1997) seinalatzen du, gaur egun ikerketa asko ari dela, menopausia zorrozki aztertzen eta ikerketa horietatik, orain ditugun datuak baino zehatzagoak aterako direla; urteak behar dira ordea, emaitza horiek ezagutu arte.

Bestaldetik, azpimarratu behar da, diskurtso bat nagusituagatik ere, ginekologo eta medikuen jarrerak ez direla beti bat etortzen, gainera zerbait jakiteak ez du beti jokamolde jakin bera ekaritzen (Lock, 1982), eta honi ez zaio eman, ideologikoki eta praktikan duen garrantzia handia.

Baina zer dakar gizarterako eta medikuki, menopausiak? Batez ere, emakumeen bizitza arautze-ko nahi ikaragarria. Medikalizazioa muturreraino eramana (26):

- Menopausiaren tratamendua dela eta emakumeek hainbat eta hainbat azterketa jasan behar dituzte, maiz odoltsuak eta mingarriak, urte luzetan sarri egin beharrekoak.
- Osasun zerbitzuetara oso sarri joateak jartzen ditu areago emakume hauek medikuen iritzi eta eskuhartzeen menpean.

Bestalde, menopausiari doakionean, aipatu nahiko nuke, bereziki, berri samarra den fenomeno bat, osasun eremu batzuetan (askotan aurrerakoiak omen) gero eta gehiago agertzen ari dena,

(24) Dena den, "gaur egun ezerk frogatzen ez badu ere, menopausia osteko hormonen mailek, menopausia ondorengo osasunean eragina dutenik, estatistikek erakusten digute gero eta gehiago hedatzen ari direla eritasun kardiobaskularrak eta osteoporosia, menopausia osteko emakumeengan" (Europar txostena, 1997:118).

(25) Ikus Lock (1986) Japoniari doakionean.

(26) Gure artean esan dezadan, tratamenduko datuek ez diruditela horren altuak: Espainiako emakumeen %4,7a, alegia, Sociedad Española de Ginecología y obstetricia (SEGO) delakoak eta Asociación Española para el Estudio de la Menopausia (AEEM) delakoak babesturiko "Menopausia 2000: un reto para el futuro" izenarekin, Madrid-en egin zen Adostasunerako Bileran emaniko datuen arabera. Halarik ere, bilera horretan bertan esan zen tratamendu hori emakumeen %30-40ri komeniko litzaikeela. Gainera, ez da ahanzi behar, menopausiaren gaineko diskurtso nagusiak simbolikoki duen indarra (Ikus honako artikulua "Menos del 5% de las menopáusicas españolas recibe THS". *7 Días Médicos*, 358. zbk., 98-III-13, 12-13 orrk.).

“menopausiaren gaineko arduraren beste bertsio” gisa: nire hitzetan esateko “adin ertainaren asmakizuna” deitzen dudana (izan ere, gizonentzat ez dena berdin definitzen). Adin ertaina, adin heldua, eskuhartzeko alor berezia bihurtzen da, bai artamenduan, bai eta osasuna sustatzerakoan, nahiz eta teoria eta praktika bereizi egin beharko genituzken. Esan bezala, menopausiaren aurrean osasun zerbitzuetako langileek jarrera eta balorazio desberdinak dituzte, zenbait sektoretan kezka eta hausnarketa sortu baitira jadanik, eta galdetzen hasi dira, menopausiaren gainean gehiegikeriak ez ote diren egiten ari. Menopausiaren ordeztu “adin ertaina” jarri dute, une larritzat harturik, alegia arrisku eta zaurgarritasuneko unea emakume ororentzat, eta halatan antolatzen dira (edo horren gainean teorizatu egiten da, behintzat) kolektibo horri zuzenduriko osasun heziketako eta sustapeneko programak. Programa hauek, bereziki etxeko andreei zuzenduak (gainetakoak baino aukera gehiago dutenez horietan parte hartzeko), bizitzaren eta osasunaren alderdi askotara zabalduriko edukiak dituzte: autoestimua areagotzeko ariketetan hasi eta senitartekoen gatazkak eta horietan emakumeek duten egitekoari buruzko gaietara. Nire ustez, ikuspegi honen eta programa hauen alde txarrak honako hauek izan daitezke: emakumeak gehiegi sanitarizatu nahia eta beraien kalterako bereizkeriak mantentzea, beraien egoera aldatzen lagundu beharrean, egoera hori mantentzen duten zereginak (hala nola bitartekari lanak egitea) hobe betetzen saiatzera eramaten baitituzte.

Baina nondik dator “emakume helduengatik” edo menopausiakiko delako kezka hori? Zenbait arrazoi ikusten dut :

1. Lehena, Gizon eta emakumeen osasuna eta gorputza ulertzeko dauden oinarritzko ideia edo printzipioek duten eragina eta emakumezkoen gorputzaren gainean gizarteak eta medikuek egiten duten kontrola: emakumeak medikuntzan, besteak dira, bestelakoak, zaurgarri direnak. Gizonezkoen arazoak ez bezala, hauen arazoak ulertzen dira beti, burua/ugal-aparatua ardatzaren inguruan, hau da, ugaltzeko ahalmenaren ikuspuntuan jarririk. Honi gaineratu behar zaio, osasun sisteman ez direla biztanleen berezitasunak kontuan hartzen, eta emakumeen artekoak gutxiago, halatan emakumeak bere artean dira “berdinetan berdinenak”. Menopausia, ikuspuntu honetatik ikusita, ez litzateke baizik eta ideia hauek guztiak bilduko lituzkeen eredua: gaur egungo eredu nagusia, alegia (27).

2. Bigarrenik, aurrekoak bezain garrantzitsuak diren kontuak ditugu, alegia: zahartzaroak sortzen duen kezka, gure gizartearen funtsezko ezaugarria den betiereko gaztetasunaren antsia, emakumeengan bereziki ezarria. Gainera, heriotzaren aitzinean gure kulturak duen ezinegona, eta horrekin batera, Mendebalde honetan, bizi-itxaropena luzatzen ari den garaian, bizitza zikloen, eta pertsonen adin bakoitzean dituzten zereginen berregituratze eta berraztertzea. Horrek guztiak eragiten du osasunari ematen zaion trataeran, baina eragin berezia du, emakumei gizarteak ematen dien trataeran, hala adinekoei nola gazteei ere.

(27) Gai honetan sakondu nahi bada, ikus Esteban (1996).

3. Hirugarrenez, gaur egun menopausiari gizarteak eta medikuek ematen dioten garrantzian eragin zuzena dute, sektore medikuek eta botika-etxeek dituzten interes ekonomikoek, diru iturri berria ikusi baitute hor, behin antisorgailu desberdinen erabilera eta merkatua egonkortu denean.

Azkenik, menopausiaren gaineko antropologoek ekarpen batzuk aipatu nahi ditut; Kate Hunt-en artikulu honetan dira bilduak "Eritasun orotarako sendabidea? Menopausiaren interpretazioa eta Ordezko Hormonen Tratamenduaren arazoak" (1996), eta gure artean gauza hauen gainean pentsatzerakoan erabili ohi diren ikusmoldeak ez bestelako kontuak azaltzen dizkigute. Ikus ditzagun adibide etnografiko batzuk: Rajput-eko emakumeen artean, menopausiari eta hilerokoen aldatetei loturiko arazo gutxi azaltzen direla frogatu da, eta pentsatu da ez ote litekeen hala izan, menopausia ostean rol hobea erdiesten dutelako. Antzeko emaitzak atera dira ere, British Columbia-n diren sikh "etorkin" diren andre zaharren artean. Beste aldetik, Japonia-n, lehen esan dugun bezala, beroaldiek ez dute izen berezirik eta oso gutxi azaltzen dira (%12), gure artean, al-diz, emakumeen %50ak jasaten dituela uste delarik, gogorki edo arinago.

Kulturen arteko azterketatik honako ondorioak atera genitzake:

- Osasunari loturiko bizipena gizartearen eta kulturaren eraginaren menpe dago neurri handi batean, eta denboran zehar aldatzen doa.
- Kulturen arabera, menopausiaren bizipen eta definizio oso desberdinak daude.
- Fenomeno unibertsal bakarrak, hilerokoen amaiera eta estrogenoen produkzioa urritzea ditugu.

2.2.

AMAGATIKO EDOSKITZEA

Bolada luze batean (bizpahiru hamarkada) esne egokituaren alde egin ondoren (beste gauzen artean botika-etxeen eraginez, hala nola Nestlé izenekoa), eta aukera desberdinak eskaini dituen ondorengo fasea pasata, azken urteotan, amaren esnearen aldeko kanpaina sutua abiatu da zenbait sektoretan.

Fenomeno honentzako aitzakiak bi dira: alde batetik, umeentzako hobea dela esaten da (inmunitateko eta afektiboki), zergatik eta nola inork frogatu ez badu ere. Gainera, merkeago dela esaten da ere, eta halatan elikatzea ziurragoa omen da (Hirugarren Munduari loturiko gogoeta). Ez da, ordea, batere garbi geratzen, beste gauzen artean, zenbat luzatu beharko litzatekeen edoskitzaroa: hilabete, hiru hilabete, urtebete, bi urte... Zenbat eta luzeago hobe dela dirudi, baina batere zehaztugabe dago.

Ez dira inon agertzen, gainera, emakumeen eskarmentuaren datuak; ez dira alde txarrak inoiz aipatzen (fisikoak eta psikologikoak), eta alde onak idealizatu ohi dira, batzuk zein besteak benetan aztertu gabe.

Kanpaina honen sortzaileak OME-Osasunerako Mundu Erakundea, pediatrik eta emakumeen kolektibo zenbait ditugu (Esnearen Ligako elkarteak adibidez), azken hauek maiz kolektibo feminista edota naturistei lotuak.

Bestalde, badirudi froga daitekeela, azken urteotan praktika hau behera datorrela, batez ere ama gaxteen eta zaharren artean (28); dena den, ez dago gai hau behar bezala aztertzen duen ikerketarik, aldeak gizarte-mailaren eta beste aldagaien arabera zehaztuz.

Aipa ditzadan orain, Vanessa Maher antropologoak argitaraturiko liburu batean azaltzen diren zenbait ideia; liburu honek Tunisia-n, Turin-en, Maroko-n, Iran-en eta Nepal-en eginiko lanen emaitzak, bai eta Islandia-ri buruzko ikerketa historikoa, dakartza (29).

Maher-ek seinalatzen du edoskitzeak, mundu osoko gizarte eta kulturetan duen garrantzia gutxitan jartzen dela, ez Mendebaldean bertan ere, zalantzan. Emakume askok bularra ematen ez duten egoeretan ere, bularra ematea "naturalagotzat" hartzen ohi da. Beste aldetik, erakusten digu medikuek amagatiko edoskitzearekin duten interesa datorkiela, batez ere elikatze eskasari eta eritasunari aurre egiteagatik, eta ama-umearen arteko komunikazioagatik, bularra ematea agertzen delarik, ume eta amaren arteko harreman banan banakoa bailitzan, kontuan hartu gabe gizarteak eta kulturak eragiten dutela erabat harreman hori. Gaineratzen du Maher-ek, edoskitzea ez dela soilik umeen elikadura hobea edo txarragoa izateari loturik, baizik eta hala emakumeen nola umeen gizarteratzearen erdi erdian dagoela, eta gizarteratze hau aratu egiten duela (emozioak kudeatu, sexualitatea, gizarte ordena, oro har). Gizon-emakumeen arteko harremanen oinarri kulturalak ezartzeko beste moduen arteko bat omen dugu, gizakiak eta naturaren arteko harremanen oinarriak ezartzeko, gizarteraren lehentasunak ezartzeko, helduen eta haurren arteko harremanen oinarriak ezartzeko. Eta mediku-pediatren eta erabiltzaileen (emakumeen) arteko harremanen oinarriak ezartzeko ere, erantsiko nioke nik. Hau da, horren bitartez giza harreman zenbait sortu eta instituzionalizatzen ere dira.

Edoskitzeak emozioak kudeatzearekin duen loturari doakionean, adibidez, ikusten da jendearen egitekoan honek garrantzia handiagoa duela, umeen inmunitateak edo bizirik irauteak baino. Samurtasuna eta maitasun adierazpenak emakumeei lotzen zaizkie, gizonetzkoen baino gehiago, eta gizarteak uste du emakumeek maitasuna erakutsi behar dutela, edoskitzearen bitartez, adibidez.

Hau da, edoskitzea, besteak beste, jaiotza, sexualitatea eta emozioak bezalaxe, kulturaren eraginpean dago gizarte orotan. Hala izanik, harrigarria da gai honen gainean nola ez den feminen artean hausnarketa eta eztabaidarik sortzen, sexualitatearen inguruan sortu diren bezala, esate baterako.

Ikus ditzagun, dena den, liburu honek ekarritako beste kontuak, herrialde garatuei eta Hirugarren Mundukoei buruz.

(28) Hala diote behintzat, Emakunderen 3. txostenak dakartzan datuek, *Emakumeak Euskadiko Autonomia Erkidegoan* (1992:99), non ikusten baita, EAEko Metabolopatiak erroldatzeko Ama-haurren Programako datuen arabera, 1986tik 1990era bitarteko bost urteetan, edoskitzen tititik ematen hasten diren emakumeen kopurua %73 izatetik, %68 baino zertxobait gutxiago izatera pasa dela, jaisiera handiena azken bi urteetan eman delarik.

(29) Hemen aipaturiko datuak liburuari Vanessa Maher-ek berak eginiko hitzaurrean agertzen dira.

2.2.1.

HERRIALDE GARATUAK-MENDEBALDEA

80. hamarkadaren erdialdeaz geroztik, emakumeak gero eta gehiago dira bularra ematera bultzatuak, nahiz eta informazio eztabaidagarri eta errebesa jasotzen duten. Pediatriako eskuliburuak elkarrekin erkatuz gero ikus daiteke, amagatiko edoskitzeari buruzko informazio eta arauak guztiz arbitrarioak direla eta liburu guztiak ez direla ikuspegietan bat etortzen. Maher-ek duen hipotesiak, ordea, dio amagatiko edoskitzearen "arrakasta ona" informazio ona jasotzeak eskatzen duela.

Garrantzizko beste ondorioa dugu, pediatria eta beste espezialitatetako eskuliburu eta sintesiak idazten dituzten medikuek ez dutela batere ezagutzen, bizi dituzten gizarteetan, kulturak, gizarteak eta tokiak nola baldintzatzen duten amagatiko edoskitzea. Gizarte garatuak erabat homogeneoak direla uste ohi da, eta haietan bizi diren emakumeek ere, kolektibo erabat homogeneoa osatzen dutela. Eta halatan, dauden aldaerak kontuan hartu gabe egiten diren azterketak ximplegiak eta eskasak gertatzen dira.

Hala eta guztiz ere, liburuko lan desberdinetan agertzen denagatik ikusten da emakume askok beren erabakiak, kulturak agintzen dienetik kanpo eta batzuetan kontra ere, hartzen dituztela: erabakiak hartzeko kontuan hartzen dituztela, adibidez, umearen ongizatea, dituzten gainerako umeen ongizatea, beren ongizate fisiko eta psikologiko bereak ere, daukaten hazkurria eta lanaren eskariak. Bularra ez emateak edo denbora laburrez emateak, alde batetik aukera ematen dio aitari umea zaintzeko, eta beste aldetik emakumeari bere burujabetasuna nahierara antolatzeke aukera ematen dio. Bularra ez ematea, emakume batzuentzat, beren buruaren jabe izateko baldintza da. Gaurko egoeran bertan ere, esan liteke bularra eman nahi ez ukaitea, medikuntza eguneroko bizitzan sartzeari aurre egitea dela, inkonzienteki bada ere.

Esanagatik ere, argi da amagatiko edoskitzeari gizarteak ematen dion trataera, "naturala" dela pentsatuagatik ere, kontraesankorra dela, eta etxe barruko gauzatat geratu ohi da: EEBBetan, esate baterako, estatuetako batean, uda honetan kendu zen, publikoan bularra emateko debekua.

2.2.2.

HIRUGARREN MUNDUKO HERRIALDEAK

Filipinetako eta Tanzania-ko hiri ingurutan eginiko ikerketa batzuek erakutsi digute, jaioberri eta umeak ez direla bizirik irauten gehiago edo gutxiago, bularra hartu edo ez hartzearen arabera, baizik eta bere gurasoen bizi-mailaren arabera (etxeak ura duen ala ez, umeak behar bezalako arta medikua duen ala ez, karririk eta etxeak sanitarizatuta egotea ala ez, bizi egitura egokia duten ala ez, eta amak heziketa maila ona duen ala ez duen).

Eztabaidan jarritako beste puntua da, antigorputzek noiz arte babesten ote dituzten umeak, heste-etako infekzioetatik. Dirudienez, hobea baino txarragoa omen da sei hilabetetik aurreragoko edoskitzaroa. Amagatiko edoskitzaro luzeen ohiturak ez du esan nahi naturalagotzat hartzen denik, ez eta umeentzat osasuntsuagotzat hartzen denik ere.

Bestalde, ikusi da zenbait lekutan, hala nola Maroko-n, non gizonak gordetzen duten diru guztia, eta janaria bera ere modu desberdinez dagoen banatua, emakumeek poteko esnea nahiago du-

tela askotan, halatan beraiek esku dirua edukitzeko eta gastuak berdintzeko. Familiko diru sarrera gehiago eskura dezakete bularra ematen ez badute, fisikoki ez baitute horrenbeste energia erabiltzen eta beren gorputzak atsedean hartzen du. Mendebalderako esan dugunaren bide beretik, Hegoaldeko emakume anitzek nahigo du bularra eman ez eta hazkuntza aitekin banatu, izan ere pediatrek inoiz kontuan hartzen ez duten elementua.

2.2.3.

BESTE ONDORIOAK

Amaitzeko, beste zenbait kontu seinalatu nahiko nizueke. Alde batetik, gai honetan deigarri egiten den, eta azterketa sakonagoaren beharrea dagoen gauza dugu, pediatrek jendearen (umeen eta gurasoen) bizitzak arautzen hartu nahi duten eta neurri handi batean jadanik hartu ere duten protagonismoa. Bigarrenik, edoskitzea nola erabiltzen den ikusteak erakusten digu nola egiten dioten aurre medikuek eta gizarteak oro har, feminismoaren hedapenari, emakumeen bizitzan gertatutako aldaketei eta lortutako autonomia zabalagoari.

Halarik ere, jakin beharko genuke zergatik ari diren emakume anitz, hain militanteki, amagatiko edoskitzearen alde lanean. Nire ustez, alde jartze honen eragile diren faktoreek zerikusi handia dute, gure aldeko aldaketak ekartzeaz gain, etorkizunari buruzko ziurgabetasuna ere dakarkigun garai honetan, gure bizitza gordean eta publikoan, indibidual eta sozialean, sortzen zaizkigun beldurrekin, desadostasunekin eta kontraesanekin. Desadostasunak baitaude diskurtso feministen eta egiten denaren artean, "egin nahi dugun" eta egiten dugunaren artean. Amatasuna azaldu digute maiz, "gure esparru" bezala, emakumeentzako botere eremu bailitzan (nik ez dut hala ikusten baina oso zabaldua dago ideia hau). Badaiteke, besteren artean, emakumeek espazio hauek "laga" nahi ez ukaitea, aurretik jakin gabe zer jasotzen dute horren trukean.

Dena den, edoskitzeari buruzko debate sakonagoaren premian gara, gelditu gabe umeentzako zer den hobea eztabaidatzen, gaiaren alderdi bat besterik ez baita hori.

2.3. EMAKUMEAK (OSASUN-LANGILE EZ DIRENAK)

BESTEREN OSASUNAZ ARDURATZEA

Umeak eta bere kabuz molda ez daitezkeen (eta molda litezkeen) pertsonak zaintzearen ardura emakumeek hartzeaz eta honek hauen bizitzan duen eraginaz aspaldian hasi zen, eta oraindik ari da, feminismoa gogoetak egiten. Arazoa argi azaltzen zaigu, guri behintzat, zeren eta gizarteak orokorki eta osasun sistemak berak ere ez baitute horren argi ikusten. Zer egin ordea, ez da hain argi agertzen; aterabide desberdinak proposatu dira: zaintzaile direnei laguntza berezia eskaintzea, hauen aldeko neurri fiskalak, beren lana ekonomikoki baloratzea, etab. Gai hau ez dago, inondik ere, behar bezala konpondua, eta ekintza positiboko neurrien eta eskuhartze egitarauen barnean lehentasuna behar du (30).

(30) Honen gaineko gogoeta aurki daiteke, "Osasun zaintza eta zerbitzuak" atalaren barruan, "Emakumeak hiri inguruan. Osasuna eta bizi-kalitatea" (1998) izeneko biltzarrean aurkezturiko txostenetan.

Ikuspegi ideologiko-politiko orokor gisa, oraindik ere indar betean dela iruditzen zait, Euskadiko asanblada feministek, 1993ko martxoaren 8ko kanpaina atera zuten "Intsumisioa derrigorrezko famili-zerbitzuari" leloa (31); izan ere, lelo hau apenas garatu da, zenbait hitzaldi, artikulua eta osasuneko langileekiko bileretatik aparte.

Kanpaina honek, arazoa argira ekarri eta debatea hedatzeaz gain, gizonak nola inplikatu eztabaidatzen lagundu nahi zuen, eta emakumeei egitekoak beren kargura hartzeari uzteko proposatzen zien, gizonak parte hartzera "behartzeko"; honek arazoa gizarteratuko bailuke eta sorturiko gatazkak aterabide pribatu eta publikoak bultzatuko lituzke. Horrekin batera bilatzen zuen ere, gizarateak agintzen diena isil eta umil betetzeari gero eta gehiago uko egiten dioten emakumeei laguntza ematea. Bizi-itxaropena luzatzeak, eritasun kroniko gero eta gehiago jasateak, eta osasun eta gizarte zerbitzuetatik lehen eskaintzen zitzaizkien zenbait laguntzak murrizteak ez dute uzten pentsatzera egoera berez konpon daitekeenik.

Hala eta guztiz ere, gaia katramilatua da eta eztabaida gehiagoren beharrean dago, alde guztietatik. Eskatzen du, adibidez, emakume anitzek beren emakumezko identitateaz eta osasunaz egiten dituzten definizioak kontuan hartzea. *Informe sobre la Salud y la Mujer en la Comunidad de Madrid* (1996) izeneko txostenak dioen bezala, harremanen eta komunikazioaren aldeak funtsezkoak zaizkie emakume askori, eta horien artean, inguruko ume eta helduak zaintzeari loturiko guztia.

Osasun-langile ez diren emakumeek kontsulta eta tratamenduetan bete ohi duten laguntzaile zereginari doakionean, hona ekarri nahi dut orain, lehen aipatu dudana "Emakumeak eta hiria: osasuna eta bizi-kalitatea" biltzarrean emaniko eztabaida bat. Bertan, Itziar Cantera psikologoak azpimarratu zuen ea nork dituen arazo psikologikoak eta nola bideratzen diren osasun zentruetan, esanez maiz patologia, nahiz eta ondorioak senitarteko guztiei ekarri, aitarena edo gizonezko baten ohi dela nagusiki, baina azkenean emakume bat izan ohi dela, aitzitik (emazte, ama, alaba) kontsultetara joaten dena, eta batzuetan horren karira bera ere tratatua izatera iristen da. Geroago itzuliko naiz berriro eskuhartzea nori zuzendu ohi zaion eztabaidatzera, nola emakumeen inguruan ibiltzen den eskuhartze hori, etxeko andreen inguruan bereziki; baina eztabaida honetan ateratzen zen gauza bat osasun sistemaren eremu guztietara aplikatu daiteke, alegia, arazoaren iturria gizona bada (senarra, aita, neba), berarengana jo behar dela, bere egoeran inplikaraziz. Badakigu askoz zailagoa izan ohi dela, osasun jardueratan, gizonezkoen kolektiboarengana iristea, emakumezkoengana iristea baino, hainbat eta hainbat arrazoi direla medio (lanekoak, gizonezkoek kontsultetara joateko duten ohitura eza), baina hori lortu beharreko gauza dugu, ez badugu nahi emakumeen kaltetan jokatu, betiko zeregin diskriminatzaileetara lotuz.

(31) Ikus Bizkaiko Emakumeen Asanblada (1994).

3.

Osasunaren eta generoaren gaineko azterketa eta eskuhartzerako gogoeta zenbait

3.1.

INFORMAZIO ITURRI ETA ADIERAZLEEN ERABILERA: BESTE ZEIN DATU BEHAR DITUGU?

1996ko otsaileko Emakunderen Ekintza Positiboko II Planaren edukiek argi eta garbi adierazten dute, osasunaren gainean informazioa biltzeko eta ikertzeko dagoen premia. Aipatu nahiko nituzke halere, nire ustez datu bilketa bereziaren eta segimenduaren premia larrian diren esparru batzuk, ondoren eskuhartzea behar bezala zuzentzeko.

Informazio eskasa dugu, esate baterako, menopausiari buruz (emakumeen eskarmentua, ematen zaien artamendua, profesionalen jarrera, Ordezko Hormonen Tratamenduaren erabilera, emaitzak...) eta ugalketa lagunduari buruz (ematen diren zerbitzuak, emaitzak, artaturiko emakumeen/bikoteen iritzia...), izan arren bi hauek, zuzenean harturiko emakumeengan duten eraginaz gain, gizarte osoarengan ere eragina duten arloak. Bigarren kasuan, esaterako, aldaketak gertatzen ari dira oso garrantzia handiko kultur-ustetan, hala nola pertsona izatearen ideia, aitalasuna, amatasuna, etab. (Esteban, 1996). Bestalde, eremu berean ikus daiteke ere, diagnostiko edota tratamenduak hartzen dituztenak ez direla oso gustora izaten, profesionaletik harremanarekin, ez eta eskaintzen zaien informazioarekin, inolako protagonismo eta erabaki ahalmenik gabe sentitzen baitira. Hau guztia, halere, objektibizatu egin beharra dago, datu eta txosten zehatzetan azalduz, horretan hartua den biztanleriaren alde balia ahal dezagun.

Horraz gain, emakumezkoen laneko osasunaz ditugun zenbait datu guztiz eskasak dira, etxetako langile eta etxeko andreei buruzkoak kasurako, eta datu hauek ezinbestekoak zaizkigu, behar diren neurriak planteatu eta aurrera eramateko, beraien aldeko prebentzio eta tratamendu mailan, lan-eskubideak, gizarte-eskubideak, etab.

3.2.

IKERKETA KUALITATIBOEN BEHARRA ETA OSASUNAREN IRAKURKETA ABERATSAGOEN BEHARRA

Osasunari buruz eta osasun sistemari buruz ezagutzen duguna datu kuantitatiboetan eman ohi da, pertsonen eskarmentua, subjektibitatea, aniztasuna biltzen dituzten ikerketa kualitatibo gutxi egiten baita oraindik orain. Halatan bada, interesgarria litzateke alor gehienetan (eta orokorrean ere) aztertzen joatea nola bizi duten emakumeek ematen zaien arta, zein beste aukera proposatzen duten, osasunari buruz dituzten usteak, izan ere beti ez datozenak bat definizio mediku-sanitarioe-

kin, hauek askoz xinpleagoak eta zurrnagoak izaten baitira, baina jokabideak eta egiten diren ikerketa gehienak gidatzen dituzte halere. Azterketa berri horietatik aterako dira, artatzeko modua berrantolatzeko beharrezkoak diren bestelako ikuspegi eta irakurketak (32).

Bestalde, eskarmentu eta egoera desberdinak ezin dira zerbait itxi bailiran ulertu, osasunaren alderdiak elkarren harremanetan aztertu behar ditugu, elkarri lotu behar ditugu emakumeen eta gizonen banakako eta taldeko nondik norakoak, bai eta zein prozesu sozio-ekonomikoetan ematen diren kontuan hartu ere. Kontuan hartu behar dugu, halaber, diskurtso eta jarduera nagusiek jendearengan duten eragina, ahantzi gabe betiere pertsonak beren bizitzetan duten protagonismoa, batzuetan erantzuteraino doana, ideia nagusiak aldaraziz.

Illo honetatik ari naiz, adibidez, elikadura, dietak eta gorputz irudia aztertzen (Esteban, 1998). Gai hauek aztertu ohi diren moduan, gehiegi azpimarratzen da emakumeek bere egiten dituztela gorputzari buruz eta argaltasunari eta beren osasunean duten eraginari buruz, anorexia, bulimia, etab., gizartean nagusi diren ideiak, eta besterik gabean, horretantxe gelditzen dira azterketak. Gogoeta gutxik hartzen du kontuan, ordea, emakumeek jardun horietan, eztabaidagarriak izanagatik ere, beren bizitzak kudeatzen ari direla eta gizartean bere lekua bilatzen, bizitza nola ulertzen duten erakusten, zer aldatu nahi duten azaltzen, etab. Bi hitzetan, osasunari loturiko prozesuetan maila desberdinak agertzen zaizkigula batera eta behar bezala aztertu eta antolatu behar ditugula.

3.3. OSASUNEAN ESKUHARTZEA ETA LEHENTASUNAK EZARTZEA: NORI ZUZENDU JARDUNA ETA ZEIN BIDE BERRI IREKI

Gogoeta zenbait egin nahi nuke orain, biztanleriaren osasunaren alde eta emakumeenaren alde bereziki nola lan egin aztertuz, bai eta ekintza positiboko neurriak eta eskuhartze egitarauak norantz joan beharko luketen ikusiz.

Lehenik eta behin gogora ekar dezadan, gure edo beste gizarteetan denboran zehar osasunak egin dituen aurrera pausoak aipatzerakoan, beti esaten dela, aurrerapen mediku-zientifikoak garrantzitsuak izanik ere, funtsezkoak izan direla, bai garapen ekonomikoa, bai eta bizimoduan, elikaduran, etxeen azpiegituretan, higienean, etabarretan eginiko aldaketak. Ondorio hauek, alde sanitarioaren eragina gutxitu egiten dute. Emakumeentzako eskuhartzeaz pentsatzen dugunean, ordea, alde batera utzi ohi ditugu ideia hauek eta artatze sarean eta eremu mediku-zientifikora lotzen gara. Ez diot bere garrantzia kendu nahi, baina ez da hori funtsezkoa.

Arazoak ezagutzearekin batera, zehaztu beharko litzateke zein sektore eta mailatan komeni duen gehien ekitea (administrazio publikoak, gizarte ongizatea, hezkuntza, lana, komunikabideak,

(32) Honi buruz, ikus, *Informe sobre la Salud y la Mujer en la Comunidad de Madrid* (1996) delakoan azaltzen diren metodologiari buruzko gogoetak eta emaitzak.

etab.) edota, betiere jarduera hauek sare sanitariokoekin batera prestatu. Gainera, prebentzio lanak ez du zertan emakumeen kolektiboetara mugatu behar, aitzitik, batzuetan biztanleriaren beste sektoreetara luzatu beharko da. Ohiturak eramaten gaitu maiz, emakumeei soilik zuzenduriko egitarauak edo jardunak antolatzen, baina batzuetan lana osasun-langileekin egin beharko litzateke, edo gizonekin, lehen aipatu dudan moduan, osasun mentalari buruz mintzatzerakoan.

Idea hauen argigarri izan daitekeen adibide bat jartzeagatik, aipatuko dizuet nola etxeoandreen eta soldatapeko emakumeen artean, osasun maila desberdina den, lehenengoak okerrago daude, dirudenez, gizarteak baloratzen ez dituen zereginak dituztelako, nahiz eta denek ez dituzten beren burua eta beren etxeko egitekoak berdin ikusten eta baloratzen (ikus Madrid-eko Erkidegoaren txostena *Informe sobre la Salud y la Mujer en la Comunidad de Madrid* delakoa). Maila horretan lan egiteko, nire ustez, sanitategari hertsiki loturiko prebentzio egitarauak antolatu beharrean, egokiago litzateke emakume hauentzako, bereziki horretarako gogoaz azaltzen dutenentzat, soldatapeko lanak eskuratzeko aukerak sustatzea, edota lagundu behintzat gizarteak baloratzen dituen zeregitetan gero eta parte handiagoa har dezaten.

Bestaldetik, oso premiazkoa zaigu, biztanleriarengan eragin handikoak diren sektoreetan, hala nola komunikabideak, lan egitea. Honen adibiderako, alkohol eta tabakoaren kontsumoa gure iragarkiak maiz emakume eta gazteei zuzenduak izaten baitira. Hau da, eremu desberdinetan aurrera eramanez lan koordinatua behar da, osasuna benetan sustatuko duen lan eraginkorra egitekotan. Emakumeen osasunaren kasuan, besteetan bezala, ezin da esan hobe dela zertxobait egitea ezer ez egitea baino: gauzak behar bezala egin behar dira (jardueren ebaluazio egokia ere bai) eta helburuak argi behar ditugu.

Amaitu aurretik, iruzkintxo bat, emakumeen partehartzeari buruz, prebentzio lanari eta sanitategari doakionean. Nabarmena da, eta oso desatsegina niretzat, azken urteotan erabiltzaile eta adituen artean sortzen joan den osina, banakako emakumeekin eta elkarteekin lan egin behar dela esan eta esaten den arren. Feministok betidanik salatu dugu zientzialarien eta herritarren artean zegoen aldea, baina ikerketa eta artako maila zenbaitetan sartu garenean, ordea, (askotan esaten dena baino esku gehiago daukagularik gainera, nahiz eta botere eta erabaki organu gorenetan presentzia urriegia dugun), gure jokamoldeak ez dira oso bestelakoak izan. Gauden egoera honetan, aditu omen garenok esaten dugu gainerako emakumeei komeni zaiena, ia kasurik egin gabe beraiek esaten dutenari.

Osasunaren sustapenaren oinarrian pertsonen autonomia eta autodeterminazioa, hau da pertsonen askatasuna jarri behar dugu, eta honako ideia hau, martxan jartzen diren kanpaina anitzekin (feministek bultzatutakoekin ere) ezin lotuzkoa da eta kanpaina horien oinarrian dauden filosofiekin uztarrezina. Berrikusi behar ditugu, beraz, orain artean aurrera eramanez ditugun ideia eta jarduerak, bai eta gizartearen eta osasun zerbitzuetan eman diren aldaketak ere, jarduera feministek eskuhartze hobea egin dezaten osasunaren alorrean.

Bibliografía

- ALLUÉ, Xavier. *Abierto de 0 a 24h. Factores socioculturales en la oferta y la demanda de las urgencias pediátricas*. Tesis doctoral. Departamento de Filosofía y Antropología Social. Universitat Rovira i Vigil de Tarragona, 1997(argaratugabea).
- AUDICANA, Covadonga (Eusko Jaurlaritzaren Osakidetza Sailaren Heriotz-tasen errolda). "Estado de la salud de las mujeres en el País Vasco. Análisis de la mortalidad diferencial". *Las mujeres en el ámbito urbano. Salud y calidad de vida*. Bilbao: OP-Asociación para la defensa de la salud pública, 1998, 29-42 orrk.
- BIZKAIKO EMAKUMEEN ASANBLADA. "La dedicación a los demás. El derecho a elegir, objetivo político prioritario". *Jornadas Feministas. Juntas y a por todas*. Madrid: Espainiar Estatuko Erakunde Feministen Federakuntza, 1994, 29-36 orrk.
- BENERÍA, Lurdes. "Mujer, salud y trabajo: una visión global". *Dossier de ponencias del Wokshop "Salud, Mujer y trabajo"* (Bartzelona, 1993ko azaroaren 11 eta 12). Bartzelona: C.A.P.S.-Centre d'Anàlisi i Programes Sanitaris, 1993. 31-49 orrk.
- DE ONÍS, Mercedes eta José VILLAR. *La Mujer y la Salud en España. Informe Básico*. 1. eta 4. aleak. Serie Estudios, 29. Madrid: Instituto de la Mujer-Ministerio de Asuntos Sociales, 1992.
- DÍEZ, Mari Carmen. "Deporte y construcción de las relaciones de género". *Gazeta de Antropología*, 12. zbk. 1996ko urria, 93-100 orrk.
- Emakumeak eta Osasuna Euskadiko Autonomia Erkidegoan*. 5. txostena. Gasteiz: Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea, 1993.
- Emakumeak Euskadiko Autonomia Erkidegoan*. 3. txostena. Gasteiz: Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea, 1992.
- EMAKUMEAREN OSASUNERAKO EUROPAR INSTITUTUA. *Emakumeak Europan*. Zahartzaro osasuntsuaren bidean. Dublin, 1996.
- Europar Erkidegoko emakumeen egoera sanitarioari buruzko txostena*. Brusela: Europar Erkidegoen Batzordea, 1997ko maiatzaren 22.
- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko II Plana*. Gasteiz: Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea, 1996.
- Euskadiko Emakumeen egoerari buruzko zifrak*. Gasteiz: Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea, 1996.
- ESTEBAN, Mari Luz:
- 1993 *Actitudes y percepciones de las mujeres respecto a su salud reproductiva y sexual*. Tesis doctoral. Bartzelona, 1993(argaratugabea).
 - 1996 "Relaciones entre feminismo y Sistema médico-científico". *Kobie. Kultura antropologia saila*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 17-39 orrk.
 - 1998a "Imagen corporal: alimentación, ejercicio físico y cuidado del cuerpo". *Las mujeres en la ciudad. Salud y calidad de vida*. Bilbao: Ed. OP-Asociación para la Defensa de la Salud Pública del País Vasco, 145-152 orrk.
 - 1998b "El cuidado de la imagen en los procesos vitales. Creatividad y miedo al descontrol". *Kobie. Kultura-antropologia*, 8. zbk. (argaratugabea).

- HUNT, Kate. "¿Una cura para todas las enfermedades? Interpretación de la menopausia y las complicaciones del tratamiento hormonal sustitutivo" in Wilkinson, S.&C. Kitzinger. *Mujer y salud. Una perspectiva feminista*. Madrid: Instituto de la Mujer, 1996, 155-180 orrk.
- Informe sobre la Salud y la Mujer en la Comunidad de Madrid*. Documentos Técnicos de Salud Pública (32. zbk.). Madrid: Comunidad de Madrid- Consejería de Sanidad y Servicios Sociales-Dirección General de Prevención y Promoción de la Salud, 1996.
- LOCK, Margaret:
- 1982 "Models and Practice in Medicine: Menopause as Syndrome or Life Transition?". *Culture, Medicine and Psychiatry*, 6. alea, 3. zbk., 261-280 orrk.
 - 1986 "Ambiguities of aging: japanese experience and perceptions of menopause". *Culture, Medicine and Psychiatry*, 10, 23-46. orrk.
- MAHER, Vanessa(ed.) *The anthropology of breast-feeding*. Oxford/Washington D.C.:Berg, 1995 (Ingeleseko 1. arg. 1992).
- "Menos del 5% de las menopáusicas españolas recibe THS". *7 Días Médicos*, 358. zbk., 98-III-13, 12-13 orrk.
- Nafarroako emakumeen gizarte-egoera. Bilakaera eta aldaketarako joerak 1975-1996*, 3. dokumentua. Emaizten azterketa, 1997ko abendua.
- PLAZA, Monique (coord.) *Femmes, sida et discours médical*. Rapport de recherche, 1992 (argitaragabea).
- RUEDA, Joserra:
- 1993 *Debates actuales sobre la menopausia e implicaciones para la política sanitaria. Limitaciones de varios estudios económicos sobre la Terapia Hormonal Sustitutiva*. Planifikazio Sanitarioko Masterrean aurkezturiko lana, London School of Economics delakoak finantzatua (argitaragabea).
 - 1997 "Mensajes acerca de la menopausia y sus implicaciones". *Salud 2000*, 60. zbk., Otsaila, 28-30 orrk.
- VALLS-LLOBET, Carme:
- 1995 "Consecuencias orgánicas del estrés. Cómo afecta de forma diferenciada a hombres y mujeres". (jardunaldiak) Gasteiz: Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea, 53-68 orrk.
 - 1997 "Distintas maneras de vivir y enfermar"(1. txostena). *Mujeres y salud*, 1. zbk. Bartzelona: "Dona, Salut i Calitat de vida" programan.
- VAN HALL, V. & M. VERDEL & J. VAN DER VELDEN:
- 1984 "Las quejas 'climáticas': Hormonales?". *C. Med. Psicosomática*, 24. zbk., 1992, 22-26 orrk.
 - 1994 "'Perimenopausal' complaints in women and men: a comparative study", *Journal of Women's Health*, 3 (1), Udaberria, 45-49 orrk.

**SOCORRO ÁLVAREZ
FERNÁNDEZ**

**Enplegu arloko arduraduna.
Emakunde/Emakumearen
Euskal Erakundea**

ARANTZA RODRÍGUEZ ÁLVAREZ

**Ekonomia Aplikatua Saila.
Euskal Herriko Unibertsitatea**

Lan

merkatua.

Lan

produktiboaren

eta

erreproduktiboaren

banaketa

Enpleguaren problematika dugu, mendebaldeko gizarteetan oro har eta euskal gizartean ere, kezka nagusia.

Behar bada horrexegatik eman dira, azken urte honetan, lan munduarekin loturiko garrantzizko gertakizunak:

Lehenik, estatu mailan izenpetu da eta indarrean dago jadanik, lan merkatua hobetzeko eta mugagabeko kontratazioa sustatzeko premiazko neurrietako Errege Dekretua.

Bigarrenik, iragan ekaineko Amsterdam-eko Hitzarmenak ezarri zuen enplegua, Europar Batasunak, datozen urteetarako duen helburu nagusi gisa. Ondoren, azaroan, Luxenburgoren, Luxenburgoko Gailurra deiturikoan, eginiko Enpleguaren gaineko Europar Kontseilu Bereziak zehaztu zituen, enplegu eta gizarte kohesioko gaietarako lehentasunak.

Hirugarrenik, Enplegurako Ekintza Egitasmo Nazionala dugu, Administrazio Zentralaren eta Autonomia Erkidegoen artean prestaturikoa eta, Europar Batasuneko gainerako Estatuenekin batera aurkeztuko dena Cardiff-eko Gailurrean.

Laugarrenik, lan merkatuaren oreka faltaren arazoa elementu nagusia bihurtu da, azken hilabete hauetan, nazioarteko eztabaidaleku ekonomikoetan. Halatan bada, London-eko Biltzarrean enplegatze ahalmena aztertu da hazkuntza ekonomikoari eta gizarte bazterketari loturik, eta konparatu dituzte ere, langabeziari aurre egiteko eta lan merkatutik bazterturiko taldeak berriz ere merkatu-ratzeko, enplegatze ahalmena handitzeko eta formakuntza jarraitua sustatzeko prestaturiko politikak.

Bosgarrenik, eta oraigoan Euskal Autonomia Erkidegoari bereziki begiraturaz, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila bere politikak antolatzen ari da, Eusko Jaurlaritzak 1997ko ekainaren 5ean eginiko Enplegurako azken Osoko Bilkuran onarturiko ebazpenei jarraiki, eta proiektu berriak bultzatzen ari da, lan merkatua bizkortzeko asmotan. Oin harturik lan merkatuak azken hiru urteotan eginiko bilakaeraren balantzean, azken urtean enpleguko, formakuntzako eta lan osasuneko politikei eginiko berrazterketan eta etorkizunerako Europar aurreikusten diren egoeretan, XXI. menderako enplegu politika berria diseinatzeko funtsezko jarraibideak proposatu ditu, hamabost egun direla aurkeztu duen "Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko enpleguari buruzko Txostena" delakoan azaldu dituenak. Emakundetik dokumentu honen gaineko hainbat gogoeta egin eta igorri ditugu, ikusten baitiogu dokumentu honi, beste gauzen artean falta zaiola, Administrazio desberdinek —Europa mailakoetatik hasita, Tokiko Administrazioetaraino— egin ohi dituzten horren antzeko dokumentu askori bezala, aukera-berdintasunaren printzipioaren traskatasuna.

Txosten hau aztertuz, eta lehen esan dudana bezala, ondorioak enpleguko beste egitasmo eta dokumentuentzat ere baliagarri direlarik, esan dezakegu:

1. Dokumentuak, oro har hartzen badugu, emakumeak ikustezinak egiten ditu, egin ere bi bide-tatik:
 - Azaltzen dituen egoerak eta datuak ez ditu sexuaren aldagaiaren bitartez sistematikoki aztertzen, eta halatan ematen duen irudia ez da osoa eta ez ditu azaltzen emakumeek lan merkatuan dituzten egoera eta baldintza desberdinak.

GURE ERKIDEGOAREN ENPLEGUAREN DIAGNOSTIKOA, sexuaren arabera bereizia, ez da denok jadanik dakigunaren bestelakoa. Hau da, nahiz eta emakumeek gero eta gehiago hartzen duten parte laneko jardunean (emakumeen portzentaia handitu da biztanleria aktiboan eta lanean den biztanlerian ere bai), oraindik ere egia da, lanean direnen pertsonetatik bat emakumea dela eta bi gizonak. Horraz gain, aktibitatean eta lanpostuak edukitzean duten desabantailarekin batera, langabezia mantendu egiten da, emakumeen kolektiboan langabezia tasa %27,7koa delarik eta gizonen artean berriz, %13,2koa 1998ko martxoko datuen arabera.

Emakumeak lan merkatuan kopuru handitan sartzeak ez du berekin ekarri, lortzen dituzten lanpostuak sektore eta lanbide desberdinetan hedatzea. Bereizketa horizontala eta bertikala oraindik ere mantentzen dira, emakumeen enpleguaren egituraren ezaugarri nagusi gisa, emakumeen %84a hirugarren sektorean ari baita lanean, gizonekoak, aldiz, industria (%36) eta zerbitzu (%46) sektoreen artean modu orekatuagoan daudelarik banatuak.

Zerbitzuen sektorean bilduta izateaz gain, lanean diren emakumeen %75a aktibitate alor oso gutxitan daude bilduak: Administrazio Publikoa, Hezkuntza eta Osasuna, Merkataritza eta Ostalaritza, eta Merkataritzako beste zerbitzuetan.

Bereizketa bertikalari doakionean, oraindik ere mantentzen dira emakumeak kategoriatan, hala enpresa pribatuetan nola publikoetan ere. Adibide gisa aipa dezagun zein emakume gutxi dagoen, Euskal Herriko Erkidegoko zuzendaritza postuetan, enpresetako zuzendaritza postuetako eta atalburu edo zerbitziburuetako %10a besterik ez baitira. Era berean aipa dezagun ere, emakumeen pisua %20,3koa izanik euskal enpresarien artean, %1,7 besterik ez direla enplegu emaile.

Horraz gain, emakumeen enpleguan garrantzi handikoa da aldi baterako enplegua eta lanaldi murrizteko enplegua (Euskal Autonomia Erkidegoan lanaldi murrizteko enplegua dutenen arteko %76a emakumeak dira), bai eta gizonekin alderatuz gero lansariko aldeak mantendu egiten direla oraindik ere.

Laburki esanda, emakumeek oraindik ere jasaten dituzte lan merkatuan partehartze urria, sektore eta lanbideko bereizketa eta lanpostuetako egonkortasun eza.

Gauzak horrela, faltan somatzen dugu, Enpleguko Egitasmoak prestatzeko erabiltzen diren Enpleguko Txostenetako datuak sexuen arabera sistematikoki bereiztea, zeren eta hala egin ezean, emakumeek lan merkatuan bizi duten benetako egoera eta denboran zehar egoera horrek duen bilakaera ikustezina egiten baitira. Sexuen arabera dauden aldeak benetan aztertzen direnean, ordea, agertzen zaigun irudia, egoera orokorraren oso bestelakoa da. Datuek agerian uzten dutenetik abiatuz bakarrik planifika daitezke, emakume eta gizonen baldintza eta behar desberdinetara egokituriko ekintzak, egitarauak eta politikak.

Bestalde, aldagaiak sexuen arabera aztertzen diren batzuetan, azterketa isolatuki eta beste aldagaiekin lotu gabe egiten delarik, errealitatearen ikuskera zeharo okerra ematen da. Hala gertatzen da, esate baterako, aipatzen denean, lana emendatu egin dela, bai emakumeentzat eta baita gizonentzat ere, esanez, gainera, emakumeak beraientzat hartzen ari direla, enplegu emendatze garbia. Informazio honi ez bazaio gaineratzen, zer nolako kontratuak egiten zaizkien batzuei

eta besteei, eta ez bada lotzen, aktibitate eta langabeziako tasekin, pentsa daiteke emakumeen egoera arras ona dela, baina errealitateak erakusten digu, ordea, lanpostuen emendatzea arras eskasa dela oraindik ere, emakumeen langabezia tasa gutxitzeko, zeina oraindik gizonetzkoena (%13,1) baino bi aldiz baino handiagoa baita (%27,7), eta lanpostuen emendatze hori eskasa da ere oraindik, emakumeen lanaren egonkortasun eza gainditzeko.

Lan merkatuari eta bere bilakaerari dagokienean azter daitezkeen prozesu ia guztiek ondorio desberdinekoak dira emakumeentzat eta gizonentzat. Adibide baterako, baldin eta ikusten bada, zerbitzuen sektorean enplegu gehiago sortzen ari dela, honek, hasiera batean, emakumeei ematen dizkie lanerako aukera handiagoak, eta aldiz, soldatapeko publikoak gutxitzea, emakumeen kalterako gertatzen da, Administrazio Publikoan lana lortzeko baldintza berdinak errazago ematen baitira, enpresa pribatuetan baino. Era berean, baldin eta aipatzen bada, %2,1 gizon daudela asteko 30 orduz behetiko lanaldiko lanetan eta emakumeen artean berriz, %17,1 direla, aipatu beharko da ere, egoera horrek nolako eragina duen gizonengan eta emakumeengan, lansariko aldeei doakienean, bai eta laneko baldintzetan, babes sozialean, aukera kostuetan, etab.

Lan merkatuaren egoera deskribatzea baino, bilatzen dena, ekintza jakin bat, egitarau bat edota politika bat abiatzea bada, berriz ere ikusten dugu behar dela azterketan bereizi, nolako eragina ukanen duen ekintza, egitarau edota politika horrek emakumeengan eta nolakoa ukanen duen gizonengan. Halatan bada, "Lan merkatuaren 1997ko urtearen balantzea" ikusirik, kontratu mugagabeen emendatze orokorrari ateratzen zaizkion ondorioei gaineratu beharko genizkieke, beste ondorio zenbait, hala nola, Egailan-ek, bere "1997ko kontratazioen Azterketa" izeneko txostenean ematen dituenak, hitzez hitz honela diotenak:

"Iragan urteko kontratazio guztietan, gizonetzkoek %59,85ekin hartu zuten parte, eta emakumeek berriz, %40arekin. Erreformatik ez du aldaketa nabaria ekarri gizonen eta emakumeen lan merkatuan presentzia orekatua ukan dezaten, areago, mugagabeko kontratuak lortzen dituzten gizonetzkoen portzentaia handitu egiten da. Bi kontratu motetan soilik dira emakumeak gehienak, lanaldi murrizteko eta bitartekoen kontratuetan, izan ere."

Informazio hau ez emateak aldatu egiten du nabarmenki, lan erreformatiko urteaz egin daitezkeen balantzea, zeren eta horrela aldatu egiten baita beste informazioak irakurtzeko modua eta ateratzen diren ondorioak, konparazio baterako, astean 12 orduz behetiko edo hilabeteetan berrogeita zortiz behetiko lanaren babesa parekatzeko ematen ari den atzerapena, atzerapen honek emakumeak jotzen baititu bereziki.

Honi jarraituz, erraz ikusten da, emakume eta gizonen datu guztiak edukita, erreforma motz gertatzen ari dela, lan merkatuan, sexuagatik ematen diren desberdinkeriak gutxitzeko, egiturazko beste ezaugarri baten bitartez gauzatzen ari baitira, emakumeen kalterako beti.

- Horrez gain, hizkerak maskulinoa erabiltzen du soilik, hau da, sexismozko hizkera erabiltzen da. Gogora dezagun, beraz, hizkuntzaren aztertzaileek erakusten duten bezala, genero maskulinoak femeninoa barnean hartzen duela kontsideratzeak nahasketa dakarrela eta okerra dela, zeren eta maskulinoa erabiltzen baitugu, gehienetan, sinbolikoki gizonengan bakarrik eta ez emakumeengan pentsatzen ari garenean, eta hala emakumeak baztertuak eta ezkuta-

tuak uzten ditugu. Emakumeengan pentsatzen denean aipatu egiten dira. Bitxia da ikustea nola emakumeak aipatu egiten diren, lanaldi murrizteko kontratueta mintzatzerakoan, bitxia eta ulergarria, zeren eta, mundu guztiak dakien bezala, horrelako kontratuak emakumei egiten baitzaizkie bereziki, eta horiek ditugu denok buruan, emakumeak alegia. Hemen zaudeten guztiak arras ongi ezagutuko duzue, hizkera ez sexista erabiltzearen garrantzia eta ez naiz, beraz, honetan luzatuko.

2. Dokumentuan zehar etengabe erabiltzen da lanaren kontzeptua, enplegua aipatzeko, hau da, lan ordaindua aipatzeko, kontuan hartu gabe, ordaingabea lana, gizartean egiten den lan guztiaren parte bezala. Alabaina, laneko denbora osoaren benetako banaketa eta berrantolaketa berdinezkoagoak bermatuko lituzketen neurriak sortu ahal ukaiteko, kontuan hartu behar dugu lehenik, bi lan mota hauek —ordaindua edo produktiboa eta ordaingabea edo erreproduktiboa— gaur egun emakumeen eta gizonen artean banatzeko dauden modu desberdinak.

Harrigarria egiten zaigu, beraz, hau sikira aipatu ere ez egitea, XXI. menderako enplegu politika berrirako funtsezko jarraibideak antolatzerakoan, eta bereziki, "Lan denboraren murrizte eta berrantolatzea" aztertzen denean.

Gure ikuspuntutik, lanaldi murrizteko lana aipatzen denean, edota, laneguna murriztea eta laneko modu berriak garatzea aipatzen direnean, langabezia gutxitzeko aukera moduan, kontuan hartu beharko genuke, proposamen horiek oraingo desberdintasunak areagotu ez ditzaten eta emakumeen enplegua oraindik ere eskasagoa egin, generoko ikuspegia erabili beharra dagoela, aukera horien azterketa egiterakoan. Nolaz eta azterketa hori egiteaz Arantza Rodríguez arduratuko den, jarraian datorkizuen txostenean, neuk, aparteko garrantzia duen gai hau aipatu besterik ez dizuet eginen.

Aurreratu bakarrik, Arantza beraren hitzetan aurreratu ere, enpleguan berdintasuna ez dela posible izanen, baldin eta:

- emakumeak ez badira libratzen erreprodukzio lanaren zati batetat;
- gizonak ez badituzte egiteko horiek bere kargu hartzen eta hala egin ezean merkatuan agertzen ez badira, gizaki orok berez dituen erreprodukzioko benetako karga guztiekin, eta
- behar diren gizarte zerbitzuak sortzea bultzatzen ez bada, kontuan harturik, ordainduriko lan produktiborako gizakiek, gizon nola emakumeek, prest egoteko behar dutela erreprodukzio lanari erantzun eta honek mugatu egiten dituela hauek lanerako duten denbora.

Bi eremutan aritu behar dugu batera: pribatuan, bizikidetzako unitateetan lanak elkarrekin banatuko direla ziurtatuz; eta eremu publikoan, zerbitzuko egitura kolektiboak sortuz eta ordainduriko eta ordaingabea lanetako denborak uztargari egiteko politikak garatuz.

Beste hitzetan esanda, generoko ikuspegia sartuz proposatzen da aldi berean berrantola daitezela etxeko lanaren baldintzak, lan merkatuko egiturak eta gizartearen antolaketa. Horrela bakarrik bultza dezakegu emakumeak lan merkatuan baldintza berdinetan sartzea.

Honen gainean aipa dezagun, Urriaren 1.eko 232/1996 Dekretua, lan denbora banatzeko laguntzak (argi dezagun enplegurako laguntzak direla) eta mugagabeko kontrataziorako laguntzak arautzen dituenari doakionean, Institututik eskatu diogula Lan Sailari, adieraz diezagun ea

Langileen Estatutuko zein figura erabili dira gehien Dekretu hau aplikatzerakoan eta zein oztipoekin topatzen ari den Dekretua aurrera eramateko. Eta hau egin dugu zeren eta behar bada, seme-alabak zaintzeko eszedentzien kasutan, legezko zaintzen kasutan eta amatasun edo adopzioko kasutan emakumeek hartzen dituzte laguntza horiek eta hauen ordez gizonak kontratatzen dituzte, eta hala izanez gero, gizon eta emakumeen arteko benetako aukera-berdintasuna sustatu beharrean, lan merkatuan bi sexuen arteko aldeak areagotu egingen lirateke. Ez litzateke zaila gertatu-ko oker hau zuzentzea, baldin eta ekintza positiboa aplikatuko balitz eta emakumeren bat ordezkatzeko beti emakume bat kontratatuko balitz, halatan ziurta genezan, dauden desorekak areagotu behintzat ez direla egingen.

3. Azkenik esan, ez dela aukera-berdintasuna zeharkako ardatz gisa erabiltzen.

Lehen esan dugun bezala, azken urteotan Europar Batasunean eta herrialde industrialduenen artean kasu handiagoa egiten zaio aukera-berdintasunari, enpleguari loturiko gertakizun nagusiak aztertzerakoan, eta gero eta argiago agertzen da, enpleguaren emendatzea ezin dela landu, lan merkatuan egoera txarragoa duten taldeen (emakumeak, kasu) aldeko neurriak hartu gabe.

Herrialde industrialduetan dagoen kezka handiagoa hau azaltzen zaigu, esate baterako, Europako eta Nazioarteko azken topaketen erabakietan. Bide honetatik, Luxenburgoko Gailurrak 4. ardatz bat ezartzen du, non gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, Europar Batasuneko Estatuentzako lehentasunezko gaitzat hartzen den; ikuspegi hau agertzen da, baita ere, "hazkuntza, enplegua eta bazterketa" gaiaren gainean London-en eginiko biltzarraren zazpi printzipioetan. Hala izanik ere, enpleguko Planek eta Txostenek ez dute agertzen aukera-berdintasunaren printzipioa, planteatzen diren neurrietako bakoitzan kontuan hartu beharreko zeharkako ardatz moduan. Luxenburgoko erabakietan beraietan ere, argiago azaldu beharko litzateke, 4. ardatzak gainerako hiru ardatzak zeharkatu beharko litzukeela.

Ekintza, egitarau eta politika orotan generoko ikuspegia sartu beharra, edo berdin dena, emakumeek eta gizonen dituzten egoera, baldintza eta behar desberdinak sistematikoki kontuan hartu beharra, politika, egitarau eta ekintza oro planifikatu, gauzatu eta ebaluatzerakoan, Europar Batasunak "mainstreaming" printzipioa deitu du eta batez ere Erkidegoaren 4. Ekintza Egitarauan garatu zen; ondoren, Egitarazko Fondoak lortzeko lehentasunezko irizpidetzat hartua izan zen printzipio hau, ulertzen baitzen, kontua ez zela bakarrik emakumeek etekin handiagoa ateratzea Erkidegoaren fondoei edota programei, baizik eta areago, aldi berean martxan jartzea Erkidegoaren tresna juridikoak, diruzko bitartekoak eta aztertze eta bizkortze ahalmenak, eremu guztietan sartzeko, gizon eta emakumeen arteko harreman orekatuak eraikitzeko ardurara.

Nire saio honen lehen zatia laburtzeko, esan dezadan, ezen enpleguko politikak generoko ikuspegitik diseinatzerakoan kontuan hartu beharreko funtsezko iritzietako batzuk honako hauek ditugula:

- Emakumeak ikusi egin behar dira eta horretarako behar diren informazioak sexuen arabera banatu behar ditugu eta sexista ez den hizkera erabili behar dugu.

- Lan osoa hartu behar da kontuan, lana bere osotasunean, bai produkziozkoa (enplegua eta berari loturikoa) bai erreproduziozkoa ere.
- Aukera-berdintasuna zeharka ezarri behar da.

Gure Erkidegoan, "mainstreaming" printzipioa aplikatzeak ekarri du Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko II. Ekintza Plana gauzatzea; egitasmo honek egituratzen ditu, Euskal Administrazioak maila orotan aurrera eraman behar dituen aukera-berdintasunerako politika publikoak.

Geure gaia dugun, Enplegu, Lan formakuntza eta Lan Harremanetako alorrean hain zuzen ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko II. Ekintza Planak helburu eta ekintza zenbait proposatu zuen, eta haien ebaluaketatik aterako dira ekintza positiboko III. planaren funtsezko jarraibideak. Eta Plan honek gidatu beharko ditu, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren etorkizuneko enplegu politikaren jarraibide nagusien diseinua, gauzatze eta ebaluazioa, baldin eta aukera-berdintasuna, jarraibide hauetako ardatzetako bat izatea nahi bada. II. Planaren ebaluazioa oraindik burutu gabea bada ere, ikus dezakegu jadanik, zenbait helburu eta ekintza heldu diren urtetan oraindik beharrezkoak izanen zaizkigula.

Gaur egungo lan merkatuaren diagnostikoari jarraiki, oraindik ere aurre egin behar diogun lehen erronka, emakumeei enplegua sartzeko laguntzea dugu. Baldin eta enpleguak oraindik ere urri izaten jarraituko badu, eta halaxe dirudi, langabeziaren aurkako borroka eskuhartze anitz eskatuko ditu, eta horretan argi da behar beharrezkoa dela enpleguko politika aktiboak egitea.

Esparru honetan, abian jarri beharko ditugu, emakumeak enplegua lor dezatela laguntzeko ekintzak, emakumeen informazio, orientazio eta lanbidezko koalfikazio maila handituz.

Halatan, lanera sartzearen segiziko programa integralak garatzen jarraitu beharko da, lan merkatura sartu nahi duten emakumeen fase eta behar desberdinak kontuan hartu behar dituzten programa integral hauen eredu ederra ditugu NOW izenaz ezagun direnak.

Enpleguko politika publikoek eta haietatik eratorritako programek daramaten bideari begiratuz gero kontuan hartu behar dira, lan merkatura sartzeko ematen dituzten aukerez gain, baita dituzten arriskuak ere. Programa hauek, langabe direnak etorkizuneko enplegurako prestatuko badituzte derrigorrez behar dute zenbait elementu kontuan hartu, hala nola: zerbitzuen sektorearen hazkuntza, enplegu emaile berriak, enplegu berriak eta koalfikazio berriak, aldaketa teknologikoak, etab. Dena den, dagoeneko zenbait arrisku azaldu zaigu, nola den lan merkatura zati itxietan banatzea, hartara langileei erruz zailduz "bigarren lan merkatutik" "merkatu arruntera" pasatzea.

Arazo edo arrisku hauek gizon nola emakumei dagozkielarik ere, emakumeek badituzte ordea, berriazko arriskuak. Esate baterako, enplegu berri zenbait emakumeenak bakarrik bihurtzea eta enpleguko iturri jakin batzuetan emakumeak pilatzea, hala nola diren, eguneroko bizitzarako zerbitzuetako sektoreak; honek emakumeak sektore eta lanbide jakinetan bereiziak izaten jarrai dezatela ekar dezake. Kontuan hartu eta neurriak jarri beharko dira, etorkizuneko aukera direnoko hauek ez daitezen, desberdinkeriazko iturri berriak bihurtu.

Bestalde, azterketa honekin batera, ahaleginak egin behar dira, emakumeenak ohi diren lanbideei balio handiagoa emateko, hartara enpleguko baldintza hobekuntza eskaini ditzaten, behar bezalako lansariak eta lanpostuan igotzeko aukerak ere bai. Hobekuntza honek, luzera lanbide hauek erakargarriagoak eginen lituzke eta gizona ere horietan aritzeko gogo sortuko litzaieke, halatan ere enpleguak normalduz, begiratu gabe, enplegu horretan ari denaren sexuari. Balioa handitzeko, enplegu hauetako lanbidezko koalifikazioak eta kalifikazioak aberastu egin behar dira.

Hortaz, enplegua sortzeko baldintzak ezarri eta neurriak hartu behar dira, hala emakumeentzat nola gizonentzat ere, baina enplegu duin, kalitatezkoa eta baldintza beretan emakume eta gizonentzat, ez dezaten emakumeek bere kargu har, lan merkatuaren alde eskas eta ezegonkorra. Alabaina, enplegua sortzeaz gain banatu ere egin behar da, hala orain dagoena nola sortuko dena ere; honetaz Arantza arituko zaizue ondoren.

Enpleguko politika aktiboen artean, Formakuntza lehen mailako arazoa da. Lehen aipatu ditugu NOW programak eta azpimarratu nahi dut zenbat ikas daitekeen berdintasunerako praktika zuzenen gainean, emakumeei zuzenduriko enplegu eta formakuntzako programa berezietatik; aipa dezadan beraz, Euskadiko NOW sarea, zeina sortu baita gure Erkidegoko programa desberdinetan erabiltzen diren baliabideak koordinatu, bateratu eta etekin onena ateratzeko beharrari erantzuteko. Emakunderen bultzadaz sortu zen eta Ekonomia, Justizia, Lan eta Segurantzako Sozialerako Sailaren lankidetzan ukan duen, Euskadiko NOW sarea dugu, enplegu eta formakuntzaren eremuan, praktika zuzenetako esperientziak eta informazioa trukatzeko bidea, hala Europako Fondoetan parte hartzen duten egitasmoen artean nola helburu berarekin ari diren erakunde desberdinen artean.

NOW programetatik beti eman dira garrantzi handiko aholkuak, emakumeentzako formakuntza programa berezietan generoko ikuspegia ezartzeko, baina horrez gain, formakuntza antolamendu orokorretan ere aplikatu daitezkeen berdintasunerako praktika zuzenak seinatu dira ere. Honen gainean gogora ekarri nahi dizuet, 1993an egin zen NOW ekimeneko Europako I. Mintegitik atera ziren zenbait ondorio gaur egun oraindik kontuan hartzekoak direla, argi gero dakigun, emakumeentzako programa eta jardun bereziak antolatzeak ez digula ziurtatzen aukeraberdintasunaren printzipioa gordeko dela. Maiz gertatu ohi da, programa horietako ez edukiak eta ez alderdi formalek ere zer ikusirik ez dutela, zuzentzen zaizkien emakumeen bizitzetako baldintzekin eta beharrekin.

Maiz ikus dezakegu, enplegu eta formakuntzako programetako ezaugarriek, hala programa espezifikoenak nola orokorrenak ere:

1. Sexuaren marka dutela, ziurtzat joz zeintzuk diren gizonen eta emakumeen interesak, aukerak, ezagutzak, garatzeko gaitasuna, etab.
2. Ordutegiak ez direla egokiak.
3. Ez dituztela eskaintzen behar diren gizarte zerbitzuak.
4. Formakuntzako edukiak ez direla egokitzen gaur egungo produkzio egiturara eta jardun ekonomiko desberdinetan etengabe ematen ari diren aldaketa teknologikoetara, tresneria eta kudeaketakoetara.

5. Ez dituztela emakumeak teknologia berrietara hurbiltzen. Sortzen ari diren Teknologia Berriei loturiko disziplinetan emakumeek partehartze urria ukaiteak zaildu dezake erruz, aldaketa tekniko lasterreko garai hauetan emakumeen lanerako aukera.

1993an bertan ere esaten zen beharrezkoa zela, eta Emakundetik oraindik ere beharrezkoa dela diogu, programa, metodologia eta tresna egokituak erabiltzea. Halatan bada, emakumeentzako enplegu sustapenean eta formakuntzan praktika zuzentzat gomendatzen dugu, honako ikuspuntutatik begiratzea:

1. IKUSPUNTU ESTRATEGIKOA. Programa eta eskuhartze orok kontuan hartu behar dituzte gure gizartean ematen diren egiturazko aldaketak, eta bereziki enplegu sisteman gertatzen direnak. Halatan, emakumeak estrategikoki kokatu behar dira, produkzioko eta lana antolatzeko eredu berrien aurrean eta lanpostuen edukien bilakaeraren aurrean, eta garrantzi handiagoko papera jokatu aldaketa prozesu honetan.

2. IKUSPUNTU MALGUA. Enplegu eta formakuntzako programek malgu behar dute izan, ordutegi, sartzeko baldintza, iraupen eta edukiei doakienean, pertsonen "denbora" eta berezitasunei erantzun nahi badie, eta kasu eginik lanbideko eremua eta eremu pribatua batera eraman behar direla. Malgu izan behar dute ere, tokian erantzuteko emakumeen beharrei. Bestalde, formakuntza eta lanbidean sartzeko eskuhartze guztiek kontuan hartu behar dute, enpleguaren gero eta malgutasun handiagoa.

Gaur egungo lan merkatuak langile gai, malgu eta balioanitza eskatzen ditu, eskatzen diete, dituzten gaitasunak sektore orotan erabilgarri izan daitezela eta ez soilik enpresa edota aktibitate alor bakarrean.

Garrantzi handikoa da, beraz, formakuntzak gaitasun aldagarriak garatzeko gai izatea, halatan enpleguan aldaketak egin ahal daitezen, bai aktibitate alor desberdinen artean ere.

Halatan beraz, bizitza aktiboan zehar lorturiko gaitasunen norbanakoen kartila prestatzeari doakionean, Lanbide Formakuntzako Euskal Egitasmoaren barruan proposatu genuen beharrezkoa dela eta halaberean erronka bat ere, hala laneko esperientziaz nola ordaingabeko lanetan harturiko gaitasunak ebaluatzea, ordaingabeko lanetaz ari garenean etortzen zaizkigu burura erreprodukzio lana eta Komunitaterako eginiko lana, zeren eta esperientzia hauek aukera ematen baitute, lan esparruan erabili daitezkeen abilezia eta trebetasunak garatzeko.

3. PERTSONALIZATURIKO IKUSPUNTUA. Formakuntzako eta lanbidera sartzeko metodologiek, hartzaile desberdinetara egokitu behar dute eta hauek dituzten behar bereziei erantzun behar diete, pertsona bakoitzaren aldeak ezagutu eta dituen ahalmen eta gaitasunak baloratzen jakin. Ikuspuntu berri honetatik, emakumeek subjektu aktibo eta arduradunak behar dute izan, beren lanerako bidearen protagonistak, eta haiei zuzenduriko eskuhartzeek, emakumeengan jarrera berriak garatu behar dituzte eta haien ahalmen pertsonala eta gaur egungo aldaketa prozesuan eskuhartzeko duten aukera handitu.

Pertsonaren inguruan antolatutako metodologia honek, formakuntzako ohiko tresnetarako erreferentzi puntua izan behar du, eta behar denean formakuntza sistema orokorraren berrantolaketa

ekarri, pertsona bakoitzaren diferentziak eta ahalmenak, sexuari begiratu gabe kontuan hartuko duen eredia ezartzeko.

4. IKUSPUNTU INTEGRATUA. Emakumeak trebatzeko eta lan merkatuan sartzeko prozesuan, lanbidean sartzeko ibilbide osoa ezarri behar da, barnean harturik, betiere emakume desberdinen beharrei kasu eginik (aniztasuna onartu behar da, "emakumea" ez da abstrakzio berdintzaile baizik eta horren atzean "emakumeak" ditugu, egoera, asmo eta eskari gero eta desberdinagoekin), laneko informazio eta orientazioa, aurretiko formakuntza (oinarrizko maila berreskuratzea ere bai), garapen pertsonala, titulua lortzea, enpresako lanen eskarmentuak, enplegua bilatzerakoan laguntzak eta lan merkatuan sartu ondoren segizioa egitea.

5. IKUSPUNTU OROKORRA. Emakumeen formakuntzak kontuan hartu behar ditu, emakumeen asmo, motibazio eta laneko, gizarteko eta familiko baldintzapenak. Adibide baterako, maiz konpondu behar da seme-alaben eta bere zaintzapean dauden pertsonen zaintza.

Aipaturiko hori guztiaz gain, emakumeak lan merkatura sartzeari errazteko, formakuntzako, informazioko eta lanbide orientazioko tresnak hobetzen jarraitzeaz gain, beste zeharkako neurriak ere behar dira eta horietan ere jarraitu beharko dugu lanean, hala nola, enplegurako bitarteko lanean ari direnen sentsibilizazio eta gaitasuna areagotzen, beren jardunean berdintasuneko irizpideekin ari daitezela, emakumeen curriculum ezkutua kontuan har dezaten, etab., eta horretarako behar diren tresnak eskura ditzaten.

Oraindik ere jarraitu beharko dugu, emakumeen enplegua sustatzeko neurriak bultzatzen, batez ere, langabezia maila handia edo gizartetik baztertuak izateko arrisku handia duten emakume taldeen kontratazioa bultzatuz.

Eta hau egiten delarik, etengabe ebaluatu behar dugu ere, garai bakoitzean indarrean den araudiak nolako eragina duen eta araudian gertatzen diren aldaketek ere nolako eragina duten emakumeengan. Esate baterako: abenduaren 24ko 306/1996 eta 307/1996 Dekretuak indarrean izan ziren urtarrilaren 20ko 2/98 Dekretuak indargabetu zituen arte, eta dekretu berri honen eragina handia izan da emakumeengan, zeren eta, alde batetik, gaur egun ez baitira diruz laguntzen mugagabeko kontratazioak baizik edota aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea (salbuespen gisa harturik ezintasunen bat dutenen pertsonak, gartzelan direnak edo izan direnak eta drogen menpean izandakoak); baina emakumeek ez dituzte horrelako kontratuak gizonak bezainbeste lortzen eta halatan laguntza berri horiek gizonak baino gutxiago eskuratuko dituzte. Bestalde, kontrataziorako laguntzak urritu egin zaizkie, zeren eta emakume talde orori ez baitzaie aplikatzen, diru laguntza orokorren %5eko emendatzea baizik (desagertzen dira, langabezia luza direnentzako %10a eta 45 urtez goitikoentzako %15a), salbu famili kargak dituzten emakumeentzat, zeinei %15a aplikatzen baitzaie.

Emakumeak enplegura orokorrean sartzeari sustatzeaz gain, jarraitu beharko dugu saiatzen, emakumeek zenbait lanbidetara eta laneko kategorietara sartzeko dituzten oztopoak kentzen, emakume gutxi dituzten lanbide eta kategorietan eta edozein maila funtzionalean emakumeak kontratatutako izan daitezela laguntzeko programak antolatuz, hartara gutxitzen joan gaitezen emakumeek lan munduan bizi duten ohiko bereizte horizontal eta bertikala. Eskaini beharko zaie ere sustapeneko

laguntzak, formakuntza garaian emakumeak onartuko dituzten enpresei, zeren eta ikusi baitugu zaila izaten dela emakumeak praktikak egitera joatea zenbait lanbidetan eta bereziki emakume gutxi dagoenetan.

Emakumeen ekimena sustatzeari ere egin behar zaio kasu, eta dituzten enpresa ekimenak sustatzeari, autoenpleguaren eta enpresa txikiak sortzearen bidea, lan mundura sartzeko aukera baitira ere. Alabaina, garrantzi handikoa da ere, benetan enpresarako asmo sendoak eta plan bidegarria dituzten eragileei laguntzea eta ez sortzea esperantza faltsuak, aukera hau ez baita ororentzat egokia. Ez dute pertsona orok enpresari izan nahi edo horretarako balio.

Hau argitu ondoren, onartu behar dugu lan autonomoak aukera interesgarriak eskaintzen dizkiela emakumeei, aktibitate bat aurrera eramateko, eta enpresa askotan emakumeek jasan behar dituzten bereizkeriei eta igotzeko oztopoei ihes egiteko aukera ematen die ere, lana beren baloreen arabera antola baitezakete.

Enpresetako informazioa ematen jarraitu beharko da, informazio iturrietara iristea errazten, proiektuen bideragarritasuna behar den denbora guztian zaintzen eta emakume enpresariak kreditu eta diru laguntzak eskuratzea bultzatzen, zeren eta inguru ekonomikoak kasu urria egin ohi baitie emakume eragileei, bereziki kredituak lortzerakoan. Eta beste aldetik, emakumeek betidanik ukan dute baliabide eskasia nabarmena.

Azkenik, uste dut Segurantza Sozialeko araudiak erraztu egin beharko lukeela ahal moduan, besteren kontura egiten den lanetik norbere kontura eginiko lanetara eta enpresa txikiak sortzera pasatzeak, bien artean orain dagoen amildegia itxiz.

Administrazioko izapideak erraztu behar dira eta lehen alditako zerga-kargak gutxitu, ekimen hauei lagundu nahi bazaie.

Azkenik, Aurrezki Kutxen zereginari doakionean esan behar da, gazteen kasuan bezalaxe beharrezkoa dela emakumeen autoenplegua sustatzeko plan zehatz bat antolatzea, plan honen sustatzaile eta arautzaile Eusko Jaurlaritza izanen delarik.

Ekintza Positiboko neurriak sartu beharko dira autoenplegua laguntzeko proposamen orokor guztietan: autoenplegurako laguntzetan, enplegu iturri berrietako ekimenak garatzen laguntzerakoan, ekonomia sozialeko enpresei laguntzeko politikak garatzerakoan, etab., horietan guztietan neurri zehatzak ezarri beharko dira, emakumeek programa horietan berdintasunean parte har dezaten. Bestalde, lan merkatuan ari diren emakumeen egoera hobetzeko neurri bereziak hartu beharko dira, euren laneko gaitasuna handitzeko eta lanpostuetan igoak izan daitezzen bultzatzeko.

Argi da, lanean ari diren emakumeek lanaren banaketa sexualarekin egiten dutela topo eta oztopo horiek kentzeko eta emakumeek eta gizonek enpresetan modu orekatuan parte har dezatela sustatzeko politika zuzentzaileak jarri behar dira martxan, halatan gizartearen eskari berriei erantzun nahi bazaie, baliabideak ahal bezainbeste baliatu beharko lirateke eta enpresetako kultura aldatzen lagundu. Maiz emakumeok mugatzen ditugu enpresan igotzeko ditugun aukerak, guri dagokigunaz eta espero dezakegunaz ikasia eta geureganatua dugunaren eraginez, eta datu hau ere kontuan hartu beharko da, lanean ari diren emakumeak sustatzera zuzenduriko programotan.

Badirudi ere, produkzio, merkaturatze eta enpresetan teknologia berriak sartu eta hedatzeko moduen bilakaeran garrantzi handiko aldaketak ematen ari badira, lana antolatzeko moduan ere aldaketak egin beharko liratekeela: erabakiak guztien artean hartzea, lan taldean eta egitasmo bati lotuta lan egitea, jarrera abegikorrak...honek emakumeak lanera sartzeko giro hobea ekarriko bailuke.

Frogatua da emakumeek atarramendu hobea ateratzen dutela antolamendu malgua duten enpresa modernoetan, ohiko eskema hierarkizatuak dituzten enpresetan baino.

Gizarteko eragileek, eta sindikatuek bereziki, ahaleginak egin beharko lituzkete, beraz, negoziazio kolektiboetan, lanean ari diren emakumeentzat aukera-berdintasuneko irizpideak sartzeko, emakumeak heziketa jarraitura eta laneko promoziora irits daitezten.

Halatan beraz, Gizarte eta ekonomiako eragileak sentsibilizatu eta enpresetan ekintza positiboko planak aurrera eraman daitezela sustatu nahi duen OPTIMA (Hobezina) bezalako programak bultzatzen jarraitu beharko da, kasu eginik bereziki, emakumeek eta gizonek lanean berdintasunez parte har dezatela eragozten duten faktoreei eta emakumeen egonkortasuna eta lanpostuz igotzea ziurtatuz.

Argi da etorkizunerako erronkak zaizkigula hauek oraindik, baina oraindik identifikatu gaberik baditugu segur beste batzuk ere, eta ezagun ditugunetan ere nola eta nondik heldu behar zaien eztabaidatzeko dugu oraindik. Hori guztia gauzatzeko euskal emakume guztientzat egoki izan den Euskadiko Autonomia Erkidegoko emakumeentzako ekintza positiboko Hirugarren Plana egiteko hemen zaudeten guztien lankidetzara behar dugu eta hala eskatzera ausartzen natzaizue.

Erne egon beharko dugu eta adi geure gizartean etengabe ematen ari diren aldaketei, dela unibertsalizazioagatik, dela teknologiako aurrerapenengatik, dela demografiaren bilakaeragatik gertatzen diren aldaketa ekonomiko, tekniko, sozial eta politikoei, alegia, elkarren artean eragiten baitute eta etengabeko berrikuntza ekartzen. Saiatu behar dugu, aldaketa horiek gertatzen direnean gu horietarako prest egoten, XXI. mendea beldur gabe has dezagun. Lehen esan dugun bezala, gure ikuspegiak estrategikoa behar du izan.

Bi hitzetan laburbilduz, alde askotatik heldu behar diogu lanari, emakumeek lan merkaturan bizi duten egoera hobetu nahi badugu. Emakumei lan merkatura aukera berdintasunez sartzeko laguntzeko alde horiek guztiak behar ditugu kontuan hartu eta haien gainean lan egin. Hori egin nahi ukan genuen Euskadiko Autonomia Erkidegoko emakumeentzako ekintza positiboko Bigarren Planarekin eta horixe egin nahi dugu Emakundetik. Eta hori bera saiatuko gara egiten denon artean aurrera aterako dugun Euskadiko Autonomia Erkidegoko emakumeentzako ekintza positiboko Hirugarren Planaren bitartez.

*Sarrera***1.**

Azken urteotan langabezia bihurtu zaigu, mende amaierako gizarte honek aurrean dituen arazo larrienetakoak. Fenomenoaren handiak eta ekonomia eta laneko politikek, epe labur edota ertainera, aterabide egokia aurkitzeko erakutsi duten ezintasunak ondorio larriak ekarri ditu, gizarte, ekonomia eta politika mailan. Dagoeneko ez da soilik, langabeziak biztanle asko txirotzen dituela eta gizartetik baztertzen, lan merkatuan sartzeko eta aritzeko baldintzak kaskartu egiten direla, edota gastu publikoaren gaineko presioa areagotu egiten duela. Gaur egun langabezia, lehen mailako arazo politikoa zaigu ere, gizartean gatazkak eta langabetuen mobilizazioak Europa osoan areagotu egin direlarik.

Gauzak horrela, langabezia eta eskasiari aurre eginen dieten bestelako politikak bilatzea ezinbestekoa zaigu. Beste proposamenen artean lanaldia laburtzearena dugu gizartearen eztabaidagai nagusia. “Lan gutxiago egin, guztiok egin dezagun” lemapean, berriro agertzen zaigu behialako eskari hau, 90. hamarkadan, langabeziari aurre egiteko bide berri eta bideragarri gisa. Eztabaidan oraindik ere arreta handia jartzen den arren ordutegiaren antolamendu malgua edota lanaldia laburtzeko moduak, edota lansariak egokitzea bezalako kontuen inguruan, azken urteotan gizartean hedatzen ari da, lanaldia laburtu eta lana banatzearen aldeko iritzia.

Dena den, salbuespen urri batzuk gora behera, lanaldia laburtzearen inguruko eztabaida oraindik oso lotua dago gizartea ulertzeko modu oso motzari, zeinak lan ordainuari eta diruzko jardunari baizik so egiten ez dion; izan ere, gizartearen antolamendua eta antolamendu ekonomikoa ulertzeko modu partzial eta desegokia dugu hau, gizakien produkzio zati haundiari garrantzi eskasa —edo batere ez— ematen diona, merkatutik at egiten den lana, diruaren ingurutik kanpo eginagatik ere, ekarpen ekonomiko itzela baita gure gizarterako; ekonomia eta gizartea ulertzeko modu androzentriko eta bidegabea dugu honako hau, onartezina, beraz, birbanaketa, justizia ekonomikoa eta gizarte aurrerapena bezalako hitzetan aurkezten den —baita erakundeen beraien ahotan ere hitz hauek entzuten baitira— proposamen baterako.

Artikulu honekin esatera nator, lanaldia laburtu eta birbanatzeko proposamenek behar dutela, lan merkatuaren jardun eremu estua gainditu eta ekonomiaren ikuspegi osotuagoa bereganatuz, onar dezatela jardun ekonomikoetan eginiko lan kopuru osoak barnean eduki behar duela, ordainduri-ko lanaz gain, baita ordaingabeko lana ere. Kontu hau biziki garrantzitsua zaigu, ikusten ez den ekonomia argira ekartzeaz gain, aukera ematen duelako, gizartean egiten den lan guztiaren karga zenbatekoa den eta nola banatua dagoen ikusteko. Halatan bakarrik, benetako tamaina neurtu ondoren, alegia, bila ditzakegu, benetako birbanaketa eta banaketa berdintzaileagoa ekarriko dituen lanaldiaren laburpenerako formulak. Horixe behar dugu, lanaldia laburtzeko ikuspegi teknokratiko eta instrumental hutsa gainditu eta proposamen horiek, gizarte zuzen eta berdinzaleagoa eraikitzeko duten ahalmen askatzailea gurea egin.

70. hamarkadaren hasieraz geroztik, jende ugarien langabezia agertu eta, batez ere, mantendu izanak eraman ditu pixkanaka gizarteko sektore dexente, onartzera lana "onura urria" dela eta, gaur egun ezagutzen dugun moduan bederen, desagertzeko bidean izan litekeela. Ideia honi indarra ematen diote, hasiera batean, eskasia eta ezegonkortasuneko adierazle ugariak. Laneko Nazioarteko Erakundeak (LANE, 1994) dioenez, mundu osoan lanik gabe edo lan eskasetan, 90.eko hamarkadaren erdialdean ziren pertsonak, 800 miloi inguru ziren. Europar Batasunean berriz, langabezia etengabean gora joan da azken bi hamarkadetan, gaur egun 18 milioitik gora langabetu izateraino, izan ere biztanleria aktiboaren %11 delarik (EC, 1996). Espainiar Estatuan, berriz, Europar Batasuneko langabezia maila gorenak, %20aren inguruan, daudelarik, 3 miloi pertsona baino gehiago daude langabe (INE, 1997).

Jende ugari jo duen egiturazko langabezia hau, mende amaierako gizartean kokatua dago, eta aurreko garaitako baikortasun liberalaren orde, gaur egun ia inork ez du uste, ekonomiaren berriantzek edota egun ditugun lana suspertzeko politikek jar gaitzaketenik, ororentzat lana izateko bidean. Gaur egun oso zaila da esatea, orain arte egin den bezala, ekonomia industrial aurreratu gehienek jasaten dituzten langabezia maila gorak, azken urteotako hazkunde ekonomiko geldo eta ahulak eraginiko fenomeno koiuntural hutsa denik. Aitzitik, garai hauetako fenomeno berria da, izan ere, ekonomia bizkorreneko aldietan ere, langabezia tasak arras gora mantentzen direla eta hazkundeko adierazleak sendotzearekin ez dela lana era berean emendatzen (1)

(1) Esate baterako, Europar Batasunean, laurogeigarren hamarkadako hedatze zikloak ezin txikiagotu zuen langabezia maila %8tik behetik (1990ean lorturiko maila baxuena), betiere langabetuen kopurua 12 milioien inguruan mantendu zelarik. Eta Barne-Produktu Gordina, azken 20 urteotan (1970-1992) %80ra igo bada ere, lana, guztira ez da emendatu %9a baizik (EEE, 1994). Pareko bilakaera ikus daiteke Espainiar Estatuan ere, non, aldi horretan, BPGa bikoiztu baino gehiago egin den, baina lanean direnen kopurua, ordea, ez da apenas aldatu, 12,5 miloi pertsonen inguruan geldirik. Eraberean, Espainiako ekonomiak, 1985etik 1990era bitartean bizitu zuen hedapen zikloak oso gutxi eragin zituen langabeziako tasak, betiere %15etik gora.

Langabeziaren aterabidea, inbertsioa eta ekonomiaren dinamika sustatuko duen politika hedatzailearen eskutik etorriko dela esaten dionik oraindik bada ere (2), lan gabeko hazkuntzaren maila ordea, etengabe urrutiratzen dizkigu, krisia baino lehen genuen lan maila berriro lortzeko ametsak.

Bestaldetik, askoren ustetan, politika makroekonomikoek eta lan-politikek porrot egin dute langabeziaren arazoa konpontzeko zereginean (3), eta etorkizunean konpontzeko ematen diren malgutasun, desarautze eta doitze errezeta jakinak ere ez doaz bide hobean. Zeren eta bi hamarkada eman ondoren berregiturak eta doiketak egiten, malgutasuna areagotzen eta laneko kostuak urritzen, gaur egungo langabezia-tasak, herrialde industrialdu gehienetan, inoiz baino gorago daude. Hau guztia aurreikus zitekeen arren (4), azken urte hauek argi eta garbi utzi dizkigute, lan merkatua malgutzeko asmotan, lanean ezegonkortasuna, eskasia eta informaltasuna ezarri bai baina langabeziaren maila jaitsi ez duten politiken muga nabarmenak. Porrot eta etsipen artean, ororentzako lana ezin lorturiko amets zoroa bihurtu da, eta halatan, pixkanaka desagertzen joan da, politika ekonomikoaren helburu bezala.

Giro honetan, azken urteotan hedatzen joan da, lanaren gainbehera "iragarritako heriotzaren kronika" dela (Aznar, 1994), luzera doan joera baten ondorioa, hau da: gizarte postindustrial baterako bidean, gizakien lana pixkanaka eta sistematikoki desagertzen ari da produkzio prozesuetatik, halatan leku eginez, lanpostu berririk gabeko hazkuntzari. Gainbehera honen zio nagusia

(2) Zalantzarik gabe, politika hedatzaileak, langabeziari aurre egiteko politikaren parte izan daiteke eta izan behar du, baina garrantzizko bi ñabardura egin behar zaizkio ordea. Lehenengoa, jende ugari hartzen duen egiturazko langabeziako egoeratan, ekonomiaren dinamika suspertzearekin bakarrik ez da aski izanen, azken 20 urteotako bilakaerak ongi adierazi duen bezala. Honi buruz Eusko Jaurlaritzak egin berri duen ikerketa batek esaten du, gaur egun Euskadiko Autonomia Erkidegoak duen langabezia-tasa, Europako Erkidegoko herrialdeetako mailara jaisteko (ez da gehiegi eskatzea), produktibitatea urteko %2a igoz, urteko %4 edo 5eko etengabeko hazkuntza ekonomikoa beharko litzatekeela, datozen hamar urteetan; izan ere, pentsaezinezkoa. Espainiar Estatuaren kasuan, urteko %3ko hazkuntzarekin 1995etik 2000 bitartean, langabezia tasak izanen lirateke, bost urte horien ondoren, oraindik ere %24tik gora (LANE, 1995). Bigarren ñabardura ingurugiroaren ikuspegiari dago loturik; ekonomiaren mugagabeko hazkuntza, posible izatekotan ere, ez dirudi komenigarria denik ingurugiroaren ikuspuntutik. Ingurugiroaren krisia susmatzen besterik ez gara hasi, ezkutuan baitago, ekologi-defizita, luraren degradazioa edota baliabide naturalak galtzea kontabilizazio ez direlako. Baina alarma guztiek adierazten dute, herrialde industrialduenen produkzio eta kontsumo eredu mantendu eta mundu osora hedatzeak ekarriko lukeela, baliabide naturalak agortzeko epea arras laburtzeaz gain, inguruaren kutsadura eta narriadura mailak nabarmenki handitzea, eta honek sistemaren oinarri materiala honda lezake. Halatan bada, langabeziari ihes egiteko, egungo produkzio eta kontsumo mailak emendatzeak, duda mudazko arrakasta lortzeaz aparte, luze gabe, hondamendira garamatza. Soilik gizakien setakeriak eta nagikeria politikoak eragotzen dute, gai hau, etorkizunari buruzko edozein debataren ardatz nagusia izatea.

(3) Langabeziaren aurkako politikek erabateko porrota egin dute Europako herrialde gehienetan. Aitzitik, Estatu Batuetan lortu duten nolabaiteko arrakasta lortu da sektore behartsuenen diru sarrerak erabat urrituz eta eskasia eta ezegonkortasuna izugarri areagotuz.

(4) Ikus Anisi (1995) 80. hamarkadako egiturazko doiketa politiken eta langabeziaren emendatzearen arteko harremani buruz.

dugu, gizartearen informatizazioan eta teknologia berrien erabateko hedapenean oinarrituriko aurrerapen teknologikoa: informatika, robotika, telekomunikabideak (Aznar, 1994, Gorz, 1989) (5). Ikuspegi honetatik, benetako iraultza teknologikoaren aurrean geundeke, etorkizunean produkzio-rako behar diren lan orduak nabarmen urrituko dituen ekonomia sektore orotan; berrantolaketak sakon honek jartzen gaitu, hortaz, "lanaren amaieraren" aurrean (6) (Rifkin, 1996; Schaff, 1997).

Hortaz, enplegua eskatea litzateke, lana pixkanaka eta ezinbestean desagertzearen adierazpen nabarmenena, hau da, garapen teknologikoak eta honek soldatapeko lanaren produktibitatean eraginiko ondorioek ekarri duten eskasiaren adierazpena. Dena den, langabezia teknologikoaren ideia honek jendea liluratu egiten duen arren, aldaketa teknikoaren eta enpleguaren arteko harremana ez dago aurretik erabakia. Historian zehar aldaketa teknikoek lanaren produktibitatea, hau da, lan unitate bakoitzak emaniko produkzioa, areagotu duten arren, ez dugu ahaztu behar, azken 200 urteotan joera hau bateratu ahal ukan dela, soldatapeko lan indarra eta enplegua oro har handitzearekin (7). Zeren eta produktibitate handiagoak esan nahi baitu, besterik gabe, ondasun eta zerbitzu kopuru jakin bat sortzeko behar diren lan orduak gutxiago direla, baina horrek ez du zertan derrigorrez ekarri behar, lanpostuak gutxitzea. Enpleguak gora edo behera egingen du,

(5) Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte-laguntzako Sailak, 1997an "Lana eta Lanaldia: mende amaierako erronka" izenpean antolaturiko II Jardunaldietan eman zuten hitzaldian, Leontief-ek esaten du berriz ere, teknologia berriek, eta bereziki automatizazioak, produkzioan erabiltzen den lan eskua urritu egin duela. Egileak esaten du, automatizatze prozesu hau lanaldia mantenduz emateak ekarri dituela, asteko lanaldia laburtuz baizik zuzen ez daitezkeen egiturazko langabezia tasa handiak.

(6) Rifkin-ek (1996) Iparramerikako, Europako eta Japoniako enpresa handietan, 80. hamarkadaren hasieratik emaniko lanpostuen desagertpenen adibide anitz ekartzen dizkigu. General Motors-ek 1978tik 1993ra galdutako 250.000 lanpostuak kasurako, edota ATT-k, 1981etik 1988ra galduriko 180.000, edo General Electric-ek 1981etik 1993ra galdutako 170.000. Egileak dioenez, lanpostu hauetako gehienak gehienak desagertu egin dira eta gehiago desagertuko omen dira, ezinbestean, teknologia berriak, automatizazioa eta lanaren berrinjinerutza direla medio. Rifkin-en ustez, iraultza teknologiko honen emaitzak ez dira halere aurretik erabakiak: utopiazko etorkizuna daiteke, denbora aiseko gizartea, pertsona guztientzako lan ordu gutxiagokoa, edota, bestalde, amesgaiztoko gizartea, bitan banatua, jende ugariaren langabeziak, desberdinkeriak eta baztertzeko moldaturiko gizartea. Bata ala bestea izanen den erabakiko du, produktibitatearen mozkinak banatzeko moduak. Ildo beretik, lanaren amaieraren ideiak dituen defendatzaile sutsuenetako den Gorz-ek gogora ekartzen digu, Estatu Batuetako 500 enpresa handienetan, lanpostu iraunkor eta egun osoko enportzentaia, jadanik ez dela ororen %10a baizik (Gorz, en Aznar, 1994:16).

(7) Ikus Pahl (1984) azken 250 urteotako azterketa historiko xehea nahiz gero. Ikuspegi honetatik, jende ugariaren langabezia ez da garai hauetako fenomeno berria eta berezia, baizik eta merkatuko ekonomiei estu loturiko osagarri errepikakorra; historian zehar ohizkanpoko ez da langabezia, baizik eta 50 eta 60. hamarkadetakoa gizonezko guztientzako lan aukera. Recio-k dioen bezala (1997) hori ez dago teknologiari lotua, baizik eta sistema ekonomikoa gidatzen duten gizarte harremanei lotua.

produktibitateari loturiko beste aldagaiek egiten dutenari jarraiki, bereziki produkzio-kopuruari eta lanaren tamainari jarraiki (8) (Recio, 1997).

Ildo honetatik jarraituz, azterlari zenbaitek azpimarratu dute, gaur egungo lan eskasia ulertzeko funtsezko faktorea dela, 80. hamarkadaren erdialdeaz geroztik, herrialde industrialdu nagusietan, lanaldi osoko urteko lan denbora laburtzeko joera gelditu —alderantzikatu ere— egin dela (Marchand, 1992; Husson, 1994). Bilakaera hau atzerapauso larria da 1960tik 1985. urte bitartean, herrialde hauetako gehienetan, urteko lanaldia dexente laburtzeko aukera eman zuen dinamikarekin konparatuz gero. Garai haietan bada, urteko lanaldia %20tik gora laburtu zen, Belgika, Holanda eta Alemanian Federalean, non hasieran lanaldia beste lekutan baino luzeagoa baitzen. Frantzia, lanaldiaren batezbesteko laburpena urteko %1ekoa izan zen 1960tik 1980ra, eta Suedian, EEBBetan eta Kanadan, berriz, non hasierako lanaldiak laburragoak baitziren, gutxi-xeago laburtu ziren. 1980tik aurrera, lanaldi osoko lan denbora laburtzen joateko joera hau gelditzen joaten da OCDEko herrialde guztietan, Alemanian ezik; Suedian, EEBBetan eta Kanadan, berriz, zertxobait luzatzen da. Harrezkero, soldatapeko lanaren batezbesteko denboraren laburpen seinagarri bakarra, denboraldi murrizteko lanaldiaren hedapenak ekarri du, izan ere, lan mota hau izugarri hedatu baita 1985az geroztik (INSEE, 1997) (9).

Bestalde, lanaren amaieraren ideia honek arinegi emana dirudi, ikusirik nola ikerketa berri batzuek erakusten diguten, OCDEko herrialdeetan enpleguaren emendatzearen erritmoa ez dela ia aldatu azken 35 urteotan —70. hamarkada barne—. Halatan bada, LANE-k eman berri duen txosten batek (1997) ziurtatzen du, lanean zenbat langile diren zenbatu beharrean, kontuan hartzen bada urteko zenbat lan ordu izan diren, epe luzera ikusten den bilakaerak erakusten digula herrialde horietan ez dela lan eskaintza urritu; ez da urritu egiteko dagoen lanaren kopurua, ez eta enpleguaren emendatze erritmoa ere. Ildo beretik joanez, Europar Batzordeak esaten du, pentsatzen denaz bestalde, enpleguaren indarra, hau da, hazkuntzan enpleguak duen eragina, Europar

(8) Aurrerapen teknikoak eta berrikuntzei loturik jardun sektore eta produktu berriak sortzeak duten zeharkako eraginaz gain, beste faktore anitzek lagun dezakete enplegua handitzen: produkzioa produktibitatearen handitzea baino gehiago emendatzeak, lanaldia laburtzeak, kontsumoa areagotzeak, biztanleria aktiboa berrantolatzeak, lana, adin jakin batetik behetik edo goitik debekatuko duten arauak ezarriz, emakumeak lan merkatura sartzen edo ez sartzen laguntzen dituzten politikek, migrazioaren dinamikak, etab. Argi da aldaketa teknologikoen hasiera batean kalte handiak ekar ditzazkiokeela enpleguari, prozesu eta produktu berriak sartzeko eragin ditzakeen lanpostuen galerak direla eta. Baina epe ertainera, ordea, ezin zehaz daiteke zer nolako eragina ukan dezaketen berrikuntza prozesu hauek eta aldaketa teknologiko honek

(9) Eurostat-en datuei jarraituz, 1993an, EBeko (12) lanaldi osoko soldatapeko langileen batezbesteko urteko lanaldiaren luzera 1.797 ordukoa da. Lanaldi luzeena Erresuma Batuak dauka, urteko 1.953 ordukoa, jarraian Irlanda, Portugal, Grezia eta Espainiar Estatua datoz, batezbestekoaren gainetiko lanaldiekin (1.860tik 1.807 ordu bitartekoak). Frantzia, Holanda eta Luxenburgo batezbestekoaren inguruan ditugu. Batezbestekoaren azpitik berriz, Danimarka, Alemania, Belgika eta Italia agertzen zaizkigu, urteko 1.747tik 1.709 ordu bitarteko lanaldiekin. Suedian, urte horretan Eurostat-en estatistikatan ageri ez bada ere, urteko lanaldia 1.500 ordu inguruan dago (INSEE, 1997).

Batasunean azken urteotan gutxitu beharrean, handiagoa dela gaur egun 60. hamarkadan baino (EE, 1994) (10).

Dena den, industrialduriko herrialdeetan enplegua orokorrean urritu ez bada ere, laneko baldintzak erabat aldatu dira azken hamarkadotan (Wood, 1989). Alegia, jende ugari langabeziak eta enpleguaren eskasiak ez dute lanaren amaiera edota soldatapeko gizartearen aurrera ezina erakusten, baizik eta 70. hamarkadako krisi ekonomikoa gertatu aurretik, gizarte industrialduenatan lan harremanak antolatzeko zegoen eredu nagusiaren krisia eta agian bukaera ere bai (Offe, 1997). Gaur egun falta direnak ez baitira lanpostuak, oro har, baizik eta lanpostu mota bat, oraindik "arruntak" deitu ohi ditugunak, hau da, lanpostu egonkorak, mugagabeko kontratuz eginak, lanaldi osokoak eta zeregin zehatzetarakoak. Izan ere, lanpostu "arrunt" hauen proportzioaren urritze izugarriarekin batera eman da, kontratatzeko "ezohiko" modu berriak ugaritzea: aldi mugaturakoak, lanaldi murriztekoak, etenak, aldian behingoak, norberaren konturakoak, etab. Bi fenomeno hauek batera emateak adierazten digu, koska ez dela lana sortzea —nahiz eta hau ere gutxiegi den dagoen biztanleria aktiboarentzat— baizik eta nolako lana sortzen den.

EB(15)eko lanaren dinamikak badirudi baieztatzen digula, lanpostu egonkor eta lanaldi osokoen ordeztu, aldi mugatu eta lanaldi murriztekoak sortzeko joera. EBean, 1980az geroztik sortu diren lanpostuen erdia baino gehiago, aldi baterakoak edota ezohikoak izan dira (CES, 1996). Eurostat-en datuei jarraiki, 90. hamarkadaren lehen erdian sorturiko lanpostu gehienak, lanaldi murriztekoak izan ziren, eta garai berean galdutako lanpostuak, berriz, ia denak lanaldi osokoak izan ziren. 1995ean besterik gabe, sorturiko lanpostuetako hiru laurdenak, lanaldi murriztekoak izan ziren. Bilakaera berbera ikusten da aldi mugaturako lanpostuekin, hamarkada honetan EBean sorturiko lanpostuen gero eta proportzio handiagoa hartzen baitute. 1995ean, EBeko gizonen lanpostuen emendatze osoa eta emakumezkoen lanpostuen emendatze garbiaren ia erdia, aldi mugaturako lanpostuena izan zen (11) (EC, 1996).

Lanaren berrantolaketa agertzen zaigu ere, Husson-ek, enpleguak 1979-1989 bitartekoan Europako bost herrialdetan, Japonian eta Estatu Batuetan eginiko bilakaerari buruz eginiko ikerketa batean (1994). Kontuan hartu zituen bost herrialdetan, Husson-en azterketak erakusten digu ha-

(10) Hazkuntza, lehiakortasun eta enpleguari buruzko Liburu Zuriak bilduriko datuek erakusten digute, enpleguaren indarra, enplegua sortzearen tasa, ekonomiaren hazkuntzari loturik, 1974-1985 aldian izan zela 1960-1973 aldian baino handiagoa, baina ez halere, enpleguaren emendatze-tasa positiboak mantentzeko adinakoa, BPGren hazkuntza tasa jaitsi egin zelako. LANEren txostena eta EEren Liburu Zuria bat datoz esaten, langabeziaren emendatzearen arrazoia ez dela lan eskaintza urritu izana, baizik eta biztanleria aktiboa gehiago handitu dela lan eskaintza baino, bereziki 1973az geroztik. Eta alde hau gertatu da, batez ere, emakume ugari sartu delako lan merkatura, haien jardun tasa handitu egin delako.

(11) Espainiar Estatuan eta Frantzian, non aldi mugaturako kontratuak dituzten soldatapeko langileen proportzioa, EBeko handiena den, 1995eko lanpostuen emendatze garbi ia guztia, aldi mugaturako lanpostuena izan zen (EE, 1996). Espainiar Estatuan, aldi mugaturako kontratuak pasa dira, 1987ko bigarren hiruhilekoan, soldatapeko guztien %15,6 izatetik, 1997ko bigarren hiruhilekoan %33,6 izatera (Biztanleria aktiboko inkesta, 1987 eta 1997). Espainiar Estatu soldatapeko lanaren eta laneko baldintzen kaskartzeaz ikus Prieto (1994) eta Muñoz de Bustillo (1993).

sieran bitxia dirudien bilakaera: alde batetik ia lau miloi lanpostu garbi sortzea; bestaldetik berriz, hamarkada horretako lan kopuru osoa, urtean %0,2 jaistea. Bi alde hauek batera joan daitezke, funtsean, aldi mugatuko lanpostuak emendatu zirelako, enplegu garbiaren %83a izateraino emendatu ere. Lanpostuen araberako baloraketak ez bezala, lan orduen araberako baloraketak erakusten digu, lanaldi murrizteko lanpostu berriek osatutako lan orduak (1,3 miloi) askoz gutxiago direla, lanaldi osoko lanpostuak desagertzearekin galtzen direnak baino (5,3); galera garbia ia 3.300 miloi ordukoa da, beraz. Aldi berean, lanaldi murrizteko lana emendatzearekin batera, emakumeak lan indarra bihurtu dira, lanpostu berriak gizon eta emakumeen artean oso modu desberdinean banatzen direlarik. Lanpostu garbitako 4 miloiko kopurua ateratzen da, emakumeentzako sorturiko 4.700.000 lanpostuei, gizonen galduriko 700.000 lanpostuak kenduz. Baina emakumeen lanpostu berrietako ia bi herenak lanaldi murriztekoak diren bitartean (3.300 miloi ordu), gizonen galduriko ia lanpostu guztiak lanaldi osokoak dira (6.500 miloi ordu), eta horrela uler daiteke lehen aipatu dugun orduen eskasia gertatzea. Emakumeak lan merkatuaren daramatzen bitartean, lanaldi murrizteko lanarena da, hain segur da horrela ezen emakumeen lanaldi murrizteko lana baita gaur egungo lan merkatuaren lan modu garrantzizkoenetakoa, eta "ezohiko" lanaren modu zabalduna.

Bestalde, lan merkatuaren berrantolaketa, eta bereziki kontratatze modu "ezohikoak" gora joatea estuki lotua dago, ordutegiak malgutu eta dibertsifikatzeko joerarekin. Zenbait adituen ustetan, gizarte industrialdu fordistetan ematen zen lanorduen antolamendu estandarizatu eta homogeneoa alde batera utzi eta orain soldatapeko lanaren luzaera, erritmoa eta ordutegiak, gero eta bariatuagoak dira. Egiturazko joera hau dator, alde batetik, instalazioak ahal bezainbeste baliatze-ari loturiko faktore ekonomikoetatik, eta beste aldetik, gizartean denboraren antolaketa aldatzen ari diren faktore soziokulturalengatik, demografian, familiaren egituraren eta emakumeak lan merkatuan duen partehartzean ematen ari diren aldaketak direla medio (Boulin et al., 1992). Malgutasuna bilatzea, enpresari eta erakundeen leitmotiba bada ere, soldatapeko gehienentzat berriz, lanaldi aldakor eta banakatua edukitzearen balizko onurak ez dira argi agertzen. Aitzitik, egungo egoeran, malgutasuna negozioazio kolektiboaren eztabaidagai nagusia da eta lotura estua dauka lanaren kaskartzearekin.

Halatan bada, (soldatapeko) lanaren amaieraz eta eskasiaz mintzatu beharrean, egokiagoa da, lan merkatuaren berrantolaketaz eta bereziki ezegonkor bihurtzeaz (12) mintzatzeko, eta hedaturiko langabezia kokatzea, herrialde gehienek, 80. hamarkadaren hasieratik, aurrera eraman di-

(12) LANE-k onartzen badu ere, 70. hamarkadaz geroztik, OCDEko herrialde ia gehienetan areagotu egin dela "ezohiko" lanpostuen portzentaia, esaten du ere, herrialde gehienetan ez dela, esaten den bezainbeste areagotu eta ez dakarrela berez, aldi berean lanpostu arruntak desagertzea. LANE-k esaten du (OCDEko herrialdeetako lanean jarraitze metatuari buruzko eta behin-behineko lanean irauteari buruzko) datuetako bakar batek ere ez duela frogatzen, gaur egun lanpostu aldaketa gehiago denik, ez eta lana gero eta ezegonkorragoa denik ere... (ez eta ematen denik) alde orotan, ezegonkortasunerako joera nabarmenik, ekonomia industrialdu handietan" (LANE, 1997:37). Herrialde industrialduen artean, laneko jarraipenean ikusten duen salbuespen bakarra, Espainiar Estatua dugu, non lan eskuaren txandaketa nabarmenki areagotu baita.

tuzten doitze politika neoliberalen eta berrantolaketa ekonomikoko prozesuen eremuan (Lipietz, 1989; Recio, 1995); honen guztiaren emaitza nabarmenetakoa, lan merkatura sartzeko eta bertan aritzeko baldintzak kaskartzea izan da. Hala bada, Bouffartigue-rekin batera (1997) esan dezakegu, "langabeziaren garrantzia ez da ikusten, ez bada soldatapeko egoeraren kaskartzeari estuki loturik" eta luzaroko langabezia ez dela, baizik eta lanaren kaskartzearen azken muturra; lan moduen aniztasunak eta lan kontratua juridikoki kaskartzea batera ematen dira, lana eta denbora kudeatzeko beste moduekin, hartara lan harremana banakakotu eta ahuldu egiten delarik. Horrela ulerturik bakarrik, eta onartuz azken 20 urteotan, soldatapeko egoeran emaniko aldaketak neurri batean itzuliezinekoak direla, esan daiteke, soldatapeko lanak galdu duela gizartean zuen nagusitasuna, ez duela jadanik betetzen, eskubide sozialak eta diru sarrerak eman eta banatzeko zeregina, eta halatan utzi diola gizarteratze eta hiritartze faktorea izateari (Offe, 1997).

3. *Lan eskutua eta ekonomia ikustezina*

Enpleguaren krisiagatik zabaldu da gaur egungo gizartean, lanaren amaieraren aurrean gaude-neko ideia. Halere, merkaturako ekonomian, enpleguaren murrizketa eta lan baldintzen berrantolaketa, lan munduaren dinamikaren parte bat besterik ez du adierazten. Egoki izan edo ez izan, diagnosi hori soldatapeko lanaren eremura, enplegura, mugatzen da, eta lan hori, gizarte industrialdu aurreratuetan lanaren paradigma dugu baina ez da inolaz ere, gizartean eta munduan egiten den lan mota bakarra. Soldatapeko lanarekin batera, beste zeregin produktiboak ditugu, diruzko ordaina ez duten arren, beste pertsonentzat ondasunak eta zerbitzuak egiteko, denbora eta energia inbertitzea eskatzen dutenak. Zeregin hauen artean ditugu, autoprodukziokoak, bizirik irautekoak, senitartekoei emaniko laguntza, borondatez eginiko lana eta, batez ere, etxeko lana. Lana deitzea bakarrik diru ordaina duten zereginei, merkaturako trukaketaren logikan sartzen direnei, lana eta enplegua nahastea da, eta horrela kontuan ez hartzea lan merkaturatik at egunero egin ohi den produkzio jardunaren zati handia eta honen ekarpen ekonomiko itzela. Osoko produkzioa gutxiesten da, Nazioko Kontuetako Sistemetan (NKS) (13) sartzen ez direlako merkaturatik pasatzen ez diren zerbitzu eta ondasunen banaketa, metatze, kontsumo edo produkzioa. Aldi bere-

(13) Tradizioz, NKS-ek baztertu edota gutxietsi dute, besteak beste, hiru jardun eremu handietako produkzioa: bizirik irauteko produkzioa, produkzio informala eta etxeko produkzioa (Benería, 1992). Lehen eremuaren produkzioaren gutxiespenak, gutxi industrialduriko herrialdeen kalterako egiten da batez ere, hango biztanleriaren zati handi bat, autohornikuntzaz bizi baita. Produkzio informalak jardun eremu zabala hartzen du, etxeko produkzio ordaindutik hasita, mikroenpresetara, bai eta legez kontrako zenbait jarduera ere; produkzio mota hau neurtzen zaila bada ere, esan daiteke funtsezkoa dela batez ere garapen bidean diren herrialdeetako hiri inguruetan. Baina jarduera ikustezinetan ikustezinena, familiaren autokontsumorako etxeko produkzio ordaindugabea dugu, izan ere ekonomia neoklasikoak eremu ekonomikoaz at jartzen duena. Jardun eremu hauetan denetan emakumeek parte handia hartzen duten arren, etxeko produkzioan erabat nagusi dira eta ikustezintasuna inon baino handiagoa da, etxearen eremua ez baita produkzio eremutat hartzen, baizik kontsumoko eta lan indarraren ugalketa biologikorako eremutat.

an, merkatuz kanpoko produkzioa NKS-etatik at uzteak dakar produkzio hori egiten duen biztanleria ez dela ere, lan indar bezala hartua izanen eta laneko estatistikatan ez dela agertuko, zeren eta lantzat hartzen baita bakar bakarrik, denbora diruaren truke ematen denean. Halatan bada, ordaingabeko produkzioa baztertzeak dakar, produzituriko ondasunen eta aberastasunaren gutxiesteaz gain, baita biztanleriaren sektore handiek egiten duten ekarpen ekonomikoaren eta ordu kopuruaren gutxiestea ere (14). Baina gainera, "eskasiaren" argudiotik begiratuta, lanaren kontzeptua enplegura soilik mugatzeak, lan ordu eta balio kopuru handia baztertzea dakar. Eta lanaren banaketaren gaineko eztabaidaren zati handi batek, eskasiaren ideia inguruan jirutzen duenez, arrazoizkoa dirudi, lanaren birbanaketaren kontuari aurre egin baino lehen kontuan har dezagun zein den eta nola banatzen den, gaur egun gizartean egiten den lanaren karga osoa, ordaindua eta ordaingabea.

Emakumeentzat garrantzi ekonomiko eta politiko berezia dauka merkatuz kanpoko produkzioa kontuan hartua ez izanak, ez bakarrik beraiek direlako jardun ordaingabeetan denbora gehien ematen dutenak, baina baita ere, jardun horietan, etxeko lanetan bereziki, presentzia askoz handiagoa edukitzea, beren menpekotasunaren gako bat delako. Hain zuzen ere, horrexegatik jarri du, mugimendu feministak, hasiera hasieratik, bere jardunaren ardatzean, emakumeen ekarpen ekonomikoa agerian jartzea eta etxeko lanari berea duen izena onartaraztea. Baina batez ere azken bi hamarkadotan bihurtu da etxeko produkzioaren eta emakumeen ekarpenaren balioztatzea, lehentasunezko arazo politiko eta teorikoa, bihurtu ere, aurrerapen kontzeptual, teoriko eta metodologikoen aukera eman dutenean, gero eta argiago azaltzeko ekonomiaren aurpegi iluna eta sexu ezkutua (Benería, 1992, 1995; Waring, 1988; Carrasco, 1991; Durán, 1987).

Kontularitza mailan, herrialde askotako ikerketa anitzek zenbatu dute eta dirutan baloratu, lan ordaingabearen dimentsioa (15). Ikerketa hauetatik ateratzen den ondorioa kezagarria da: estatistika ofizialek ezkututzen duten ikustezinezko ekonomiaren balioa, BPG ofizialaren herenetik erdira bitartekoa omen dugu (Goldschmidt-Clermont, 1995; Durán, 1997), eta lan horretako gehiena emakumeek eremu pribatuan eginikoa omen da. Ondorio honekin bat egitera dator, Nazio Batuen Giza-garapenerako Programak (NBGP), 1995eko txostenean bildutako informazioa; izan ere dokumentu hau izan da, azken aldi honetan, emakumeek munduko ekonomiari eginiko ekarpena eta diru bihurtu gabeko produkzioaren zenbatekoa ezagutzera emateko gehien lagundu duten dokumentuetako bat. 31 herrialdeetako lagina harturik, emakumeek eta gizonek denbora nola erabil-

(14) Adierazle ekonomikoen alderdikeria eta estatistika ofizialek, produkzioko, garapeneko eta ongizatearen mailak behar bezala adierazteko ezintasuna posizio askotatik izan dira kritikatuak. Etxeko produkzioaren ekarpen ekonomikoa eta merkatuz kanpoko eta bizirik irauteko jardunak gutxiestea ez da izan arazoak dituen NKS-en alderdi bakarra. NKS horien oinarri kontzeptual eta metodologikoen sakonki berrikustea eskatu dute ere, ingurugiroa zaindu eta babesteko zereginetan diren sektoreek, ingurugiroa hondatzearen kostuak kontuan hartzen ez baitituzte Kontu Sistema havek (Naredo y Parra, 1993).

(15) Diru egin gabeko lana zenbatzeko, eguneroko zeregin desberdinetan zenbat denbora erabiltzen den neurtzeko aukera ematen duten denborako aurrekontuko inkestak erabiltzen dira. Nahiz eta denboran neurturiko kalkuloetan zaila den zereginak mugatu eta osoko produkzioan bereiztea, orokorrean uste da lan denborako input-en bidezko neurtzea dela, gizartean egiten den etxeko edota ordaingabeko lana kalkulatzeko modu egokiena.

tzen duten aztertuz (16), NBGP-k bilduriko txostenak erakusten du, lehenik, munduko gizon eta emakumeen lan denboraren erditsua, bizirik irauteko sektore edo merkatuko jardunetan erabiltzen dela; beste erdia erabili ohi da etxeko edo komunitateko ordaingabeko (erroldatu gabeko) jardunetan. Bigarrenik, datuok erakusten dute, laginean diren herrialde gehien gehienetan, emakumeek gizonek baino ordu gehiagotan egiten dutela lan, batezbeste, garatze bidean diren herrialdeen lan karga osoaren %53a eginik, eta industrialduenen %51 (17). Eta hirugarrenik, datu hauek erakusten digute, emakumeek munduko lan karga osoaren erdia baino gehiago egiten badute ere, lan denbora horren herena besterik —hala herrialde industrialduetan nola garatze bidean direnetan— ez dela NKS-etan agertzen diren jardun merkatugarri eta ordainduetan sartzen. Herrialde industrialduetan, emakumeek, beren lan denbora osoaren bi heren ematen dituzte ordaingabeko jardunetan, eta herena, berriz, ordainduriko lanetan. Aitzitik, gizonek bi herenak ematen dituzte ordainduriko lanetan, eta herena ordaingabeko lanetan. Garatze bidean diren herrialdeetan, gizonezkoen lanaren hiru laurden baino gehiago ordainduriko lana da, eta emakumeen lanaren bi heren aldiz, NKS-etatik at geratzen da. Halatan beraz, gizonezkoen lanaren gehienak diru sarrerak jasotzen ditu, eta bere ekarpen ekonomikoa aintzat hartua da, baina emakumezkoen lan gehiena berriz, ordaingabea da oraindik eta ez da aintzat hartzen, ikustezina da oraindik orain (18). NBGP txostenaren arabera, baldin eta ordaingabeko lana zenbatuko balitz, merkatuko truke moduan, merkatuko ohiko soldatak aplikatuz, 1995. urtean sorturiko diru kopurua 16 biloi (16.000.000.000.000) dolarretakoa litzateke, hau da, urte horretarako ofizialki balioztaturiko munduko produktuaren (23 biloi dolar) %70a baino gehiago (19). Balioztatze honek barnean har-

(16) Lagina hartua da, industrialdutako 14 herrialde, garatze bideko 9 herrialde eta Ekialdeko Europako eta Estatu independenteen Erkidegoko 8 herrialdeetan denboraren erabilera ikertu duten zenbait ikerketatik, eta NBGPan bilduak dira, ondoko lanetatik harturik: Goldschmit-Clermont & Pagnossin-Aligisakis, 1995; Harvey, 1995; eta Urdaneta Ferran, 1994. Antzeko lagina aurki dezakegu, Bizitza eta laneko Egoera Hobetzeko Europako Fundazioak bilduriko denboraren erabilerei buruzko datuen Artxiboan, non 16 herrialdeetan, azken 30 urteotan eginiko inkestak agertzen baitira.

(17) Bestalde, emakume eta gizonen merkatura daitezkeen laneko ordu guztien kopurua eta proportzioak, zati batetan baizik ez digu erakusten denbora ekonomikoaren ekarpenaren garrantzia, ez digu ordea erakusten lanaren intentsitatea edo indarra. Puntu hau behar beharrezkoa zaigu etxeko produkzioan, zeren eta hango egiteko anitz —emakumeek egiten dituztenak bereziki— batera egiten baitira eta gainera etengabean, egun osoan zehar.

(18) Gainera, ikustezintasun honek berebiziko garrantzia dauka, zeren eta merkatuan ordainduriko gizonezkoen lana, maiz emakumeekin eginiko lana izan ohi da, ezin eginezkoa litzatekeena, baldin eta emakumeek bere denboraren zati handi bat emanen ez balute etxeko lanetan eta pertsonak artatzen (NBGP, 1995:109-110).

(19) Eginiko lana behin balioztatuz gero, balorazioa dirutan egiteko erabil daitezke, edo lan denbora inputaren kostua edo familiaren outputaren balorazioa. NBGP-ren balioztaketan aukeratu den merkatuko soldata dugu "etxean lan egin dezan harturiko ordezkorena, hau da, senitartekoek dirua kobratzeke egiten dituzten lan gehienak egin ditzakeen norbaiten soldata. Nolaz eta industrialduriko herrialdeetan langile horiek soldata urriko emakumeak izaten diren, balioztaketarako patroi moduan beraien soldata erabiltzeak ekartzen digu etxeko lanaren balioa kontu urrikoa izatea." Soldata honi erantzen zaizkio, enplegatzaileak ordaindu beharreko segurantza sozialerako kotizazioak (109 orr.). Zenbait ikerketek erakusten digute, industrialduriko herrialdeetan, NKS-etatik kanpo gelditzen den produkzioaren balioa, BPGren erdiitik gorakoa dela eta kontsumo pribatuaren erdia baino gehiago, balioztatze erabiltzen den sistema edozein dela ere. Australian, 1992an eginiko ikerketa batean, NBGP delako txostenean aipatua dena, agertzen da NKS-k kontuan hartzen ez duen produkzioa dela BPG-ren %86a gutxi gora behara. Urte berean Alemanian eginiko beste ikerketa batek %55ean baloratzen du (109. orr.). Balioztatze metodo desberdinen gaineko eztabaida sakon baterako ikus Carrasco, 1991.

tzen ditu, bai gizon eta emakumeek eginiko ordaingabeko lana, bai eta, merkatuan nagusi diren soldatekin emakumezkoen lanari ematen zaion ordain eskasa ere. Batuketa honetatik, emakumeen ekarpen ikustezin eta diru bihurtu gabea 11 biloi pezetatan kalkulatzen da, hau da, diru bihurtu gabeko produkzioaren ia %70a eta urte horretako munduko BPG-ren %50a.

Ordaingabeko lanaren diruzko balorazioa aurrerapauso garrantzitsua da lan hori ikustera emateko eta nolako ekarpen ekonomikoa den erakusteko, halatan agertzen delarik ere, emakumeen ekarpenaren garrantzia. Zeren eta lan hori birbanatzea edo ordaintzea ekarri ez badu ere, zenbatzeak ematen baitu aukera, Vandelac-ek dioen bezala (1994), 'maitasunezko' lan hori dirutan zenbatuz, debatea alor publikora eramateko. Baina zenbatze hutsa litzatekeen ikuspegiak ez ulertuak ekar litzake ere. Lehenik, etxeko lana NKSetatik kanpo egotea ez delako zientziaren sexismo eta androzentismoa bakarrik, baizik eta disziplina ekonomikoaren kontzeptualizazio murriztaileak bultzatzen duen fenomeno, kontzeptualizazio honetan jardun ekonomikoa oso gauza murrizta baita (alegia, merkaturatzen dena), hala nola murriztak diren, pertsonen jokaera arrazionalari buruzko kategoria kontzeptuala, lanaren kontzeptua, langile kontzeptua, produkzioa, familia, etabarreko kategoria analitiko eta kontzeptualak ere. (Borderías et al., 1994). Bigarrenik, ikuspegi honek etxeko alorraren funtzionamendua eta merkatuarena bateratzen dituelarik, balorazioa diruaren dimentsio bakarrean emanik, pentsatzera utz dezake, balioztatze ekonomiko horrek behar bezala erakusten dituela etxeko jardun guztiak (produktiboak eta ugalketakoak), eta halatan lagundu, ordea, "familian, hau da, etxeko ugalketa alorrean ematen diren sexu eta klase harremanen funtzionamendua eta izaera ezkututzen" (Vandelac, 1994: 161). Eta azkenik, etxeko jardunak merkatukoekin hala nola berdintzeak areagotu egiten duelako, bi biak funtzionamendu eta harremanetako alor autonomo eta independienteak direneko uste faltsua, benetan elkarren arteko menpekotasuna erabatekoa denean (Picchio, 1994). Eta hori ez da horrela, soilik lanerako prest egoteko (gizonak batez ere) behar beharrezkoa delako etxeko produkzioa (emakumeena batez ere), baina baita ere, soldatapeko lan denbora zedarritzearen oinarri oinarrian dagoelako, merkaturako lan denbora eta merkaturako ez den lan denboraren arteko banaketa espazial eta denborazkoa; soldatapeko harremana, lan kontratua, laneko araugintza posible izateko, aurretik behar da, merkatuz kanpoko espazioak diru bitarteko kontratuekin arautuak izan daitezzen uzten ez duen (ezkontzako kontratua salbu) banaketa hau gertatu izana. Izan ere, bizitzan "produkzioko" eta "produkziogabeko" denboraz mintzatzeko behar dugu, eguneroko denbora zati batean egindakoa mugatu, neurtu eta trukagarri bihurtu; jardun horren emaitza besteei zuzendua da, eta besteek bere egiten dute, diruzko ordainez (Gorz, 1995).

Hau horrela izanik, etxeko lana merkatuaren moduan baloratzea garrantzitsua izanik ere, ez da aski, zeren eta azken finean, etxeko produkzioaren garrantzia ez baitatza dohainikakoa izatean soilik, hau da, familiko harremanen esparruan egina izanik, sortzen dituen ondasun eta zerbitzuetatik diruzko balorea ez ateratzean, ez eta ere, sistema ekonomikoaren funtzionamendua mantentzeko duen garrantzian, lan indarra berritzearen kostua merketzen duelako. Etxeko lanaren garrantzi handiena agertzen zaigu, alor pribatuan antolatzen diren giza harremanetan; harreman hauetan batzuk etxeko lan ahalmenaz jabetu egiten dira, eta lan hori egiten dutenak berriz, ba-

besgabean, menpekotasunean eta ekonomikoki segurtasunik gabean geratzen dira; gainera harreman hauek ezartzen dira, emakumeen ugaltze ahalmena eta sexualitatea kontrolatuz, honela sexuen gizartea antolatzen delarik.

Etxeko lana baloratzea ez da, ordea, emakumeen alde egin beharreko justizia soilik. Eztabaida honek aukera ematen baitigu ikusteko, gizartearen lan karga osoa, diru bihurturikoa baino askoz ere gehiago dela, eta "ekonomia" deitu ohi duguna, berriz, ondasun eta zerbitzuak produzitu, banatu, metatu, trukatu, eta kontsumitzeko jardun guztietatik, diru bihurturiko erdia besterik ez dela. Gaur egun, inoiz baino beharrezkoagoa zaigu ekonomiaren eta gizartearen ikuspegi murriztaile eta partzial hori zalantzan jarri eta gainditzea, lana eta errenta birbanatzeko proposamenetan aurrera eginen badugu.

4.

Gizon eta emakumeen arteko gaur egungo lan banaketa

Ekonomiaren ikuspegi osotu batetik, gizarteak egiten duen lanaren karga osoa kalkulatzeko, lan merkatuan ematen diren orduak eta merkatuz kanpo lanean ematen direnak batu egin behar dira. Karga oso honen kalkulua neurtu ohi da, denborako aurrekontuetako inkesten bitartez.

Espainiar Estatuan, CIREs delakoak, 1996an, denboraren erabilerari buruz eginiko inkesta batean oinarriturik, Durán-ek (1997) emaniko datuek erakusten digute, 18 urtez goitiko biztanleriaren lan karga osoa dela, batezbeste, urteko 2.285 lan ordukoa, eta horietatik 645 ordu ordainduriko lanekoak ditugu eta 1.640 ordu, berriz, ordaingabeko lanekoak. Honek esaten digu, beraz, biztanleria helduak, urtean zehar eginiko lan ordu guztietatik, ia hiru laurdenak (%72), diru egin gabeko lanari dagozkiola, eta %28a besterik ez dela diru eginiko lana. Hala bada, lehen aipaturiko NBGP txostenak, lan denbora banatzeko ematen dituen jarraibideen arabera, Espainiar Estatuan ere, lan orduetako zati handiena diru bihurtu gabeko produkzioari dagokio; produkzio mota honetan guztira emaniko denbora, diru eginikoan emaniko denboraren bi halakoa da (20).

Lehen koadroan ikus daitekeen bezala, lanaren karga oso hau oso modu desberdinean banatzen da emakume eta gizonen artean. Diru bihurtzen ez den lana emakumeen esku dago gizonezkoen baino askoz gehiago, %80a izatera iritsiz. Izan ere, jardun honetan ematen dute emakumeek beren produkzio denbora gehien gehiena, %87a alegia; diru bihurturiko lanean berriz, %13a besterik ez dute ematen. Aitzitik, gizonek beren lan denboraren %56a ordainduriko jardunetan

(20) Datu honetan oin harturik, Durán-ek (1997) kalkulatu du, ezen diru egin gabeko lanari, lan merkatuan batezbeste ordainduriko orduaren %80aren balorea ematen bazaio, Espainiar Estatuaren BPG izanen litzatekeela, Kontularitza Nazionalak balioztatutakoa baino %102 handiagoa. Ordaingabeko lana kontuan hartuko balitz, herrialde guztietako BPG emendatuko litzatekeen arren, Europar Batasuneko herrialde gehienetan emanen litzatekeen aldea %40 eta 60 ingurukoa da. Espainiak horrelako alde handia du, bere ekonomian diru bihurtzen ez diren jardunak askoz gehiago direlako.

ematen dute eta %44a ordaindu gabeko jardunetan. Datu hauek berresten dute, emakume gehientzat etxeko lana dela oraindik eguneroko jardun nagusia, ordainduriko lana bigarren mailakoa izanik, etxeko lanen menpekoa. Gizonek, aldiz, etxetik kanpoko lanak egiten dituzte nagusiki. Halatan bada, ez da harritzekoa, CIRES delakoak, 1991n eginiko inkestan, 18 urtetik goitiko emakumeen %65ak esatea, beren denboraren antolamendua familiaren ordutegiei begira dagoela batez ere, eta inkestari erantzuniko gizonen pareko kopuruak (%61) esatea berriz, lan ordutegiek baldintzatzen dutela, beste ezerk baino gehiago, beren eguneroko bizitza (IOE, 1996: 23).

1. Koadroa. Asteko laneko kargaren banaketa, sexuen arabera, Espainiar Estatuan, oporrak eta egitura demografikoa sarturik (ordu eta ehunenekoetan eta lan ordu guztien gaineko %an)

	GUZTIRA LANEAN PARTEHARTZEKO %					
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA E+G	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Diru eginiko lana	8,24	17,98	26,22	31	69	100
Diru ez eginiko lana	56,07	13,87	64,94	80	20	100
Lanaren karga guztira	64,31	31,85	96,16	67	33	100

Iturria: Durán, 1997, oinarrian harturik, CIRES delakoak, denboraren erabilerari buruz eginiko inkesta, 1996.

CIRES delako inkestak erakusten digu, diru egin gabeko lana desberdinki banatua dagoela gizon eta emakumeen artean eta baita lanaren karga osoa ere halaxe dagoela. Emakumeek parte handia dutenez diru egin gabeko lanetan, eta lan hauek lanaren karga osoan pisu gehiago dutenez, emakumeek egiten dituzte, lan ordu guztien bi herenak (%67). Halatan bada, lan ordaindu eta ordaingabearen karga osoa kontuan hartuz gero, emakumeek astean benetan egiten duten lana, urtean zehar —hau da, oporrak barnean harturik— gizonek egiten dutenaren bi halakoa da: 64 ordu eta 31 minutu emakumeek eta 31 ordu eta 85 minutu gizonek. Alde izugarri hau mantendu egiten da emakumeek etxeko lanetan ematen duten ordu anitzen kontura.

Lan denbora osoa emakumeen eta gizonen artean banatzeko egitura antzeko terminotan agertzen da Eustatek (Estatistikako Euskal Institutua), 1991an Euskadiko Autonomia Erkidegorako (EAE) eginiko Denborako Aurrekontuen Inkestan. Inkesta honek erakusten digu, pertsona helduek lanean ematen dutela guztira (21) 10 ordu eta 41 minutu egun bakoitzeko; horren %54a ordaingabeko lana edo

(21) Gure iritziz, egunero lan eginiko ordu guztien kontaktak kontuan hartzen du, gizon eta emakumeek lanean ematen denbora diru bihurturikoa eta ez bihurturikoa. Aurrean emaniko datuak lan egunei eta opor garaitik kanpoko garaiei dagozkie.

etxeko lana dugu (22) eta gainerako %46a ordainduriko lan nagusia da. Espainiar Estatuan gertatzen den bezala, euskal gizon eta emakumeen arteko banaketa ere oso desorekatua da. Erabilitako denborari doakionean, emakumeek, opor garaiak ez direnetan ematen dituzte lanean egunerokoan, gizonek baina ordubete eta 17 minutu gehiago eta egiten dute eguneroko lan karga osoaren %54a. Lan ordaindu eta ordaindugabearen arteko banaketari doakionean, emakumeek ematen dute gizonek baino ia lau aldiz gehiago denbora (4 ordu eta 44 minutu) etxeko lanetan (ordubete eta 15 minutu), izan ere, beren lanegunaren ia %80a; gizonek emakumeek baino ia hiru aldiz gehiago ematen dute ordainduriko lanetan, (lehenek 3 ordu eta 27 minutu eta emakumeek berriz, ordubete eta 15 minutu) izan ere, beren lanegunaren %74a.

Gainera, EAEko inkestak seinatzen ditu mota desberdinetako lanegunak, talde desberdinek denbora banatu eta antolatzeko duten modu desberdinen adierazgarri. Sexua eta jardunarekiko lotura agertzen dira, adinarekin batera, denboraren antolakuntzan funtsezko elementuak direlakoan. 2. koadroak erakusten digu gizon eta emakumeen artean lan ordainduko eta ordaingabeko denborak nola banatzen diren, jardun eremu desberdinetan

2. Koadroa. Lanari emaniko batezbesteko denbora, jardueraren arabera (orduak eta minutuak)

	LANEAN		LANGABEZIAN		ERRETRETAN		IKASLEAK		ETXEKO LANAK	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Ordaingabeko lana (etxekoa)	3:29	1:15	3:24	1:02	4:54	1:31	1:15	0:52	6:35	7:27
Ordainduriko lana	4:29	5:42	0:18	0:00	0:04	0:36	0:04	0:16	0:09	0:00
Eguneroko lanaren Karga Osoa	7:58	6:57	3:42	1:02	4:58	1:47	1:19	1:08	6:44	7:27

Iturria: Denborako Aurrekontuetako Inkesta. Denboraren erabileran, generoen artean ematen diren aldean azterketa. EUSTAT, 1993.

Koadro honetatik ondorio txit interesgarriak ateratzen dira. Lehen, etxeko lana emakume guztien egoera dela, edozein delarik ere beren bestelako jarduna; den denetan (etxeko lanetara emaniko pertsonen kasuan salbu!), emakumeek etxeko lanetan gizonetakoek baino askoz ere denbora gehiago ematen dute, nahiz eta aldea aldatu egiten da, segun eta emakumeek lan merkatuan parte hartzen duten ala ez. Bigarren ondorioa da, gizonek etxeko lanetan ematen duten denbora ez

(22) Eustat-en Denborako Aurrekontuetako Inkestak, etxeko lanaren barruan sartzen ditu, jakiak prestatzeko lanak, garbiketakoak, erropa atontzekoak, bestelako konponketak, ondasunak eta zerbitzuak erosteko zereginak, gestioak eta aisia antzekoak. Baina datu hauetan sartzen da ere, beste pertsonak zaintzeko zereginetan emaniko denbora (ikus Eustat (1993) Denborako Aurrekontuetako Inkesta. Denboraren erabileran generoen artean diren aldean azterketa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak).

dagoela lotua beren jardun egoerara, lanean direnek, langabezian edo erretetan direnek berdintsu egiten dute lan etxeko zereginetan. Hirugarrena, soldatapeko jarduna duten emakumeek etxeko lanetan ematen dutela, horretara bakarrik jarriak diren emakumeek ematen duten denboraren erdia. Laugarrena, soldatapeko jarduna duten emakumeek etxeko lanetan eta pertsonak zaintzen ematen dutela, pareko egoeran diren gizonen ematen duten denboraren bi halako. Eta bostgarren ondorioa, enplegua duten emakumeen laneguna ia erdiz erdi banatzen dela lan ordainduaren eta ordaingabearen artean eta benetan duten laneguna ordubete luzeagoa dela, enplegua duten gizonena baino (23).

Labur esanda, datu hauek erakusten digute, lan denbora osoaren banaketarako egitura bikoitz eta asimetrikoa mantentzen dela oraindik ere, jardun ordainduen eta ordaingabeen artean, bai eta gizonen eta emakumeen artean ere. Etxeko lana oraindik orain emakumeen gaineko karga da eta gizonen berriz lan hau emakumeen eskutan uzten dute, ordainduriko lanetara lerratuz. Hala izanik ere, emakumeek etxeko lanetan ematen duten denbora dexente aldatzen da, beren jardun egoeraren arabera. Halatan bada, kanpoko lanetan jardutea oso garrantzizkoa zaie emakumeei, etxeko lanetan ematen duten denbora erruz laburtzen dielako, nahiz eta, enplegua dutenean ere, gizonen baino askoz denbora luzeagoa eskaintzen dioten etxeko jardunari. Aitzitik, gizonen aldakaitz agertzen zaizkigu, eta etxeko zereginetara egiten duten ekarpena ez da aldatzen lanean badira, langabezian edo erretetan. Etxeko lanaren banaketa desorekatua oraindik ere emakumeen kalterako da, duten egoera laborala gora behera. Emakumeak lan merkatura gero eta gehiago sartzen ari diren garai hauetan, desoreka honek emakumei lanegun bikoitza ekartzen die eta horren ondorioz, kanpoko lana duen emakumeak aisialdi askoz ere urriagoa duela pareko egoera laboralean diren gizonen baino: euskal inkestaren arabera, egunean ordubete gutxiago batezbeste (24). Ez da harriztekoa, beraz, denboraren urria izatea gaur egungo emakumeen arazo nagusienetakoa (Grau, 1991).

4.1. ALDAKETAK, GIZON ETA EMAKUMEEN ORDAINGABEKO LANAREN BANAKETAN

Ordainduriko lanaren karga gizonen eta emakumeen artean desberdin banatua dagoela agertzen zaigu beti, denboraren erabilerari buruzko inkesta gutzietan. Baina hala izanagatik ere, azken urteotan, gizonen eta emakumeen arteko lanaren banaketa aldaketak ematen ari direla agertzen

(23) Ordubeteko alde honen parekoa agertzen da ere, 1986ko Bartzelonako metropoliko Inkestan, zeinean agertzen baita, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek, etxeko lanetan ematen dituztela 4 ordu eta erdi eta diruz ordainduriko lanetan berriz 6 ordu eta erdi, hau da: guztira 11 ordu egunean; enplegua duten gizonen 2 ordu eta erdi ematen dituzte etxeko zereginetan eta 8 ordu diruz ordaindukoan, hau da: 10 ordu eta erdi guztira (IOE-n aipatua, 1996). Dena den, 1991ko CIREs inkestako datuek esaten digute, Espainiar Estatuan, emakumeen hiru laurdenean, lan horiek beraiek bakarrik egiten dituztela, gizonen inolako laguntzarik gabe, eta enplegua duten emakumeen artean, etxeko lanegun erantsia, gizonenaren lau halakoa dela.

(24) Euskal inkestan agertzen den aldeak argi uzten du lanegun bikoitzaren eragina. Euskal emakumeek, egunean batezbeste ordubete eta hamar minutu gutxiago dute aisiarako gizonen baino.

ari zaigu. Gershuny-k eta Robinson-ek (1991), sei herrialde industrialdutan (25), 1960tik 1985era denboraren erabilera nola aldatu den ikertuz eginiko lan batean, bi aldaketa bide nagusi azaltzen dizkigu: alde batetik, etxeko lanetan emaniko denbora osoa urritzeko joera, eta beste aldetik, emakumeek denbora gutxiago ematea zeregin horietan eta gizonak aldiz, gehiago ematea.

Lehen dinamikari doakionean, hau da, etxeko lanetan emaniko denbora laburtzeko joeran, Gershuny-k eta Robinson-ek esaten digute, 60. eta 80. hamarkaden artean, eguneroko etxeko lana (garbiketa, sukaldea, etab.) eguneko ordubete eta ordubete eta erdiaren artean laburtu zela, azterturiko sei herrialde horietan. Joera honen arrazoitzat eman ohi dira, lan denbora murrizten duten etxeko teknologiak garatu eta zabaldu direla eta etxean ematen ohi ziren zerbitzu zenbait, merkataritzako zerbitzu edo zerbitzu publikoak bihurtzen direla. Ez dugu ukatuko etxeko tresneriaren hobekuntzak, alor honetako lanaren antolaketan eragin handia ukan duela, baina "etxeko lanaren paradoxa" dugu, ezen mekanizazioak eta etxeko produktibitatearen areagotzeak kenduriko lan denboraren ordainean, beste lanetan emaniko denbora luzatu dela, hala nola beste pertsonen zaintzan edota erosketetan, eta gainera etxeko bizi-estandarrek gora egin dutela ere, alde batetik irabaziriko denbora, bestetik galdu egin da, luzetik galdu ere gainera (26). Bilakaera honek agertzen digu, beraz, aurrerapen teknikoek berez ez digutela bermatzen egunero etxeko lanetan eman beharreko denbora laburtzea, baizik eta etxe barruan ematen diren giza-harremanak direla, dagoen teknologia nola erabiliko den erabakitzen dutenak (Gardiner, 1997). Era berean, etxeko produkzioaren ordezkari merkaturako produkzioa erabiltzeari doakionean, kontuan hartu behar dugu, Gershuny-k berak seinatu du, ezen gizarte industrialdu aurreratuetan, 60. hamarkadaz geroztik etxeetako kontsumo ahalmena emendatzearekin batera, fabrikaturiko produktuen kontsumoa emendatu dela, baina pertsonen zerbitzuetako prezioa igotzeak ordea, ez die zerbitzu hauei apenas aukera eman, etxeko lan denbora laburtzeko. Zerbitzu publiko soziokomunitarioei dagokienean, Estatu sozialari loturiko eskaintzak zati batean baizik ez du gizartearen eskaria bete, nahiz eta alde izugarriak dauden estatuen artean.

Gershuny-k eta Robinson-ek azalduriko bigarren dinamika (1991), emakumeek etxeko lanetan ematen duten denbora laburtu eta gizonak ematen duten denbora berriz, luzatzeko joera dugu; honek, egileen ustetan erakusten omen du, etxeko lana gizon eta emakumeen artean modu orekatuagoan banatzeko joera abiatua dela. Egia da enplegua duten emakumeek, orain dela bi hamarkada baino askoz etxeko lan gutxiago egiten dutela eta gizonak berriz (bizikideak, pentsa daiteke), dexente gehiago egiten dutela. Halarik ere ezin da horretatik atera, emakumeengandik gizonengana eraman izan dela lana. Izan ere, Gardiner-ek erakusten digu, Britainia Handiaren kasuan

(25) Ikerketak aztertzen du denborako aurrekontuen bilakaera, 1960tik 1985era, honako sei herrialdeotan: Kanada, Danimarka, Holanda, Norvegia, Erresuma Batua eta Estatu Batuak.

(26) Bizimoduetan eta kontsumitzeko moduetan emaniko aldaketek eragin handia ukan dute etxeko lanetan. Esate baterako, hiriko lurralde antolaketak, zatitua eta banandua izanik, alde batetik bestera joateko denborak izugarri luzatu ditu eta zerbitzu askotara iristeko aukera urritu. Aldi berean, kontsumo eta banaketarako egitura berriek, hau da, bizilekuetatik urrun diren erostetxe handiek, denbora eskatzen digute ere. Beste zerbitzutan emaniko aldaketek ere (medikuak, burokratikoak, etab.) denbora luzea eskatzen dute, bai eta espazioan mugitzeko ahalmena ere.

—alegia, Gershuny-k eta Robinson-ek eginiko lanak aztergai dituen herrialdeetako bat— emakumeen etxeko lanaren laburpena, 60.hamarkadaren hasieratik 80. hamarkada bitartean, oinarritzen dela batez ere, etxeko lanetara soilik emanak diren emakumeak gutxiago direlako; behin enplegua duten emakumeak kontuan hartuz gero, laburpen hori harrigarria da zein eskasa den (27). Horrekin batera nik esan behar dut, gizonaek etxeko lanetan denbora luzeagoz aritzea ez datorrela horrenbeste lan hori gizon eta emakumeen artean birbanatu egin delako, baina bai, ordea, etxeetan egin beharreko lana areagotu egin delako. Ez da inondik ere ikusten, emakumeek egiten duten lan gutxiagoa gizonaek hartu dutenik zuzenean (28).

Bestalde, emakumeek eta gizonaek etxeko lanetan ematen duten denboraren aldea ez dugu desberdintasunaren adierazle bakarra; alde handiak daude ere, emakumeek eta gizonaek egiten dituzten lan motetan. Emakumeak etxe barruko lanetan aritu ohi dira gehiago, bai eta egiteko momentua aukeratzeko posibilitate gutxi ematen dituzten lanetan, eta gizonaek berriz, etxez kanpoko eta ordutegi ez horren estukoetan aritzen dira gehiago. Bi hitzetan esateko, emakumezkoen egitekotzat hartzen dira oraindik ere, ordutegiko eta espazioko baldintza oso estuak dituzten zereginak, beren etxetik kanpoko lanen eskakizunen arabera programatzen oso zailak direnak eta hortaz, ordainduriko lan horretan eragin handikoak direnak, koordinazio handia eskatzen dutenak eta kanpoko lanaren eskaria areagotuz gero, ordezkotzat baten beharra sortzen diotenak. Estuasun honek maiz kontrajartzen ditu zeregin hauek emakumearen kanpoko lanarekin. Etxeko lana modu orekatuagoan birbanatzeak eskatuko luke, beraz, gizonaek parte hartzea erraz areagotzeaz gain, emakumeek eta gizonaek egiten dituzten lan motak ere berdintzea.

Bestalde, lan denbora laburtzeko joera hau gelditu daiteke, gaur egun batez ere alor pribatura mugatzen diren zaintzako zerbitzuen eskaintza eta eskaria eragiten dituzten aldaketa demografiko, sozioekonomiko eta kulturalak direla medio. Emakumeak lan merkatuarekin eta beraz etxeko

(27) Gershuny-k eta Jones-ek (1987) Britainia Handirako erabilitako datuetatik abiatuz, Gardiner-ek erakusten digu, 1974tik 1984 bitartean, lanaldi osoko lanpostua zuten gizonaek etxeko lanetan ematen zuten denbora luzatu egin zutela, asteko 7,5 ordutatik 11 ordutara. Garai berean, lanaldi osoko lanpostua zuten emakumeek etxeko lanetan ematen zuten denbora ez zen apenas aldatu: 1974ean 20,5 ordutatik, 20,7 ordutara 1984ean, eta lanaldi murrizteko lanpostua zuten emakumeek berriz, etxeko lanetan emaniko denbora luzatu egin zuten, 32,8 ordutatik 37,0 ordutara, eta langabeko emakumeek ere zertxobait luzatu zuten etxeko lanetan emaniko denbora: 42,5 ordutatik 44,8 ordutara asteen (Gardiner, 1997: 132).

(28) Badira gizonaek etxeko lanetan lehen baino denbora gehiago ematen dutela erakusten duten beste ikerketak ere, baina guztietan agertzen da emendatze hori arras motela dela. Frantzia, esaterako, LePrince-k (1993) esaten digu, 1975etik 1985era, gizonaek etxeko lanetan emaniko denbora luzatu zela eguneko 10 minututan (urte bakoitzeko minutu bakarra), eta garai berean, emakumeek ematen zuten denbora bost minututan laburtu zela. Beste iturriek bilakera hau zertxobait hobetzen dute. Frantzia, INSEE delakoak 1974-1985erako eginiko Denborako Aurrekontuetako Inkestaren arabera, etxetik kanpo lanean ari ziren emakumeek etxeko zereginetan emaniko denbora 4 minututan laburtu zen (1975ean 4 ordu eta 42 minutukoa izatetik 4 ordu eta 38 minutukoa izatera pasatuz 1985ean), eta gizonaek lan hauetan emaniko denbora berriz, 21 minututan luzatu zen (eguneko 2 ordu eta 20 minutukoa izatetik 2 ordu eta 41 minutukoa izatera pasatuz).

lanetarako horrenbeste denbora ez edukitzearekin batera eman dira ere, jaiotze tasen beherakada eta biztanleriaren pixkanakako zahartzea, hartara zaintza eskaria areagotuz. Aldaketa hauek, bestalde, nabarmen eragiten dituzte, eguneroko artarekin eta osasunaren zaintzarekin, zahartza-roarekin eta haurtzaroarekin zerikusia duten zerbitzuen eskaria eta eskaintza. Aldaketa hauek bereziki ekartzen dituzte eskari sozial berriak, izan ere orain artean gizon-familiaburu/emakume-etxeakoandre ereduak gobernatu ohi zituen betebeharrak eta gaur egun, berriz, etxe barruko lana eta erantzukizunak birbanatzeko negoziaketaren ardatz bihurtu dira, bai eta familia hauen eta estatuaren eta gizarte zibilaren arteko negoziaketaren ardatz ere. Egoera honetan ez dirudi oso arraro, etxe lanaren eta zaintzen eskaria areagotzea.

Laburbilduz, esan daiteke, eman diren aldaketak emanagatik ere, gizon eta emakumeen arteko lan banaketa berdina oso urrutian agertzen zaigula oraindik orain. Halere, adierazle guztiak batera datoz esaten emakumeak lan merkatura ateratzea funtsezko elementua dela birbanaketa orekaturako bidean aurrera egiteko. Ordainduriko lanak emakumeei ezartzen dizkien betebeharrak etxe barruko egoera eraldatzen dute gogor, gero eta ezinezkoago bihurtuz oraindik indarrean den senitartekoen antolamendua, zeinean emakume bat behar den etxeakoandre, etxe lanetara bakarrik emana. Emakumeak lan merkatura gero eta gehiago sartzeak eredu hau zalantzan jartzen du ezinbestean, eta lanaren ohiko banaketa aldatzeko funtsezko faktorea dugu.

4.2. GIZON ETA EMAKUMEEN LAN JARDUNA

Historikoki, industriaren garapenaren ezaugarrietako bat izan da, biztanleriaren gero eta sektore gehiago sartzea merkatu-ekonomian, halatan soldatapeko harremana eta diru bitarteko kontsumoa hedatuz. Dena den, merkaturatze dinamika hori ez da etengabea eman, baizik eta etenaldiak eta modu desberdinetan, hala biztanleria sektore berriak laneko jardunera ekartzeari doakionean, nola produkzio sektore eta gizarteko kolektibo desberdinak diruzko ekonomian sartzen emaniko desberdintasunei doakionean ere. Jarraibide desberdin honen adibide argienetakoa, emakumeek eta gizonek lan merkaturan harturiko parte desberdina dugu.

Industrializazioaren lehen lehen garaitik hona, emakumezkoek soldatapeko lanetan parte txikiagoa ukan dute beti gizonek baino, eta alde hau, gora behera handiak badira ere, orain artean mantendu da ia gizarte industrialdu aurreratu guztietan. Alde honen oinarrian dugu, gizarte industrialak sortzearekin batera jardun eta harreman alorrak bereizten direla. Merkaturako produkzioa gizarteratzen denarekin batera, pixkanaka alor publikora pasatuz, gizon eta emakumeen zereginen banaketa birdefinitu egiten da, etxeko produkzioa, kontsumo pribaturakoa alde batetik jarritz, eta alor publikoko produkzioa, merkaturakoa, beste aldetik. Egoera honetan, industriaurreko gizarteetan gizon eta emakumeen artean ematen zen zereginen banaketa antolatuko da orain, gizarte industrialak inposaturiko espazio eta denboren bereizketaren arabera. Alorren bereizketa honekin eta zereginak sexuen arabera estuki bananduz, emakumeei familiaren eta etxearen artaren erantzukizuna ematen zaie, halatan emakumearen jarduna etxe ingurura mugatuz eta aldi berean ziurtatuz gizonak lanerako prest izanen direla bete betean. Halatan bada, gizonezkoen jar-

dun-tasaren bilakaerak soldataperatzeko joera etengabea erakusten duen bitartean, emakumeen jardunak, berriz, bilakaera ezezagunagoa du. Espainiar Estatuaren kasua egoera horren argigarri dateke.

Espainiar Estatuan, bada, emakumezkoen partehartzeak soldatapeko lanetan, etengabeko gorako joera ez erakustez gain, atzerakada nabarmenak ditu, XIX. mendearen azken herenatik XX. mendearen bigarren erdialde arte. 1880tik 1940a bitartean, lan merkatuan parte hartzen duten emakumeen proportzioa, aurreko proportzioaren erdira jausten da, hau da, 1877an %17a izate-tik %8,3a izatera 1940an (Capel, 1986; Espina, 1995) (29). Emakumeak soldatapetik ateratzeko joera hau alderantzikatzen hasiko da 40. hamarkadaren erdialdean, eta 1964 arte lortzen ez di-ren arren, aurreko mendearen bigarren erdialdeko jardun-tasak, Espainiako ekonomiaren hedape-neko faseak finkatu egiten du, emakumeak lan merkatu sartzeko dinamika hori. Krisi ekonomi-koak berriz, erruz geldiarazten du emakumeak lan merkatu sartzea, eta halatan, emakumeen jarduera-tasa ez da apenas aldatzen 1975etik 1985era. Hamarkada honetan, lan merkatu mi-loi bat eta zortziehun mila emakume sartzen dira, lanean direnen kopurua %44a handituz eta emakumezkoen jarduera-tasa berriz, %31. Gainera, emendatze izugarri honekin batera, gizonez-koen jarduera-tasa jaitsi egiten da, halatan, azken hamar urteotako lan indarraren igoera (%90) ia guztia emakumeei dagokie. Bilakaera hau 3. koadroan agertzen zaigu.

3. Koadroa. Jarduera-tasak sexuen arabera Espainiar Estatuan 1975-1995

URTEAK	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	LANEAN, MILATAN	JARDUERA-TASA	LANEAN, MILATAN	JARDUERA-TASA
1975	3,7	27,5	9,6	76,3
1980	3,8	27,1	9,2	72,2
1985	4,1	27,8	9,4	68,7
1990	5,3	33,3	9,7	66,7
1995	5,9	36,1	9,6	62,6
Aldatze %				
1975-85	10,8	1,1	-2,1	-10,0
1985-95	43,9	30,8	2,1	-8,6
1975-95	59,5	31,2	0,0	-13,7

Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, hainbat urte.

(29) Emakumeek soldatapeko lan indarrean presentzia urria ukaiteko arrazoi nagusia, lanaren banaketa sexuala dugu, lehen lehenean eta beraiei bakarrik ezartzen baitzaie ugalketa lana eta familiaren eta etxearen zaintza. Hala izan-ik ere, beste faktoreek ere lagun zezaketeen emakumea merkatu-ko produktio-tik baztertzen, esate baterako, nekazal sektorearen beherakada, bertan emakume asko aritzen baitzen, bai eta industria lanetan emakumezkoen legeria ba-bestzailea (ia herrialde orotara zabaldurikoa), emakumeak lanera sartzea mugatu egiten zuelarik, emakumeek egin zi-tzaketen lan orduak eta lan motak mugatuz.

Merkatuko lan indarrean gero eta emakume gehiago izatea, lan merkatua emakumetzea (Walby, 1987), lan merkatuaren aldatze elementu esanguratsuenetakoa dugu. Epe luzera emakumeen jarduera areagotzeko joerak erakusten digu emakumeak, gaur egun, lan indarraren osagai egonkorra direla, eta beraien partehartzea ez dagoela dinamika ekonomikoaren menpe; emakumeen lan jarduerak handitzen dirau, hala termino absolutoetan nola erlatiboetan ere (30) eta ez da inondik ere ikusten emakumeek lan merkatua uzten dutenik, ekonomiaren atzeraldietan. Ikuspuntu honetatik, esan daiteke, emakumeak, gaur egun, ordeztu lan esku bezala jokatzeari uzten ari zaizkiola, gero eta gizonaen antzekoago jokatuz (Carrasco eta Mayordomo, 1997).

Dena den, emakumeen lan indarra epe luzera handitzeko joera ez dator, emakumeak lanpostuetara zuzenean iristearekin batera. Espainiar Estatuaren kasuan, emakumeak lan mertatura sartzea ematen ari da, lan merkatuaren doiketa eta berrantolaketa garai batean, beraien sarrera ikaragarri zailduz. Batere lagungarri ez zaien egoera honetan, beraz, emakumeek izugarritzko presentzia dute langabetuen artean. Halatan bada, emakumeen jardueraren emendatze ikaragarriarekin batera, beraien langabezia bost aldiz gehiago emendatzea dator, halatan, emakumeen jardueraren emendatze horren zati handi handia, zuzenean langabezia bihurtu da (31). 4. koadroak erakusten dizkigu, Espainiar Estatuan, gizonen eta emakumeen lan egituratan dauden aldeak.

(30) Carrasco-k eta Mayordomo-k (1997) erakusten digute, emakumeen jarduera-tasa, adin talde guztietan handitzeak adierazten duela, emakumeen laneko portaera erruz aldatzen ari dela. Bereziki, adierazgarria da emakumeen partehartzea 25etik 39 urte bitarteko emakumeen partehartzea emendatzea, erakusten baitu, lan merkatura iristen direla, laneko portaeran aldaketa nabarmena egin duten emakumeen belaunaldi berriak, lan merkatuan aktibo mantentzen direnak, bai ugaltze kargak areagotzen zaizkien garaian ere, hau da, orain artean, lan bizitza eten edo amaitzeko garaian. Gainera, badirudi belaunaldi berriek jarrera aktiboagoa dutela lan merkatuaren aurrean, nahiz eta datozkien bizitzaren faseetan ez dakigun nola jokatuko duten.

(31) 1980tik 1997 bitartean, emakume aktiboaren kopurua 2,4 milioitan emendatu zen (%63) eta langabetuen kopurua berriz, 1,2 milioitan (%294), hau da, aktibo berrien %50a lanetik kanpo geratu da.

4. Koadroa. Espainiar Estatuko 16 urtez goitiko biztanleriaren jardura ekonomikoarekiko lotura, sexuen arabera (milatan)

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	GUZTIRA	%	GUZTIRA	%	GUZTIRA	%
BIZTANLERIA LANEAN AKTIBOA	6,201	37,2	9,818	62,9	16,09	49,6
Lanean	4,427	26,6	8,149	52,2	12,576	39,0
Langabe	1,774	10,7	1,669	10,7	3,442	10,7
BIZTANLERIA LANEAN EZ AKTIBOA	10,453	62,8	5,644	36,1	16,097	49,9
Ikasleak	1,715	10,3	1,494	9,6	3,208	10,0
Etxeko lanak	5,408	32,5	38	0,2	5,446	16,9
Erretretadunak eta pentsiodunak	2,925	17,6	3,407	21,8	6,332	19,6
Ezintasun iraunkorra	311	1,9	383	2,5	694	2,1
Besteak	95	0,6	322	2,1	417	1,3
Bestela zenbaturiko biztanleria	-	-	155	1,0	155	0,5
GUZTIRA	6,654	100	15,616	100	32,270	100

Iturria: Biztanleria Aktiboaren gaineko Inkesta (BAI), 1. hiruhilekoa 1997.

1997ko Lehen hiruhileko Biztanleria Aktiboaren gaineko Inkestaren arabera, Espainiar Estatuan, 16 urtez goitiko emakumeen ia bi heren, lan merkatutik at utziak dira; emakumezkoen biztanleria lanean aktibo ez denetik, erdia baino gehiago (%52) "etxeko lanetan" ari omen da, %28 erretretadun edo pentsioduna da eta %16 ikaslea da. Aktibo izan litezkeen emakumeetan hirutik bat baizik ez da lan merkatura lotua, eta %27 besterik ez da benetan lanean, hau da, %37,2ko jardura-tasarekin eta ia %30eko langabezia-tasarekin, Espainiar Estatuan, 16 urtez goitiko lau emakumetatik bakar batek besterik ez dauka lanpostua, eta termino absolutuetan, langabezian den biztanleriaren erdia baino gehiago dira. Aitzitik, gizonen bi heren dira lan merkatuan aktiboak, nahiz eta hauetako %17 langabezian dagoen, eta lanean aktibo ez direnen artean, gehienak erretretadunak edo pentsiodunak dira (%60) edo ikasleak (%26), eta %0,007 besterik ez da etxeko lanetara emana.

Emakumeak lanean partehartze handiagoa ukaiteak ez du aldatu, hauek zeregin edota industria jakinetan pilatzea. Zerbitzuen sektorea da oraindik ere emakumeen lan eremu nagusia. Lanean diren emakumeen %80ak, sektore honetan egiten du lan, non lanpostu guztien %45a hartzen baitute. Emakumeen lanpostuak horren bilduak izateak jartzen du emakumeen enpleguaren dinamika, ekonomia hirugarren sektorean hedatzearen menpe. Gainera, ia 4 emakumetatik bat sektore publikoan da lanean (%22,4), non lanpostu guztien %45a hartzen baitute, zerbitzuetako zereginetan batez ere. Bestalde, ezegonkortasuna emakumeek bizi dute bereziki, gizonezkoek baino askoz gogorrago bizi ere. Halatan bada, emakumeek, soldatapeko guztien %35a besterik ez izanik ere, lanaldi murrizteko lanpostuen %75a dute eta lanaldi murrizteko kontratuen %40a, eta horrez gainera, azpienpleguko lanpostuetan %71 dira ere (32). Ahuldadeko egoera honen adierazle ditugu

ere honako hauek: lana duten bi emakumetatik batek pasatxo dauka enplegua, oraindik "arrunt" deitu ohi ditugun baldintzatan, hau da, lanaldi osoko kontratu mugatu gabearekin; gainerakoak, lanean diren emakumeen %44a alegia, kontratu mugatupean edota lanaldi murritzean ari dira lanean. Azken honek emakumeentzat propioa egina dirudi, mota honetako kontratupean ari direnen artean %75a emakumeak baitira, Europar Batasuneko gainerako herrialdetan bezala.

Laburbilduz, lan merkatuaren egiturak erakusten digu, gure inguruko beste herrialdetan pixkat lehenago gertatu zenari jarraiki, Espainiar Estatuan, emakumeak soldatapeko lanetara sartzen direla berandu, eskas eta gaizki. Enpleguan partehartze eskasa eta langabezian, aldiz, presentzia handia, eta gainera laneko baldintza kaskarrak; halatan bada, emakumeek lanpostua lortzeko aukera urriagoak edukitzeaz gain, aurkituz gero, ziur aski oso baldintza kaskarretakoa izanen dela lan hori, eta galdutakoan, berriz, langabezian luzaz egoteko aukera handia dute. Hortaz, lan merkatua emakumeei irekitzen zaie, baina desberdintasun handiak gordez gizonen eta emakumeen artean, bai lana lortzerakoan, bai eta lan baldintzetan ere. Emakumeen jarduera-tasa urria, langabezia eta ezegonkortasuneko tasetan gizon eta emakumeen artean dauden alde ikaragarriak, emakumeen lanpostuak sektore eta zeregin batzuetan bilduak egotea, hauek denak, lan merkatuan dagoen banaketa sexualaren adierazle ditugu.

5.

Lan banaketa desberdina, jarraipena eta aldaketak, lana sexuen arabera banatzerakoan

Lan karga osoaren banaketa desberdinak erakusten digu nola lana sexuen arabera banatua dagoen; banaketa honetan, orain dela hamarkada eskas batzuk arte, emakumeak, ordainduriko lanetik baztertuak ziren erabat, eta gizonak berriz halaxe ziren etxeko lanetik. Emakumeak lan merkatura pixkanaka sartzen joatearekin, egitekoen banaketa hau guztiz aldatzen ari da. Alde batetik, emakumeak lan merkatura kopuru handitan sartzeak ekartzen du hauek betetzen dutela, sol

(32) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) iritziz azpienpleguko lanpostua da "langilearen lanbidezko kualifikazioa (heziketa eta laneko eskarmentua) kontuan harturik, arau zenbait edo beste lanpostuen baldintzak betetzen ez dituen lanpostua". Baina errealitatean Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI), ikus daitekeen azpienplegua besterik ez du neuritzen, eta honela definitzen du "besteren edo bere kontura lan egiten dutenen lanpostua, baldin eta astean, dagokion zereginean lanaldi arrunta dena baino denbora gutxiago egiten badute lan, beraiek hala nahi gabean eta beste lan baterako prest badira". Inkestarako azpienplegatuek daude, "lanaldi osoko lanpostua lortu ez dutelako lanaldi murritzean lan egiten dutenak, beste lanaren bila dabiltzalarik, edo baita ere, lanpostuen doiketa-espeditente baten eraginez lanaldia urritu edo kendu badiete, azterturiko astean berrogei ordu baino gutxiago egin dutelarik lan eta beste lanen bila dabiltza." XIII. orr.

datapeko laneko ordu gero eta gehiago. Beste aldetik, lehen ikusi dugu, emakumeak lan merkaturatuarekin batera, etxeko lanetan gutxiago aritzen direla, eta ondorioz —pentsatzekoa da— gizonen partehartzea handiagoa izanen da. Halatan bada, badirudi, pentsa genezake, lanean gizonen eta emakumeen emandako denbora berdintzeko bidean geundekela.

Alabaina, errealitatean ordea, ez da hala gertatzen, lehen ikusi dugun bezala, emakumeak lan merkaturatuarekin batera ez da eman, gizonak etxeko lanetan gehiago aritzea, eta horrela izanik, emakumeek lan merkaturatuaren parte hartzeko duten egoera gizonena baino askoz okerragoa da. Bizitza pribatuaren egitekoak berdin banatuak ez egoteak izugarri mugatzen dio emakumeari, lan merkaturatuaren aukera, merkatu hori historian zehar antolatua izan baita, emakumea funtsean baztertua eta “familia buru” den gizon, etxeko zereginetaz libre dagoenaren inguruan, eta horri zeregin horietaz libratzen du, noski, honako etxeko andre den edo etxeko beharretara egokitu daitekeen lanpostutxo bigarren mailakoa duen emakume honek. Emakumeen presentzia sistematikoki areagotzen hiru hamarkada pasa diren arren, egitura hau ez da funtsean aldatu, eta hamarkada hauetan emakumeen lan egoera gauza askotan hobetu bada ere, lan merkaturatuak oraindik orain emakumearen aurkako jarrera erakusten du, emakumearen berezitasunak zigortzen ditu, bere gaitasunak gutxiesten eta iraunarazten ditu lanpostu zenbaitetan bereiztuak, beti erasoaren beldur eta menpe eta desberdin tratatuak. Emakumeak lan merkaturatuaren zati bereizietara baztertzeko, batez ere lanaldi murrizteko lanpostuetan, hartara “batera eramanez” ditzaten (maiz haien nahiaren kontra ere) soldatapeko lan hori eta etxeko zereginak”, baztertzeko honek beraz, erakusten digu nola merkaturatuaren funtzionamenduak, sexuagatiko bereizkeria eta bazterkeria egiten dituen, betiere aitzakia harturik, etxeko lanaren karga emakumeen kaltetan banatua dela eta emakumeak gizonak baino zailtasun handiagoak dituela lan merkaturatuaren prest egoteko.

Etxeko lana banatzerakoan oreka ez egoteak ekartzen du ere, lan merkaturatuarekin, emakumeei lan karga osoa handitu egiten zaiela, etxeko lanari, ordainduriko lana gaineratzen baitaio. Lehen ikusi dugun bezala, lan mota biak hartuz gero kontuan, denboraren erabilerrari buruzko inkestek esaten digute, alde batetik emakumeek guztira egiten duten lana, gizonen egiten dutena baino handiagoa dela, eta beste aldetik esaten digute ere, lanposturen bat duten emakumeen laneguna, etxekoandreena baino luzeagoa dela, ordainduriko laneguna eta etxekoa batzen zaielako (33). Lanegun bikoitza agertzen zaigu, beraz, gaur egungo emakumearen egoera definitzen

(33) Eustat-en inkestaren arabera, lanposturen bat duten emakumeen eguneko lan karga osoa 7 ordu eta 58 minutukoa da, eta etxeko zereginetan bakarrik ari direnena, berriz, 6 ordu eta 44 minutukoa; etxekoandreen eta lanpostua duten emakumeen arteko aldea ordubete eta 14 minutukoa da, beraz. Aldi berean, lanpostua duten emakumeen eta gizonen arteko aldea (6 ordu eta 57 minutu gizonen), ordubete eta minutu batekoa da. IOE taldeak (1996), CIRES-eko 1991ko inkestan oin harturik ematen dizkigun datuen arabera, lan merkaturatuaren ez diren emakumeek etxeko zereginetan egunero ematen duten denbora 7 ordu eta 58 minutukoa da, eta lanpostua duten emakumeek, aldiz, lan egunetan 7 ordu eta erdi ematen dituzte lanbidean eta 6 ordu eta 24 minutu etxeko lanetan, hau da, guztira 13 ordu eta 27 minutu eguneko. Lanpostua duten gizonen ordubete eta 56 minutu ematen dute etxeko zereginetan, eta 7 ordu eta 52 minutu, diru bitarteko lanean. Aldea izugarria da bi kasuetan, eta erakusten digu, bai gizonen eta emakumeen arteko lanaren banaketan gaur egun alde handia dagoela, bai eta lanegun bikoitza duten emakumeek jasaten duten gehiegizko karga (IOE, 1997)

duten ezaugarrietako bat bezala. Balbo-ren hitzetan esateko (1994) "gaur egungo gizartean agertzen zaigun emakumearen irudi nagusia ez da jadanik, bizitza osoko etxeoandrea, ez eta lan merkatuan lanaldi osoko jardun astunera beharturiko emakumearena ere, baizik eta irudi historian berria, bi izate zatituen batuketa, alegia" (511); emakumeen izate bikoitz hori dugu, bada, bai egungo familia antolaketaren ardatzetako bat, bai eta egungo lan merkatuarena ere. Horraz gain, emakumeak lan merkatura sartzeak, familiaburu-gizonaren (ezinbestean emakume-etxeoandreaki lotua) ohiko irudiarekin apurtuko duen eta emakumeen partehartzeko baldintzak bere eginen dituen langile androginoaren irudi berria sortzen lagundu beharrean, sexuagatiko bereizketa modu berriak ezarri ditu eta emakumeen partehartze ezegonkorren arabera langilearen eredu sortzen lagundu du. Gainera, emakumeen lan merkaturako jarduna handitzea, aldaketa eta berrantolaketa ekonomiko gogorreko garaian eman denez, errazago eman da eredu berri horren sorrera. Emakumeak merkaturatzea eta lanpostu kaskarrak hedatzea batera etorri dira, zerbitzuen sektorean bereziki, eta hau gertatu da, neurri handi batean, lan merkatuan ahulagoak izanik, lan hauetarako joera handiagoa dutelako. Izan ere, azken 15 urteotan ugaritu diren lanpostu ezegonkorak, aldi mugatukoak, etxez etxeok, etab., lan merkatuan emakumeak sartzearekin estu loturik daude (34).

Halatan bada, oro har esan badezakegu ere, emakumeek, gizarte industrialduetan gainditu dutela, lanaren banaketa klasikoa, lan merkatura kopuru handitan sartuz, lan merkatu honek oraindik gordetzen ditu lanpostu "arruntak" gizonentzat batez ere. Lan merkatuan ematen den sexu banaketa, emakumeek lanean bizi duten bazterkeria eta bereizkeria, etxeo alorrean ematen den banaketa sexualaren beste aldea da. Eman diren aldaketak emanagatik ere, lanen banaketan desberdintasunak mantendu egiten dira, emakumeek lan merkatuan lor dezaketen lekua oraindik oso mugatua baita, senitartean duten lekuak besterik uzten ez dielako. Lanaren banaketa sexual "berria" ezartzen da, beraz, gero eta emakume gehiagok hartzen dutelako parte soldatapeko lanean eta alor publikoan, baina merkaturatze hau ematen ari da, alor pribatuko zereginen banaketa zailantzan jarri gabe eta gizarteak kontuan hartu gabe, emakumeen bizimoduetan eta lan moduetan, emakumeen identitatean bertan ere, ematen ari diren aldaketek sortzen dituzten eskari eta betebeharrak sozial berriak.

(34) Lehenago aipaturiko Husson-en (1994) ikerketaren datuek, dinamika hau argi eta garbi azaltzen digute; aztertutako Europako bost herrialdeetan, "emakumeen" lanpostu ezegonkorak hedatzearekin batera, "gizonezkoen" lanaldi osoko lanpostu egonkorak desagertzea dator; lanpostuen emendatze garbiaren bi heren, emakumeen lanaldi murrizteko lanpostuak dira, eta deusezturiko gizonezkoen lanpostu ia denak lanaldi osokoak dira. Beste ikerketek ere, joera hau berresten dute. Esate baterako, Erresuma Baturako, Mc Dowell-ek (1991) erakusten digu, 90. hamarkadak areagotu egin duela, 1966ko industriaren beherakadarekin hasitako gizonezkoen lanpostuak emakumezkoen lanpostuekin ordezkatzeko joera. 1966tik 1976ra galdutako lanpostuen %73 gizonezkoen lanpostuak ziren. Garai berean, zerbitzu pribatuen emendatze garbiak ekarri zuen emakumeen lanpostuen %125eko emendatzea, baina gizonezkoen hirugarren sektoreko lanpostuen %44ko jeitsiera. Hurrengo hamabost urtetan, industriako lanpostuen urritzea gelditu zen arren, gizonezkoen lanpostuak urritzen jarraitu zuten. Halatan beraz, 90. hamarkadako hasierarako, 60. hamarkadaren hasieran baino 3,5 miloi gizon gutxiago zegoen soldatapeko lanetan eta ia miloi bat gehiago emakume, nahiz eta, emakumeek lanaldi murrizterako joera handiagoa dutenez, laneko ordu guztien kopurua urritua zen.

Halarik ere, Gershuny-k eta Robinson-ek (1991), gizonen eta emakumeen artean etxeko karga berdintasunez banatzeko seinaturiko joera xumeak adieraz lezake, etxeko lana hasia dela emakumeen arazoa bakarrik ez izaten. Honetaz Balbo-k (1994) esaten digu, agian agertzen ari dela gizonekoentzat ere halako "presentzia bikoitzaren" hastapena, nondik "sor dakiekeen emakumeei, garai hauetan etxeko lanetan eta lan merkatuan izateko formula berria aurrera eramateko aukera" (512. orr.). Dena den, gaur egun arte, lanegun bikoitza emakumeen egoera da bete betean. Laneko denbora berdintasunez banatzeko bidean emakumeak dira batez ere mogitu, gizonen laneko jardueren mailalara pixkanaka hurbilduz, eta ez da gizonengan etxeko lanerantzako pareko hurbilpenik ikusten ordea. Alde hori da oraindik orain, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak errepikatzen diren funtsezko arrazoiak bat.

6. *Banatu eta partekatu: lana berdintasunez banatzeko bidean*

Lanaren karga osoa kontuan hartu eta gizon eta emakumeen artean nola banatzen den aztertuz, laneguna laburtzeko eta enplegua banatzeko eztabaidan elementu argigarriak azaltzen zaizkigu. Lehenik eta behin, gizartean egiten den lan karga osoaz mintzatuz kontra egiten zaiolako, lanaren urritasunaren eta lanaren amaieraren ideari, ez baita lana falta, baizik eta enplegua bakarrik, eta zehatzago esanez, enplegu mota zenbait. Bigarrenik, etxeko lanaren antolakuntzaren eta lan merkatuaren antolakuntzaren artean dagoen lotura estua eta elkarren behar handia ikusteko parada ematen digulako, bi egitura hauen funtzionamenduaren oinarrian dauden mekanismoak azalduz. Eta hirugarrenez, lan merkatuan eta etxeko lanetan emakumeek eta gizonen duten partehartze desberdinak ekartzen duelako, lana banatzeko modu desberdinen eragina ere desberdina izatea bartzuen eta besteengan. Izan ere, bai familiarren kargak gizonen eta emakumeen artean modu desberdinez banatzeak, bai lan merkatuak emakumeak hartzeko erabili duen moduak eta baita lanaren sexu banaketa berriak ere jartzen dituzte emakumeak eta gizonak egoera desberdinetan, eta hala izanik, emakumeek bestelako jarrera dute, laneguna laburtzeko eta enplegua banatzeko egiten ari diren proposamenen aurrean.

Gure ikuspuntutik, laneguna laburtzea eta enplegua banatzea garrantzi handikoak dira emakumeentzat, lanpostuak erdiesteko aukera eman baitiezaiekete, bai eta autonomia ekonomikoa ere, eta hala beren buruaren jabe izaten lagundu. Baina lan merkatuaren esparruan soilik aritzera mugatuko den ekimenak arrisku gorriak ekar ditzake ere, eta gaur egun dugun sexu banaketa gainditu beharrean, iraunaraz dezake. Arrisku hauei itzuri egiteko, proposamen hauei kendu egin behar zaie, gehienek duten generoko marka edo joera, eta neurriak berriro pentsatu behar dira, berdintasuneko lan banaketa lortzeko helburua jarritz. Arazoa ez baita soilik, autonomia eta independentzia ekonomikoa bermatzeko, ordainduriko lanpostu duina eskuratzeko eskariari erantzutea; ziurtatu behar da ere, lanpostua eskuratzeko nola lan egitarakoan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna izanen dela. Baina enpleguan ez da berdintasuna lortuko, honako

baldintza hauek eman ezean: lehenik, emakumeak libratu behar du, bizikideei dagokien etxeko lan kargaz, halatan, lan merkatuzterakoan desabantailako egoera gaindi dezan; bigarrenik, gizonak beregana ditzatela karga horiek eta halatan, lan merkatuan ager daitezela, gizaki orok dituen oinarritzko erantzukizunen kargarekin, hau da, ez erantzukizunik gabeko norbanako buruasien moduan, baizik eta besteen beharra duten gizakiak bezala eta besteek ere beren beharra dutelarik, betebeharrak eta erantzukizunak dituzten gizakiak bezala beraz; hirugarrenez, lan merkatuari "behartu behar zaio" onartzera, emakume eta gizonak ordainduriko lanean eman dezaketena mugatzen duela betiere, eguneroko oinarritzko betebeharrak erantzun beharrak; eta laugarrenez, gizarte osoari eskatzen zaio bere kargu har dezala eguneroko oinarritzko lana, eguneroko bizitzaren lagungarri liratekeen zerbitzu kolektiboak sortuz: haurtzaindegiak, adinekoentzako etxeak, eskoletako jangelak, etab., halatan, gaur egun emakumeek dohainik betetzen dituzten zereginak gizarteak betetzeaz gain, lanpostu asko sortuko lirateke gainera.

Bestalde, lanegunaren laburtzea eta enplegua banatzea emakumeen alderako izanen dira, baldin eta hauei merkatuan sartzeko eta bertan aritzeko jartzen zaizkien baldintzak gizonari jarritakoen berdinak badira, baina baita ere, hala alor publikoan nola pribatuan negoziatzeko eta harremanetarako esparru berdinezaleagoa sortzen laguntzen duen neurrian. Ikuspuntu honetatik, emakumeek eskatzen dute, aintzat hartua izan dadila, oinarritzko lanaren balio sozial eta ekonomikoa, eta ez dadila kontuan hartu, soilik lan horren egin beharra, baina baita ere, lan hori egiteko edozein pertsonak duen eskubidea eta aukera, bere bizi eskarmentuaren funtsezko alde bat bezala. Zeren eta hiru hamarkadatan lan munduan pixkanaka sartzan ibili ondoren, emakumei argi ageri baitzaie, enplegua eskuratzea eta independentzia ekonomikoa, gizonaren autonomiarako behar beharrezko baldintza den arren, ez dela halere aski; ordainduriko lana eskuratzearekin batera, etxeko lanaren birbanaketa ere beharrezkoa da, alde batetik, itzuri egin diezaiogun lanerako emakumeek eta gizonak duten denbora libre desberdinak lan munduan bereizkeria eta bazterkeria iraurarazteari, eta bestaldekik, lan hori baliozta dezagun eta generoko giza harremanak alda ditzagun. Baina horraz gain, emakumeen identitatean eta bizimoduetan emaniko aldaketei erantzuteko, egoera berriari egokituriko antolakuntza modu berriak behar dira, hala eremu pribatuan nola publikoan. Etxean, erantzukizunak eta eginkizunak sexuen artean banatzeko modua aldatu beharra dago; publikoan, emakumeak beren buruaren jabe eginen badira, zenbait politikaren beharra dago, hartara diruari loturiko produkzioko denbora eta oinarritzko zereginen denbora elkar-garriak izan daitezzen egitura malguak antolatuz, modu askotariko egiturak, egoera desberdinetara egoki daitezkeenak, alegia, denentzat zereginak "biltze" hutsa baino gehiago diren politikak. Azken finean, laneguna laburtzeak emakumeek lan merkatuan parte har dezaten bultzatzen dezake, baldin eta beste neurriak ere hartuko badira horrekin batera. Ordainduriko lanegun laburragoak berez ez du bermatzen lana berdintasunez banatuko dela. Denboraren gaineko politika oso bat prestatu behar da, lan guztiak kontuan hartuz eta helburutzat hartuko duena, ez bakarrik lan guztiak egin ahal ukaiteko denbora gehiago ukaitea, baizik eta bizitzan zehar norbanakoek denboraz baliatzeko duten autonomia handitzea. Bi hitzetan, proposatzen da aldi berean berrantolatzeko etxeko lana egiteko modua eta lan merkatuaren egiturak. Halatan bakarrik lagunduko zaie

emakumei (bai eta beste kolektibo baztertuei ere) merkatura berdintasunean sartzen. Areago, honek aukera emanen liguke ere, ordainduriko produkzioari emaniko denboraren eta bizitzaren beste zereginetan emandako denboraren artean oreka handiagoa lortzeko, halatan, proposamen hauen indar aldatzaileari bere on guztia ateraz.

7.

Ondorioak

Artikulu honetan zenbait gogoeta egin nahi ukan dugu, lanaren krisiari eta gaur egungo eta etorkizuneko banaketari buruz, genero ikuspegitik begiratuta. Lana eta enplegua bereizi ondoren ikuspegi osotu baten beharra aldarrikatu dugu, hau da, gizartean egiten den lan karga osoa kontuan hartu eta karga oso horren gaur egungo banaketa aztertu beharra. Honek eskatzen du, ikustezi-nezko ekonomia ikustera ematea, etxeko ekonomia ordaingabearen eta merkaturako ekonomiaren arteko elkar lotura estua azpimarratzea eta proposamenak egiterakoan, abiapuntutzat hartzea, produkzio lan ordainduaren nola ordaingabearen berrantolaketa sakonaren beharra. Horrela egini bakarrik lortuko ditugu, emakumeak lan merkatura berdintasunean sartu ahal daitezen behar diren baldintzak, bai eta ordainduriko produkzioan emaniko denboraren eta bizitzaren beste zereginetan emandakoaren artean oreka handiagoa. Eta are oraindik, halatan bakarrik gainditu ahalko ditugu, enpleguaren krisiaren gaineko eztabaidaren mugak, bai eta lana banatzeko proposamenen benetako indar aldatzailea askatu, errotik aldaturiko gizarte zuzen eta berdinzaleagoa lortzeko bidean aurrera egiten bultzatzen gaitzan.

Bibliografía

- ÁLVARO PAGE, M. (1996) *Los usos del tiempo como indicadores de la discriminación entre géneros*. Madrid: Ministerio de Asuntos Sociales, Instituto de la Mujer.
- ANISI, D. (1995) *Creadores de escasez*. Madrid: Alianza Editorial.
- AZNAR, G. (1994) *Trabajar menos para trabajar todos*. Madrid: Ediciones HOAC.
- BENERÍA, L. (1995) "Toward a greater integration of gender in economics". *World Development*, 23. alea, 11 zbk.
- BENERÍA, L. (1992) "Accounting for women's work: the progress of two decades". *World Development*, 20. alea, 11 zbk.
- BOUFFARTIGUE, P. (1997) "¿Fin del trabajo o crisis del trabajo asalariado?". *Sociología del Trabajo*, 29. zbk. Madrid.
- BALBO, L. (1994) "La doble presencia", in Borderías et al. *Las mujeres y el trabajo*.
- BALBO, L. (1991) "Una ley para las horas futuras", *Mientras tanto*, 42. zbk.
- BERRAUX-WIAME, I., C. BORDERÍAS eta A. PESCE (1988) "Trabajo e identidad femenina: una comparación internacional sobre la producción de las trayectorias sociales de la mujeres en España, Francia e Italia", *Sociología del Trabajo*, 3. zbk.
- BORDERÍAS et al. (arg.) (1994) *Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales*. Barcelona: Icaria-FUHEM.
- BOULI, J.Y., G. CETTE eta D. TADDEI (1992) "Le temps de travail, une mutation majeure", *Futuribles*, 165-166 zbk., Mai-Juin.
- CAHIERS DU FEMINISME (1994) Dossier "La dureté du travail en question". Paris.
- CAILLÉ, A. eta J.L. LAVILLE (1996) "Para no entrar en el siglo XXI retrocediendo". *Debats*, 57-58 zbk.
- CAILLÉ, A. eta J.L. LAVILLE (1996) "Para calmar las inquietudes" *Debats*, 57-58 zbk.
- CAPEL, R.M. (1986) *El trabajo y la educación de la mujer en España 1900-1930*. Madrid: Min. de Cultura. Instituto de la Mujer.
- CARRASCO, C. (1991) *El trabajo doméstico. Un análisis económico*. Madrid: Ministerio de Trabajo y SS.
- CARRASCO, C. eta M. MAYORDOMO (1997) "La doble segmentación de las mujeres en el mercado laboral español". *Información Comercial Española*, 760. zbk.
- CASTEL, R. (1996) "Para entrar en el siglo XXI sin liquidar el XX". *Debats*, 57-58 zbk.
- CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL (1996) "El trabajo a tiempo parcial". *Informe nº4*. Madrid.
- COMISIÓN EUROPEA (1994) "Crecimiento, Competitividad, empleo. Retos y pistas para entrar en el siglo XXI", Luxemburgo.
- COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS (1993) "Crecimiento, competitividad y empleo. Retos y pistas para entrar en el siglo XXI" *Boletín de las Comunidades Europeas*, suplemento 6/93.
- COMISIÓN EUROPEA-DG V (1995) *El empleo en Europa, 1995*. Luxemburgo: Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas.

- CORÉ, F. (1994) "Les femmes et la restructuration de l'emploi", *L'Observateur de l'OCDE*, 186. zbk., 1994ko Ots-Martxoak.
- CORDONI, E. (1993) "Las mujeres cambian los tiempos", *Cuadernos de Relaciones Laborales*, 2. zbk. Madrid.
- DE LA FUENTE, M. (1996) "La reducción del tiempo de trabajo", *Eskola Publikoa*, 13. zbk.
- DURÁN, M.A. (1997) "El papel de mujeres y hombres en la economía española". *Información Comercial Española*, 760. zbk.
- DURÁN, M.A. (1991) "El tiempo en la economía española", *Información Comercial Española*, 695. zbk.
- DURÁN, M.A., D. HERAS, C. GARCÍA, F. CAVAILLET eta M. MOYER (1988) *De puertas adentro*. Madrid: Ministerio de Cultura.
- ESPINA, Álvaro (1995) "Pasado presente y futuro de la tasa de actividad femenina en España", in Espina et al. *Estudios de Economía del Trabajo en España I. Oferta y demanda de trabajo*. Madrid: Min. Trabajo y SS.
- ELVIRA, S. eta J.M. ZUFIAUR (1994) "Reparto del trabajo: la necesidad del futuro" in *Trabajar menos para trabajar todos*, egilea: G. Aznar. Madrid: Ediciones HOAC.
- EMAKUNDE (1994) *Familia y Espacio Doméstico en la Comunidad Autónoma de Euskadi. /Familia eta Etxeko Espazioa Euskadiko Autonomia Erkidegoan*. Gasteiz: Emakunde.
- EUROPEAN COMMISSION (1996) *Employment in Europe 1996*. European Comission. Brussels.
- EUSKO JAURLARITZA (1996) *Lan Sailburuaren hitzaldia enpleguaren gainean. Ebazpenak. Eusko Legebiltzarra, 1996ko martxoaren 29*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSTAT (1993) *Encuesta de Presupuestos de tiempo. Análisis de la diferencia entre géneros en el uso del tiempo./Denborako Aurrekontuen Inkesta. Generoen arteko aldeak, denboraren erabileran*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- FOUGEYROLLAS-SCHWEBEL, D. (1996) "Le travail domestique: économie des servitudes et du partage" in H. Hirata eta D. Senotier (arg.) *Femmes et partage du travail*. Paris: Syros.
- FREYSSINET, J. (1993) "Recelos de los sindicatos europeos", *Cuatro Semanas y Le Monde Diplomatique*. Madrid: Apirila.
- GARDINER, J. (1993) *Gender, Care and Economics*. London: MacMillan Press.
- GERSHUNY, J. (1978) *After Industrial Society*. Basingstoke: MacMillan.
- GERSHUNY, J. eta J. ROBINSON (1991) "The household division of labor. Multinational comparisons of change" in European Foundation for the Improvement of Living and Working Conditions (arg.) *The Changing Use of Time*.
- GERSHUNY, J. eta J. JONES (1987) "The changing work/leisure balance in Britain 1961-1984". *Sociological Review Monographs*. 33. zbk.
- GOLDSCHMIDT-CLERMONT, L. (1995) "La valoración monetaria del trabajo no remunerado" *Política y Sociedad*, 19. zbk. Maiatza-Abuztua.

- GOLDSCHMIDT-CLERMONT, L. eta E. PAGNOSSIN-ALIGISAKIS (1995) "Measures of Unrecorded Economic Activities in Fourteen countries". UNDP Human Development Report. Oxford: University Press.
- GORZ, A. (1995) *La metamorfosis del trabajo*. Madrid: Sistema.
- GRAU, E. (1991) "El tiempo es un perro que muerde sobretodo a las mujeres". *Mientras Tanto*, 42. zbk.
- GUIDETTI, P. (1993) "Esperienze del Comune di Modena sul Progetto 'Tempi e Orari della Citta'". (mimeo).
- HUSSON, M. (1994) "Le volume de travail et son partage: étude comparative de sept grands pays". *Problèmes économiques* 2365. zbk. 1994ko martxoa.
- HUSSON, M. (1995) "Les 35 heures contre le chômage", *Politiques*, 9. zbk.
- HUSSON, M. (1996) "L'emploi des femmes en France. Une comptabilité en temps de travail 1980-90", in H. Hirata eta D. Senotier (arg.) *Femmes et partage du travail*. Paris: Syros.
- INSEE (1997) *La Réduction du Temps de Travail*. INSEE, Les dossiers thématiques. 6. zbk. Paris.
- INE (1997) *Encuesta de Población Activa. Principales resultados*. Madrid: INE.
- IOE (1996) *Tiempo social contra reloj*. Madrid: Ministerio de Trabajo y SS. Instituto de la Mujer.
- KAISERGRUBER, D. (1994) "Frontières de l'emploi, frontières de l'entreprise". *Futuribles*, 193. zbk., 1994ko abendua.
- LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEA (1997) *Enplegua munduan 1996/96*. Geneva: LANE.
- LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEA (1994) *The World Employment Situation. Trends and Prospects*. Geneva: LANE.
- LAVILLE, J.L. (1994) "L'économie solidaire: une réponse à la crise". *Problèmes économiques*, 2365, 1994ko martxoa.
- LIPIETZ, A. (1992) *Towards a new economic order. Post-Fordism, ecology and democracy*. London: Polity.
- LIPIETZ, A. (1989) *Choisir l'audace*. Paris: La Découverte
- LIPIETZ, A. (1994) "Une politique de l'emploi centrée sur la conquete du temps libre" mimeo.
- LUNGHINI, G. (1995) *La edad del despilfarro. Paro y necesidades sociales*. Turin: Boringhieri.
- MARCHAND, O. (1992) "Une comparaison internationale des temps de travail", *Futuribles*, 165-166. zbk., maiatza-ekaina.
- MCDOWELL, L. (1991) "Life without Father and Ford: the new gender order of post-Fordism". *Transactions, Institute of British Geographers*, 16. zbk.
- MCDOWELL, L. (1994) *Gender and Work in the City*. Oxford: Blackweel.
- MUÑOZ DE BUSTILLO, R. (1993) "Salarios, desempleo y calidad de empleo" in zenbait egile: *La larga noche Neoliberal*. Barcelona-Madrid: Instituto Sindical de Estudios-Icaria.
- NACIONES UNIDAS (1995) *Emakumearen egoera munduan, 1995*. NY: Nazio Batuak.
- NAREDO, J.M. eta F. PARRA (Bil.) (1993) *Hacia una ciencia de los Recursos Naturales*. Madrid: Siglo XXI.
- NBGP (1995) *Giza garapenari buruzko Txostena, 1995*. Mexiko: NBGP.
- OACKLEY, A. (1974) *The sociology of housework*. Oxford: Martin Robertson.

-
- OFFE, C. (1997) "Precariedad y mercado laboral. Un análisis a medio plazo de las respuestas disponibles" in zenbait egile: *¿Qué crisis?*. Bilbao: Gako.
- PICCHIO, A. (1994) "El trabajo de reproducción, tema central en el análisis del mercado laboral", in Borderías et al. *Las mujeres y el trabajo*.
- PRATS, M., GARCÍA RAMÓN, M.D., CÁNOVES, G. (1995) *Las mujeres y el uso del tiempo*. Madrid: Min. Asuntos Sociales. Instituto de la Mujer.
- PRIETO, C. (arg.) (1994) *Trabajadores y condiciones de trabajo*. Madrid: HOAC.
- RECIO, A. (1997) "Reducción de la jornada de trabajo y empleo: interrogantes en torno a una consigna popular ampliamente popularizada", in Riechmann eta Recio *Quien parte y reparte*. Barcelona: Icaria.
- RIFKIN, J. (1996) *El fin del trabajo*. Barcelona: Paidós.
- RODRÍGUEZ, A. (1996) "Trabajo nos sobra, queremos empleo...y algo más", *Eskola Publikoa*, 13. zbk.
- VANDELAC, L. (1994) "La economía doméstica a la salsa mercantil...o las valoraciones monetarias del trabajo doméstico" in Borderías et al. *Las mujeres y el trabajo*.
- WALBY, S. (1997) *Gender transformations*. London: Routledge.
- WARING, M. (1988) *Si las mujeres contaran*. Madrid: Vindicación.
- WOOD, S. (arg.) (1989) *The transformation of work?* London: Unwin Hyman.

NATIVIDAD ABRIL VARGAS

**Kazetaritza Saila. Euskal
Herriko Unibertsitatea**

BLANCA MUÑOZ LÓPEZ

**Humanitateak, Politika
Zientziak eta Soziologia Saila.
Carlos III Unibertsitatea. Madril**

*Komunikabideak
eta publizitatea*

XX. mendea atzean uzteko horren denbora gutxi falta zaigunez, ez du inolako beldurrik ematen, beste egoeran aieru gisa bakarrik aipatuko genituzkeen gauzekin oraingoan berriz, baieztapen biribilak egitea. Halatan esan dezakegu ziur ziur, mende bat kargatuko dugula gainean, XXI.ari hasiera emango diogula, galdera eta itaun samalda bati aterabiderik eman gabe. Horietako zenbait existentziako topiko hutsak ditugu, beste zenbait ez horrenbeste.

Onartu beharra dugu, gizaki orok bere buruari galdetu egiten diola, kezkatu egiten dela, miratzearekin batera, bere burua munduan ikusirik eta gainerako gizakien presentziagatik ere, inoiz ere ulertzeri iritsi gabe bizitzaren nondik norakoa. Berdina ez izanagatik ere, antzeko gauza gertatzen da halere, komunikabideekin. Betiere harritu eta miratu egiten baikaitu, gure bizitzan sartze-ko duten gaitasuna, zein erakargarri zaizkigun, nola "inganatzen" gaituzten nola edo hala, Lur planetako gizaki guztiak. Halaxe bizi gara, beraz, geure izatearen iturriak benetan ezagutzen ez ditugun arren, eta halaxe kontsumitzen ditugu komunikabideak, gure bizitzan duten eragina zenbaterainokoa den ez dakigun arren.

Badaiteke, Descartes, bere Cogito ergo sum (Pentsatzen dudanez banaiz) ospetsua esan zuenean bere izatean segurtatua eta indarberritua sentitzea; halarik ere, zaila da pentsamenduaren nagusitasuna zalantzan ez jartzea eta bizi dugun inguru sozial, kultural, ekonomiko eta politikotik at, sistema ideologikoak sorturiko irudikatze eredu nagusietatik at autoeraikitako "neu" bat sinistea. Eta gizon eta emakumeen norbanako eta taldeko nortasuna eraikitze honetan, komunikabideek, berriro ere, funtsezko zeregina dute.

Generoari eta ekintza positiboko politikei buruzko II. biltzar honetako ene mintzaldian zenbait ohar eta iradokizun egin nahi ditut eta eztabaidara eskaini, komunikabideetako produktu eta mezuak eraiki eta egiterakoan oinarrikoak iruditzen zaizkidan hiru zutabe edo ardatzen inguruan:

- Gizarte Zientzietako eta Komunikazioko Fakultatea, non ikasleak gizaki bezala eta profesional bezala heziko diren, jakintza eta ideologia desberdinekiko harremanetan.
- Komunikabideetako erredakzioak, non "informazioko errealitate" desberdinak eraikitzen diren. Jakin nahi dugu emakumeak eta gizonak non dauden kokatuak, enpresako piramidean.
- Lanbideko ohiturek eta usuek nolako eragina dute generoaren gaineko diskurtsoa eraikitzen.

1.

Ikasgeletak

Atal honi hasiera emateko, lehenik iradokizun bat. Izan ere, badaiteke hau ez izatea garai txarre-na, —unibertsitateetan, ikasketa planetan aldaketak eta erreformak direla eta gai berriak sartzen eta zaharrak berritzen darabilgun garai hau, alegia—, zehatz-mehatz ezagutzeko zein ikasgai berri eta zein eduki emanen diren azkenean, Euskal Herriko Unibertsitateko Komunikazioko Zientzietako Fakultatea osatzen duten hiru adarretan, hau da: Kazetaritzan, Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Publizitate eta Harreman Publikotako ikasketetan.

Interasgarria litzateke ikustea, milurtekoa amaitzeaz dugula, ea gai garen, edo asmoa behintzat ote dugun, ikasgeletan eskaintzen eta hedatzen ditugun ezagupen eta jarreretan kontuan hartzeko gizartean gizonak eta emakumeak daudela eta batzuek eta besteek gizarteari zein ekarpen egin

dioten. Ez litzateke, beraz soberan izanen, programen eskaintzak orraztu eta ikustea, esate bate-rako:

- Ea programak idazterakoan, sexu markaren akatsa zuzendu dugun, ala oraindik sartzen ote ditugun, eta horrela desagertarazten, emakumezko ikasleak, gizonezkoentzako trataeran.
- Ea dagozkien ikasgaietan, feminismoaren ekarpenak ematen diren, ideologia politikoa eta gi-zarte mogimendua den bezainbatean.
- Ea kontuan hartzen ote den, ikuspegi oro hartzaile batetik emakumeek, gai anitzen gainean idatzi duten bibliografia zabala.
- Ea kontuan hartzen ote den, ikuspegi feministetatik “objektibitate zientifikoari” eginiko berri-kusketa eta kritika, bai eta ikerketetak bideratzeko egiten diren proposamen kontzeptual eta azterketakoak eta teorizazioa.

Alabaina, lehen esan dizuedan bezala, honako hau iradokizuna besterik ez duzue; egiteke dugun lana zertxobait jakin nahi badugu kazetaritzako ikasleek, hau da, komunikabideetako langile iza-nen direnek, gai hauetaz nolako informazioa jasotzen duten; aldi berean jakinen genuke gainera, irakasleek gai hauetaz duten informazioa eta kontzientziatziio maila; zeren eta gauza bat baita pentsatzea funtsezkoa dela ekarpen, ikuspegi eta abiapuntu horiek programetan agertzea, eta bestea gaur egun oina falta zaigula, hau da, diagnostikoa.

1.1.

EGUNEROKOA...

Aurtengo 97-98 ikastaro hau hirugarrena dugu “ikasketa plan berri” deiturikoen artean, horrela deituak, izan ere, orain dela pare bat hilabete arte, zeren eta orain dela gutxi erreforma berria ezarri baita. Nahiz eta itxuran zerikusi zuzenik ez duen apartatuaren hastapenean planteaturiko gaiarekin, interesgarria deritzot, plan berrietako ikasleen eta plan zaharreko ikasleen artean, lan-bidea ikasteari loturiko jarrera eta portaeretan nabarituriko zenbait desberdintasun seinalatzeari. Taldeen gainekoak dira, noski, hautemate hauek, eta ez norbanakoen gainekoak.

Halatan bada, fakultateko egunerokoan, ikasgelak, plan berrian, bete ohi dira. Eta betetzen di-tuzte, kazetaritza lehen aukera bezala aukeratu zuten ikasleek. Jende zaletua dugu, beraz, lanbi-derako jaiera duena, eta uste dut oro har jarrera kritiko samarrekoa. Beti azaldu naiz, sarreran mugak jartzearen aurka, nerabearoan hutsen bat egiteagatik —batezbesteko baxu samarra ukai-teagatik, adibidez— inori ez litzaiokeela itxi behar egin nahi dituen unibertsitateko ikasketetarako bidea, azken finean, langile apartak gal baikenitzake horrela; alabaina, lehengo egoera ere ja-sanezina zen.

Ez baita inondik ere gauza bera, batezbesteko nota baxua lortu arren, Kazetaritza gustukoa zai-o-lako aukeratzen duena, eta “zerbait egitearren” sartzen zena, Zientzian onartu ez zutelako, au-saz, edo Medikuntzatik bidali zutelako. Halako egoeran, hirugarren ikasturterako haietako asko campusean barrena galduak ziren eta ikastaroaren nondik norakoaz ezer gutxi zekitelarik, ez zi-ren azterketa eguna arte agertzen. Eta aldaketa hau interesgarria da. Honek ez du esan nahi fa-kultatetik at utzi behar denik Kazetaritza benetan ikasi nahi duen jendea; gauza bat baita ikasge-lak mukurua betetzea eta bestea behar beste irakasle jartzea.

Kazetaritzaren aurrean ikasgeletan nabaritutako jarrera desberdinei buruzko etenalditxo honen ondoren, lehengora nahiko nuke itzuli. Irakasle izanez ikusi eta ikasitakoa ekarri nahiko nizueke eta aldi berean erakutsi ere, ikasleen artean, zenbait gairen aurrean, erruz zabalduko erantzunak edo portaerak, hala plan zaharrea nola berrietan ere.

Halatan baditugu, adibidez, sexu bereizkeriari, feminismoari edota Generoko ikasketei loturiko gaiak; gai hauek, hasiera batean ez dira gustukoak gertatzen eta eztabaidan hasteko ere gogo gutxi azaldu ohi dute ikasleek, batez ere emakumezkoek esaten dutelarik ezetz; emakumeak ia %60a dira, izan ere ikasketa hauetan.

Bitxia da, feminismoari loturiko gaiak, gutxiespen kutsuz beterik, "ideologiko" edo "politiko" deitzea, "behialako" gauzatat hartuz, modaz paseak eta gaur egungo egoerarekin zer ikusirik ez dutenak direlakoan. Jarrera hauek erakusten dute, ene iritziz, zenbateraino hartu dituen neska gazteen kontzientziak, feminismoaren gainean erori den eta neurri handi batean komunikabideen bultzada gogorraz erori ere zaion "legenda beltzak".

Honek ekartzen dien beldurra da, ikasgelan eskari gehiegi egiten badute, feministak izatea leporatuko dietela. Eta horretan ez erortzeko, artista eta modelo zenbaitek egiten duten moduan, argi uzten dute beren eskubideak ezagutu bai, baina feministak ez direla. Ez baitute nahi inork nahas ditzala, komunikabideek hedaturiko "70. hamarkadako feministen" irudi ezezkor, anker eta irri-garriarekin, izan ere, emakumeen belaunaldi berrietako kontzientzian sartua den irudia.

Urtetik urtera, beti fenomeno berbera ikusteak erakutsi dit "estereotipoak" duen indarra taldeen heziketarako, bai eta zein ahalmen ikaragarria duten komunikabideek estereotipoa erein eta handiki bi egunetara, atzo bertan asmatu zutena hain errotua izateko kolektibitateen subkontzientean, ezen betierekoa dela baitirudi berri berria izan arren eta milurteko ohitura sexista zaharkitu horietako beste edozein betiko ohitura bailitzan agertzen zaigu.

Honi gaineratu behar zaio, oraindik ere, emakumezkoen ereduaren baliogutzitzea hain hedatua dagoela, ezen emakumezko ikasleek ihes egiten baitiote edozein tratu bereizituari, izan ere beraiek "baliogutzikoarekin" lotzen duten horri. Bestalde, argi dute ere, ez zaiela ez gustuko, ez interesgarri, gizonezkoen arketipoa, identifikatzeko eredu bezala. Halarik ere ez da erraza ikus dezaten kazetaritza lana ez dela zeregin "neutroa", norbanakoen gauza, eta gizonezkoen eredu nagusia ez dela kazetari "izateko" benetako modu bakarra.

Lanerako eskubidea, emakumezko ikasleek funtsezko printzipiotzat dute aipatzen; zirrikitorik gabeko eskubide ikutuezina eta ukaezina zaie. Uste oso horretatik abiatuz, ez da harrizkoa ezer entzun nahi ez ukaitea sexu bereizkeriaren gainean, esaten dutelarik, nahiz eta estatistika xumeak ere oso argi uzten duen ez dela inondik ere horrela, langabezia emakumeen bezain gizonezkoen arazoa dela. Nahia eta egia nahasten dituzte eta behin eta berriz esaten dute beraiek ez direla sekulan diskriminatuak sentitu, ez etxean, ez ikasketetan ere, neskak izateagatik. Pentsatzen dute nota onak eta prestakuntzarekin, lan merkatuan gizonezkoen parean arituko direla lehian. Emakumeek lanerako eskubidea dutela ukaezina zaie gizonezko ikasleei ere.

Ikasturte honen hastapenean, bestalde, harritu egin ninduen, lehen eskola egunetan, taldeari zuzentzen nintzaionean, erabili ohi dugun hizkeraren sexu marka okerra zuzentzearen, emakumez-

koentzako eta gizonezkoentzako trataerak erabiltzen nituela ikusita euren arteko konplizitateko soak edota irrifarñorik apenas sortzen zirela ikusteak. Geroago jakin nuen, erantzun “ezaren” arrazoia zela, aurreko urtean jadanik, horrelako egoera batean topatu zirela eta halatan jadanik horrek ez zituela harritzen, ez irribarrea sortzen. Honek adorea eman zidan, bide horretatik jarraitzeko, argi baita deus ez dela aldaezin edo iragazkaitza; hastapenean harritu egiten duena, eredu gero eta usuagoa bihur baitaiteke.

Dena den, lehen esan dugunari jarraituz, emakumeei ez dirudi ilusio handia egiten dienik ikasgeletako saio “zuzentzaile” xumeek. Nolabaiteko beldurra baitute, “bestelakoak” direla azaltzeko edo hala hartuak izateko; espero daitezkeen eruedetatik atera eta beren laneko eskubideak zalantzan jarriko ez ote zaizkien, patroï zabalduenaz besteko identitatea erakusteagatik, hau da, “1-araua” den patroïaz bestekoa.

Beldur eta zalantza hauek eramaten dituzte, esate baterako, idazteko eskola praktikoetan, automatikoki “zuzentzera”, bi sexuak kontuan hartzen dituen komunikatua, diskurtsoa automatikoki gizonezkoentzako eran jarritz. Eta hala egiten dute, lanbidezko arteztasunez ari direneko uste osoan. Badira, beti bezala, salbuespenak, noski, bai nesken artean, bai mutilen artean ere.

Hori guztia hala izanik, erraz esan daiteke neskek —eta mutilen batek edo bestek— aurrerapen handiak egin dituztela, batez ere lan merkatura sartzeari loturiko gauzatan, baina horrekin batera informazio oso urria dutela, bai eta gogoeta falta ere. Oso bestelako argudioak erabiltzen dituzte, eskola garaian edota institutuan irakasle feministaren bat ukan dituzten neskek eta mutikoren batek edo bestek. Argi bereizten dute, adibidez, zer diren norbanakoen eskubideak, zer elkartasuna eta zer kontzientzia kolektiboa.

Oraindik maiz entzuten da feminismoa matxismoaren aurkakoa dela, maiz botatzen dute amen gainera heziketa patriarkalaren erru guztia, “zur eta lur” gelditzen dira —aurten esaten zuten bezala— androzentrismo bezalako hitzekin, izan ere, hitz hau doktoretza ikastaroetan beraietan ere ezezaguna baitzen, etab. Honekin batera azpimarratu behar da ere, “Managaitz” talde feministaren lana. Talde honek, Soziologia eta Kazetaritzako ikasle ziren neska batzuek bultzaturik, orain dela bost urte egin zituen bere lehengo urratsak. Garai haïetatik gaur egun artekoan hainbat eta hainbat bilera eginak dituzte eta jardun anitz antolatu ere bai.

1.2.

LABURBILDUZ

Inori ez zaio eskapatzen, heziketako etapa honen eskuetan dagoela neurri handi batean, kazetaritzaren ezagutzak eta topikoak zeintzuk eta nolakoak izanen diren. Nahiz eta gauza jakina zaigun aurrerapen orokorrak ezagutzera emanen direla, eskolako lehen garaietatik desberdintasunaren errespetoa eta eskubideen berdintasuna gordetzen erakusten diren neurrian, beharrezkoa eta eraginkorra iruditzen zait halaber, lanbide bakoitzean ere lan egitea: ematen dugun ideologia orraztu, gordean dagoena agerian jarri, bestelako bideak ireki... Eta horretarako, gaur egun ikasgeletan barreiaturiko norbanako askoren indarrak, amankomuneko egitasmo oro-hartzaileetan bildu behar ditugu. Egiteko horiei bide egiten hasteko, aurretik zenbait puntu argitu beharko genituz-

ke, halatan fakultatean dugun egoera hobeki eta zehatzago marraz dezagun. Esaterako:

- Ikasketa plan berrietan eskaintzen diren gai, programen garapen eta bibliografiaren gaineko txostena egin.
- Kazetaritzako ikasleek, lanbide honen gainean bere eginak dituzten estereotipoak eta iritzia ezagutu.
- EHUUn erabiltzen diren inprimaki guztiak orraztu eta behar diren hizkuntzako zuzenketak eskatzea. Ezin onartuzkoa da, esate baterako, azterketa orrietan beraietan ere, "alumno" hitza erabiltzea bakarrik, hala gizonezkoentzat nola emakumezkoentzat ere. Gizonezkoentzako tratua horrenbesteraino bereganatu dute emakumezkoek ere, non beren testuak izenpetzera-koan ere, beren buruz "alumno" idazten baitute.
- Jendearen kontzientzian hedatzen joan, hizkuntzaren erabilera sexista zuzentzeko lana guz-tion egitekoa dela eta denbora beharko dela horretarako. Sinonimoak bilatzen saiatu, bazter-turiko hitzak berreskuratu, esamolde berriak antolatu... erakutsi ere, nola zenbait komunikabi-detan ((telebistako albistegietan, egunkarietako berrietan, artikuluetan...)) bi generoak aipa-tzen hasten ari diren, dexente eta arin samar aipatu ere.
- Era berean garrantzitsua da ere, gizarteko kolektiboek eta partidu, sindikatu, enpresa eta era-kundeetako prentsa bulegoetan, bi generoen erabilera areagotzea eta hedatzea. Ikasgeletan aritzeko abiapuntu ona zaigu hori. Azken urteotan espainolezko testuetan "arroa" hartu da, batez ere "las/los" eskergari itzuri egiteko. Baina halatan, testuaren maskulino "fisikoa" ez-kutatzen bada ere, eskarmentuak erakusten digu, tekla baten erabilera automatikoak ez ditue-la gure buruko ohiturak aldatzen eta zernahirekin, horratx maskulino "unibertsala"!
- Katearen azken maila, baina ez garrantzi gutxiagokoa, ikerketa bultzatzea da, hala ikasge-letan nola hirugarren zikloan ere. Ene eskarmentutik abiatuta esan dezaket, aurtengo hiruga-rraren mailako ene ikasleek, lanbide honetako praktikari buruz zituzten ideia asko aldatu zituz-tela, prentsa idatziaren edukia aztertu ondoren. Aztertu ere, egunkarietako Kultura atalak eta gehigarriak aztertu zituzten, eta kultur aldizkariak ere, lana Kultur Kazetaritzako ikasgairako baitzen.

Bestalde, orain bertan ikerketako bide hau jorratzen ari diren zazpi tesi zuzentzen ari naiz, Kazetaritzako departamenduan matrikulatuak. Halatan bada, etorkizunera begira baikorra naiz, zeren eta interesa, behin sortuz gero, betirako mantentzen baita.

2. *Plantilak eta zuzendaritzak*

Ikerketa askoren emaitzek erakusten dute, ongi dakigun bezala, lan munduan sexu bereizkeria ematen dela oraindik ere. Komunikabideetako enpresak ez dira horretan salbuespen. Ikerketa ho-rien arabera, badirudi erredakzioetan nolabaiteko parekatzea lortzen ari dela pixkanaka pixka-naka, baina kudeaketa, zuzendaritza eta produktuaren kontrolerako postuetan berriz, gizonezko-ak dira nagusi, batzuetan %100 izateraino ere.

Piramidearen beste muturrean, administrazio eta garbiketa lanetan, emakumeak dira langile gehienak, batzuetan guztiak, eta lantegietan berriz, gizonetzakoak baizik ez dira aritzen ohi. Emakume gehiago aurkitzen ditugu ere "emakumeentzako prentsa" deituriko aldizkarietako zuzendaritza taldean —*Cosmopolitan, Marie Claire, Elle*, etab.— baina jabeak halere, gizonak ohi dira.

Argi da lan merkatuko alde desberdinetan sexuen araberako banaketak jartzen dituela berriro emakumeak eta gizonak, generoko roletan. Hau da, emakumeek eremu publikoan errepikatzen dituzte, pribatuan, emakume izategatik egiten dituzten zereginen pareko lanak, garbitzea eta egitekoak antolatzea bereziki. Gizonak, nagusituriko generokoak izanik, gizarteak garrantzizkoagozat hartzen dituen zereginetan aritu ohi dira, hala nola zuzendaritza, kudeaketa eta kontrola. Emakumeek garbigailuekin egiten dituzten lanak baino hobeto ordainduak eta aintzat hartuak dira ere, makineriarekin egiten diren lanak, tresnak beraiek ere makina/erratza, bi gizarte eremuen adierazle dira.

Arketipoak kulturalki eraikitzeari eta generoen arteko desberdintasuna eta hierarkia ezartzeari loturiko gai honetan, ezin seinalatu gabe utzi, gure subkontzientean zein indar handiz eta zein argi mantentzen diren, heredatutako eredu zenbait —gure eguneroko jardunean eragina dutenak—, nahiz eta eredu horiek oso zalantzan jarriak diren eta batzuetan jardunak erakusten duen ez direla jadanik erabiltzen. Ez naiz ausartzen halere esatera azkenean ez ote den, aldaketei kontra egiteko joerak aldaketen nahiak baino indar handiagoa egiten duela. Ezin baita ulertu "amnesia" jokatuko horrenbeste jende egotea emakume kazetariak daudela onartzerakoan, hainbeste izanik gainera arrakasta handiko karrerak egin dituztenak. Honen argigarri bi adibide besterik ez:

- Komunikabideetako zuzendari batzuek aldizkari bati adierazitakoa.
- Kazetariaren irudiari buruzko inkesta batzuetako emaitzak.

2.1. KOMUNIKABIDEETAKO "TITANEN" IRITZIAK

Marie Claire aldizkariak, azken maiatzako zenbakian, "Encuentros con el cuarto poder" izenean bilduak hiru elkarrizketa ematen zituen, gaur egun "komunikabideetako hiru titanak" deituak direnekin: Juan Luis Cebrián, *El País*ekoarekin, José Manuel Lorenzo, *Antena 3*koarekin eta berriki hil den Antonio Herrero, *COPE*koarekin. Isabel Pisano-k gidatzen zituen elkarrizketak.

Galderak eta erantzunak ematen ditut soilik eta literalki ditut ematen, hartara argi gera dakizuen zer deritzoten eta nola "begiratzen" dioten komunikabideen munduko sexu bereizkeriaren gaiari.

— Juan Luis Cebrián, *El País* eta *Sogecable*

(...)

MC Zenbat emakume dago Administrazio-kontseiluan?

J.L.C. Bat. "Touché".

MC Gizonak?

J.L.C. Hogeia.

MC Emakumeak diskriminaturik al daude?

J.L.C. Ez. Beti iruditu zait oso ona emakumeak ukaitea, gizonak baino argiagoak dira, segur aski beste sexuaren menpean izan den sexua direlako.

(...)

— José Manuel Lorenzo, *Antena 3*eko zuzendari nagusia.

(...)

MC Zenbat emakume dago Antena 3ko administrazio-kontseiluan?

J.M.L. Bat ere ez. Telebista bateko kargurik garrantzitsuena aurkezle kargua da eta emakume anitz dugu aurkezle.

MC Diskriminaziorik?

J.M.L. Sekulan ez zidaten horrelako itaunik egin; bihar galdetuko dut.

(...)

— Antonio Herrero, "La mañana", *COPE*

(Oraingoan Isabel Pisano-k enpresan emakumeek duten presentziaz galdetzen ez badio ere, argigarria zaigu halere kazetaritzaz ematen duen iritzi "erromantikoa" eta lan horretan aritzeko nola-ko generoko irudia erakusten digun. Eta hori dena, Cristina Pecker kazetari ospetsuarekin ezkon-
duta izanik...).

(...)

MC Zein da laugarren boterearen alde bikaina?

A.H. Kazetaritza bilauen lanbidea da, gizatxarrena, jende erre, mindu, bekaizti, mozkor, porrot eginena; baina azkenean munduko ederrena erdiesten dute: jendeari informazioa ematea, alegia. Zer axola du kazetari bat ohe azpian etzaten bada, edota arropa bi astetan aldatu gabe badabil, gizon horrek bilatzen duena azkenean, egiazko informazioa ematea bada? (Nik azpimarratu dut).

(...)

Ez dakit zer pentsa erantzun hauekin, izan ere, dena da harrigarri. Ez dakit nola interpretatu ere. Ziniko baten erantzunak ote dira?; Erremediorik gabeko paternalista batenak?. Itsu izan eta begitaziodunen munduan ote dabilta? Eta hitzak ere galtzen zaizkit, Antonio Herrerok lanbidearen irudia osatzeko antolatzen duen karikatura idealizatu eta korapilatsu baino korapilatsuagoa irakurtzean: titiko umeak ere ez luke horrelakorik sinetsiko. Alabaina, filmeko heroia beti Humprey Bogart izan dadila, eta ez dadila inoiz falta...

2.2.

PROFESIONALAREN "ARKETIPOA"

Lehen aipatu dudan bigarren adibide erakusgarria, kazetariaren irudiari buruzko inkesta batzuen emaitzetatik atera dut. Datu hauetan, ikusiko duzuen bezala, berriz ere agertzen dira bete betean generoko harremanak eta sexu bereizkeria. Inkesta hauen emaitzak, Luis Fernando Ramos-en "La profesión periodística en España" izeneko liburuan dira argitaratuak.

Ramos Fernández-ek, "Los perfiles del periodista español" izeneko atalean, bost inkestatako emaitzak aipatzen ditu.

Hasteko, Maria Pilar Diezhandino, Ofa Bezunartea eta César Coca-k, Espainiako kazetari gorenei buruz, "La élite de los periodistas" izenpean argitaraturiko ikerketa aipatzen du. Inkesta egiteko

98 izeneko unibertsoa osatu zen, estatuko komunikabideetan garrantzi handieneko postuak dituzten kazetarien artean zorrozki aukera eginez. Erantzunak 60 izan ziren. Inkesta honen arabera, kazetari gorenen artean %90 gizonak dira.

Argigarri gerta dakiguke beraien joera ideologikoak ezagutzea ere: ia %67k bere burua "aurre-rakoitzat" dute eta %5ak besterik ez "kontserbadoretzat".

Informatzeko eskubide eta eginbeharrean behar duten independentziaren mugatzailatzat jartzen dute gobernua %40k, anitz kexatzen dira botere politikoak Estatuko komunikabideen bitartez duen eskuaz, baina bestelako esku sartze larriak ere aipatzen dituzte: publizitateak enpresaren gainean egiten duen indarra, adibidez, galdetutakoen erdiak aipatu zuen.

1990ean, Madrilgo Prentsa Elkarteak Demoscopia-ri eskatu zion ikerketa bat, kazetaritzaren erre-tratu sozologikoa egiteko asmotan. Lanean direnen %90a Prentsako Elkarteetako Federakuntzan (FAPE) dago, eta bertan zerrendaturiko bost mila luzeetatik 700i egin zitzaizkien inkesta. Eginiko inkestako datuen arabera ateratzen den kazetaria izanen litzateke gizona (%83), 35 eta 44 urte artekoa (%35), ezkondua (%76,6) eta beraren "emaztea" lanean ari dela ere (%57).

(Txostena: "El periodista español. Retrato intermitente". *Periodistas* aldizkaria, 39. zenbakia, 1990eko abendua. Madrilgo Prentsa Elkarteak)

Prentsa Elkarteak ondoren, hain zuzen ere 1994. urtean, eginiko ikerketa batek, kazetarien oso antzeko irudia ematen digu berriro ere: Ezkonduak, 40 urte ingurukoak, laurdena emakumeak dira eta gainerako hiru laurdenak gizonak. Ehuneko 30 eguneroko prentsan eta kazetetan aritzen zen eta ehuneko 27a ikusentzunezkoetan; gainerakoak kabinete eta agentzietan.

(El perfil del profesional. Madrilgo Prentsa Elkartearen ikerketa. 1994ko ekaina).

Aipaturiko liburuan agertzen dira ere, 1996ean Col·legi de Periodistes de Catalunya delakoak, hango egoera sozio-profesionalari buruz eginiko inkesta bateko datuak. 600 kazetarietako unibertso batean emakumeak %35 ziren, hortaz, 1992ko inkesta batekin erkatuz gero, emakumeen presentzia bost puntutan handitua zen. Adierazgarria zen aurreko inkestetan azaltzen ez zen datu bat, alegia, Catalanian gizonetako kazetarien batezbesteko diru sarrera lau miloi eskasak ziren bitartean, emakumeena berriz hiru miloi eskasakoa zen. Nahiz eta ia %84k inongo partiduan ez duela militatzen esaten duen, gehienera "ezkerra" omen zaie begiko.

Inkestak jasotzen ditu ere sexu bereizkeriari buruz dituzten iritziak. Harrigarriki, %56k uste du fenomeno hori ez dela ematen. Esaten da ere, gehienera ustetan "emakume izatea" ez dela kontuan hartzen lanbidean aritzerakoan (%59,8), ez norbanakoen harremanetan (%64) eta ez lanpostuz igotzeko ere (%51,2).

(Mes llicenciats i més dones al periodisme. Enquesta sobre el treball i les opinions dels informadors. Revista *Capçalera*, número 73, noviembre de 1996, Col·legi de Periodistes de Catalunya).

Baina sexu bereizkerietan eta desagertzearen erreparatzeko onena, Galiziako kazetariaren ezagarriei buruzko inkestaren datuak ikustea da. Liburuak bilduriko datuetan ez da aipatu ere egiten sexuaren aldagaia. Halatan ez da harrizkoa, beraz, Galiziako kazetariaren batezbesteko irudia izatea "gizon gaztea, 26 eta 35 urte bitartekoa, ezkongabea, seme-alabarik gabea, goi-mailako ikasketa unibertsitarioak dituen". Ikerketa 1995ekoa da eta Miguel Túñez-ek zuzendu zuen. 300 profesionalen lagina aukeratu zen zorrozki, 800 pertsonetako unibertso batetik.

(Miguel Túñez. *Da teoría a práctica. Perfil do periodista galego*. Santiago, LEA, 1996).

2.3.

SEXUA ETA GENEROA

Gogora ekar ditzagun orain, laneko errealtate honen aurrean, hirugarren mailako ene ikasle diren neskek dituzten bidezko itxaropenak, hau da, lana baldintza berdinetan egiteko eskubidea dutela nola uste duten bete betean. 70. hamarkadatik gaur egun arte, hamaika xedapen, arau, proiektu, eskarmentu eta gomendio egin dira nazioarteko forotan, plantiletan sexu bereizkeriari amaiera emateko, emakumeen lana ageriango jartzeko eta komunikabideetako bai berrietan bai eta iragarkietan ere balore sexistak emateari uzteko. Eta ukaezina da ere, hogeitamar urte eskasetan, gizarte industrialduetan, funtsezko aldaketak gertatu direla emakumeen bizimoduetan, kontzientzia hartze hori hedatzearekin batera.

Garrantzi handikoa zaigu beraz, gizonak eta emakumeak komunikabideetan dituzten harremanak aztertzerakoan ez dezagun generoa ahantz, generoa, ikerketa zenbaitetan agertzen den bezala, hau da, mundu material eta sinbolikoak egituratzen dituen, eta haietan gure eskarmentua ere sartzen duen mekanismo bezala, harremanetako kategoria bat, alegia, tipologia desberdinak kulturaren nola eraikitzen diren azaltzen laguntzen diguna.

Eta neurri berean, desberdinkeriak zuzentzeko politikak eraginkorrak gerta daitezzen, politika hauek ezin pentsa daitezke generoa bazter utzirik, ez bada aldaketa koantitatibo hutsak aski zaizkigula, aldaketa ideologiko sakonaren orde. Aldaketak generoaren ikuspegitik antolatuz gero, sistema patriarkalaren egiturak desegiten joanen gara. Halatan bada, errotuko da pixkanaka, sexu desberdintasuna, sexua berez, ez dela arazoaren "oinarria" baizik eta itxura bakarrik. Zeren eta desberdintasunaren iturria azaltzen baita, sexu desberdintasunean oinarriturik zeregin desberdinak ematen zaizkienean sexu bati eta besteari, zeregin batzuk besteak baino gorago jarritz. Honi deitzen diogu, generoa kulturalki eraikitzea.

Ikuspegi honetatik aritzeak eskatzen du, aldi berean, bizia eman eta zaintzearekin, maitasunen eta emozioen munduarekin zerikusia duten beste zereginak ere berriro baloratzea; hau da, buruko eta bihotzeko gauzak elkarri egokitzeko bidean aurrera egitea. Eta horrekin batera dator ere kontuan hartzea, lehen lehena den desberdinkeriarekin batera beste egoera bidegabeak ere dardela. Halatan ditugu bada, herrien identitateko eskubideen aurka eginikoak, klaseko desberdinkeriak eta ondasunak munduan partitzeko modu desorekatua. Desberdinkeriazko egoera hauek, generoarekin gertatzen den bezala, harremanetako kategoria desberdinak ezartzen dituzte, klasearen, arrazaren edo jaiotako geografiako lekuaren arabera.

Pentsatzekoa da, beraz, komunikabideetan aplikaturiko generoko politika ezin dela izan soilik kazetari diren emakume gutxi batzuek, komunikabideetako maila gorenetako gizonekin karguak eta etekinak parteka ditzatela lortzea.

3.

Lenbat eta emakume gehiago...

Lehen esan dugun bezala, komunikabideetako enpresen antolamenduari buruzko inkesta eta ikerketek diotenez, emakumeak gizonak baino gutxiago dira erredakzioetan eta zuzendaritza eta kontroleko postuetatik urrun daude. Lantzen dituzten atalak eta gaiak izaten dira gainera, lanbi-

dean aintzat hartuak ez direnak: Gizartea, Kultura eta Ikuskizunak, izan ere, emakumeek gusturago irakurtzen dituzten atalak. Aitzitik gizonak batez ere Politika, Ekonomia edo Iritziko ataletan aritu ohi dira, izan ere, gizonak irakurtzen dituzten atal edota gaiak eta lanbidean garrantzizkoenak direnak. Egoera honen gainean bi xehetasun eman nahi nituzke:

- Lehenik eta behin, argitu, emakumeak lanbidean apenas aintzat hartuak ez diren ataletan aritzen direla esaten dugunean aplikatzen ari garela, nagusituriko ikuspegiak ezarritako baloreen hierarkia. Behe mailako ataltzat hartuak baitira, maila goragoko kategorietara igo dituztenekin konparatzen direnean.
- Bigarrenik galdetu nahi dut, bai zuei bai eta neure buruari ere: emakume kazetariak lanbidean prestigioa irabaz dezaten, orain artean gizonazkoen eskuetan diren ataletan sartzen saiatu behar al dute? Hori ez al litzateke gaur egungo ikuspegi nagusia ontzat hartzea? Egokiago al litzateke, bestalde, atal edo programa desberdinetan gizon eta emakumeen oreka bilatzea?

Bide honetatik aurrera eginez aipatu nahi nituzke, emakumeak erredakziotan gehiago izanez gero informazioen edukietan edo ikuspegietan eman litezkeen aldaketan aurrean agertu diren jarrerak.

Pentsatu izan baita aldaketa orekatzaile honek komunikabideetako produktuak aldatuko litzukeela. Ikerketa dexente daude ordea, emakumeak erredakzioetan gehiago izateak ez duela aldaketa nabarmenik ekartzen berriak prestatzerakoan, ez gaiak aukeratzekoan, ez ikuspuntuan, ez eta idazterakoan ere. Gizonak nola emakumeak berdin "trebatuak" izan baitira, lanbideko arau berberak ikasten, gertakizunak, espazioak eta protagonistak era berean antolatu eta hierarkiza ditzaten.

Kontuan hartu behar dugu, gainera, "oinezko" kazetariaren botere eremuak hain urri eta mugatuak direla ezen ezin baita hortik funtsezko aldaketarik eragin. Ez dezagun ere ahantz emakume kazetariak, lehen lehenik eta besteak bezalaxe langileak direla, komunikabideetako enpresei beren lan indarra saltzen dietenak. Argi eta garbi dute beraz, zein arriskutsua gerta dakieken bere laneko etorkizunerako enpresan, nagusituriko jarraibideetatik at ibiltzea. Halatan bada, honakoa norbanakoen aukera politikoko gaia dugu alde batetik, eta bestetik, nahi diren aldaketak lortzeko behar beharrezkoa da, Gallagher-ek 70. hamarkadaren amaiera aldean jadanik aipatzen zuen "kopuru kritikoa" osatzea erredakzioetan.

Bestalde, gaur egun bizi dugun fasea, eremu honetan aurrera egiteko dauden aukera desberdinen arteko biltze, eztabaidatze eta elkarrekin bilatzeko fasea da. Liesbet van Zoonen-en komunidei buruzko ikerketak erakusten dizkigu, bai berdintasunaren feminismoaren jarrera, bai desberdintasunaren feminismoarena ere, eta Concha Fagoaga-k berdin egiten du telebistako albistegiei buruz eginiko azterketan.

Halatan, bada, desberdintasunaren feminismoak baloratzen da emakumeen presentzia handiagok beharko lukeela ekarri, berriro ebaluatzea zein gauzak diren albiste bihurtzeko modukoak eta berriro ebaluatzea ere, bai femeninotzat duguna, bai eta feminitatearen kontzeptua, azken hau ulertzen delarik emakumeek duten tasuna, giza harremanetan eta norbanakoen bizitzan sentikor eta intuitibo izateko. Zenbat eta emakume gehiago izan, esaten da beraz, femenino dena balora-

tuagoa izanen da. Halatan emakumezkoen kazetaritza eta gizonezkoen kazetaritza sortuko lirateke, baina kategorien balioztapena desagertuko litzateke ordea.

Berdintasunaren feministotik berriz, ikusten da erredakzioetan emakume gehiago aritzeak estereotipoak apurtuko litzukeela. Emakumeak ez lirateke gehiago sexuko topikoei lotuak izanen eta gizarteak gizonezkoenak bezala hartzen dituen koaliteteak bereganatuko litzukete, kazetaritzaren eremuetan lekua lortu eta bermatzeko. Jarrera honek lekarkeen arriskua da genero femeninoa baliogutxitua mantentzeaz gain, desagertu ere desagertuko litzatekeela erabat.

Concha Fagoaga-k aldaketarako proposatzen duena ez da emakumeek erredakzioetan presentzia gehiago ukaitea besterik gabe, baizik eta emendatze hau kazetaritzako maila gorenetan gertatzea, hau da, produkzioko nola edukietako jarraibideak aldatzeko ahalmena luketen profesionalak izatea.

3.1.

EGIN LITEZKEEN SAIOAK

Emakumeek edukiak aldatzeko dauden proposamenak, hauetan laburbil ditzakegu:

- Emakumeak eta gizonak gero eta modu orekatuagoan agertzea, hala albiste diren gertakizunetan nola albistetarako gai bezala, eta bestalde estereotipo gutxiago erabiltzea.
- Albisteak baloratzeko ohiko moduak, hala nola "albiste gogor", "albiste bigun" eta "emakumeen gaiak", hurbilpen femenino batez berriro baloratzea.
- Komunikabideetan eta atal eta programa orotan emakumeak badira, emakume gehiago sentituko da, hauek ikusita, komunikabideetan azaltzera deituak.
- Kazetaritzako maila gorenetan emakume gehiago badago, produkzioan eta edukietan aldatetak emanen dira.

Albisteak "bigun" edo "gogor" bezala tipifikatzeari doakionean zertxobait esan nahiko nuke ere. Banaketa hauen arazoa ez da horrenbeste albisteak sailkatzeko kategoria desberdinak sortzea, nola "bigun" eta "gogor" kontzeptuen inguruan kulturalki eraikitako kontzeptuen artean ezartzen diren harremanak. Albiste "biguna" dugu gai interesgarria izanik ere, premiazkoa ez dena, "giza interesekoak" deituriko gertakizunak izan ohi dira, maitasunaren, emozioen edota gauza pribatuen munduari lotuak dira. Albiste "gogorra" aitzitik, egunero "menu nagusia" diren gertakizunak eta protagonistak ditugu, nahiz eta azkenerako beti menu bera den.

Jean Paul Sartre filosofo existentzialista ez zebilen espekulazio hauetatik oso urrun, esaten zuenean "femenino" kategoria zerbait bigun, lingirdatsua zela, eta "maskulino" kategoria aldiz, pentsatzekoa zen bezala, zerbait gogor, zurrun...

Lehen aipaturiko *Marie Claire*-n argitaraturiko elkarrizketetara itzuliz gero, artikulu horretan, generoko desberdinkerriako harremanei koskak berdintzen joateko proposaturiko aukeretako bat erabili dela.

Gogora dezagun artikulu osoaren izenburua zela "Encuentros con el cuarto poder" eta Isabel Pisano kazetariak elkarrizketa egiten zietela, "komunikazioaren hiru titanei": J.L. Cebrián, J.M. Lorenzo eta A. Herrero-ri, alegia. Aipaturiko generoko "zuzenketa" kazetaritzako tratamenduan

aurki dezakegu, hau da, elkarrizketaturikoek sortzen duten kazetaritzako interesari eman zaion ikuspegiari. Hasierako laburpenean bertan esaten zaigu, Isabel Pisano kazetariarekin bildu dela “nolakoak diren eta zer sentitzen duten jakitearren”, gerora ere, lanaren azpitituluan garatuko den ideia da hau: “*Marie Claire*, komunikabideetako hiru erraldoiengana hurbildu da, nortzuk diren, nola bizi diren, zer pentsatzen duten eta nola maite duten jakin dezagun”.

Hau da, gizaki oso baten alde desberdinak aipatu eta zehazten dira, eta formetan behintzat apurtzen da gorputz eta arrazoiren arteko ohiko dikotomia, natura eta produkzioaren artekoa, emozio eta arrazoien artekoa. Femeninotzat harturiko aldea berriro ebaluatzen da, emozioen mundua, alegia, eta apurtzen du generoaren hierarkizatze patriarkalak ezartzen duen zatiketa, zeinaren arabera “gauza” batzuk gizonei dagozkie eta beste batzuk emakumeei. Alde horretatik gertatzen da berritzaile, elkarrizketarako lan planteamendua.

Ongi dakigun bezala, kazetaritzaren egunerokoan behin eta berriz errepikatzen den fenomeno da, emakumeek eremu publikoan agertzen direneko albisteetan, zuzenean edo zeharka, sexu/genero pareak aipatzea, eta gizonen kasuan berriz, ez dela inolaz ere aipatzen noski. Halatan, emakumeen bizitza pribatua sarritan aipatzen da, bai eta duen itxura oso “femenino” den edo batere ez den, bere gorputza baloratzea edota jazterakoan dituen gustuak aipatzea ere bai.

3.2.

IRAINA

Generoko harreman desberdinak kulturalki eraikitzearen gehiegizko adibidea agertzen zaigu, apirilaz geroztik, telebistako iragarki batean. Esan behar da ere, ezen nahiz eta “ohianeko legeak” iragarkien munduan eta albisteen munduan desberdinak diren, bi biak beren mezuak komunikatzeko bide bereberetan dabiltzala, albiste izan edo iragarki izan. Thomson etxe komertzialaren publizitatezko iragarkiak iseka eta mesprezua erakusten ditu argi eta garbi. Bikote baten parodia trakets batean gorderik, zartako galanta luzatzen digu.

Lehen planoan, trajeak ematen duen dotorezian bildurik, gizonezkoa neurritz mugitu eta mintzatzaren da: jakituriaren diskurtsoa irudikatzen ari da, zientzia eta teknikaren aurrerapenen diskurtsoa. Haren gibelean, leku jakinik gabe eta urduri mugituz, emakumezkoaren irudia ilehori platinoren “glamour”aren ikurra da, gizonak txoratzen dituenetakoa; baina balizko “sex-simbol” hau, soineko beilegi beilegian estu-estu, hain ganoka da ezen, telebista batean etiketa bat jartzeko gai ere ez den. Gizonezkoa, bere diskurtsoarekin aurkeztu berri duen objektura hurbiltzera doanean, estropezu egiten du destorburen batekin eta begiratu ere egiten ez diola, apenas nabari den disimuloz, emakumezkoaren irudi narritagarria pantailaren zokotik galtzera bidaltzen du zartako batez.

Oraingo adibide honetan motz geratzen zaigu, Gerbner-ek, komunikabideek —“ororen intereseak” ez omen direneko aitzakiaz— beren espazioetatik at uzten dituzten gizarte kolektiboetara buruz mintzatzekoan aipatzen zuen “deuseztatze sinbolikoa”; honakoan emakumeen irudiari sarri egiten zaio, baina bigarren mailako papera eman eta horren zeregin ergela jartzen zaio, ezen generoko aurkariari aitzakia majoa ematen baitzaio, destainuz beterik, fisikoki bidal dezan.

Komunikabideen disturtsoaren giltzarriak

Eskenatoki onenak eta anplifikadore indartsuenak komunikabideak ditugu. Aspaldi askoan dakigu baina, zalantzaren bat sor ez dakigun, gizartearen eremu guztietan sartzeko duten indarraren eta bere egitekoen indarra norainokoa denaren froga ederrak eman ohi dizkigute aldian behin. Euren garrantzia sartzan digute buruan hain barne ezen, jaiki eta lehenengo gauza, “munduari” lotzeko irratia edo egunkariak bilatzen baititugu. Eta horixe lotzen garela eta etortzen zaizkigula berriak, horixe baietz, samaldaka etorri ere...

Baina gustukoa ez bazaigu ere onartu beharra dugu, kontsumitzen ditugun produktuak ez direla ez errugabe ez kaltegabeak ere. Suposatzen dugu, komunikabideek ematen duten “informazioko errealitatea”, giza harremanetan gertaturikotik hartua dela, besterik gabe, eta ahantzi egiten dugu, albiste horiexek ateratzeko eta ez beste zenbait, gertakizunak aukeratu, antolatu, ordenatu eta baloratzera zuzenduriko ekintzak eman direla. Kazetaritza, Aguinaga-k dioen bezala, errealitatea sailkatzeko sistema da eta “albisteen ideologia” agertzen zaigu —70. hamarkadatik hona esaten ari den bezala— metodo eta prozeduratan beraietan ere. Komunikabideetatik eraikitzen direnak “errealitatearen bertsio interesatuak” dira.

Komunikabideek, lanbideko arauak antolatzerakoan, generoak kulturalki eraikitzeke erabiltzen den sistema bera erabiltzen dute: gizarteko errealitatean gertaturiko gauzen arteko hierarkia ezartzen da eta zeintzuk diren garrantzizkoak eta zeintzuk ez erabakitzen da, zeintzuk “ororen interesekoak” diren eta zeintzuk ez; eta horrela, bere espazioetatik zenbait jokaera, zenbait protagonista eta espazio sistematikoki baztertu eta egotziz, sartzan dena eta baikortzat hartzen dena indartu eta nabarmendu egiten da. Hau lortzeko beste bidea, gizartearen errefusa ekarriko duen irudi ezkorra taxutzea da. Esate baterako, adjektiboen bitartez, balorazioen bitartez, edo besterik gabe, gertaera azaldu baina “zergatik” azaltzen den ezkutatu.

Halatan beraz, informazioaren logika ezin uler daiteke, kontuan hartu gabe norekin lotzen diren komunikabideak, zein lotura dituzten, noren menpean diren zuzenean edo zeharka, edota diruzko zein iturri edo euskarri dituzten, zeren eta, Amparo Moreno-k bere argitalpen berrian esaten duen bezala, alderdi horiek guztiek baldintzatzen baitute “albisteen begirada”. Horrexegetik hain zuzen, ez litzateke erabat zuzen izanen, komunikabideak kapitalaren eta Estatuaren interesen zerbitzaritza soilik hartzea, zeren eta zerbitzari baino lehen interesdun parte baitira, interesak eta etekinak elkarren artean banatu eta trukatu egiten baitituzte eta elkarren beharra baitute.

Logika bera erabil dezakegu ere, generoaren sisteman pentsatzerakoan, ez baita aski, egiazkoa zer den definitzerakoan erreproduzitzen diren eliteak eta klase nagusiak elkarri lotzea, baizik eta lotu behar da ordea, genero nagusia, albisteetako kontakizunek egiten duten errealitatearen eraikitzairekin, zeren eta, Concha Fagoaga-k seinatu duen bezala, klaseek elkarren aurkako interesak dituzten bezala beren definizioetan —elkarrenganako elkartasuna azaldu eta interesak hurbil ditzazkeen bezalaxe— gauza bera gertatzen da generoko harremanetan eta sexuen geruzapenean.

Sistema patriarkalaren parte interesduna direnez, komunikabideek hasiera hasieratik bi entzulego mota ezarri zituzten eta beraiantzako produktu berezituak sortu zituzten: gizonetzko entzuleei "informazio orokorra" deituriko produktuak eskainiko zaizkio eta emakumezko entzuleei berriz, emakumeentzako prentsa berezia. Banaketa hau, hastapenean, komunikabideetan lehena den prentsak egin zuen, 1800 urtearen inguruan, eta gero irratiak eta telebistak. Halatan emakumeok, generoko kolektibo gisa, egunero berriemaileek sortzen dituzten "errealitatearen bertsio desberdinetatik at geratzen gara.

Nagusikeriazko egoeretan horrenbeste ematen den osotasuna eta zatiak nahasteko ohitura zuzendu nahian, Juana Gallego-k proposatu zuen bere garaian, eguneroko prentsa dei zezatela "eremu publikoko informazio orokorra" eta emakumezkoen prentsa berriz, "eremu pribatuko informazio orokorra".

5.

Beharrezkoa zaigun estabaida baterako iradokizunak

- Lehentasuna emanen nioke jakiteari Euskal Herriko kazetariak zein iritzia duten, bizitza pribatuko zenbait alderdiekin loturiko lanbidearen zenbait gaitaz. Gaiari buruz zer uste duten, nolako harremanak dauden, laneko ohitura batzuk aldatzen hasteko zein jarrera eta interesa dauzkaten...
- Orain artean hizkera aldatzeko egin diren aldaketatxo xumeen bidetik jarrai dadila bultzatzea. Telebistako albistegi zenbaitetan entzun daiteke "gizon-emakumeak" aipatzen direla, "herritarak"...Gai honetan sakondu beharko litzateke, zeren eta ez baitira arazo eta aterabide berdinak agertzen komunikabide idatzietan eta ikus-entzunezkoetan.
- Garrantzizkoa da ere, fakultateetan beraietan egiten diren ikerketak eta ekarpenak akademikoki aintzat hartzea eta komunikabideak aztertzeko ikuspegietan eta teoretan generoko azterketa sar dadila bultzatzea.
Lehen proposatu den bezala, unibertsitateko giroan garrantzi handia dauka ere ikasleekin batera saiatzea hizkeran azaltzen den sexismoa zuzentzen, halatan aterabideak aurki ditzagun, gizartean gizon eta emakumeak daudela kontuan hartuko duen trataera orekatuagoa erabiltzera iristeko.
- Komunikabideetako albisteen edukiak aldatzeak eskatzen du gizonen eta emakumeen presentzia orekatuagoa izanen dela, ez erredakzioetan bakarrik, baizik eta kudeaketa eta zuzendaritzako lekuetan ere, halatan albiste bihurtuko diren kontaketa prestatzen eta produzitzen diren moduak eragin ditzagun.

Bibliografía

- ABRIL, Natividad. *Emakumeen partehartzea Euskadiko komunikabideetan eta publizitatean*. Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen 9. txostena. Gasteiz, 1994.
- ABRIL, Natividad. "Relaciones de género, relaciones de poder en los medios de comunicación" in *Medios de Comunicación y Sociedad*. Kazetaritzako Departamendua. EHU, 1995.
- ABRIL, Natividad. "Las categorías sexo-género en la construcción del discurso periodístico" in *Las mujeres en la opinión pública*. UNAM. Madrid, 1995.
- ABRIL, Natividad. "Emakumeen partaidetza Euskadiko komunikabideetan" in *Aniztasunaren isla da komunikabideen eta publizitatearen bitartez*. Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea. Gasteiz, 1997.
- AGUINAGA, Enrique de. "Dimensión científica del periodismo" Real Academia de Doctores de Madrid. Madrid, 1996.
- FAGOAGA, Concha. "Un modelo de sexo y género: el telediario". Aurkeztutako ponentzia in *La transmisión de valores sexistas a través de los medios de comunicación*. Udako ikastaroak EHU. Donostia, 1993.
- GALLAGHER, Margaret. *El modo de presentar a la mujer en los medios de comunicación social y su participación en ellos*. NBE. Paris, 1979.
- GALLEGO, Juana. *Mujeres de Papel. De "Hola" a "Vogue": la prensa femenina en la actualidad*. Icaria. Barcelona, 1990.
- MORENO, Amparo. *La mirada informativa*. Bosch. Barcelona, 1998.
- PISANO, Isabel. "Encuentros con el cuarto poder" in *Marie Claire*, 128. zebk. 1998ko maiatza.
- RAMOS FERNÁNDEZ, Luis Fernando. *La profesión periodística en España*. Diputación de Pontevedra, 1997.
- ZOONEN, LIESBET VAN. *Feminist Media Studies*. Sage. London, 1994.

Psikologiak hauteman du gizakiengan agresibitateko nolabaiteko joera. Joera hau Freud-ek Metapsikologian ezarri zuen, zibilizazioaren dialektikaren eta jokabidearen faktore determinatzaile den bezainbatean (1). Agresibitatea, pribatua izan edo gizartearena izan, Historian zehar irrazionaltasuna modu oso desberdinetan nagusitzen deneko gizarte mota baten ezaugarrietako bat dugu.

Alabaina Historia ez da ispilua baizik izan, bere aurrean jartzen direnen irudia itzultzen duen ispilua, alegia. Arazoa sortzen da bakarrik, ispiluak emaniko isla hori interpretatu behar denean ferriako ispiluarena bailitzan; zeren eta batzuetan bertan islatzen denaren irudia handiagotu edo txikiagotu egiten baititu ispilu horrek. Halatan nahastu izan da gizonaren historia, gizon biologikokoraren historia, protagonista papera ukan ez eta konpartsa edota konplize papera egin duten giza taldeen historiarekin. Konplizeak izan ere, balore nagusiak bereak egin dituztelako beren "ni" sakonenean eta beren kontzientzia eraikitzerakoan ere.

Halarik ere, emakumeak bere historia ukan du, baina ukan ere, gizaldiz gizaldi gizonak asmatu eta birsorturiko historia. Eta halatan bada, emakumearen historia, emakumearen gaineko aurreiritzien historia izan da. Aurreiritzia, ezagutza kolektiboaren egitura sinbolikoa den bezainbatean, arau, erakunde eta jokabide zenbaiten euskarria izan da, non emakumea "ondasun higigarri" bezala agertzen baitzen, trukerako eta lotura ekonomiko eta sozialak sortzeko gauza bezala, Azken finean, aurreiritzia ez litzateke, botere egituren eta gizarte dominazioaren arrazionalizazioa baizik.

Halatan bada, emakumea mugitu da berari buruz eta bere errealitateari buruz kanpotik ezarri zaizkion ideia estereotipatuen artean. Zoritxarrez baztertuak beti bukatzen du, neurri batean, baztertzailak inposatzen dion irudia onartzen. Gizonak artean eman duen emakumearen irudiak, eta ez artean bakarrik, baizik eta erlijio eta mitologietan ere, historian zehar transmitituko diren aurreiritzi eta estereotipoen uholdea sortuko du. Natura eta kultura kontrajarri eta emakumea Naturarekin lotuz —gizona berriz, Kulturaren adierazle bezala agertzen zutelarik— emakumezkoen generoa natur elementu biologiko hutsaren kategorira mugatzeko oinarria ezarri zen. Alabaina, erligio sinesmen orenen sorreran ematen den hastapeneko aurreiritzi honetatik, mundu ikuskera oso bat etorri da, zeinean emakumea gutxiesten funtsezko elementua zaien gizartean nagusituriko balioei (2). Egoera honek berarekin daramatza emakumezkoen dagokien orenen aurkako agresibitateko portaeratan gauzatzen diren jarrerak. Emakumearen aurkako gorroto honek garatu du, hain zuzen ere, Historian zehar gizonezkoen pentsamoldeak erakutsi duen ezaugarri funtsezkoenetakoa: misoginia.

Misoginia ulertu behar da historikoki garaturiko eritasuna dela, eta gizonezkoek, emakumeek sortzen dizkieten ezinegon eta beldurraren aurrean, babeserako antolaturiko mekanismoa. Halatan, emakumea menpean jartzeko eta haren gainean agintzeko mekanismoak, bi dimentsioko prozesu batez antolatzen dira. Alde batetik emakumea, eskuraezinezko "jainkosa eta birjin" gisa goratu

(1) Honetarako ikus: FREUD, S. *El malestar en la cultura*. Madrid, Nueva Visión, 1974. 3017-3068 orrk., VIII. alea.

(2) Aurreiritziaren gaineko ikerketa soziologiko baterako, ikus: BETTELHEIM, B. eta JANOWITZ, M. *Cambio social y prejuicio*. Madrid, F.C.E., 1975., 57. orr. etab.

egiten da. Eta beste aldetik, menpean harturiko pertsonari izena eta ospea kentzen zaio, gizadieren gaitz guztiak egozten zaizkiolarik, Pandora, Eba edota Salomez geroztik. Baina, aurreiritzia eta estereotipatzea bezalako jarrera defentsiboen bidea hartuz gero, azkenean jokaera erasotzaileetara iristen da, "behar" moduan esplikatzeko direlarik jokaera horiek. Emakumea, otzandu beharreko pixtia" (3) omen da. Emakumearen aurkako agresibitatea, emakumezkoena suntsitzaile eta gaiztotzat hartzen duen mitologiaren ondorio logikoa dugu. Halatan ez da arraro izanen, emakumearen aurkako indarkeria ezinbestekotzat hartua izatea, "horren kaltegarri eta zital" diren izakien aurrean. Erasoa ezinbestekotzat hartzen da, halatan sortuz, emakumea denboran zehar gehien baldintzatuko duen fenomeno, alegia emakumeari beti aurka eta suntsitzaile ageri zaion errealitatearen mehatxu etengabea. Ezagutzeko misoginiak eta indarkeria fisikoak emakumearen asmoak eta aukerak mugatuko dituzte gizakien behetiko eta menpeko bizitzara.

1. *Generoko indarkeriaren funts historikoak: zenbait interpretazio*

Engels-ek, *El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado* liburuan (4) esaten du, patriarkatuaren jatorri izan zen abere hazkuntzako sistema ekonomiko nomada gailentzeak ekarri zuela matriarkatuaren eta emakumearen suntsipen historikoa. Suntsipen horrekin halere, Neolitikotik hona antolatuko dira emakumezkoen gauza ororentzako gorrotoaren eta gutxiespenaren oinarri kosmologiko eta teologikoak eta gorroto eta gutxiespen horiek indarkeria fisikoa eta bortxa psikikoa dakartzate berekin. Historiari gainbegiradaxo bat eginez, emakumearen aurkako agresibitatea, zibilizazio desberdinen hasieran bertan ageri zaigu. Grezia klasikoko gizartean, maila intelektual eta politiko gorak lortu bazituzten ere, emakumea bigarren mailan dago, batzarretan parte hartu eta hitz egin dezake, baina ez du, ordea, boturik emateko edo erabakiak hartzeko ahalmenik, Atenasko gizonen bakarrak baitute ahalmen hori. Hetairak izanen dira tasun intelektualak eta artistikoak dituzten emakume bakarrak, betiere gizonen mesederako jarriak, eta horrela gizonen beharrei erantzuteko emakumeen bi talde antolatuko dira. Emaztea ginezeoan eta hetaira plazer eta solaserako (5).

Erromak emakumea menpean edukitzearen alderdiak areagotu egin zituen. Emakumea eman ahalko da zor baten ordainean. Inperioaren gainbeherarekin garatutako ankerkeriak emakumea hartu zuen lehen biktimatzat. Emakumeari zaion herrak Erdi Aroan joko du goren, Elizaren boterea nagusitu egiten delarik. Sorginak errez eta milaka emakume hilko dituzten autofedeekin, ema-

(3) Hala Artearen Historian nola Literaturan, etengabe aipatzen da emakumea, abereen munduari lotuagoa, gizakien munduari baino; horren adibide berezkoena Aristofanesengan dugu, emakumeen batzarra oilotegi moduan agertzen digularik.

(4) ENGELS, F. *El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado*. Madrid, Fundamentos, 1978

(5) Ikus, DUBY, G. eta PERROT, M. *Historia de las Mujeres*. Madril, Taurus, 1994, I. alea: "La Antigüedad".

kumea sufrikarioak pairatzeko egina ikusten duen misoginia zabaltzen dute. Erdi Aroaz geroztik, Europako kulturaren mantenduko dira emakumearen aurkakoak erabat diren iritziak, emakumea, espeziearen "lehen bekatari eta zikintzaile" dela esanez.

Pentsatzekoa zen, Errenazimenduak ekarritako zientzia, arte eta gogoeta filosofikoarekin, balore, sinbolo eta aurreiritzi horiek guztiak desagertuko zirela historian. Errealitatea bestelakoa gertatu zen, ordea. Modernitateak, proiektu aldatzaile handi horrek, aurreiritzi berriak ekarriko ditu, eta batez ere, indarkeria mota berriak, sofistikatuago eta finduagoak.

Max Horkheimer-ek eta Theodor W. Adorno-k esan zuten bezala, ilustrazioan, baiezotasun eta ezezkotasun dialektika eman zen (6). Argien Mendekak ezagutza eta arrazionaltasuna jartzen zituen giza hobetzearen ardatz eta Rousseau, Kant eta Entziklopedia bezalako izenek eta zereginak gidatzen dute mende hau. Eta ekarpen baikor horiekin batera, ezin ahaztera utzi, emakumearen aurkako higuin izugarria zabaltzen duen egilea: Donatien-Alphonse-François, Sade-ko markesa. Hiru obrek seinalatzen dute sadismoa, emakumeari eraso eginez eta anker jokatzu lorturiko plazer gisa, *Justine ou les malheurs de la vertu*, *L'histoire de Juliette* eta *La philosophie dans le boudoir*. Sade-rekin, emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptua korapilatsuago egiten da, borraroa eta biktima behar dituen hedonismoaren elementu intelektualak sartzen baitira. Baina indarkeriaren intelektualizazio horrek bidea irekitzen dio, pornografiako merkaturia ekarriko duen sexualitateari, eta gure mende honetan, plazerraren gorena oinazean jartzen duten teknologizazio eta zinema ekarriko ditu azkenera (7). Iluminismoaren dialektika horretan, ezezkotasuna emakumezkoaren rola gainera doa zuzen eta dramatikoki, birjinen eta prostitutaen irudien arteko joan-etorri dekadenteetara itzuliz. Irudi hauek XX. mendek bere eginen ditu, landu eginen ditu eta gizarteko sektore orotara zabalduko ditu.

Sufragismoa, XIX. mendeko gizartearen mugimendu garrantzizkoen artean dago. Langileen mugimendua, nazionalismoak eta sufragismoa, biztanleria talde itzelak baztertzen dituen ordena soziopolitikoak haustera datoz. Jabegotasunean eta sufragio murriztuan oinarrituriko produkzio sistemak baztertutako taldeek leku hartzen joaten diren neurrian, erreakzio defentsiboak sortuko dira, horretarako erabiltzen diren tresnak eta estrategiak gero eta errepresiboagoak direlarik. Langileen mugimendua pixkanaka onartua eta gizarteratua izanen da, eskubide politikoak lortzearen bideetik. Tokietako burgesia berrien nazionalismoek lortu zuten, industrialismoaren lehen kapital metatzean parte hartzen. Sufragismoa soilik geratu zen, lehen industri-gizartearen etekinetatik kanpo. Sufragismoa itoarazteko estrategietan izuak lehen mailako eginkizuna dauka. Jack Heste ateratzailearen irudi izugarria interpreta daiteke, emakumeak pixkanaka bereganatzen ari ziren espazio publikoak berriz ere kentzeko taktiketako bat bezala. Hiltzaile honen inguruan antolatutako misterio kutsuak, Estatuaren arazo bihurtzen du horren argiketa. Krimen hauetan, gabez kalean ze-

(6) HORKHEIMER, M. eta ADORNO, Th. W. *Dialéctica del Iluminismo*. Buenos Aires, Sur, 1971, 102-146 orrk.

(7) Sade-ren obraren eragina etengabea da literatura post-modernoan, izan ere, literatura honek inolako zentzu arrazional eta etikorik ez duen literatura da. Sade-ren gaineko azterketa onena, isildua izan bada ere, oraindik ere dugu, Simone DE BEAUVOIR-en *El marqués de Sade*. Buenos Aires, Siglo Veinte, 1964.

biltzaten, hau da, gizartean eredu gaiztoa ematen zuten emakumeak ziren biktimak. Sade-rekin bezala, emakumeen hiltzailearen irudiak, Gehiengoan lehen kulturari hartzen du bere lekua, bai nobela beltzetako oinarritzko pertsonaia bezala, bai eta suspentseko foiletoietakoa bezala ere. Emakumearen aurka eginiko krimena kontsumoko irudien ardatzetako bat da, baina irudikapen honek duen alde beldurgarriena da, literaturaz harat, gizartean ere kutsatu egiten dela.

Sade-ren obrekin indarkeria finduari hasiera ematen zaiolarik, eta prentsan, Jack Heste ateratzailerik bezalako hiltzaile ezezagun baten hilketak zabaltzearekin, emakumea kontrolatzeko modu berriak ezartzen direlarik, ezin ahaztuzkoa da Sacher-Machoch-ek zabaltzen dituen irudiak, gizona eta emakumearen arteko harremanetan, iraina funtsezkoa bihurtuz. Larruetako Venusa nobelan, masokismoak erakusten du, oinazearen bidez ahalmena sentitzearen beharra. Agresibitateak biktima bilatzen du, haren gainean, erruki gabe suturiko irrikiak asetzeko. Freud-en ustez, hala sadismoak nola masokismoak erakusten dute, "ni" a egituratzeko ezintasuna, eta nahaste hori konpentsatzeko, "bestearenganako" indarkeria erabiltzen dute (8). Eta zorigaitzez, "beste" hori emakumea izan ohi da.

Portaera sado-masokistaren ereduaren hasten da mugimendu sufragistaren aldi berean. Ohikoa da, gizartean mugimendu txikiena abiatzean egite eta aurre egite dialektika ematea. Halatan, sufragismoa ulertu behar da, emakumea bere egoeraz jabetzen deneko lehen saio bezala. Sufragio unibertsala eskatzeak esan nahiko du azken finean, emakume-natura sinboloa, emakume-hiritar bihurtu dela. Eta hiritar, eskubide eta erantzukizun guztiekin, izan ere. Halarik ere, sufragismoak emakumeen taldearen kohesioa sortuz garai berria ekartzeaz gain, ekarri zuen ere lorpen berrien aurkako jarrera erabatekoa. Hala sortuko dira, lorturiko eskubideen ahultze sinbolikoa egiteko lehen teknikak. Prentsa satirikoa, sufragista aitzindarien karikaturizatzea, esamesa gaiztoaren erabilera eta, orokorrean, emakumea behin eta berriz estereotipaturik agertzen deneko estrategia multzoa erabiltzen dira iraintzeko taktika moduan. Halatan, ahultzarazte sinbolikoa, Gehiengoa lirmurtzeko teknika gisa, definituko da talde bat, norbanako bat, fenomeno bat edo gai bat ospea galtzeko bidean eta baliogutxিতua izateko bidean jartzeko ahalmena bezala. Esate baterako, telebistako programazio gehienak ahultzarazte sinbolikoa erabiltzen du emakumea irudikatzean. Publizitatea dugu, gehiengoentzako komunikabideetako mekanismoen artean gogorrena, emakumearen industriosteko ospea galtzea zabaltzen.

Egoera honetan, Gehiengoentzako Komunikazioa sortzen da, nagusituriko sinbolo eta baloreen aurkako eredu izan daitekeen ororen aurkako agresibitate eta gutxieste elementuak indartu egiten dituzten esanahi ideologikoetan blaiturik. Eta bereziki, Gehiengoentzako komunikabideak diren merkatu handi horretan, emakumea bihurtuko da, egokitze kolektiboa merkatuaren harremanei jarraituz egin behar duen gizartearen sinbolo, horrek ekartzen badu ere fetitxizazioa, sadismoa eta masokismoa eguneroko jokabide arruntak izatea.

(8) Ikus, S. FREUD-en behar-beharrezko ikerketa: *Lo siniestro*. Madrid, Biblioteca Nueva, 1974. 2483-2507 orrk. VII. alea.

2. *Gizartea osatzea eta gehiengoentzako komunikazioa: indarkeria eta telebista*

Gehiengoentzako komunikazioak manipulazio zati handia dauka. Baieztapen hau indartzen du Iparrameriketan garatutako Komunikazioko konduktismoa bezalako paradigma psikologikoa batera garatu izanak. Konduktismoak erreflexu baldintzatuen ikerketa reflexeologikoa bere egiten du, baina oraingoan gizakien portaeretara aplikatzeko. Pavlov-ek garatutako ereduak ez bezala, Watson estatubatuarrek gizakien portaeretara egokitzen du, abereen ohitura eta erreflexuen etologia sinplifikatua besterik ez zena (9).

Psikologia konduktistaren eskemak mass-mediatan erabiliz, errefortzuak baliatuko dira portaera kolektiboak piztu edo inhibitzeko. Jokabideak sustatu egiten dituzten errefortzu baikorrak edo jokabideak inhibitu egiten dituzten errefortzu ezkorrak, komunikabideetako funtsezko tresnak dira. Industria osteko gizartearen osakera ezin bereiz daiteke, kontsumitzaile-hartzaile izendaturiko "espezie berri" horrengan errefortzu baikor eta ezkorrak erabiliz gizartearen motibazioa gero eta hobeto ezagutzetik.

Halatan bada, kontsumoko gizartea, Komunikabideetako komunikazio industrialduaren inguruan antolatuko da. Alabaina, antolaketa honek, kontsumoaren banaketako jardunen menpe jar daitekeen jokabidea duen herritarra behar du. Hementxe egiten da herritarren erabateko bergizartearatzea, baina horretarako ezinbestekoa da emakumea biztanleriaren motibazio psikologikoaren ardatz bihurtzea. Emakumearen rola izanen da sistemaren birdoitzeen barometroa. Baina birdoitze hori aurrera eramateko, emakumeak, kontsumora deitzeko prozesu guztien oinarritzko errefortzua izatera iritsi behar du. Eredu konduktista orduan zuzenduko zaio emakumeen taldeari bere indar guztiz, emakumearen gainean historian zehar sorturiko aurreiritziak ez daitezen alda eta batezbesteko hartzaile-kontsumitzaileak haien gaineko nolabaiteko gogoeta ere egin ez dezan.

Bigarren Gerraren bukaera ondoren komunikabideek emakumezkoaren gainean eraikitako ikonografia gainera begiratzuz gero, azaltzen zaigu emakumeei lanean, adimenean eta politikan aurrera egiteko zama handiko oztopo gertatu zaien mitologia oso bat. Gerra amaitu eta berehala, emakumeei erretaguardian fabrikak —bereziki armetakoak— martxan jarritz eginiko lana eskertzeko moduan, zinemak hedatuko duen emakumearen eredu atzerapausoa izanen da, emakumeak gerra aurretik lortu zuenarekin erkatuz gero. Greta Garbo, Marlene Dietrich, Katherine Hepburn bezalako aktoreak burujabetasuneko eta adimen argiko ereduak ziren eta horien ordean, pinpirinke-riak emakumea berriro zeregin ohikoetara eramaten duen generoko eredu hasten da agertzen. Etxea, ezkontza eta umeak eskaintzen zaizkie bizitzarako emakumeei, berrogeita hamargarreneko hamarkadako "telefono zuriko" komedietan. Emakumeen rola zokoratzeak ez digu ahaztera utzi behar, halere, etxeko telebistaren sorreran gaudela, emakumeak publizitatean duen protagonismoa areagotuz. Emakume-ama eta emakume-objektu dualtasuna sortzen hasten da, komunikazioaren funts gisa.

(9) Komunikazioko konduktismoaren gaineko azalpenerako ikus: SAPERAS, E. *Los efectos cognitivos de la Comunicación de Masas*. Barcelona, Ariel. 1987. 15-53 orrk.

Esan daiteke komunikabideetako indarkeria hasten dela hirurogeiko hamarkadaren amaierako telesaiilekin, jadanik ez da Gilda-k, "ezin eutsizko zeloek" eraginik emaniko zaplastako inozoa, dagoeneko, hirurogeita hamairugarren urteko petroleo krisiak ekarritako kapitalismoaren birdoiketa baten hastapenean gara. Ameriketako Mendebalde mitikoko Cowboyaren tiroketak lekua uzten die bestelako telesaiiei, zeinetan heroi bakartiaren etikaren ordeiz, suspentsea eta hilketa agertzen den. Alfred Hitchcock-en "Frenesi" filmea hartu behar da, psikopaten gaur egungo generoaren aurrekotzat. Emakumea subjektu jasaile eta pasibo gisa, biktima gisa, hasten da agertzen. Ez dezagun ere saihestu, pornografiako industriak gora egiten duela industrian eta gizartean, horrenbestera hedatuz non politikako liberalizazioa nahastu egiten baita, hasiera batean "erotiko" deituriko zinema iristearekin. Baina, hirurogeita hamargarreneko hamarkadaren amaieraz geroztik komunikabideetan ematen den emakumearen sinbologiaren aldaketa nagusia etorriko da indarkeria, sado-masokismoa eta emakumearen papera laidoztatzea areagotzearen bidetik. Galdera honakoa dugu, beraz: zerk eramaten du Gehiengoentzako komunikabideetan emakumearen rola eta biktima berdintzat jotzera?

Galdera honi eginiko erantzunak anitzak izan dira. Dena den, komunikologoek eta azterlari kritikoek artean onartuenak seinatzen du emakumea erabili dela arian-arian, neokapitalismo berantaldaketak gertatzen diren uneetan errefortzu handi bezala. Emakumea, egitura osoari erasaten dioten benetako gatazketako kolpeak leuntzeko erabiltzen da. Emakumea "kopla buruko" izaten da —kasik juduak eta talde gutxituak Nazismoan izan ziren bezala—, sistemak gizartean sortzen dituen tirabirak lasatuz. Puntu honetan, emakumearen aurkako indarkeriak laguntzen du tentsio kolektiboak bideratzen, senetzko irrika zaharkituenak gidatu egiten dituelarik, itxuraz primitiboak diruditen jokabideetara, benetan sadismo eta masokismora eramate korapilatsua dela ezkutatzuz.

Telebistan egunero zabaltzen den indarkeriari buruzko inkesta zenbait begiratzuz gero, harrigarria gertatzen da ikustea, ehuneko hirurogeita hamaseiaren inguruko mezuetan agertzen dela nola edo halako egintza edo jarrera agresiboak. Telebistako iragarkitik, umeentzako programazio garaiko marrazki bizidunetara, emakumea edo neska beheratuak direneko maiztasuna kezkarria da. Biztanleria balore eta sinbolo ankerrekin ohituratzeko bergizarteratzea ematen ari da. Eta hau ez da gertatzen bakarrik gatazka emakumearen bitartez bideratzeko, baizik eta batez ere, herritarrak lehiakortasunean eta darwinismo indibidualistan trebatzeko (10), izan ere, gero eta guztien onaren kontzeptutik urrutiago dagoen gizartea bizirik irauteko ezinbestekoa dena. Moralismo dei zitekeen hau egiaztatu egiten da, entzule kopuru handieneko garaian ematen diren basakeria eta sadismo mailak ikusita. Honek argi eta garbi erakusten digu komunikabideek aste egun arruntean etengabe ematen duten indarkeria ez dutela xaloki ematen, indarkeriak maila gorena asteburuetan iristen duelarik, ostiral eta larunbat gauetan bereziki.

(10) Planteamendu honen eraketa, ikuspuntu politikitik aztertua in: MACPHERSON, C.B. *La teoría política del individualismo posesivo*. Barcelona, Fontanella, 1970., 169-225 orrk.

Halatan beraz, emakumearen aurkako indarkeriaren estrategia osatzeko programazio arrosa ematen da, horrela aurretik aipaturiko asmoak estali nahiz. Familiaren ohiko zeregina berreskuratzeak, hala neokontserbadurismoan nola neoliberalismoan ere, gastu soziala merkeago egitea ekartzen du. "Emakumezkoen taldea oso emakumezko izan behar du" baina zaharrak eta umeak zaintzeari utzi gabe. Eta batez ere, futbola ikusten afaldu ohi duen senarraz, igandeetan, bera aita-amaginarrebarekin bazkaria prestatzen ari den bitartean "footing" egiten duen senarraz, arduratu. Mundu idiliko eta zoriontsu hori bihurtzen da, emakumearen kontzientziaren atzera egite egoerarentzako zama handiena, —Adorno-ren definizioa erabiliz—, halatan ekonomia ideologia bihurtzen da eta hau, aldi berean, industria osteko herritarren psikologia.

3. *Generoko zereginen egokitze soziala: rolak eta irudikapen simbolikoa*

Komunikabideetan emakumearen papera aldatzea larria bada ere, ezin ahantz dezakegu honek bigarren mailako rola ukan duela beti. Gizonak, bere mitologiaren sortzaile den bezainbatean, bere burua goratu egin du, bere eskasiak "besterengan" jarriz. XXI. mendean bete betean sartu nahi badugu, ongi litzateke gizonak bere kontzientzia eta psikologiaren eraikitze sozialaren gaineko autokritika bat egitea. Dena den, laurogeita hamargarren hamarkadan emaniko aldaketa ekonomiko eta soziopolitikoak, bi alderditan laburbil litezke:

a) Eskubide moduan ezarritako lorpen kolektibo handiak eta Estatu sozialean justizia irizpide egokiagoz eginiko banaketa ekonomikoa ekarri duen politika moduaren instituzionalizazioa mugatu eta desarautzea.

b) Ekonomiaren pribatizazioak desdoitze eta desorekak ekarri ditu, arrazionaltasun eta unibertsalitasun kontzeptuei bete betean aurre eginik.

Ekintza hauen eragina iristen da, aldi berean, gizartearen psikologian aldaketa sakonak egiteraino. Esate baterako:

a) Gehiegizko pribatizazioak indibidualtasun posesiboaren ideologia ekartzen du, zeinaren sorrera MacPherson-ek ederki ikertu baitzuen (11), eta aldi berean taldeen arteko elkartasuneko loturak hausten dira, despolitizatzeaz gain elkarren aurkakoak ere bihurtuz.

b) Sistemaren tentsioak leuntzeko komunikabideetako teknikak erabiltzeak eskatzen du, errealitatea hautemateko kausalitatea eta arrazoizko ezagutza erabili beharrean, instintua eta adimengabea erabiliko dituzten jokabideak antolatzea. Zeregin honetan, gizonezkoen psikologia ezinbesteko bitartekoa da, aipaturiko prozesu soziopolitiko eta ekonomikoak mantentzeko. Prozesu ekonomikoaren eta gizartearen limurtzeko teknika konduktista eta neokonduktisten bilakaeraren arteko loturak erakusten dizkigu aurrera eramaten ari diren aldaketa psikologikoak.

(11) MACPHERSON, C.B., op. cit., 50-69. orrk.

Beste lanetan aipatu dugu nola gizonaren papera, emakumearen rolari doakionean, bi aldiz aldatzen den. Lazarsfeld-en komunikazio jarioaren maila bikoitza izeneko teoriari jarraiki ikus daiteke hasierako hipotesiak egiaztatu egin direla, ez bakarrik ikus-entzunezko sektoreko industria handien nazioarteko produkzio mediatikoetan, baizik eta herrialde bakoitzak eginiko produkzioetan ere (12). Flichy-k zioen bezala, komunikazioko salgaiak eta edukiak gero eta lasterrago bateratzen ari dira (13). Baina generoko paperak egituratzeari doazkien edukiak dira, bateratze gero eta bitxiagoa egiten ari direnak.

Izan ere, gizona eta emakumea mass-medietan sinbolikoki irudikatzea bihurtzen ari da integrazio gehien ekartzen duten mekanismoetako bat; hau da, kapitalismoaren sorreran emaniko gizarte disziplinara itzuli behar deneko planteamendu politiko neokontserbadorea eraikitzen da, ez bakarrik emakumezkoaren rola berregituraketaren gainean, baizik eta bereziki, gizonezkoaren rola gehiegizko lehiakortasunaren helburu ekonomiko eta politikoetara egokitzearenean. Halatan gizonaren kontzientzia, gailendua den darwinismo psikologikora egokitzen da, Durkheim soziologo frantziarrak deskribaturiko kontzientzia kolektiboaren kontrolaren antza duen gizarte kontrol modu berri baten ardatza bihurtuz (14). Nahiz eta orain, kontrola, presio moduan egiten den. Eta presio horretan indarkeriak egiteko erabakiorra dauka.

Aldaketa hauek ikusirik, komunikabideetako gai eginiko edukietan, izan ere, telebistako astebeteko programazioan eginiko Eduki Azterketa laburrak erakusten digu zein baloreen gainean eraikitzen ari diren generoko paperak. Haei jarraiki, emakumearen ezaugarriak honako hauek lirarteke:

— Arinkeria, emakumezko munduaren “berezko” jarrera moduan. Hutsalkeria eta azalkeria etengabe transmititzen dira “hizkimizkiko” eta edertasunari buruzko programetan eta kontsumoko telesaiotan, eta zer esanik ez merkataritza-publizitatean egiten den emakumearen sinbolizatze estereotipatuan. Modak, honakoan, bi norabideko estrategia baldintzaile gisa jokatzen du. Alde batetik, bultzatzen du klase ertainak eta ertain-baxuak bat egitea klase goren eta ertain-goia- ren bizimodu eta jokabideekin, iritzi-aitzindarien bitartez, hauek era berean bat egiten dutelarik “gizarte arrakasta” deitzen dutenarekin, eta halatan gizarteko mugikortasun faltsua sortzen da, arrandiazko kontsumoko altzari edo erropa mota bat edo bestearen bitartez adierazten dena huts hutsik.

— Arinkeriarekin batera, gauza bihurtzea dugu, zeinaren bitartez emakumea, Kontsumoko Gizarteko “gauzetan gauzena” bihurtzen baita, kolektibitatean misoginia areagotu egiten du, bai emakumeen beraien artean ere, inkontzienteki bere egiten baitituzte, beren generoari buruz zabalduko aurreiritziak. Emakumea gauza bihurtzea izugarri goratzen da, horrela emakumeari ospea kentzeko bidean lehen urratsak eginez, bide horretako azken urratsak pornografian ematen direlarik, horretan emakumeari bere izena erabat kentzen baitaio.

(12) LAZARSFELD, P. eta KATZ, E. *La influencia personal. El individuo en el proceso de Comunicación de Masas*. Barcelona, Hispano Europea, 1979.

(13) FLICHY, P. *Las multinacionales del audiovisual*. Barcelona, Gustavo Gili, 1982., 176-223. orrk.

(14) DURKHEIM, E. *De la división del trabajo social*. Buenos Aires, Shapire, 1967.

— Lehengoari loturik, eta horren ondorioz, laurogeigarren hamarkadaren erdialdeaz geroztik ezarritako ezaugarri berria oinazedunaren sinbologia dugu, zeinaren bitartez gizonak emakumearen rola aldaketa estali nahi duen bere burua babesteko; hau da, emakumea agertzen zaigu komunikabideetako leku orotan —aldizkariak, irratia, telebista— “gorputz eri” bezala. Argaltzea dela, menopausia dela edota beste edozein aitzakiz, gehiengoentzako komunikazioak zabaltzen du emakumea izaki osatu gabe edo akastuna denaren irudipena, emakumea bere fisiologiaren inguruan baizik mugitzen ez denaren irudi lotsarazlea. Berrero ere agertzen zaigu hemen, emakume-*Naturaren* mitoa, zeinaren egiteko nagusia “eder eta erakargarri izatea” den. Emakumearen bizitzako azken helburua aerobika eta kaloria urriko dietak omen dira. Emakumeentzako aldizkariak —hala “bihotzekoak” nola “emakume aktiboarenak” (*Dunia, Mía, Marie Claire, etab.*)— gaietik begiratzearekin aski da horretaz konturatzeko. Baina horrekin batera, ohikoa bihurtzen ari zaigu komunikabideetan eguneroko gauza arrunt bezala erakustea bortxaketak, hilketak eta astinduak, izan ere, erakustaldi horiekin, bai eta sasi-eztabaidataz baliatuz ere, batezbesteko hartzaileari aldian behin eraso egiten zaio, sexuen gerra antolatu honetan. Emakumea biktima bihurtuz, gizartean pilatutako tentsioentzako ihesbidea irekitzen da.

Honainokoa, emakumearen irudikapen sinbolikoa egiteko *Gehiengoentzako* komunikabideek gehien erabili ohi dituzten ezaugarriak aipatu ditugu; pentsa liteke rola berregituratzeko emakumezkoaren papera eta bere estereotipoak erabiltzen direla bakarrik. Baina hori aurreko hamarkadetan horrela izan bazen ere, ez da, jadanik, laurogeigarren hamarkadaren amaialdeaz geroztik, horrela gertatzen. Esan daiteke biztanleriak psikologikoki gero eta gehiago egokitu behar ukan duela merkatuko gizartearen helburuetara. Eta halatan, emakumeari pertsona moduan garatzeko aukerak murriztu egiten bazaizkio, gizonari teknika psikologiko finduen bitartez indar egiten zaio, berak muga dezan emakumea eta bereak egin ditzan, bere kontzientzian introiektatuz, indibidualtasun posesiboaren azken asmoak.

Horren ondorioz, industria osteko gizarteetan, gizonaren rola eraikitzeke ezaugarri berriak lotuak daude ezinbestean, gizakien arteko elkarrekintzak merkatuko harreman hutsak bihurtzeari. Komunikabideetan eskaintzen den gizonaekoaren eredia emakumezkoaren ereduaren osagarri eta aldi berean aurkakoa da, honako ezaugarriak dituelarik:

— Neokapitalismoaren baldintza ekonomikoek eskatzen duten psikologiak besteak etsaitzat hartu behar ditu eta haiekin lehian aritu. Lehia da sistemaren egiturak mantentzeko prozesua eta lehiaren bitartez gizarteratzen dira herritarrak, halatan errealitatearen ikuspegi arras mugatua bereganatzen dutelarik. Gizonezkoen taldeari zuzenduriko mezuek, lehiaren printzipio honetan dute ardatza. Norbanakoen arteko borroka darwiniarrak erakusten du merkatuko prozesuen muina den norgehiagoka orokorra. Eta borroka horretan komunikabideek bozeramaileak dira, desberdintasunaren ekonomiarekin akort diren jokatibideak hedatuz. Kirolak arrunt bihurtzen du, onartu den egoera. Futbola, boxeoa, atletismoa eta baita golfa bera ere, telebistako eta egunkarietako programazioaren gunea dira. Bertako taldearen irabaziak indarkeriazko egintzekin eta portaera primitiboekin batera doaz. Eta indarkeria hau zurrizko jarraitzaileen alaitasunaren estakurua ai-

patzen da. Alabaina, jokaera agresiboak bultzatu egiten dira, gizotasunaren seinale gorena dirrelakoan.

— Indarrak eta misoginia berriro sortzeak, ahuldadea eta men egitea bateratuz eta arbuatuz, laguntzen dute gizonen arteko elkartasuna sortzen, non eraso sarbidezko erritua den. Gaxteentzako filmeak aztertuz gero ikus daiteke emakumearen papera irrigarri uzten dela, gizonen arteko elkartasuna sortzearen. Horrelako filmeetan, komikietan, "mahuketan" eta fanzinetan gizonen pertsonaien garrantasun sexual eta errauslea zuritu egiten da, halako "berezko izaera" senez omen datorkienaren estakuruz, halatan, emakumeak egin omen dizkion irainetaz mendeku hartzen duelarik. Gorroto bizi biziak blaitzen ditu komunikabideetako industriaren produktu hauek guztiak, zeinek sendotu egiten dute bereziki, belaunaldiz belaunaldi transmitituriko aurreiritzi historikoen multzoa, oraindik ere haur eta gaxteen taldeetan eraginkorrakoak diren aurreiritzi berriak gaineratzen dituztelarik. Iparrameriketako soziologoek eginiko gainbegirada baten arabera, nerabeentzako komunikabideetako produkzioetan ehuneko laurogeiak emakumearen aurkako indarkeria oso nabarmena dakar.

— Ikus-entzunezko produktuetako edukietan ageri ohi den beste balorea emakumezkoa arbuatu eta irrigarri uztea da. Kulturak oro har harturik, generoko estereotipoen eraketak erakutsi ohi ditu beste edozein fenomenok baino hobeki, kolektiboak menperatzeko egiturak. Halatan beraz, emakumearen aipua beti izan da mesprezuz kutsatua. Mesprezu honek erakusten digu, nolako beldurra sortu ohi duen kultur horietan "besteak" bestelakoak, eta ikuspuntu metapsikologikotik ikusita gizonen taldeen beldurrak agertzen zaizkigu. Dena den, komunikabide estandarizatuetan egiten den emakumeari aipua kentze hori, lehen aipatu ditugun gatazkei itzuri egiteko estrategiei loturik ikusi behar da. Indibidualtasun posesiboaren baloreei atxikitzeak adiskidantza primitiboa eskatzen du, botere eta menperatze estatusak zalantzan jar ditzazkeenei aurre egiteko. Eta puntu honetan, emakumea irrigarri uztea da, taldeko adiskidantza hori areagotzeko prozedura indartsuenetakoa.

— Azkenik, generoen irudikapen sinbolikoaren eduki hedatuaren zerrenda laburrean, ezin aipatu gabe utzi, gizonen arteko elkarrerikintza "arrunta" bihurtu da. Halatan beraz, ikus-entzunezko produkzioetan, hirurogeigarren hamarkada arte portaera arrarotzat hartua zena, gaur egun berriz, eguneroko irudia zaigu. Honek erakusten digu, zein sakonki berrantolatzen ari den errealitatearen hautematea, zeren eta orain dela urte batzuk, menpekotasunak jotako giza harremanak ikusten ziren lekuan, orain berriz ohiko gauza arrunta besterik ez baita ikusten. Orduko psikopata, gaur egun, komunikabideek sorturiko sinboloetako pertsonaia bat besterik ez dugu, eta honek baieztatzen digu gizonen arteko elkarrerikintza, gero eta rol bortitz eta errausleagoaren inguruko ezaugarriak hartzen dituelarik.

Laburbilduz, generoen irudikapen sinbolikoak, darwinizaturiko gizarte eredu bat osatzen parte hartzen du, eta eredu horretan, emakumea, formalki eskubide osoko hiritarra bada ere, behialako estereotipo zaharrak berpizten dituzten taktiken menpean itotzen da. "Emakumezkoarenganako

gorrotoak” zibilizazio egoera atzeragarria erakusten du, non “kristalezko sabaiak” gero eta gaindiezinagoak eta antzemangaitzagoak bihurtzen ari diren.

4. *Ahultzarazte sinbolikoko prozesuak: taktikak eta estrategiak*

Gizartea limurtzeko erabilitako komunikazio tekniken artean, azken urteotan sendotu dira, gizarteko gutxiengoei eta taldeei doazkienak. Kathlee K. Reardon-ek dioen bezala:

Ahultzaraztea da Gerbner-ek ‘funtsean izuaren teknika’ deitzen duena. ‘Bortxaketaren instituzionalizazioa’ edota ‘krimen arrunt’ gisa tratatzea ere, emakumearen irudiaren aldaketa ahultzarazteko modu bat da. Bigarren modua, pornografia ‘indar askatzaile’ gisa onartzea da, esplotazio modutzat hartu beharrean. Errua publizitatearena izan ohi da. Eraso, batzuetan, mezu subliminalen bitartez egiten da, mezu hain meheak ezen inork iragarleari galdetuz gero zergatik iragarkian sartu dituen, erraz zuri bailitzake. Publizitateko pornografia nabarmenagoa da. Baina gure gizartea ohituratu egin da telebistako pantailan emakumeak erdi biluzik bueltaka ikusten.” (15)

Ahultzarazte sinbolikoa, Konduktismoaren tradizio onenari jarraituz, errefortzu ezkorren erabilera besterik ez da. Horrela iraurarazten dira —Reardon-ek dioen bezala— jokabide aukeretan jarritako mugak, erabat bereiziz, “gizonari dagokiona” eta “emakumeari dagokiona”. “Emakumeari dagokiona” sinbolikoki huskeria bihurtzea da sinbolikoki deusezteko teknika indartsuena.

Egoera honetan, hiru taktikaren bitartez ahultzen da emakumea, komunikabideetan maiz eta jarraian izena kentzen zaiolarik:

- a) Jokabide baten alderdi probokagarri eta nabarmenenak aukeratuz.
- b) Emakumea isolatu eta norbanako isolatu gisa aurkeztuz, kanpokoarekin inolako loturarik gabe eta “munduaren martxa” interesatzen ez zaiolarik.
- c) Emakumearen rola gaineko irudikapen arruntak eta topikoak irrigarri utziz, nahaste-borrastea sortuz, umore gaitzesalea erabiliz.

Baina utz dezaiogun Reardon-i, aldatzeko aukerei buruzko bere azalpenarekin jarraitzen:

“Gerbner-ek etorkizun goibela azaltzen digu, telebistan ematen den emakumeen irudi ezkorra aldatzeari doakionean. Emakumeei jasanezinezko iraina irudituko ez zaien arte sexuen arteko harreman sozialen egitura, segur aski iragarleek jarraituko dute emakumeak rol tuntunetan agertzen. Nolaz eta emakume gutxi dagoen suminduta, publizitateko iragarkiek zein arinkeriaz azaltzen dituzten ikusita, iragarleek askatasun osoa dute, dagoeneko aspaldi zaharkituak behar zuten irudiak iraurarazteko. Komun garbia, xukadera leuna eta alkandora orbangabea lortzeko xedeek bereizten dituzte emakumeak gizonengandik, zeinen xedeak diren aseguruak, likoreak, kirolak eta beste gai ‘garrantzitsuagoak’. Iragarleek konpontzen ez dituzten bitartean, komunikabide handiek era-

(15) REARDON, K. *La persuasión en la comunicación*. Paidós, 1983, 225 orr.

kusten dutenaren eta emakumeei benetan garrantzizko, beren benetako interesak zaizkienaren arteko desadostasunak, jendeak jarraituko du jokabide zenbaiterako joerak ikusten, emakumeen irudi desitxuratueta oin harturik.” (16)

Desitxuratzeari orientabide orokorra bihurtzen da, emakumearen gainean eraikitako baloreak interpretatzerakoan. Halatan, aurreiritziz osaturiko gorpil zorotik gero eta zailago izanen da ateratzea. Emakumeek atzera eginen dute, bereziki autoestimuan, zeren eta ahultarazteak gizartearen psikologia horrenbeste kutsatzen ditu, ezen emakumeak berak bukatzen baitu bere rolaz estereotipatu esaten dena sinesten.

5.

Generoko rola aldatzeari gizartean duen eragina

Ikuspuntu soziologikotik ikusita dudarik ez dago, norbanakoak berpsikologizatzea, hala ideologikoki nola gainegituran, rol sexual oso mugatuak taxutuz egiten ari dela, rol horiek komunikabideek egunero gupidagabe transmititzen dituztelarik. Taxutze hau zuzentzen zaio bereziki gizonezkoaren rolari, gizartean nagusituriko harremanetan ematen diren aldaketen aurrean ematen dituen erantzunak bideratzeko. Gizonezkoaren rola ideologizatu egin da aurreko hamarkadetan baino gehiago, baldintzapen esanguratsu bati egokituz, non lehiakortasunaren gaia gailentzen den. Baldintzapen hori lortzeko hainbat komunikaziozko teknika erabiltzen da, hala nola isiltasunezko kiribila, zeinaren bitartez isilean gordetzen baitira, modak edota komunikazioak zabalduriko emakumearen ereduari kontra egiten dioten ereduak, kontraargudiaketa, zeinaren bitartez indargabetu egiten baitira, nagusitzen ari diren argudioak ez bezalakoak direnak, bai eta teknika hipodermikoa, hau da, balore, sinbolo eta aurreiritzi berberak behin eta berriz errepikatzea, “tanta-jario sinbolikoa” eginez, azkenik kolektibitateak bere egiten dituen arte; teknika hauek gizartearen ueste giro bat osatzen dute eta horretatik ateratzea gero eta zailagoa gertatuko da. Halatan beraz, gehiengoentzako komunikabideak prozesu ideologiko bat zabaltzen ari dira, emakumea eta gizona elkarren aurkako etsai amorratuak bihurtuz, aldian-aldian eguneroko filme eta telebistako edota telebistako solasaldi sasi-kultuek azaltzen duten gezurrezko “sexuen borroka” batean. Saia gaitzen teknika hauek zehatzago azaltzen; erabilienak hauexek ditugu:

— Erabilera eta sari bitarteko limurtze teknikak. Ikuspegi honetatik, Gehienentzako komunikabideak erabiltzen dira kolektibitateari bere beharretan atsegin emateko. Katz, Gurevitch eta Blumler-ek erakusten dute komunikabideen aurrean jartzearekin hartzailea identifikatu egiten dela. Generoko rolen kasuan, sari erotikoa, komunikabideetako edukiek eraginiko tentsio emozional bi-ziarekin lotzen da. Halatan, emakumea, batezbesteko kontsumitzaile-hartzailearentzako bizigarri handiena bihurtzen dute.

(16) REARDON, K. op. cit., 226. orr.

— Gaur egun oso erabilia den teknika sortu dute, alegia, teknika hipodermikoa deiturikoa. Teknika horren arabera, komunikazioak orratz hipodermiko baten moduan jokatzen du, hartzailean pixkanaka sartzen baititu artifizialki sorturiko kode, arau, balore eta sailkapenak. Generoaren bereizketek dituzten zeharkako eraginei buruz Hartmann-ek eta Husband-ek eginiko ikerketek egiaztatzen dute, gizarteko talde baten jarreretan aldaketa sistematikoa eman daitekeela, aukeraturiko tantaka-jario sinboliko horren karira.

— Elizabeth Noelle-Neumann soziologo alemandarrak, aipaturiko teknika horiek aztertu ditu, baina ez mezu sinbolikoei beraiei so eginez, nola komunikabideetatik desagertzen eta isiltzen ari direnei begira. Beraren ekarpen nagusiak ditugu: isiltasunezko kiribilaren gaineko eta Agenda finkatzearen gaineko ikerketak. Ikerketa bietan, Iritzi publikoa gidatzen duten gaien lehentasunak finkatzeko erabiltzen diren informazioa banatzeko prozesuak aztertzen dira. Emakumearen kasuan, Agenda finkatzea edo Agenda Setting ere deiturikoa, errefortzu ezkor iraunkorrenetakoa da, gizartean emakumezkoarena gutxiesteko jarrerak sortzeko.

— McGuire, Iparramerikar psikologoaren kontraargudiaketaren teknikak ezartzen ditu, jendetza handia limurtzeko prozedura ilunenetakoa. Teknika horrek bilatzen du, itxuraz argudioak azalduz, boomerang efektua deituriko errefusa sortzea. Emakumearen gaineko arazoak eztabaidatzen dituzten telebistako programa gehienek, jokabideak aukeratzeko teknika hau erabiltzen dute.

Labur esanda, ezinbestekoa iruditzen zait komunikabideetan erabiltzen diren generoko paperak berdefinitzea, hala praktikan nola teorian ere. Baina berdefinitze horretan zerbait konpondu beharra dago, etorkizunerako bidea zuzenduko bada, izan ere: kultura eta komunikazioa ez daitezela, ororen alienaziorako tresnak bihurtu. Eta ororen alienazio esaten dugu, komunikabideak biztanleriaren kontzientzian interpretazio jakin eta gidatuak antolatzen ari direlako. Norabide bakarreko interpretazio horiek, etengabe emaniko estereotipoak sendotu egiten dituzte.

Halarik ere, arazoa zaigu ea generoko rola berdefini ote daitezkeen gaur egungo baldintza ekonomiko eta sozio-politikoetan. Puntu honetan kontuan hartu behar da komunikabideetako arketipo sinbolikoek eraginiko gizonezkoaren paperaren aldaketa eta bat ez etortzea. Gizona, inolako kritikarik egin gabe onartzen ari da, lehia gune ideologikotzat duten interes ekonomiko eta politikoetara gero eta gehiago bideraturiko portaerak. Halatan emakumea lehiakidetzat azaltzen dute, haren aurka bideratuz indarkeria eta agresibitate orokorra. Emakumea egitura osorako elementu desitxuratzailea litzateke, beraz. Eta horrexegatik agertzen da berriro ere, misoginia amorratua. Misoginia hau sortzen da, industria osteko gizartearen krisi orokorretik. Prozesu honetan, pixkanaka, kolektibitatearen humanizazioa narriatzen joaten da eta ia egunero, edozein egunkariko gertaeren atalan irakur ditzakegun agresibitateko fenomenoak sortzen dira. Sexuari loturiko rola eta rol horiek gizartean banatuak izateak ezkutatu egiten dituzte, kolektibitatearen bitzita baldintzatzen duten egiturazko alderdiak. Eta horri gaineratzen badiogu, ideologizaturiko gizonari, menperatzen jarraitzeko argudioak ematen zaizkiola, ondorioz ateratzen zaigu, gizon emakumeen arteko harremanetan, sado-masokizmozko kutsu psikopatologikoaz blaituriko irrazionaltasuna finkatzen dela. Horren adierazgarri argi eta garbirako aski da ikuskizun diren filme gehienei erreparatzea, nabarmena baita zenbaterainoko narriadura —hala deitzerik bada— jasan duten, ez

bakarrik gizon emakumeen arteko harremanek, baizik gizakien arteko harreman orok. Esate baterako, ariketa bezala erka ditzagun aurreko hamarkadetako zinema eta gaur egungoa; ondorio du-darik gabe arras kezagarria aterako zaigu eta.

Telebistan, prentsan, publizitatean, irratian, kantagintzako eta bertako idoloen munduan, gizonezkoaren eredu patologikoak sortzen dituzte etengabe, sinbolo hauekin gaxteengan ikaragarri eraginez. Alabaina ez dira gazteak soilik horrelako eraginen menpe, inguru intelektual eta post-modernoek ere, misoginiak erabat blaituriko gizonezkoaren rola goraiiputzen dute. Hainbat literatura ingurutan ohikoa bihurtzen ari da, emakumea adimenari doakioean irrigarri uzten duen misoginia erabiltzea, emakumea asaba zaharren garaikotzat agertzen dutelarik. Halatan beraz, "sexuen arteko gerraren" gatazka faltsuak ekartzen du jendea mesprezu orokorrean gizarteratzea, eta mesprezu hau, emakumezkoaren ahultarazte sinboliko hori zabaltzearen azpian datza.

Pentsa daiteke, beraz, emakumearen aipua galtze, irrigarri uzte eta indarkeriazko teknika desberdinak aztertu behar direla, ez horrenbeste ikuspuntu psikoanalitikotik, nola arrazoi soziologikoen bitartez eta dudarik gabe arrazoi juridikoen bitartez. Ikuspegi psikoanalitikotik, zenbait egilek azpimarratu dute gizonak emakumearen aurrean eta ama den bezainbatean erakutsi duen gutxiagotasunezko konplexua. Halarik ere, interes duena ez da, gauzak bere horretan uzten dituen ezkutuzko edipo konplexu batean murgiltzea, baizik eta gizarteak emakumeen aurkako indarkeriaren eta tratu txarren aurrean agertzen duen onarpena aztertzea. Egoera honetan esanguratsua da, etxeko indarkeriaren gainean dagoen hipolegeria, beste gaietan dagoen hiperlegeria ikusiz gero, hala nola jabegotasunaren gainean dagoena. Baina zuzenbide publiko nola pribatuaren mailekin konparatuz, etxeko gaietan hipolegeria egoteaz gain, soziologikoki ere ikus daiteke nola gizartearen tentsioak emakumezkoengan hustutzen diren (17). Emakumea koplak burukoa bihurtzen ari da, beste garaitan talde etnikoak eta beste sinesmenetakoak izan ziren bezalaxe. Kolektibitatearen gatazkak eta tentsioak, gizartearen alde ahulenganantz bideratzen dira, eta horretan emakumea "bestea" da oraindik ere, bestelakoa. Teologiak "gaitza" deitzen zuenari orain "arraroa" etiketa jarri diote. Eta emakumea ez da oraindik subjektu historiko berri gisa onartua, ez da oraindik errealitatea interpretatzen, baizik eta belaunaldiz belaunaldi transmitituriko agresibitatearen inguruan antolatu den bezala (18).

Halatan bada, komunikabideetan gizonezkoaren rol bortitza etengabe hedatzeak gizartearen gain duen eraginaren ondorioak honako hauetan laburbil litezke:

- a) Kolektibitatearen kutsadura psikologikoa, halatan gizarteak "jokaera arrunt" bezala bere egitera iritsiz komunikabideek sustaturiko patologiak.
- b) Lehia, herritarren arteko funtsezko harremana bihurtzen duteneko baldintza ekonomiko sozialak legitimatzea. Halatan darwinismo soziala bihurtzen delarik industria osteko gizarteetako ideologia nagusia.

(17) Ikus, GURVITCH, G. *Sociología del Derecho*. Rosario, Depalma, 1995., 57-73. orrk.

(18) DUBY, G. eta PERROT, M. *Historia de las Mujeres*. bertsiotua., 91-135. orrk.

c) Horren ondorioz, haurrak eta gazteak gizarteratzen dira, heroi bortitzekin bat eginik, jokabide gero eta oldarkorragoak eta basatiagoak errepikatuz (19). Alderdi hori egiaztatzeko ez da gogora ekarri beharrik, eskoletan ematen den indarkeria, bereziki Estatu Batuetan.

d) Eta laburtzeko, emakumea bihurtzen da, desbideraturiko eta berarengana bidalitako indarkeriaren gunea; gizartearen ondoeza egitura eta erakundeen aurka zuzen ez dadin, emakumeak jartzen dituzte, kolektibitateak bere eginiko eta deusezturiko biktimatzat (20).

Hitz batez, funtsezko aldaketak beharko lirateke, emakumearen aurkako etengabeko erasoari amaiera emateko, eraso hauek ez baitira komunikabideen mezuetan bakarrik azaltzen, baizik eta gizartearen jarrera eta egintzetan oro har. Lehenik ezinbestekoa litzateke, egoera hau nolabait onartzen duten legeak aldatzea. Baina era berean, errealitatean ere aldaketak eman behar dira, bai eta ideologian ere. Emakumeari aipua kentzea, deuseztatzea, irrigarri uztea edota izua sartzeko teknikak zigortu egin behar dira eta komunikaziozko edukietatik eta biztanleriaren jardunetatik kendu. Halatan beraz, emakumearen duintasunaren aldeko erreibindikazio eta borroka edozein emakumeren helburua behar dute izan, emakume hori gizartean edonon eta edonola kokatua dela ere. Ezin onart dezakegu onargarritasun faltsua, zeinaren bitartez txiki txikitandik umeei erakusten baitzaie gizon izanik besteak makurtarazi behar dituela, eta emakumea izanik burua makurtu behar duela. Gizartea arrazionaltasun handiagorantz eta zibilizazio maila goragorantz eramana nahi bada, ezin jasanezkoa gertatu behar zaigu beste gizakia mespreziatu, iraindu edota behertzea. Laidoa eguneroko jardun ohikoa izaten jarraitzeak erakusten digu, alde batetik gizarte honi demokratiko eta aske deitua izateko asko falta zaiola, eta bestetik, eraiki dezakeela gizarte sistema oraindik ere garratzagoa, non basakeriak arrazoiaren lekua hartuko lukeen eta gizagabetasunak, berriz hartu, herritar guztiak sozialki goratu eta duin bihurtzeko guztien on unibertsalaren kontzeptu goraren lekua.

(19) MUÑOZ, B. *Teoría de la pseudocultura*. Madrid, Fundamentos, 1995. 221-229. orrk. "Un estudio de Sociolingüística: Condicionamiento simbólico y cultural en grupos infantiles y juveniles a través de los 'mass-media'".

(20) COLOMBO, F. *Alternativa a la Violencia*. Barcelona, Lumen 1978. Herbert MARCUSE-ren, *La agresividad en la sociedad industrial avanzada*. (Madrid, Alianza, 1981) liburua oraindik ere funtsezko azterketa zaigu, industria osteko gaur egungo gizarte honetan ematen den indarkeriaren zergatiak ulertzeko.

BLANCA FERNÁNDEZ VIGUERA

**IPES (Gizarte Ikerlanak
Sustatzeko Institutua)**

Barterketa

soziala: mugak

Gizarteko bazterketari aurre egiteko politikak aztertu nahi baditugu, neurtu nahi badugu zein eragin duten eta zenbateraino egokitzen diren emakumeek bizi duten egoerara, lehenik zenbait termino argitu beharko dugu, hala nola zer den gure ustez pobrezia feminizazioa edo zer den gizarteko bazterketa, eta hauen zergatiak bilatu beharko ditugu ere, bai eta emakumeak baztertzeko dauden prozesu bereziak deskribatu.

Gizartearen dignostiko ona lortu gabe, gaitz gertatuko zaigu emakumeen beharretara egokituko diren politikak garatzea. Helburu honetara emanen dut ene komunikazio hau.

1.

Emakumeen pobrezia ez da aintzat hartzen

Emakumeen pobrezia oso zaila gertatu zaio berezko pobreziazat hartua izatea eta hala kostatu zaio ere kontuan hartua izatea konpon beharreko arazoak kontuan hartzerakoan. Hala Estatuaren nola ikerketa lanen abiapuntua izaten da pobrezia familiei (edota etxeei) dagokien gauza dela. Familia sexu eta adin gabetzat dute eta barruan berdintasuna eta elkartasuna ematen direla suposatzen dute. Halatan beraz, segurutzat jotzen da familiek dituzten baliabide guztiak bere kideen artean berdinki banatuak direla, eta faltan edo urriak badira, familiako kide guztiek eskasia edo urritasun hori berdin bizi dutela uste da.

Pobreziaaren aurkako Europako II. programan (1985) guraso bakarreko familiak kontuan hartu ziren, egitasmoetarako helburu bezala, baina III. programa arte ez da emakumea kontuan hartzen, zenbait egitekoen helburu berezitu bezala. IV. programarako, Europar Parlamentuko Emakumearen Eskubideetako Batzordeak audientzia publiko bat antolatzen du, "Emakumeak eta Pobrezia Europan" lemapean (1993), Europako kide diren herrialde desberdinetako egoera ezagutu ondoren, IV programari zuzenketak egiteko. Halatan beraz, Europan berri samarra da tratamendu berezitua.

Emakumeen pobreziaaren berezitasuna eztabaidaleku anitzetan adierazi eta defendatu behar da. Berezitasunaren aldeko hiru arrazoi emanen ditut lehenik:

Emakumeak, gizonen bestelako arazoengatik pobretzen dira, aipa ditzadan batzuk, hala nola jaiotzei loturikoak (ezkongabeko amak), maitasun harremanen hausturengatik (familia uztea, ezkontza deuseztatzea, egitezko edo legezko banantzea, dibortzioa, alarguntza), bestelako banantzeek sorturiko gizarte arazoengatik (senarra edo bizilaguna ospitaleratzea, emigratzea, gartzeleratzea), senarrak edo lagunak lana galdu duelako, eta azken finean, askotan, gizonezkoengandik duten menpekotasun afektibo ekonomikoak sortzen dizkion arazoengatik.

Emakumeek bizi dituzten pobrezia egoeren larritasun handiagoa. Pobrezia aurre egiteko baliabide gutxiago eta gizartearen babes eskasagoa jasotzen baitute.

Emakumeek, errekurso urriak kudeatzeko (ordaingabeko lana areagotzea eta gizartearen kanpoko laguntza bilatzea) erantzukizun handiagoa hartzea. Nafarroan bazterturik dauden eta Gizarte Zerbitzuen erabilzaile diren %68,7 emakumeak dira.

Emakumeek bizitu duten pobreziako ohiko egoera (ohiturazko pobre deiturikoak, isilpeko pobreak, zaharrak, etorkinak, ijituak), eta horri gaineratuz pobrezia berria deiturikoa (guraso bakarra emakumea duteneko familiak, senarrak industri birmoldaketa jasan eta langabe direlarik emakumea ere birmoldatua gertatzen da, etab.), horrek guztiak sortarazi du pobreziaren feminizazioaren ideia. Hilda Scott-en lanekin, 1984.ean hasten da pobreziaren feminizazioaz mintzatzen. Kontzeptu hau erruz zabaldu da azken denbora hauetan, eta termino horren pean hainbat kontzeptu desberdin daude.

Feminizazioa, pobreen artean gero eta emakume gehiago dagoelako. Alde batetik esaten da pobrezia feminizatzen ari dela, pobre guztien kopuruan emakumeen proportzioa handitzen ari dela. Ideia hau baieztatzen dute ikerketa zenbaiten datu enpirikoek. Pobreziaren feminizazioaren ikuspegi hau Estatu Batuetan erabili da batez ere, han, errolda bitartez bilduriko datuek erakusten baitute emakumeen pobrezia maila gizonena baino altuagoa dela gizarte talde orotan eta aldagai orotan: adina, etnia...

Honetarako zergatiak bilatzen dira batez ere demografian (zaharren kopurua handitzea, zahar gehienak emakumeak baitira), familiko ereduaren eta egituren aldaketetan (banatze eta dibortziate gehiago izanez guraso bakarreko famili gehiago baita), eta ekonomian (emakumeari gaizki ordainduriko lana ukaitea maizago gertatzen zaio gizonari baino eta hala ezin du ekonomikoki buruaski izan).

Feminizazioa, emakumeen pobrezia azaldu egiten delako. Testuinguru honetan agertzen den beste ideia dugu pobrezia feminizatu egiten dela, emakumeen pobrezia azaldu egiten delako, zeren eta emakumeen pobrezia ezkutuan izan baita beti, gizartean ikustezina izan da. Ikuspegi honetatik eginiko azalpen argiena Caroline Glendinning-ek eta Jane Millar-ek egin da, Britainia Handiko emakumeen eta pobreziaren gaineko lanen bilketan (1).

Millar-ek eta Glendinning-ek bereziki bi alderditatik kritikatzeko dute emakumeen pobreziaren ikustezintasuna: azterketetarako talde unitatea erabiltzeagatik (familia, etxea, zerga unitatea, etab.) alde batetik, eta pobrezia diru sarreraren dimentsiobakarrak neurtzeagatik beste aldetik. Lehenengo erabileraren ondorio nagusia emakumeen egoera, famili unitatearen egoeraren atzean gutxitu edo ezkutatzea da. Bigarren alderdiaren kritikak argi uzten du emakumeek familiaren egoera ekonomikoari egiten dioten ekarpen ordaingabea (beraz ikustezina) eta pobreziaren kontzeptu zabala eta konplexuagoa erabil dadila eskatzeko balio du.

Gerta daiteke, familiak per capita duen diru sarrera, pobreziaren atalase-mailaz gorakoa izatea, baina halere emakumeak ez ukaitea eskura ez beretzako dirurik, ez bere kabuz erabiltzeko ondasunik, ez erabaki ahalmenik edota bere burua publikoki azaldu eta partehartzekorik ere. Egileek dioten moduan, senarrak autoa erabili ohi du eta emazteak berriz ikuzkailua, ondasun biak familiaren diru sarrera berekoak izanik ere.

(1) Jane MILLAR eta Caroline GLENDINNING, "Invisible Women, Invisible Poverty" in Caroline Glendinning eta Jane Millar (arg.), *Women and Poverty in Britain*, Brighton, Wheatsheaf Books 1987, 3-27. orrk.

Pobrezia neurtzeko ohiko metodoak kritikoki erabiltzeaz gain, norabide horretan aurrera egiteko bideek bilatzen dituzte azterketetarako metodo koalatiboagoak (diruzkoak ez diren adierazleak erabiltzea, etab.), saiatzan dira ere, famili unitateen barruan, gizonen eta emakumeen egoerak bereizten, eta familiko kideen onerako egiten diren ordaingabeko ekarpenak neurtzen.

Pobreziaren feminizazioa ala emakumeek bestelako pobrezia dutela? Hirugarren ideia batek esaten du aztertu behar dena dela zeintzuk diren emakumeak pobretzera eramaten dituzten mekanismo bereziak. Hau da, ideia honek esaten du badirela, gizonak nola emakumeak jo ditzaketen mekanismo orokorrez gain, bestelako prozesu batzuk emakume zenbait pobretu egiten dituztenak, eta emakumeak bakarrik pobretzen dituzten prozesuak direla. Gauza ez da ea emakume ala gizon pobre gehiago dagoen jakitea, edo batzuen edo besteen pobrezia-tasa lasterrago handitzen den ala ez, baizik eta pobrezia mota desberdina antzematea, emakumeak bereziki jotzen dituzten pobretze prozesuak aurkitzea. Ikerketa bide honek lotu nahi du emakume batzuek pairatzen duten pobrezia, emakume gehienek bizi duten menpekotasun ekonomikoarekin.

Gure ikuspuntutik ez zaigu horrenbeste axola azaltzea ea egoki den ala ez pobreziaren feminizazioaz mintzatzea, izan ere, terminoak metodologian nolabaiteko doitasun eza badakar ere, arazoaren tamaina eta hainbat eduki ere argitzen ditu, axola zaigu, ordea, emakumeek bizi dituzten pobreziako egoeretara daramaten prozesuetan barrena sakontzea, eta emakumeen pobrezia berezi hori bestelako pobrezietatik bereizten duten erro bereziak aztertu.

Eskasiako egoeretaz mintzo garenean, diruzko pobreziaz aritu gaitezke edo baztertzeaz mintzo gaitezke. Baztertzea, gizartearen alde guztietako bizitzan partehartzeko mugak eta trabak pilatuz ematen da, eta partehartze horretarako emakumeen abiapuntua desabantailaz josirik da. Desabantailako egoeran da emakumea, betidanik desberdin tratatua izan delako heziketa, formakuntza, lana... eskuratzeko, eta faktore hauek guztiak gizarteratze eta gizarretetik baztertze prozesuan funtsezkoak dira, izan ere.

3.

Zergatiak aztertzeako horronteak

Emakumeen berriazko pobreziaren zenbait zergati imajina dezakegu, nahiz eta bi generoen pobrezian zergati batzuk berberak diren. Hedwige Peemans-Poullet-en azalpenari jarraiki, emakumeen pobreziaren sorburuei buruzko azterketek hiru zergati nagusiei begiratzen diete.

Batez ere Ingalaterrako, Estatu Batuetako eta Kanadako ikertzaileek osatzen duten azterketa korronte batentzat (2), arazo nagusia da emakumeek duten diru sarreraren eskasia, alde batetik emakumeek lanean eta lansarian jasaten duten bereizkeriengatik, eta bestaldetik Ongizateko Estatuak dituen diru sarrerak bermatzeko sistemetan dauden eskasia eta bereizkeriengatik. Azterketa hauen ondorioz eskatzen da emakumeei ematea, beren beharrak betetzeko adinako lansaria edo lansariaren ordezkari diru sarrera (ez nahastu gizarteratzeko gutxieneko diru sarrera deiturikoarekin).

(2) Deborah A. ABOWITZ, "Data indicate the feminization of poverty in Canada too", in *Sociology and Social Research*, 70, 3, 1986

Europako herrialde latindarretan hedatuagoa den bigarren korranteak azpimarratzen du senarrek inapurtzeak dakarren pobretzea. Banantzea, dibortziaztea edo alargun geratztea emakume askorentzat sostengu ekonomiko galtzea da. Datu zenbaitek erakusten digu emakumeei diru sarrerak urritu egiten zaizkiela banandu ondoren. Belgikan pobrezia buruz eginiko azterketa gehienek erakutsi dute, emakume pobreen artean asko direla sostengu ekonomikorik gabe gelditu direnak banandu edo dibortziaztea ondoren. Ada García-ren ikerketak (3) erakusten digu, Minimax delakoa jasotzen duten emakumeetatik %66 bananduak edo dibortziazteak direla. Horri gaineratzen bazaio gehienetan emakumeak direla seme-alaben kargua hartzen dutenak eta senarrak maiz ez duela ordaindu beharrekoa ordaintzen, familiaro kargak dituen emakume bakarra agertzen zaigu emakume pobreen arketipo bezala. Gainera egoera honek gizarte klase guztiak korritzen ditu, pobrezia berriaren diskurtsoekin bat eginik.

Pobrezia feminizazioa azaltzeko modu honek jarraitzaile asko ukan ditu, feministen artean eta baita sektore kontserbatzaileetan ere (4). Daukan arazo nagusia da, ezen itxuraz argi eta ukaezinezkoa dirudien azalpenak (banandu zenean pobretu egin zen) benetako arazoa ezkutatu egiten duela (ezkondua zenean ez zuen bere diru sarrerarik). Arazoaren sorburua dirudiena (haustura) ez baita arazoa ikustera ematen duena baizik. Eta halatan ekonomikoki senararen menpe egotea da arazoa eta aterabide bezala ikus daiteke ordea. Emakumeen pobrezia benetako arazoa, bere diru sarrera propiala ez daukatela da. Dibortzioak edo banantzeak egoera hau azaldu besterik ez dute egiten.

Ikuspegi honi kritika eginez, beste batzuek pobrezia sorburua ezkontzan jartzen dute. Ezkontzaren egitura ekonomikoak emakumeen pobretzea eta gizonen aberastea ekarriko lituzke, ezkondu zirenean bakoitzak zuen kapitalarekin konparatuz gero. Banantzerakoan gertatzen dena da, ezkontza bitartean gertatutakoaren balantzea egiten dela. Dibortzioaren kostua, ezkontzaren prezioaren adierazpena besterik ez da. Emakumeentzat ezkontza ez da diru iturria, bertan (aldi baterako) bizirik irauteko adina aurkitu badezakete ere. Hauxe frogatzera jartzen da, pobrezia zergatien gaineko hirugarren korrantea.

Bernardette Bawin-ek (5) esaten du ezkontzak emakumeak pobretu egiten dituela. Ezkontzaren biak ezkontzerakoan beren kapital ekonomiko, sozial eta kulturala dakarte, eta ezkontza bitartean emakumearena urritu egiten da eta gizonarena handitu. Hannelore Schröder feminista alemandarren ustez (6), zehazki gertatzen dena da amen pobretze ekonomikoak ekartzen duela aiten aberaste ekonomikoak.

(3) Ada GARCÍA eta Patricia VENDRAMIN, *Profil socio-économique des ayants droit au minimex*, Cabinet du Secrétaire d'Etat à l'Émancipation Sociale-k argitaratua, Brusela, 1987ko ekaina.

(4) Ikus, jarrera honen azterketa kritikoa in Johanna BRENNER, "Feminist Political Discourses: Radical Versus Liberal approaches to the Feminization of Poverty and Comparable Worth", in *Gender & Society*, 1. alea, 4. zenbakia, 1987ko abendua, 451-455. orrk.

(5) Bernardette BAWIN, "Pauvreté des femmes et projet familial: coût du divorce et prix du mariage", in *Actes du colloque "Femmes et Pauvreté"*, argitara bidean 1988.

(6) Hannelore SCHRÖDER, "L'appauvrissement économique des mères est l'enrichissement des pères", in *Les Femmes, le travail et la pauvreté*, Concilium, 214. zenbakia, 1987.

Ikuspegi hauek ez dira elkarren aurkako bezala ikusi behar, areago esanez, oinarrizko elementu batzuk guztietan ematen dira, zeinek batean edo zeinek bestean indar gehiago eginagatik ere. Gure ustez, emakumeek lanaren zatiketa sexualean duten gizonen bestelako lekuak sortarazten ditu emakumeen premia gorriak eta suertatzen zaion pobrezia berezitasuna. Lanaren zatiketa sexualak gizonak eta emakumeak lanarekin eta Ongizate Estatuarekin harreman desberdinetan jarriko ditu.

Gizartearen egituraren ikuspegi berriak aurkezten digu, lanaren zatiketa sozialarekin batera eta horrekin lotuta, lanaren zatiketa sexuala ere, generoen arteko harreman hierarkikoak azaltzeko prozesu bezala.

Halatan bada, gizonak eta emakumeak gizartean dituzten lekuak horrelakoak dira:

1) Emakumeak familiko etxeko lanetara ematen dira batez ere, baina ez soil-soilik.

Estatu sozialak oinarriz duen famili eremuan emakumeak dute egiten etxeko lana eta artatze (caring) eta kudeatze lana, halatan famili kideen mantenua eginez, menpeko direnak zainduz (adin txikikoak, ezinduak, eriak, zaharrak) eta estatuaren prestazioak osatu eta kontsumituz. Lan horiek ez dira ordaintzen.

Eredu honetan emakumeek, ordainduriko lanetara ezin sar daitezke, ez bada bigarren mailan, gizonen menpe eta baldintza okerragoetan, eta halatan diru sarrera eta gizarte eskubide propialak edukitzeko ere egoera txarragoan daude; horren ondorioz arrisku handiagoa dute pobrezian erortzeko eta gizartean baztertuak izateko.

Emakumei etxeko egitekoak emateak horrenbeste mugatzen ditu, ezen emakumeak lan merkatura sartzen direnean ere, lanaren zatiketa sexualari jarraituz sartzen baitira, emakumeentzat propio antolatutako lanpostuetara, eta etxeko lan ordaingabea utzi gabe, halatan, mugimendu feministak lanegun bikoitza deiturikoarekin kargatzen dutelarik. Egoera hau aldatzen da klase sozialaren, heziketa mailaren eta emakumeak duen ume kopuruaren arabera, bai eta nolako ezkontza estatusa duen ere.

2) Gizonezkoak batez ere (soilik?) merkaturako lanean, produkzio sisteman aritzea. Gizonezko famili buruak etxerako diru sarrera nagusia ekartzeko erantzukizuna dauka eta horrekin batera gizartearen eskubideen jabea, bi gauzak ordainduriko lanetik atera ohi direlarik.

Gaur egungo leku hauek horrela daude antolatuta, historian zehar produkzio moduaren garapenak horrela finkatu dituelako eta familia kapitalista horrela antolatua delako.

Gizonak dira, emakumeak eta familiak gizartean duten lekuaren jabeak eta emaileak. Halatan neskak aitaren gizarte maila dauka eta gizarteko hierarkian igo edo jaitsi egiten du, egiten duen ezkontzaren arabera. Aita pobre duten neskak pobre dira, beraien familiaren maila pobrea da, baina lortzen duten ezkontzaren arabera lekuz alda dezakete, gizarteko klasea ere aldatzeraino iritsiz batzuetan. Errauskineren kontakizunak burua berotzen die emakumei klaseen mailaketan gora egiteko. Askotan emakumeen pobrezia maila eragindakoa da eta ez berezkoa.

Famili patriarkalaren barruan antolatzen da emakumeek gizonengan duten menpekotasuna, bertan gizarteko rol desberdinak banatuz, eta lehen gizarteratzearen prozesuaren bitartez. Bertan lortzen dira famili barruko rolak lanbideko rolekin. Bertan sortzen dira gizarte harremanetako gizar-

teratze prozesuak edo gizarteko klaseetan eta genero sisteman lekua emateko prozesuak. Bertan erakusten zaie emakumeei lanpostua behin behineko gauza dela, industriaren produkzio sistemaren menpe edo erreprodukzio sistemaren menpe jarritz, Estatu bakoitzak dituen behar demografikoaren arabera.

4.

Pobrezia eta baztertze prozesuak Europan

Ekonomiaren globalizazioak eta politika neoliberalak nazioetako politikak errotik berregituratu dituzte, hala industrialduriko herrialdeetan —berregituratze politikak— nola garapen bidean diren herrialdeetan —egiturak egokitzeko politikak—, halatan mundu mailan lehiakortasuna areagotu dadin.

Politika horiek hartzen dute oin emakumeen lan ikustezinean, Nazio Batuen Erakundearen arabera urtean 11 bilioi dolarretakoa (munduko Barne Produktu Gordinaren erdia) dena.

Pentsamolde ekonomikoak eta politikak ere berez daukaten generoko joerak emakumeak baztertu egiten ditu ekonomia globalak ekar litzazkeen mozkinetatik, enpleguan diskriminatuak direlako eta gizartearen erreprodukzioan ematen zaien rolagatik ere. Bestalde, generoko joera honek emakumeen aurkako eragin bikoitza dauka:

— Kalitatezko lanetara gutxiago iristea. Gizarte zerbitzuak desegitea eta gizarte erakundeak pribatizatzea, ekonomia nazioartekoa bihurtzeari loturiko berregituraketa sakonaren parte dira herrialde orotan.

Kontuan hartu beharra dago, gaur egun, gure herrialdean eta beste herrialde industrialduetan, emakumeen lanaren 3/4ak zerbitzuen sektorean daudela: administrazioa, hezkuntza, osasuna, etab. Sektore hau murrizten ari da, emakumeei kalte bikoitza ekarriz: alde batetik emakumeek lan ordaindua galtzen dute eta beste aldetik etxeko lana eta “zaintza” lana areagotu egiten dira, Estatuak ez baititu jadanik betetzen.

Zerbitzuak pribatizatzeak ez du gizakien zaintza ziurtatzen. Emakumeek osatu beharko dituzte edo ordezkatu.

— Koalifikazio gabeko lanera gehiago iristea, esplotazio eta segurtasun ezako egoera okerragoetan; honek, ordaindu gabeko lana areagotzearekin eta sektore publikoko murrizketekin batera, emakumeak egoera okerragoetan eta eskasiaren bidean jartzen ditu. Horregatik esaten dugu pobrezia feminizatzen ari dela.

Ekonomiaren globalizazioaren eta politika neoliberalen ondorio zuzena, lan merkatuaren desauritzea dugu, lan merkatuaren malgutzeak eta ezegonkor bihurtzeak lanpostuak gero eta gehiago behin-behinekoak eta lanaldi murriztekoak izatea ekarri dute, bai eta langabezia handitzea ere. Emakumeak dira horrelako lanetarako aproposenak, zeren eta produkzioko lana eta erreprodukzioa batera eramatera ohituratuak direlarik beti izanen baitira horrelako lanak hartzeko prest, oso gaizki ordainduak badira ere. Bi lanak batera eramane ditzakete “fabrikan ordu batzuk eman

eta gero etxeko lanetarako denbora daukat oraindik ere —lanaldi murrizteko lanetan ari badira— edo bolada batean etxetik kanpo aritu eta ondoren etxera itzultzen naiz —behin-behineko lanaren kasuan—”

Europako lanari buruzko azken txostenaren datuen arabera —Europako pobreziaren feminizatzeari buruzko Europar Parlamentuko Emakumearen Batzordearen Audientzia Publikoan aurkeztuak— emakumeen %40 baino gehiago lanaldi murrizteko lanetan ari dira. Hau Europako batezbesteko zifra dugu, baina seinala dezagun Erresuma Batuan, esate baterako, emakumeen ia %80a dagoela horrelako egoeran.

Audientzia Publiko honek erakutsi zigun enplegua handitzera bideratutako politikek, lansari berdintasuneko politikekin batera eta laneko baldintzak hobetzeko politikekin batera ematen ez badira ez dutela bermatzen emakumeak pobreziatik ateratzea.

Europako emakumeen langabezia ia 7 milioikoa da (1993ko uztaila). Lanik gabeko emakumeen portzentaia, gizonena baino lau aldiz handiagoa da.

Gure inguru gertuena aztertzen badugu: Europako 50 milioi biztanle daude pobreziaren atalase-mailaren azpitik; pobrezia errentako terminotan bakarrik hartuz gero: Europako 50 milioi biztanlek irabazten dute Erkidegoaren batezbesteko lansariaren erdia baino gutxiago. Europan dauden 50 milioi pobreetatik %70 emakumeak dira.

Gure erkidegoko 17 milioi biztanle lanik gabe daude eta langabetu horietako laurdena 25 urtez behetikoak dira. Beste zifra kezagarria da Europar Erkidegoko 3 milioi baino gehiago biztanle etxegabeak direla eta hiri handitako hiritarrak. Eragin gaitzena jasaten dutenak ditugu adin handiko pertsonak, seme-alabak bakarrik hezitzen dituztenak (gehienetan emakumeak), ezinduek, langabezian luzaz daudenak eta gero eta gehiago haurrak.

Espainiar Estatuko emakumeen jarduera tasak, Europa osoko baxuenak ditugu eta langabeziaren maila izugarri gora da. Ongizate Estatuaren krisi garai honetan, gastu publikoari eginiko murrizketek emakumeen lanpostuak urritzen dituzte zuzenean, hala nola plantilen berrantolaketek eta industria moldaketako prozesuek egiten duten ere.

Ezin lor dezakegu sexuaren arabera antolaturiko materiale estatistikoa baina badakigu halere, arrisku handiko taldeetan portzentai handiena emakumeena dela; adibide baterako, langabezian luzaz daudenen artean %55 emakumeak dira eta guraso bakarreko familietako buruak %90, gizartearen laguntzen beharrean diren emakumeak izan ere eta gizarteratzeko gutxieneko diru sarrera jasotzen dutenak; gizartearen diru sarrerak jasotzen dituzten 60 urtez goitikoen artean %80 emakumeak dira, hau da, zahartzaroan gizartearen diru sarrerak jasotzen dituzten bost pertsonetatik lau emakumeak dira. (Europako Parlamentuko Emakumearen eskubideen Batzordeak 1993ko irailan antolaturiko Audientzia Publikora eramandako txostenen arabera)

Pauline Conroy-k (7), (Central Unit of Poverty, University College, Dublin) azaldu zuen pobrezia eta emakumeen gaineko eztabaidak piskanaka utzi diola hasierako eduki koantitatiboari: “pobreziak

(7) Pauline CONROY, Central Unit of Poverty, University College, Dublin-ekoa. "Emakumea eta pobrezia Europar Erkidegoan: Egungo eztabaidarako gaiak" Brusela. 1993.

emakumeak jotzen ditu gizonak baino gehiago”, eduki koalitatiboagoari begiratzeko, alegia, zein arrisku dituen emakumeak pobrezia jasateko, eta zenbateraino pobrezian dagoen emakumea mantentzen den horrelako egoeran gizonak baino gehiago, emakumeak egoera horretatik ateratzeko zein zailtasun dituen, esate baterako, gizartearen prestazioak jasotzen dituztenek.

Emakumeen pobretze prozesuak berriz ere agertu ziren europar bilera honetan, non hitz egin baitzen emakume langile pobreetaz, emakumea nola diskriminatua dagoen, ez lan merkatuan bakarrik, baina baita segurantza sozialeko erregimenetan eta gizarte laguntzetan ere, haurrak feminizatzeko eta beraz pobretzeaz, bai eta emakumeen pobrezia belaunaldiz belaunaldi errepikatzeaz ere. Audientzia honen kezka nagusia emakumeen pobrezia egoerak irautea eta bere horretan mantentzea izan zen.

Langile pobre deiturikoak dira beren lanagatik lansari baxuak jasotzen dituztenak. Ez litzateke egoki pentsatzea emakumea jotzen duten desabantailak eta pobrezia merkatutik at daudela. Soldata urriek gero eta emakume gehiago ukitzen dituzte industriako sektore handietan, zeinen artean azpimarratu ziren: merkataritza, zerbitzuak eta txikizkako salmenta.

Emakumeak lanean jasaten duen bereizkeria, segurantza sozialeko eta gizarte laguntzako erregimenetara luzatzen da ere.

Emakumeak Europako segurantza sozialeko erregimenetan pairatzen duen tratua desberdindua eztabaidatua izan da, kanpainak ukan ditu, bai eta arteztarauak eta Justiziako Auzitegiaren epaiak ere. Emakumearen pobrezia gainera eztabaidak eskatzen du segurantza sozialeko erregimenetara sartzeko moduak aztertzea.

Lanari loturiko aseguru erregimenetan, laneko merkatuko mailak ematen du sartzeko atalasea. Bertan onartuak izateko baldintzak, gizonak lan merkatuan parte hartzeko dituen moduetara daude egokituak: lanpostu egonkor eta jarraia, gutxiengo lansariaz goitiko soldatak. Halatan, lan merkatuan emakumeak parte handiagoa hartzearekin, batez ere lanaldi murrizteko, behin-behineko eta gaizki ordainduriko lanetan ari denez, ez da aldatzen segurantza sozialean parte hartzeko lehendik ere zegoen desberdintasuna.

Hau da, laneko ohiko sexu bereizkeria, segurantza sozialeko eta gizarte laguntzako erregimenetan errepikatu egiten da ere. Bazterreko lanek bazterreko eskubideak ematen dituzte segurantza sozialarik doakionean. Halatan, langabe dauden gizonen %50ak jasotzen ditu langabeziako prestazioak, eta emakumeen artean berriz %30ak bakarrik, Pauline Conroy-k dioenez (Central Unit of Poverty, University College, Dublin).

Segurantza sozialeko erregimen horiez gain, emakumeek ez dute beste diru iturririk, ez badira gizarte laguntza, diru sarreren gainera laguntza, gutxiengo errentak eta ausazko bestelako laguntza publikoak.

Emakumeak Segurantza Sozialeko erregimenekin duen harreman txarraren ondorioz, herrialde askotako Estatuaren laguntza jasotzen dituzten gehienak emakumeak dira: (Erresuma Batuan %60, Herbeheretan %64, Estatu Batuetan %81, Danimarkan %60, Irlandan %53, Alemanian %53.)

Espainiar Estatuan, gizarteratzeko gutxieneko errentako programei loturiko familiak eskatzailearen ezaugarrien arabera sailkatzerakoan, egin berri den ikerketa (8) baten datuek erakusten digute, gutxieneko errenten eskatzaile gehienak emakumeak direla.

Guraso bakarren fenomeno ez da berdina kultura eta eskualde orotan. Europako pobrezia onartuena "guraso bakarreko familia" dugu. Hauetaz mintzatzerakoan azpimarratu zen bereziki salatu behar zela pobrezia latzean erortzeko arrisku handiena dutenen egoera. Guraso bakarren fenomeno ez da berdina kultura eta eskualde orotan. Horien artean ahulenak dira heziketa eta lan formakuntza urria dutenak.

Kasu egin behar zaie ere, eta egin ere kasu berezia, European urtero haurra egiten duten 89.000 haur eta nerabeei, zeren eta diru sarrera urriko ama bakarren artean, hauek baitira ahulenak. Hauekin batera, arta berezia behar duen beste taldea da indarkeriak eta tratu txarrak etxetik botatzen dituen ama-alabak.

Espainiar Estatuan ere asi da nabaritzen ezkondu eta dibortziatzeko ohituren aldaketa, zeinaren ondorioz, guraso bakarreko familien kopurua erruz emendatu egin den. Portaera honek emakumei pobrezia ekar diezaike, gizonarenganako menpekotasun afektibo ekonomikoa haustearen ondorioz. Emakumea buru duten guraso bakarreko familiak sortzen dituzte eta guraso bakarreko familia guztien %90a baino gehiago dira (ezkongabeko amak, bananduak, dibortziatuak, alargunak). Honako fenomeno hau Europa osoan berdin ematen da, bai eta Estatu Batuetan ere.

Espainian, pobrezia atalasearen azpitik, emakumea buru duten 477.495,6 etxe daude, Familiko Aurrekontuen Inkestaren arabera. Etxe pobreetako kopuru hau, emakumea buru duten etxe guztien %26,4a dira (1.989.565). Halatan bada, emakumea buru duten lau etxeetatik bat pobrea da, eta gizonen kasuan berriz, gizona buru duten etxe guztietatik, %18,2 besterik ez dira pobreak, hau da, bostetik bat baino gutxiago. (Familiko Aurrekontuen Inkesta. 1990-91, INE) Sarreran seinatu dugun bezala, ekonomikoki behar duten pertsonarekin apurtzean agertzen da ezkontzan pilaturiko pobrezia.

Haurren taldea feminizatzeak talde horren pobretzea dakar. Industrialduriko herrialdeetan ematen diren ezkont edo maitezko harremanen hausturen karira, 3 umetatik bat ez omen da bere haur bizitza osoan bi gurasoekin izanen: aita eta amarekin. Esandako hau zehaztuz, esan behar da amarekin pasako dutela haur horiek beren bizitzako parte handiena. An Magritt-ek sorturiko terminoa hartuz (Oslo-ko Hiriko eta Eskualdeko Ikerketarako Norvegiar Institutukoa), Europako herrialdeetan ematen ari da "haur taldeen feminizazioa" deiturikoa.

Fenomeno hau esan daiteke dela aitak garrantzia galtzen duela seme-alabentzat. Honako hiru adierazleekin egiazta dezakegu fenomeno hau: fisikoki gerturatzea, haurrekin emaniko denbora eta ematen zaien dirua. Honek emakumeen pobretzea dakar, beraiek bakarrik egin behar baitioite aurre ondoz ondoko bere ezkontza edo loturetan eginiko seme-alaben ardurari eta honek umeen pobretzea dakar ere. Groner andrearen txostenaren arabera, European 4 umeetatik bat bizi omen da pobrezia atalasez behetik.

(8) Manuel AGUILAR, Mario GAVIRIA, Miguel LAPARRA "La última Red. El salario social en las Comunidades Autónomas de 1989/1994". FOESA 1994 Madrid. Argitara bidean.

Emakumeak pobrezia belaunaldiz belaunaldi errepikatzen du, bi bide nagusien bitartez: Pobrezia transmititzeko bide bat familiako ardurak ez banatzea da. Egitekoak banatzen ez direnez eta umeak zaintzeko bitartekoak edo zerbitzu egokiak ordaintzeko dirua ere ez edukiz, umeen zaintza, etxeko lanak eta familiako artak, familiako nesken eta beste emakumeen gainean gelditzen dira. Halatan, pobrezia dakarren karga fisikoa, elkarren segidako belaunaldietako emakume eta nesken artean banatzen dira. Hortaz, pobreziatik ateratzeko lana bilatzea, heziketa bidezko lan birziklaketa, laguntzarako gizarte sareak antolatzea, etab. zailagoa gertatzen zaie emakumeei eta zailtasun hau familiko gazteei ere transmititzen zaie.

Bestalde, egin berriko ikerketek erakusten digute, amen eta jaio berrien osasuna, pisua bereziki, faktore sozioekonomikoen menpe direla. Eta hala pobrezia erreproduzitu egiten da, erreproduzio fisiko eta osasunarenaren bitartez ere.

Pobrezia belaunaldiz belaunaldi erreproduzitzeak eramaten gaitu ohiko pobreziaz mintzatzera. Pobrezia hori ezin hautsizko gurpil ero bat da. Amak pobreak izan dira, alabek antzeko baliabideak jasotzen dituzte, pobreziazko inguru batean gizarteratzen dira eta ezkontza bitartez gizar-tean mogi daitekeela erakusten dien Errauskineren kontakizunak beste ezerk ez die gizarte mailaz aldatzeko aukera erakusten. Alaba gazteek ezkontza ona eginez gero, hauts dezakete belaunaldiz belaunaldi pobreziaekin lotzen dituen katea; mutila berriz, langile ona izatera bultzatuko dute edota negozio onak egitera.

5. *Programatu eta ebaluatzea, generoko berezitasuna kontuan harturik*

Zalantzarik ez dago, gizarteko diagnostikoa partziala izanik, hortik sortuko den programazioa ere osagabea izanen dela eta ez dituela kontuan hartuko gizartearen behar guztiak, ez eta sexuaturiko gizartean ematen diren egoera guztiak ere. Emakumeen desberdintasuna ezkutuan izan den bitartean, inongo eskuhartze ez sozial eta ez politikorik ez da eman egoera hori aldatzeko. Emakumeen mugimenduaren garapena eta azken bi hamarkadotan eginiko gizartearen diagnostikoek erakutsi dute, legearen aurrean emakumeen eskubideak onartu badira ere, eta gure herrialdean Konstituzioak esan badu ere denok garela bere aurrean berdinak, ez dela benetako berdintasuna eman. Mendebaldeko gizarteetan, adostasun handiz seinalatzen da emakumeek gizartean desberdinkeria eta gizonetik bereizkeria pairatzen dutela, eta egoera hau zuzendu egin behar dela.

Estatu modernoaren eskuhartze patriarkalaren azpian datzan ideologiaren alderdi nagusietako bat izan da emakumeak bigarren mailako herritartzat hartzea. Hau horrela da, pentsatzen delako beraien lekua familia dela eta beraien zeregin publikoak bigarren mailakoak direla.

Baina botere publikoen jokaera desberdinkeria mantentzearen bidetik joan arren, eman daitezke ere kontrakoa bilatzen duten bestelako eskuhartzeak, hau da, bereizkeria ezabatzea bilatzen duten eskuhartzeak. Halatan esan dezakegu, genero sozialaren ikuspuntutik interes desberdinak di-

tuzten eskuhartea gerta daitezkeela. Gizarte demokratikoak sendotzeak eta mugimendu feminis-
taren erreibindikazioek behartu dituzte erakunde publikoak beren jokaera berraztertzea.

Sexuen arteko berdintasunak bilatzen du emakumeek gizonen eskubide berdinak ukaitea eta era-
bili ahal ukaitea. Xede horri begiratzen zioten politikak "aukera-berdintasuneko politikak" izan
dira deituak. Administrazioaren eskuhartzeak berdintasuneko egoera bermatu behar du, legezko
mugen bitartez bereziki. Gero emakumeen erantzukizuna da, eskaintzen zaizkien aukera horiek
baliatzea. Horrela esanda horren argi agertzen den hau, gero ez da hain erraza izaten.
EMAKUNDEk dioen bezala "Aukera-berdintasunak ez ditu ondorio berdinak ematen" (9). Esate
baterako, emakumeak hezkuntz sistemara sartzen egin diren aurrerapauso handiekin batera ez da
benetako berdintasuna etorri, ikasketak aukeratzekoan bereizketa gertatzen baita, emakumeak
batez ere emakumeentzako karrera eta lanbideetara zuzenduz.

Bide honetatik garatu diren estrategia interesgarrienak ekintza positibo izenaz ezagun direnak di-
tugu. Hasieran ekintza positiboa ulertu zen, jardun publikoan gizon eta emakumeen kopuruak ore-
katu nahi zituzten neurriak bezala, hala nola kuoten sistema. Baina ekintza positiboaren filosofiak
bere erabilera beste eremu eta beste politika publikoetara zabaltzeko aukera ematen du.

Batzuetan esaten da programazioek ez dietela erantzun bertan harturiko pertsonen asmoei eta ho-
rrexegatik gertatzen dela ezkorra ebaluazioa.

Esate baterako, enpleguko planak garatu eta emakumeak ez direla joaten; erraz pentsa daiteke
halakoetan gizonentzako enpleguak eskaini direla eta emakumeei ez zaizkiela interesatzen.
Alabaina, generoko ikerketa eta diagnostikoa egin ondoren, ikus daiteke zein asmo dituzten ema-
kumeek enpleguari doakionean, lan mota baterako eta kontratu mota baterako gizarteratuak nola
diren. Ikerketa berriek erakusten digute, neskek gizarteratzen direla behin-behineko eta lanaldi mu-
rritzeko kontratuak onartzeko, etxeko lanekin batera eraman ahal ditzaten; ideia hau ez da gizo-
nengan agertzen, etab. Programazioan eskainitako enplegua generoko asmoekin bateratzen saia-
tu beharko litzateke. Jakina da prostitutei beren lanaren ordezkari gaitzak lanak eskaintzen bazaiz-
kie, denbora laburragoan gehiago irabazten dutenean prostituzioan arituz, ez dutela inondik ere
utziko; eta ezin esan daiteke horregatik, ez dutela beste lanik nahi, baizik eta dituzten aukerak
baino aukera hobek eskainiko dizkien lana nahi dutela.

Arazoa da emakumeak esparru publikoan partehartzea baldintzatzen duten elementuak daudela
eta programazioek ez badituzte elementu horiek ikutzen, emakumeak gizarteratzeko eta gizarte
bazterketa gainditzeko ekimenek ez dute atarramendu onik lortuko .

Elementu hauek honakoak ditugu:

1. Emakumeak dira etxeko zereginen arduradun ia bakarrak, horrek eskatzen duen denbora in-
darra eta ardurarekin.
2. Jarduera publikoak gizonezkoen gauzatzen hartuak dira gizartean, eta emakumeak horietara
bigarren mailan edo laguntza moduan joaten dira. Laguntza kontzeptua joan etorriko kontzep-
tua da: gizonek etxean "lagundu" egiten dute, lanaren banaketa sexualean ez zaielako leku

(9) EMAKUNDE. *Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Plana 1991-1994*. Gasteiz, Emakunde, 1991.

hori beraiei eman, eta emakumeek esparru publikoan "lagundu" egiten dute, halaberean ez dagokielako beraiei leku hori.

3. Hirugarren elementua rol sexuatuak egotea da. Rol horiek aldatu egin behar dira, emakumeak, orain arte gizonezkoenak kontsideratzen ziren zereginetan arituko badira. Rol horiek gizarteak baloratzen dituen modua aldatzea litzateke lehen urrats garrantzitsua.

Halatan beraz, aukera-berdintasunaz gain, emaitzen berdintasuna ere lortu nahi bada, aurrera eramane behar diren politikek eta hortaz programazioek eta ekintza planek ere, askoz konplexuagoak behar dute izan. Saiatu behar dute eskuhartzen eragina duten elementu guztien gainean: lanaren sexu banaketa, gizarte rolak eta gizartearen balorazioak.

Erakutsi dugu nola planifikatzerakoan ezin den biztanleria abstraktuan hartu, gizon eta emakumengan pentsatu gabe, bereziki gizarte berdintasuneko irizpideak eta helburuak erabiltzen badira. Ekintza positiboko politika hauek ez dituzte botere publikoek soilik garatuko, baina baita ere gizarte erakunde eta mugimenduek.

5.1. GIZARTE ZERBITZUEN ESKUHARTZEA

Baldin eta gizarte generoak kontuan hartzen ez badira, eskuhartzean joera sexista mantendu egiten da.

Gizartearen diagnostikoa partziala izan bada, programazioak egiterakoan gizonezkoen itxura duen familiarentzat egiten dira, eta eskuhartzea horren arabera izanen da ere.

Halatan, adibide baterako, ikusten dugu geure herrialdean gizonak babes soziala duen enplegurantz gidatzen dituztela eta emakumeak berriz oinarriko errentetarantz, eta gerora lortzen diren estatistiketan argi agertzen da joera desberdin horiek. Gizonezkoak enplegura eta emakumeak diru laguntzetara zuzentzeak, ohiko rol sexualak mantentzera zuzenduriko eskuhartzea erakusten du, rol horiek zalantzan jartzen ez dituen eskuhartzea, alegia.

Era berean, gizarte bazterketa arintzera zuzenduriko politikak familientzat pentsatzen dira, baina famili horiek pentsatzen dira gizonezkoa harturik taldearen mantenuaren eta produkzioaren arduraduntzat. Emakumea buruan duten familiak hartzen dituzte, eskuhartu behar deneko emakumeen pobrezia mota bakartzat, alde batera utzirik emakumeek jasaten dituzten pobrezia bestelako egoerak, hala nola: familia pobreaken barruan emakumeak bizi dituen berezitasunak, pobrezian bizitzeko edota hortatik ateratzeko emakumeak antolatzen dituen estrategiak eta prozedurak, familia pobretzat edo baztertutat hartua ez bada ere, emakumea bere aldetik harturik pobre edo baztertua bizi denean, pobrezia berriko egoerak bizi dituzten emakumeak: senarrak birmoldaketa jasan duelako, banantzeagatik edo dibortziatzeagatik bazterturik gelditzen diren emakumeak, bai eta banantze edo dibortziatze prozesuak uzten dituzten emakumeak, bide hartatik jarraituz gero pobrezia eta bazterketa garrantza letozkielako, eta abar luzea.

Ondorio gisa esan dezagun genero biek gizartean dituzten egoerak kontuan hartuko dituen azterketa egin beharra dagoela, gizarte egoera osoa kontuan hartuko duten diagnostikoak egin nahi badira, eta ez gizartearen alde bakarrarena soilik. Halatan programatu eta eskuhartu ahalko da, generoko eraiketa desberdinak dituzten pertsonengan pentsatuz eta ez familietan. Programazio

eta eskuhartze horiek, sortzen ari diren generoko rol berriei errespetua gordez, ohiko rolak gizartean aldatzen lagundu behar dute, zeren eta rol horiek, finkaturiko generoen sisteman emakumeek historian zehar beti ukan duten egoera txarragoa iraurarazten baitute.